



2013
58, 2

EUSKERA

2013
58, 2

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque
Work and Proceedings of the Royal Academy of the Basque Language

EUSKERA



18 €

Euskera 2013, 58, 2, 366 - 956, Bilbo. ISSN 0210-1564

E U S K E R A



2013
58, 2
BILBO
ISSN 0210-1564



EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
Telefonoa: 94 415 81 55 • Faxa: 94 415 81 44
e.posta: info@euskaltzaindia.net • web gunea: www.euskaltzaindia.net

Aldizkari hau beste agerariekin trukutzen da
Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones
Cette revue s'échange avec d'autres publications
This journal can be exchanged for others by agreement

Testuen hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 0210-1564

Lege Gordailua: BI-1244-58

Diseinua: www.ikeder.es

Preinpresioa: Composiciones Rali, S.A.
Particular de Costa, 8-10. 48010 Bilbo

Inprimategia: Imprenta RGM, S.A.
2014ko azaroan inprimatua

«Euskera» Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da eta 1920. urtetik argitaratzen da. Urteko lehen zenbakiak, Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen ditu (sarrera-hitzaldiak, hizkuntzalarauak, jardunaldiak, etab.), eta bigarrenak, Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen ditu.

Euskerako artikuluak banan banan katalogatzen eta indexatzen dira Azkue Bibliotekaren katalogoan (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) eta erakundearen web guneko bilatzaile berezi batean (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>), aldi berean formatu digitalean eskainiz. Orobat, Inguma (<http://www.inguma.org>), Dialnet (<http://dialnet.unirioja.es/>), ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) datu-baseetan eta Latindex katalogoan (<http://www.latindex.unam.mx/>) jasotzen dira.

Granadako Unibertsitateak (<http://ec3metrics.com/circ/>) 2012an egindako aldizkari zientifikoaren sailkapenean B maila esleitu zitzaion.

La revista *Euskera* es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y se publica desde 1920. Publica dos números al año, de los cuales el primero recoge los trabajos y actos académicos de Euskaltzaindia (discursos de ingreso, normas lingüísticas, coloquios...), mientras que el segundo se dedica a publicar artículos de investigación originales en los varios ámbitos de trabajo de la Academia, reseñas de libros y similares.

Los artículos de *Euskera* son catalogados e indexados en el catálogo de Azkue Biblioteca, la biblioteca de la Real Academia de la Academia de la Lengua Vasca (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) así como en un buscador específico disponible en su página web (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>), donde además se ofrecen en formato digital. Asimismo se recogen en las bases de datos Inguma (<http://www.inguma.org>), Dialnet (<http://dialnet.unirioja.es/>), ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) y en el catálogo Latindex (<http://www.latindex.unam.mx/>).

En la Clasificación de Revistas Científicas Integradas (CRIC) realizada en 2012 por la Universidad de Granada (<http://ec3metrics.com/circ/>), se le adjudicó la categoría B.

La revue *Euskera* est la publication officielle de l'Académie de la Langue Basque / Euskaltzaindia, elle paraît depuis 1920. Elle publie deux numéros par an, dont le premier rassemble les travaux et activités académiques d'Euskaltzaindia (discours d'intronisation, normes linguistiques, colloques...), tandis que le deuxième publie des articles originaux de recherche portant sur différents domaines de travail de l'Académie, comptes rendus de livres et similaires.

Chaque article d'*Euskera* est répertorié et indexé dans le catalogue de la bibliothèque Azkue, la bibliothèque de l'Académie de la Langue Basque (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) ainsi que dans un moteur de recherche spécifique disponible sur son site Web (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>), où ils sont également proposés au format numérique. Par ailleurs, ils sont enregistrés dans la base de données Inguma (<http://www.inguma.org>) et Dialnet (<http://dialnet.unirioja.es/>), ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) et dans le catalogue Latindex (<http://www.latindex.unam.mx/>).

Dans la Classification des Revues Scientifiques Intégrées (CRIC) réalisée en 2012 par l'Université de Grenade (<http://ec3metrics.com/circ/>), elle apparaît dans la catégorie B.

Euskera is the official journal of the Royal Academy of the Basque Language/*Euskaltzaindia* and has been published since 1920. The first issue of the year reflects the work and academic activity of *Euskaltzaindia* (induction speeches, language rules, symposia etc...), while the second is dedicated to publishing original research articles in the various areas of the Academy's work, book reviews and the like.

Euskera articles are catalogued and indexed in the catalogue of the Basque Language's Azkue Library, (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) as well as on a specific search engine available on its website (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>), where they are also provided in digital format. They are also held on the Inguma (<http://www.inguma.org>) and Dialnet (<http://dialnet.unirioja.es/>) databases, ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) data-bases and on the catalogue Latindex <http://www.latindex.unam.mx/>.

In the classification of scientific journals carried out by the University of Granada (Spain) (<http://ec3metrics.com/circ/>) in 2012 this journal was assigned to group B.

EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA



IDAZKETA KONTSEILUA

Zuzendaria: ANDRES URRUTIA. Euskaltzaindia. Bilbo

Idazkari akademikoa: ANA TOLEDO. Euskaltzaindia. Donostia

Idazkari teknikoa: JON ARTZA. Euskaltzaindia. Bilbo

ADOLFO AREJITA.
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JEAN-BAPTISTE COYOS.
Iker (C.N.R.S., Bordele 3, UPPA). Baiona

JOSEBA ANDONI LAKARRA.
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANDONI SAGARNA.
Euskaltzaindia. Donostia

PATXI SALABERRI.
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

MIKEL ZALBIDE.
Eusko Jaurilaritza, Hezkuntza Saila. Gasteiz

AHOLKU BATZORDEA

MIXEL AURNAGUE
CNRS, J. Jaurès Unibertsitatea. Tolosa, Okzitania.

MIREN AZKARATE
Euskaltzaindia. Donostia

JOXE AZURMENDI
Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia

MARTINE BERTHELOT
Perpignango Unibertsitatea. Perpignan

XARLES BIDEGAIN
Paueko eta Aturri herrialdeetako Unibertsitatea. Baiona

JOSU K. BIJUESCA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

GIDOR BILBAO
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

IÑAKI CAMINO
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANA ETXAIDE
Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea

JOSE RAMON ETXEBARRIA
Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo

MAITE ETXENIKE
Universitat de València. Valentzia

PATXI GOENAGA
Euskaltzaindia. Gasteiz

RICARDO GOMEZ
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

MANUEL GONZALEZ
Real Academia Galega. Coruña

MARTIN HAASE
Bambergo Unibertsitatea. Bamberg

† JEAN HARTIXELHAR
Bordeleko Michel de Montaigne Unibertsitatea. Baiona

JOSE IGNAZIO HUALDE
Illinoiseko Unibertsitatea. Illinois

ITZIAR IDIAZABAL
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

XABIER ITZAINA
CNRS, Centre Emile Durkheim,
Sciences por Bordeaux. Bordele

JOSEBA INTXAUSTI
Euskaltzaindia. Donostia

IÑAKI IRAZABALBEITIA
Elhuyar Fundazioa. Usurbil

JACINTO ITURBE
Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa

JABIER KALTZAKORTA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JON LANDABURU
CNRS, Paris. Kolombiako Kultura Ministerioa

ALBERTO LOIZATE
Basurtuko Ospitalea. Bilbo

JUAN MADARIAGA
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

JOAN MARTÍ
Institut d'Estudis Catalans, Secció Filològica. Bartzelona

ENEKO OREGI
Eusko Jaurilaritza. IZOko burna. Gasteiz

JON ORTIZ DE URBINA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

ROSA MIREN PAGOLA
Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JOSE ANTONIO PASCUAL
Real Academia Española. Madril

TXOMIN PEILLEN
Euskaltzaindia. Baiona

IBON SARASOLA
Euskaltzaindia. Donostia

JOAN MARI TORREALDAI
Euskaltzaindia. Donostia

MIRIAM URKIA
UZEI. Donostia

JUAN JOSE ZUBIRI
Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

Batzorde teknikoa: PRUDEN GARTZIA (Euskaltzaindia. Bilbo).

Aholkulariak: JOSEBA ZABALETIA eta ERRAMUN OSA (Euskaltzaindia. Bilbo).

EUSKERA

AURKIBIDEA

EUSEBIO MARIA AZCUEREN JAIOTZAREN BIGARREN MENDEURREN-JARDUNALDIA:

[375-376] *Sarrera*

[377-393] *Eusebio Maria Azcueren bizitzari buruzko zertzelada berriak*
Kortazar, Jon

[395-432] *Parnasotik Euzkadia-ra. Eusebio M. Azkueren poesiagintza eta
nazio identitatea*
Bijuesca, K. Josu

[433-483] *Eusebio Maria Azkueren nortasunaz eta harreraz argitasun
batzuk. Harenak ote dira «Carlistenac» bertsoak?*
Altzibar Aretxabaleta, Xabier

EUSKAL LITERATURAREN HISTORIOGRAFIARI BURUZKO II. JARDUNALDIA:

[487-488] *Aurkezpena*
Toledo Lezeta, Ana M.

[489-514] *Aldiak mugatuz euskal literaturan: eredu bila*
Toledo Lezeta, Ana M.

Euskera. 2013, 58, 2. 369-371. Bilbo
ISSN 0210-1564

- [515-556] *Gudaosteko euskal poesiaren antologiak. Poetikak eta irakurketa soziokulturalak*
Otaegi Imaz, Lourdes
- [557-575] *Euskal literaturaren periodizazioa. Guneitsuak eta eskasak*
Casenave, Jon
- [577-608] *Euskara eta vascuence hitzen adiera metriko-poetikoaz: katebegi ostenduak, aroen mitoa eta periodizazio irizpideak euskal literaturaren historian*
Bijuesca, K. Josu
- [609-627] *Literatur historia postnazionala: Mende-genero-belaumaldi-autore zatiketaren ideologia filologiko hilaren ondoko historiografiaz*
Gabilondo, Joseba

BESTE IKERKETAK:

- [631-686] *Intertestualitatea abiaburu: Haranburu Materreren harrobian*
Salaberri Muñoa, Patxi
- [687-719] *Literatura Unibertsala bildumako hitzaurreen azterketa*
Ibarluzea, Miren
- [721-751] *Modernismoaren zantzuak Antonio Arrutiren poesian*
Gurrutxaga Muxika, Alexander
- [753-783] *Genero eta sexuaren berridazketa: Itxaro Borda eta polizia eleberrien kasua*
Lasarte, Gema
- [785-802] *Sobre el topónimo Guillarte (Gillarte)*
Mugurutza, Felix
- [803-863] *Estudio lingüístico-histórico del nombre Berantevilla*
González de Viñaspre, Roberto

OHARRAK:

[867-872] *Hommage à Jon Mirande (1925-1972) organisé à la Mairie de Mauléon le samedi 19 janvier 2013 par l'Académie de la Langue Basque et la Mairie de Mauléon*
Christian Angelié

[873-919] *Teatrogileek teatroaz. Maite Agirre, Antton Luku eta Ander Lipus*
Valverde, Jaime

IKERKETA ARTIKULUEN EGILEAK

* * *

[931-934] Aurkibidea / Índice / Index, 2012

* * *

[937-940] *Euskera* agerkariaren idazketa arauak

[941-944] Normas de redacción de la revista *Euskera*

[945-948] Normes de rédaction de la revue *Euskera*

[949-952] Writing guidelines for the journal *Euskera*



Eusebio Maria Azcueren jaiotzaren bigarren mendeurren- jardunaldia

Lekeition, 2013ko irailaren 20an

Euskera. 2013, 58, 2. Bilbo
ISSN 0210-1564



Sarrera

Irailaren 20an, Lekeitioko Udalak eta Euskaltzaindiak Eusebio Maria Azkueren omenezko jardunaldia egin zuten Lekeition, haren jaiotzaren bigarren mendeurrenaren harira.

Jardunaldia Akademiaren Literatura Ikerketa batzordearen ekimenez antolatu zen eta hauek izan ziren hizlariak: Jon Kortazar, «Eusebio Azkueren poesiaren bidetik»; Josu Bijuesca: «Parnasotik *Euzkadia*-ra. Eusebio M. Azkueren poesiagintza eta nazio identitatea»; eta Xabier Altzibar: «Zein dira eta zein ez E. M. Azkueren bertsoak?». Sarrera-hitzak Xabier Arrate Lekeitioko Euskara zinegotziak esan zituen, eta agur-hitzak Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Euskera agerkariko zenbaki honetan, ekitaldiaren nondik norakoak azaltzen dituen sarrera honetaz gain, Jon Kortazar, Josu Bijuesca eta Xabier Altzibarren hitzaldiak bildu, osatu eta ikerketa artikulu gisa argitaratu dira.

Eusebio Maria Azkue jaio zela berrehun urte betetzen diren honetan, haren bizitza eta lana izan zituen hizpide Jon Kortazarrek. Aurkeztu zuen lanaren xede nagusia hau izan zen: bere bizitzari buruz dakiguna errepasatzea, zuzentzea eta osatzea, bere garaiko dokumentazioari helduta.

Josu Bijuescak gogora ekarri zuenez, «XIX. mendean euskal naziotasunaren ideiak toki zabala bete zuen politikari, kazetari, idazle edota pentsalarien artean. Euskal Herri penintsularrari dagokionez, esan izan da XIX. mendeko euskal identitatearen osagaiak ondorengoak direla: foruak,

fedea katolikoa, historia berariazkoa, euskara eta abertzaletasun bikoitza (alegia euskal abertzaletasuna eta espainola)». Bijuescaren esanetan, Eusebio Maria Azkueren poesiagintzak ondo erakusten ditu euskal identitatearen alde horiek guztiak, beraren bertso sailetan arakaturaz gero.

Xabier Altzibarrek «Zein dira eta zein ez E. M. Azkueren bertsoak?» izeneko hitzaldia eskaini zuen. Eusebio M. Azkueren bi alderdiri buruz mintzatu zen Xabier Altzibar. Lehen partean Eusebioren biografiari eta obrari dagozkion argitasun batzuk eman zituen, Lekeitioko Nautikako Eskolan hark eginiko lanaz (1862-1873), eta baita bere familiaz zuen arduraz ere.

Bigarren partean, hizlariak adierazi zuen kontuan hartu behar dela Eusebio Maria Azkueren eskuizkribuak sakabanatu zirela, «eta behintzat galdetu behar dela zein diren haren olerkiak. Adibidez, ea harenak diren *Carlitenac* bertsoak, Uriartek bilduak eta Eusebio Mariari egotzi zizkionak». Altzibarren ustez, bertso horiek ez dira Eusebio Maria Azkuerenak, «kontuan hartuta enuntziazioa, noizkoa den, eta baita hizkuntza, estilo, topiko literario eta metrika xehetasun batzuegatik. Bertso horiek Bizenta Mogelenak dirateke». Bestalde, hizlariak Bizenta Mogel eta Eusebio Maria bizkaierazko poeta edo bertsoegileen tradizioan kokatu zituen, gabon-kanten eragina eta haien joera morala azpimarraturaz.

Amaieran, Andres Urrutiak agur-hitzak esan zituen. Gogoan izan zuen Jean Haritschelhar zena, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa batzordearen burua eta euskaltzainburu ohia, eta Eusebio Maria Azkueri buruz ere hitz batzuk esan zituen. Bere esanetan, «aitzindari» izan zen euskara eta euskal kultura zabaltzen.

Eusebio Maria Azcueren bizitzari buruzko zertzelada berriak¹

Nuevos apuntes sobre la vida de Eusebio Maria Azkue

Nouvelles notes sur le vie d'Eusebio Maria Azkue

New details of Eusebio Maria Azkue's life

KORTAZAR, Jon
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV)

Noiz jaso: 2014-02-08

Noiz onartua: 2014-04-28

1 Lan hau Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen IT 851/13 Ikerketa proiektuan kokatzen da.

Artikulu honetan Eusebio Maria Azcue (Lekeitio, 1813-1873) idazlearen bizitzari buruzko berriak aurkezten dira. Artxibategietan lana egin ondoren dokumentu ezezagunak aurkezten zaizkio irakurleari eta ikerlariari. Batez ere, Bizkaiko Foru Artxibategia eta Bermeo, Mundaka eta Lekeitioko Udal Artxibategiak arakatu dira. Alaba ezezagun baten berri emateaz gain, artikuluan bere bizitza pribatuari eta profesionalari buruzko notizia berriak ematen dira ezagutzera. Haren poesiak utzitako ekarpena aztertuz bukatzen da lana.

Hitz-gakoak: Eusebio Maria Azcue, Biografia, Nautika Eskolak, Poesia erromantikoa.

En este artículo se dan noticias de la vida de Eusebio Maria Azcue (Lekeitio, 1813-1873). Tras documentarse en los archivos, se presentan documentos inéditos al lector y al investigador. Esta labor de documentación se ha llevado a cabo básicamente en el Archivo Foral de Bizkaia y en los Archivos municipales de Bermeo, Mundaka y Lekeitio. Además de dar noticia de una hija desconocida hasta ahora, se dan a conocer aspectos inéditos de la vida privada y profesional de él. El artículo finaliza estudiando la aportación de la poesía de Eusebio Azcue.

Palabras clave: Eusebio Maria Azcue, Biografía, Clases de Náutica, Poesía romántica.

Cet article nous donne des informations sur la vie d'Eusebio Maria Azcue (Lekeitio, 1813-1873). Après des recherches dans les archives, des documents inédits sont présentés ici au lecteur et au chercheur. Ce travail de recherche documentaire a été mené principalement aux Archives Forales de Biscaye et aux Archives municipales de Bermeo, de Mundaka et de Lekeitio. Il parle d'une fille inconnue jusqu'ici et montre des aspects inédits de la vie privée et professionnelle d'Eusebio Maria Azcue. L'article étudie en fin l'apport de la poésie d'Eusebio Azcue.

Mots-clés: Eusebio Maria Azcue, Biographie, Cours de Navigation, Poésie romantique.

Information is provided on the life of the author Eusebio Maria Azcue (Lekeitio, 1813-1873). As a result of archival research, previously unpublished documents are presented to the reader and researcher. The research has been carried out primarily in the Biscay Foral Archives and in the municipal archives of Bermeo, Mundaka and Lekeitio. As well as informing of a daughter whose existence was unknown until now, new information is provided on various aspects of his private and professional life. The article ends with a study of the contribution made by Eusebio Azcue's poetry.

Keywords: Eusebio Maria Azcue, Biography, Navigation classes, Romantic poetry.

Eusebio Maria Azcue edo Eusebio Maria de los Dolores Azcueren (Lekeitio, 1813-1873) bizitzari buruz dakiguna berrikustea, zuzentzea eta osatzea da lan honen helburu nagusia.

Bizkaiko Artxibo Foralean lau dokumentu daude Eusebio Azcueri buruz, eta laurak ardatz gisa hartuta eraman lan hau. Dokumentu gehienak Tribunaletako atalean aurkitzen dira eta, beraz, nahi eta nahi ez, horien bidez pertsonari buruz hartzen den irudia ez da oso atsegina izaten. Lau horietatik bi dira zehazki Tribunaletakoak eta Eusebio Azcuek izan zituen arazoen berri ematen digute.

1. Deustuko Udalak hartzen duen berria 1849an. Eusebio Azcue eta Nautika irakaskuntza

1849. urteko apirilaren 23an Hezkuntza Publikoko Zuzendaritza Orokorak jakinarazten dio Deustuko Udalarari Agustin Urrutiak Eusebio Azcuek beste eskubide duela eta, beraz, gai dela Udaleko Nautika Eskoletan irakasteko.

Dokumentua berria da, eta zerbait esaten du Eusebio Azcueren bizitzari buruz. Ez dakigu nor zen Agustin Urrutia, baina badirudi Azcueren mailak zerbait adierazten zuela. Agian adiskideak ziren Urrutia eta Azcue, eta hark Azcueren esperientzia erabili zuen lanpostua lortzeko, jakina baita Azcuek bere ibilbidean hiru herritan eman zituela Nautika eskolak. Literatura munduan gabiltzanok ez, baina historiagileek, batez ere Gonzalo Duo ikerlariak (2001), emanda zuen datu garrantzitsua, Eusebio Azcuek curriculum bi aurkeztu zituela: bata, 1842. urtean Bermeoko Eskolan lan egiteko eta, bigarrena, hogeitau urte geroago, 1862. urtean, Lekeitioko Nautika Eskolarako eskaria egin zuenean.

1842ko curriculum, Zamudion 1842ko abenduaren 6an sinatua, Bermeoko Artxiboan ikusteko beta izan dugu. Aitorpen horrek datu hauek uzten ditu agerian (Duo, 2001, 88-91, eta BUA-992):

a) Gaztelera ongi menderatzen du: «Conocimientos exactos de Gramática castellana». Matematika-ikasketak ere baditu, kalkulu diferentziala eta

integrala, Bilboko Kontsulatuaren eskolan eginak: «se dedicó á las Matemáticas en el Iltr. Consulado de Bilbao». Ez dira aipatzen Bilboko San Franzisko komentuan egindako latin eta filosofia ikasketak, baina datua Resurreccion Azkue semeak aipatua duenez, ontzat eman beharra dago (PB, 5); dena dela, oker dabil Azkue esaten duenean laster joan zela sendia Zamudiora bizitzera. Azcue Barrundia familiaren seme-alaben bataio tokiak aintzat hartuz gero, 1818an Bakion bizi zen familia eta 1825ean Zamudion, urte horretan bataiatu baitzuten Domingo Bernabé semea eta 1827an, berriaz, Josefa Ygnacia Margarita alaba. Hurrengo urteetan ere izan zituzten seme-alabak: 1830ean eta 1832an. Saiatu gara familia aurkitzen 1827ko Errolda poliziala deiturikoan, baina ez dugu aurkitu ez Zamudion, ez Bilbon, eta ez Lekeition ere. Garai horietan Azcue zenbait gazteren irakaslea izan zen: «en las que tiene también el honor de haber instruido a varios jóvenes».

b) Segundo Olabarria irakaslearekin Nabigatzeko Artea edo Pilotajea ikasi zuen eta bidaien ondoren, «Hirugarren Pilotu» titulua zuen: «Tercer Piloto de la carrera de ambas Américas y de Europa». Horrek esan nahi du itsasoan ibili zela, baina ez du berez adierazten bidaiak luzerik egin zuenik, edo hori zuenik ogibidea: «y después de los correspondientes viajes en clase de agregado á Pilotos para perfeccionarse en la práctica». Ikasketa bidaiak izan ziren, pilotu izateko ikasketez gainera, praktikak egin behar zirelako. Horrek berez ez du esan nahi itsasoak urratzen ibili zenik.

c) Irakaslea kontratatzekeo deia Bizkaiko Aldizkari edo Buletinean agertu zen 1842ko ekainaren 10ean. Iragarkian, 3.300 erreal kuarto eskaintzen zen soldata moduan irakaslearentzat.

d) Eskariaren ondoren kontratu eskritura gorde da Bermeoko Artxi-boan, eta horretaz Gonzalo Duok ez du ezer zehaztu. Kontratuan garbi adierazten da zein izango diren irakaslearen lanak: kontratua bost urtetarako zen; lana, otsailaren 1etik 1848ko otsaila arte; soldata, 300 dukatekoa; bost jakintzagai irakatsi behar zituen: Aritmetika, Geometria, Trigonometria, Kosmografia eta Pilotajea; ikasketa orduak, hauek: neguan, bederatzietatik hamaika eta erdietara, eta ordu bietatik lauretara; udan, berriaz, zortzietatik hamaika eta erdietara, eta hiruretatik bost eta erdietara; Císcarren eskuliburua zen oinarrizko eta derrigorrezko testua, baina onartu zen metodo la-

burtua erabiltzea; Azcuek hilero eman behar zuen ikasleei buruzko informea; Bermeon jaiotakoek ez zuten ezer ordainduko eta Azcuek ezin zien dirurik eskatu, baina bai, aldiz, kanpokoei; gaixorik egonez gero, ordezkoa Azcuek bilatu eta ordaindu beharko zuen, baina gaixotasuna betiko izan balitz, lanpostua hutsik geratuko zen eta deialdi berria egingo zuen Udalak. Aipatu behar da Udaleko burua Juan Ángel Yradi konstituzionala zela eta Azcue, berriz, karlista ezaguna; hala ere, plaza lortu zuen.

e) Eskolak Bermeoko frantziskotarren komentuan ematen ziren. Beraz, oso erraza izan zen Jose Antonio Uriarteren eta Eusebio Azcueren arteko harremana. Eliza erlijio kulturako gorde zen, baina fraideen etxea Nautika Eskolarako erabili ohi zen. Datu hori oso garrantzitsua da, zeren esan baitezakegu une horretan hasi zuela harremana Jose Antonio Uriarte fraide eta idazlearekin, eta bere poema batzuk 1860tik 1862ra bitartean sinatuak agertzen badira ere, une horretan ekin ziola poesia idazteari. Beraz, orain arte uste zenaren aurka, pixka bat lehenago jarri beharko genuke haren poesia lanaren hasiera, «Pio IX eta Napoleon III» poemetan, adibidez, 1848 eta 1850 artean gertaturiko ekintza historikoak aipatzen ditu. Ondoriozta dezakegu orduantxe hasi zela Eusebio Azcue poesia idazten, gutxi gorabehera 1850. urtearen inguruan, eskuizkribuan jartzen duen 1861. urtera arte, salbuespenekin (Astigarraga, Bijuesca, 1990, 29 eta 15 poema datatuak aipatzeko orduan).

f) Artxiboan badira Azcuek Udalari bidalitako hainbat eskari: adibidez, eskatu zuen eskola kokatzea presondegi izandako aretoan; ludi globo bi hartu izana ere bermatu zuen beste batean.

g) Badirudi 1843. urtean Eusebio Azcue Bermeon bizi zela, han bataiatu baitzuten lehen alaba, Sofia, 1843. urteko abenduan, orain arte inon aipatu ez bada ere. 1849. urtean jaiotako Carolina, berriz, Mundakan bataiatu zuten. Ez dugu aurkitu noiz eta non jaio zen Alfonso Maria semea, baina badirudi 1845. urtean jaio zela Bermeon, Sofia bezala.

Yradik (1983) ikasleei buruzko zenbait berri eman zuen. Adibidez, 1843. urtean 20 ikasle izan zirela diosku, eta gaiak Aritmetika, Geometria, Kosmografia eta Pilotajea zirela. Badakigu, baina, bost gai eskatu zizkiotela Azcueri.

1844. urtean, aurreko urteko zazpi ikasle ziren eta beste 15 berri matrikulatu ziren. Azcuek lehen ikasturtean 21 ikasle aipatu zituen eta, azkena, Gonzalo Duok haren semetzat eman duen Juan Julián izan omen zen. Bada Zamudion jaiotako Juan Francisco Azcue Zalbidegoitia bat, ez Juan Julián, 1820. urtean jaioa eta 1847. urtean Bilbon ezkondu zena. Agian hauxe da ikaslea, 21 urte askotxo izan arren Nautika Eskoletan hasteko, eta Azcueren senidea dela dirudi, zerbait izatekotan, baina ezin da semea izan.

Erabili ohi zuten eskola liburua Gabriel Císcar (1769-1829) tenientearen *Tratado de navegación* zen. Izenburu zehatza, halere, hau zen: *Curso de estudios elementales de marina, compuesta de cuatro partes: aritmética, geometría, cosmografía y pilotaje*. Hartatik Bermeoko Nautika Eskolan jorratzen ziren lau gai nagusiak, baina ikasle guztiek ez zuten hori lantzen, baizik eta metodo laburtu bat.

Autobiografian, edo curriculumean, esaten denez, Eusebio Azcue Bermeoko Eskolako irakaslea zela joan zen Ferrolera –eta datu hau ere berria da– 1843. urteko ekainean, eta orduantxe lortu zuen irakasle titulua:

Habiendo pasado a Ferrol en el mes de junio de 1843 a ser examinado de Maestro, obtuvo en el examen la calificación de sobresaliente (Duo, 2001, 122; LUA).

1843. urteko Errege Agindu batek eskolak emateko moduak aldatu zituen eta Eusebio Azcuek ez zituen betetzen arau berriak. 1846. urtetik aurrera, soilik Ferrolen, Bilbon eta Donostian egindako ikasketak onartzen ziren Nautika irakasle izateko. 1828an jada, Bermeon, Azcueren irakasle izandako Segundo Olabarriak bazituen arau berriak eskatzen zituen tituluak eta, beraz, 1848tik aurrera bera izan zen Bermeoko Nautika Eskolako irakaslea. Kontratu berria sinatu zen unean, Udalak baldintza berriak eta araudi oso zehatza ezarri zuen, eskolako irakaskuntza egunak, orduak eta eskola lanak aipatuz (Duo, 2001, 91-93).

1848. urtean, bada, Eusebio Azcuek Bermeoko Nautika Eskola utzi egin behar izan zuen eta halaxe heldu zen Mundakako Nautika Eskolara. 1862ko curriculum vitae-ri esker jakin badakigu, Azcue «Caballero condecorado con la Cruz militar de primera clase de San Fernando» zela. Datu horrek adierazpen bi behar ditu. Hain garrantzitsua izan den Gurutze hori ez zuen

aipatu lehen curriculumean, eta egia balitz, horrek adieraziko luke Gerrate Karlistan parte hartze berezia izan zuela, inondik inora ez «behartua», Eusebio Erkiagak adierazi duen moduan.

Bermeoko kontratua bukatu ondoren, Mundakako lehen ikasturtean 42 ikasle izan zituen 1848an. Mundakako Nautika Eskolan irakasle zen Miguel Joaquín Goldaracena justu urtebete lehenago hil zen, 1847an. Horra hor aldaketaren balizko bigarren arrazoi bat.

Mundakako Eskolak hiru urte iraun zituen Gonzalo Duoren ustez. Beraz, 1851. urtean amaitu zuen bere ibilbide ofiziala, baina ez da horrela. Mundakako Udaleko artxiboan badira ondorengo urteetako berriak eta agiriak.

Hiru urteon ondoren, Mundakako Udalak erabaki berriak hartu zituen, zeren irakaskuntza legedia berriro aldatu zen, eta 1851. urte osoan Nautika Eskolaren jarraipena lortzeko asmotan ibili zen. Halaxe, Eskolaren iraupena 1851ko uztailaren 27an berretsi zen:

Se leyó una comunicación del Sr. Gobernador de esta Provincia [...] se ha dignado acceder a la solicitud de este Ayuntamiento y varios otros límites, concediéndole la continuación de la Escuela de Náutica en los términos que lo solicita (MUA, 1851-07-27).

Eusebio Azcuek eskola pribatuak eman zituen Mundakan harik eta Lekeitioko Nautika Eskola sortu zen arte, 1862. urtean. Baina Mundakako Udaleko agirietan besterik ere agertzen da. 1851. urtean Eskolaren iraupena lortu ondoren, bera zen hango irakaslea:

La municipalidad animada de los mismos deseos [irakasleak izendatzeko gogoz] y conviniendo en la urgencia del caso unánimemente nombraron por profesores propietarios a D. Eusebio Azcue maestro de náutica que actualmente explica en esta Anteiglesia y a D. Manuel Sagredo maestro de primeras letras de este pueblo (MUA, 1851-08-05).

Mundakako Nautika Eskolaren funtzionamenduaren berri Gonzalo Duok eman du, eta horretarako Plentziak eskola izateko egin zuen eskari batean oinarritu da, bertan Mundakakoaren egituraren deskribapena egiten baita. Maisu bi ziren: bata, maisu elementala, eta 2.000 erreal irabazten zi-

tuen; bigarrenak, ordea, eta hori Azcue zela pentsa dezakegu, lehen urtean Aritmetika eta Aljebra irakasten zituen, bigarren mailan Geometria, Trigonometria eta Marrazki geografikoa, eta hirugarrenean Fisika, Kosmografia, Pilotajea eta Marrazki hidrografikoa.

Mundakako Nautika Eskolaz badira zenbait berri txiki Mundakako Udal agiritan: zer zegoen eskolan («existen los globos y esferas compradas para la última [Nautika Eskolarako]» MUA, 1852-01-25); zer behar zuten («Se compre el encerado que falta en náutica» MUA, 1852-02-01).

Baina laster arazoak ospindu egin ziren eta Udalaren eta Azcueren arteko iskanbilaren berri ematen dute agiriak:

a) Dirudienez, urte horretako otsailean Azcuek eskari batzuk gogor bidali zituen udalera:

En vista de los términos poco comedidos y falta de respeto que se ve en dichas comunicaciones por el maestro D. Eusebio María de Azcue, unánimemente aprobaron cuanto ha dispuesto la comisión y ordenó que de todo se de cuenta a la superioridad a los fines oportunos (MUA, 1852-02-15).

b) Udalak soldata barik utzi zituen maisuak:

Y se dice sea copia de las remitidas, excluyendo (sic) de él [urteko aurrekontutik] los cinco mil reales de los maestros de náutica (MUA, 1852-03-07).

c) Udalak zalantzan jarri zuen maisuen gaitasuna eskola horiek emateari zegokionez:

Se aprobaron los presupuestos de 1853 con la condición de que si los maestros de náutica de esta puebla no estaban revestidos de título suficiente para explicar las materias que se han encargado, se excluya del indicado presupuesto el sueldo de estos (MUA, 1852-03-14).

d) Badirudi Azcuek eskola partikularrak emateko Udalak eraturiko gelak erabili zituela, nahiz ez dagoen garbi bera ala Sagredo zen erabiltzen zituena:

Se dio cuenta de las diligencias practicadas con el maestro de náutica sobre que este no ocupe el local con lecciones particulares (MUA, 1852-05-09). Se dio cuenta del oficio del Sr. Gobernador acerca de que el maestro de náutica no ocupe el local con lecciones particulares (MUA, 1852-07-04).

e) Udalak zor berezia eskatu zion Eusebio Azcueri, urtean irabazten zuen herena baino gehiagokoa:

Se dio cuenta del oficio [...] que le han pasado los maestros pidiendo que se les pague el sueldo devengado en el último curso, y enterados, decretaron: que se les pague desde luego lo que piden, pero descontando a D. Eusebio María Azcue los mil cien r. que debe a la Anteglesia desde primero de setiembre de 1.848, y las retribuciones que ha cobrado de los matriculados forasteros como perteneciendo al común (MUA, 1852-10-31).

1852. urtean Nautika Eskola lekuz aldatu zen. Nesken ikasgelan eman ziren eskolak, udaletxearen barnean, eta azarotik aurrera, ganbara egokitu zuten zeregin horretarako (MUA, 1852-07-04/ 1852-07-24). Laster, zalan-tza sortu zen herrikoez eta kanpokoek berdindatu behar zuten ala ez, eta garbi ikusi zen araudi berria beharrezkoa zela (MUA, 1852-12-03). 1854. urtean Udalak arazo larriak zituen maisuen soldatak ordaintzeko, eta herriko aberatsen laguntza eskatu zuen (1854-07-09).

1854. urteko irailean, Udalak garbi zuen ordu arteko maisuek ez zutela behar bezalako titulaziorik eskolak emateko eta, ondorioz, Nautika Eskolaren itxiera aurreikusi zuen:

Decretaron que se abra la matrícula para el próximo mes, anunciándose desde luego la vacante de maestros para su provisión en personas aptas (MUA, 1854-07-18). Se reunieron con el fin de fijar un pie (sic) a los maestros de náutica y poderse con ella sacar la oposición las plazas (MUA, 1854-09-20).

Urte horretako urrian, Udalak kontuan hartu zituen Eusebio Azcueren eta Sagredoren dimisioak:

Se pasó a discutir los oficios dimisivos de los maestros de esta Escuela de Náutica D. Eusebio María de Azcue y D. Manuel Sagredo,

y enterados los aceptaron ordenando hagan entrega de los efectos que haya en las cátedras que hayan desempeñado, y que en vista de tal renuncia se suspenda el próximo curso (MUA, 1854-10-02).

1857. urtean, Udaleko agiriak zera adierazten dute, ikasgelan eskola partikularrak ematen zirela, baina berez ez dela eskolarik Mundakan:

Pueda darse en el que está dando sus lecciones el maestro de náutica y puesto que esta escuela no existe ya, unánimemente acordaron que en el término de 48 horas quede libre el referido local (MUA, 1857-03-02).

Horrenbeste istilu eta iskanbila izan ondoren, ez da arraroa Eusebio Azcuek Mundakatik alde egiteko gogoia izatea. Horrenbestez, Lekeitioko Eskola martxan jarri zenean, hara jo zuen. Lekeitioko Nautika Eskola Jose Javier Uribarren eta bere iloba Jose Luis Abaroa lekeitiarrek jarri zuten, eta hasieratik oso ospetsua izan zen. Pilotaje katedrara aurkeztu zuen bere burua Eusebio Azcuek. Gainera, Xabier Altzibarrek jakin duenez, 12.000 errealekoa zen soldata, Mundakan baino lau aldiz handiagoa. Lehen ikasurtean 64 ikaslek eman zuten izena ikasketak han burutzeko (Duo, 2001, 80). Pilotu izateko Eskola Ofiziala izendatu zuten, eta Bilboko Institutuko Zuzendaria zen azterketa buru. Berarekin batera, eskolako irakasle bi batzen ziren eta Gerrate Karlista piztu arte, Eusebio Azcue mahaiko izan genuen lan horretan. Gonzalo Duok aipatzen du gerrate ostean ere Azcue bera izan zela mahaiko, baina Eusebio Erkiagaren iritziz haren semea, Alfonso Maria.

Después de la guerra siguió Azcue [...] Las actas del curso 1882-1883 están firmadas por un tribunal presidido por Juan Acordagoicoechea, siendo vocales Azcue e Ibarra (2001, 81).

Izan ere, Eusebio Maria Azcue 1873. urtean hil zen.

2. Azcue Mundakako Udalaren kontra. 1856. Azcueren ideologia

Bizkaiko Artxibo Foral nagusian aurkitu dugun bigarren agiria Azcuek Bizkaiko Aldundiari bidalitako salaketa bat da. 1856. urteko abuztuaren

hemeretzi gutun bat bidali zion Bizkaiko Aldundiari, hautesleen zerrenda bat agertu zela-eta, bere iritziz hauteskundeetan iruzur egiteko arriskua zegoelakoan:

Ha aparecido en la puerta de la Iglesia Parroquial una lista de electores para las próxima renovación de municipalidad, lista que solamente comprende ciento sesenta y nueve nombres, algunos de difuntos: este número de electores corresponde según el artículo treinta y uno de la ley á una población de doscientos y quince vecinos.

Esta Anteiglesia según la estadística, que hace muchos años no se ha renovado, tuvo trescientos cincuenta vecinos; pero actualmente su población pasa de setecientos vecinos [...]

El Ayuntamiento por ligereza o mala fé ha contravenido á la ley; esta contravención puede ser causa de amaños de pandillage (sic), origen de la ruina de los pueblos (BFA, K 200380/122).

Hain zuzen ere, 1857. urteko otsailean Udala berritu, eta Jose Fradua izendatu zuten alkate. Ikusi dugu Azcueren eta Udalaren arteko harreman deserosoa 1851. urtetik zetorrela, baina dirudenez ika-mika ez zen gozatu eta Eusebio Azcueren ideologia karlistak gogor jotzen zuen Udal konstituzionalaren aurka. Gainera, agian, arrazoia izango zuen, zeren, historiagileen arabera, Mundakak une hartan 2.250 biztanle zituen, gaur baino dezente gehiago.

Eusebio Azcueren ideologia karlista nabaria da. Izena ere karlista tradiziokoa da, Eusebio Maria gisa agertzen da bataio agirian (1813), baina lehenengo ezkontza agirian «de los Dolores» gehitzen du (1843) (Astigarraga; Bijuesca, 1990, 13). Izen hori karlistek jarri ohi zuten, Karlos VII.aren alabaren oroigarri gisa. Beraz, badirudi bere gogoz egin zuela aldaketa, kontuan harturik Lehen Gerrate Karlistaren bukaera hurbil zegoela oraindik. Bigarren ezkontza agirian (1857) eta heriotza agirian berriro «de los Dolores» (Astigarra; Bijuesca, 1990, 547-551), baina ez beste inon. Dena dela, hala-ze jarri zion bere alaba bati ere: Aurora Maria de los Dolores (1860).

Bere hainbat olerkitan ere joera tradizionalista nabaria da. Bada olerki bat garbi-garbi agertzen duena haren joera erlijioari eta tradizioari lotua:

«Pio IX eta Napoleon III» (EV, 219-227). Hain zuzen ere, Napoleon III. aren aurka egindako testua dugu eta, zentzu zabalean, Vatikanoko Estatua- ren aldekoa. Ezaguna denez, Aita Santuaren aurkako joera hori 1848. ur- tean hasi zen, eta 1848-1851. urteen buruan agertu. «Bardintasuna» (EV, 343-346) edo «Libertadian arguitasuna» (EV, 180-184) poemetan, libera- lismoaren zenbait ezaugarri kritikatzan ditu eta «Anchinarik ona» (EV, 228-235) poeman aspaldiko denboren nostalgia erakusten badu ere, «Gui- zaldi onetaco deungac» poemak (EV, 401-406) garaiko gizartearen kritika zorrotza dakar.

Gaurko girotik begiratua, Eusebio Azcueren poesiaren ideologia ez da oso abegikorra egiten, andrearen irudia oso barregarri eman ohi duelako maiz, eta, gainera, haiei buruzko iritzia iraingarria delako sarritan.

3. Epaiketa zibilak: 1851 eta 1857. Bizitza pribatua

Eusebio Azcueren bizitza pribatuaz dokumentu bi aurkitu ditugu Bizkai- ko Artxibo Foralean. 1851. urtean gertatu zen lehen epaiketan (Busturia 0488/047), bera zen salaketa jarri zuena Migel Elordiren aurka, horrek sa- matik heldu ziolako («le echó mano al pescuezo»), Azcueren ustez motibo- rik gabe. Ondoren azaltzen da, Nautika eskola ematen ari zela, neskatotxo batzuek atea itxi ziotela eta Azcuek eskolatik irten eta bati ipurdiko bat eman ziola («le dio un azote sobre la ropa/capa?»). Neskato hori, hain zuzen ere, Elordiren alaba zen. Salaketaren ondoren, Elordi zigortu egin zuten: «un día de arresto».

1857. urteko apirilean gertatu zen bigarren epaiketan (Busturia 0489/028), aldiz, Eusebio Maria zen salatua eta Gabriel de Echevarria sala- tzailea. Echevarriaren esanetan, Azcuek 1.027 erreal zor zizkion haren emazteari, Maria Paula Lezamizeri, Azcueren seme-alabei bularra eman zie- lako («latancia (sic) [...] ha dado á los hijos del demandado Conrado y Sol»). Azcuek erantzun zuen egia zela bi urtez eman ziola titia Maria Paulak Conrado-ri, baina ez zituela biak osatu, haurdun geratu zelako, eta egia zela Sol-i hamasei hilabetez eman ziola, baina Paulak gauza asko eraman zituela euren etxetik, eta horregatik prest zegoela akordio batera heltzeko. Zorra

kitatzeko, maiatzaren hasieran 200 erreal emango zizkion Echevarriari eta 80 hilaren bukaeran, eta beste horrenbeste hurrengo hilabeteetan zorra oso-rik ordaindu arte.

Ikusten denez, epaiketa bi horiek ez dute garrantzi handirik, baina Eusebio Azcueren nortasuna azaltzeko balio dute. Lehenak, agian, Eusebio Erkiagak bere ontasunean poetaz idatzi zuen irudia lausotzeko balio digu. Behintzat, haserre eta gogor agertzen zaigu bere bizitzako pasadizo horretan. Bigarren dokumentuak, baina, zerbait gehiago diosku. Alde batetik, Eusebio Azcuk diruarekin zituen arazoak berri ematen digu. Ez da lehenengo aldia zorretan ikusten dugula gure poeta. Mundakako Udalak berarekin zuen zorra eskatu zion poetari, gorago ikusi dugun bezala. Soldata aldetik ere ez zebilen diruz ongi hornitua Eusebio Azcuk. Bermeoko Nautika Eskolan 3.300 erreal urtero irabazten zituen. Mundakako Eskolako irakasleen soldataz hitz egiten denean, dokumentuetan 5.000 edo 4.000 erreal aipatzen dira, baina badirudi Sagredo maisuak 2.000 kobratzen zituela; beraz, Azcuerentzat 3.000 edo 2.000 erreal izango ziren urtero. Horri gehitu behar zaio ikasketa partikularrekin lortzen zuena eta herriz kanpoko ikasleei kobratzen zitzaiena, ohitura zen moduan Nautika Eskoletan, hau da, udalerrikoentzat doan zen eskola, baina kanpotarrei kobratzeko joera zegoen Bermeon. Mundakan ere horrela gertatu ohi zen, inoiz Udalak zalantza izan bazuen ere jarrera horren gainean. Kontuan hartu beharko litzateke Bermeoko Eskolako soldata 4.950 erreal zela Azcuk utzi zuen urtean. Beraz, soldataren aldetik galdu egin zuen Azcuk Mundakara etorrira.

Beste alde batetik, alargunaren minak agertzen ditu. Eusebio Azcueren lehen emaztea, Laureana Ocerin, 1856ko azaroaren 23an hil zen. Laureana, Bilbao abizenarekin bataiatu zuten, eta hori ere lehen aldiz ematen den datua da, 1820ko uztailaren 5ean. Aita ezagunik ez zuenez, Bilbao abizena eta amaren abizena, Ocerin, erabili zituen. Bost seme-alaba izan zituzten Eusebiok eta Laureanak, eta hau ere datu berria da, orain arte lau zirela uste baitzen: Sofia, Bermeon bataiatua 1843ko abenduan (Bermeo, 1843-Zamudio 1846), Alfonso Maria (Bermeo, 1845-1894), Carolina (1849), Conrado (1853-1870) eta Sol (1855-12-19, bigarren abizena Bilbao jarri zioten bataiatu zutenean, bigarrena aldatuta, alegia, eta ama hil baino ia urtebete

lehenago jaio zen. Horregatik, 1857ko apirilean egindako epaiketan aipatzen den hamasei hilabeteko epea).

Jakina da bigarren ezkontzan Mari Carmen Aberasturi hartu zuela emaztetzat. Emakume hori alarguna zen. Bere lehen senarra, Tomas Aguirre, 1856ko maiatzean hil zen (1835-1856). Baina ezkontza horretan badira datu bi deigarriak. Lehendabizi, ezkonduen adina: 1857ko ekainaren 3an ezkontzen direnean, Eusebio Azcuek 44 urte ditu eta 1835. urtean jaiotako Mari Carmen Aberasturik 22. Bigarren datua ere jakina da, biak ziren alargunak, Mari Carmen 1856ko maiatzean alargundu zen eta Eusebio urte bereko azaroan. 1857ko ekainean ezkondu ziren eta beren lehen alaba, Julia, 1857ko urriaren 21ean jaio zen. Aberasturi haurdun ezkondu zen, beraz.

Ezaguna da baita ere elkarrekin zortzi seme-alaba izan zituztela, bi, dirudenez oso gazterik hilak: Julia (1857-1874), Aurora Maria de los Dolores (1860), Jesus Maria del Carmen (1862) Mundakan jaioak; eta Lekeition, Resurreccion de Jesus Maria de las Nieves, euskal ikerlari handia (1864), Maria Luz (1867, urte berean hila), Diana Maria de la Paz (1868), Heliodoro Maria Antonio Pedro Pascual (1870-1872) eta Julia (1873-1874), aitaren heriotzaren urtean jaioa. Aitaren 13 seme-alabetatik lau goiz hil ziren.

4. Eusebio Azcueren poesiaz

Bizitzako min horiek izan zuten agerpenik bere obran? Ez da Eusebio Azcue nitasunaren poeta, nahiz eta lehen pertsona noizbehinka agertu bere obran. Adibide ederra da, Eusebio Azcueren pathos erromantikoaz hitz egiteko «Euskaldun bat Buenos Ayres aldian» (EV, 148-159) poema. Poema horretan nitasun bi agertzen dira, Eusebio Azcuerekin lotu dezakegun lehen, eta Buenos Airesetik idazten duen pertsonaiarena, bestea. Eusebio Azcuerekin identifika dezakegun ahotsa narratiboa da guztiz:

«Buenos Ayres aldeti
Artu dot carta bat:
Vertsoan imiñteko
Gurarijha daukat» (EV, 148)

Buenos Airesetik gutuna idazten duenak, ordea, bere bizitzaren zorigaiztoa azaltzen du. Pertsonaiak betetzen ditu ezaugarri erromantikoak, baina zorigaiztoa, tristezia, ametsa, negarra... ez datoz bat egilearen bizitzarekin.

Beste adibide bat ere badago. Poetaren nitasunarekin lotu dezakegun lehen pertsonaren erabilerak poemaren marko nagusia eratzen du, «Santo Domingoco Islaren Españara biurreriari» (EV, 455-462):

«Etorri naz Bilboruntz
Algortaco aldetic,
Ibaizabal ganian
Daguan bidetic» (EV, 455).

Eta orduan entzuten du poetaren irudiak Nereiden batzar bat eta hauek, berriro lehen pertsona erabiliz, Santo Domingotik datorren Nereida batek bere ahizpei gertaturikoaren berri ematen die. Agian «Adina» bezalako poemaren baten agertzen du Eusebio Azcuek joera erromantikoa; bestela, narraitibotasunak eta alegoria joerak hartzen dute haren poesia.

Bere lehen editore izandako Manterolaren hitzak irakurriz gero, ez da dudarik asmatu egin zuela bere iritzietan:

El señor Azcue [...] ha cultivado más o menos todos los géneros de la poesía, y en su precioso volumen se encuentran al lado de algunas composiciones religiosas, llenas de sentimiento y que dan á conocer sus arraigadas creencias católicas, otras muchas de género satírico, llenas de gracia y de intención; numerosos epigramas [...], varias fábulas, originales unas, traducidas otras, y diferentes composiciones morales y de costumbres (*Parnasorako Bidea*, 7).

Eta beste iritzi molde batean:

Y así, si en *Mundaca-ko arraiñ saltzaillac* [...] y otras muchas de la misma índole, se vé al poeta popular asimilándose al pueblo en cuyo contacto vivía, pintar en cuadros, sencillos pero de verdadero carácter y adecuado colorido, tipos del país, fiestas, costumbres, usos y aun abusos, tratando á veces de corregir estos últimos de presentar otras como modelos dignos de imitación prácticas que van cayendo en desuso y describiendo y fotografiando siempre con hábil pincel, tiempos, hombres y cosas (*Parnasorako Bidea*, 11).

Genero nahasketa hori bera izan daiteke erromantizismoaren ezaugarri bakanetarikoa. Baina, nire ustez, Eusebio Azcueren poesia lotu beharko litzateke garaiko poesia burges eta neurri batean zaharkituarekin. Estimatzen ditut haren ohitura-poemak, Manterolak hain zuzen deskribaturikoak, eta haren poesia politikoaz luze hitz egiteko modua ere badugu. Baina ezin dut kendu gogotik ez dagoela haren bizitzako une krudelen aipamen biografikorik. Poesia narratiboa maite du Eusebio Azcuek, edo ideologikoa, edo deskribapenean oinarriturikoa. Horregatik, bera presente egon arren, ez dago lirika handirik haren lanean, sentimenduak aipatzen badira ere.

Gehienez, aipatu beharko nuke baduela poema bat ezkontza desorekatuen aurka, adinez desberdin diren senar-emazteen aurka. Eta gai hori bere bizitzarekin loturik dago. Baina hori ere gai topikoa da neoklasizismoan ere (Moratínen *El sí de las niñas* gogoratzea baino ez dago), eta horretan ere molde literarioak gaina hartzen dio zentzu autobiografikoari.

Artxibategiak

BUA. Bermeoko Udal Artxiboa

Bizkaiko Artxibo Forala

Bizkaiko Eliza Historiaren Artxiboa

LUA. Lekeitioko Udal Artxiboa

MUA. Mundakako Udal Artxiboa

Bibliografia

AZCUE, Eusebio Maria, 1990, *Euskarazko vertsoak*. Asier Astigarraga eta Josu Bijuescaren edizioa. Bilbo: Labayru Ikastegia-BBK Fundazioa.

ASTIGARRAGA, Asier; BIJUESCA, Josu, 1990, «[Sarrera]» in Azcue, Eusebio Maria, *Euskarazko vertsoak*. Bilbo: Labayru Ikastegia-BBK Fundazioa, 13-44.

AZKUE, Resurrección, 1979 [1896], «Arrgibidea» in Azkue, Eusebio, *Parnasorako Bidea*. Donostia: Ed. Hordago. (Jat. ed.: Bilbo: Astuitar J. Bilbo).

DUO, Gonzalo, 2001, *Las escuelas de Náutica de Bizkaia, Gipuzkoa y Laburdi. Siglos XVI-XX. Análisis histórico documental*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.

ERKIAGA, Eusebio, 1961, «Bizkaiko Olerkari bat: Eusebio Maria Dolores Azkue Barrundia (Lekeitio, 1813-1873)», *Oleri*, 1 (1961) 67-79.

<andima.armiarma.com/oler/oler09/oler0941.htm>.

KORTAZAR, Jon, 1987, «Eusebio Azkueren poesiagintza» in Uriarte, José Antonio, 1987, *Poesia Bascongada. Dialecto vizcaino*. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiaren edizioa. Bizkaiko Foru Aldundia, 219-234.

Lan hau Gonzalo DUOren, Jon KORTAZAR BILLELABEITIAREN eta Kepa ORMAETXEAREN laguntzarekin idatzi da.



**Parnasotik *Euzkadia*-ra. Eusebio M.
Azkueren poesiagintza eta nazio identitatea**

**Del Parnaso a *Euzkadia*. Creación poética de Eusebio
M. Azkue e identidad nacional.**

**Du Parnasso à *Euzkadia*. Création poétique d'Eusebio
M. Azkue e identité nationale.**

**From Parnassus to *Euzkadia*. Eusebio M. Azkue's
poetic creation and national identity.**

BIJUESCA, K. Josu
Deustuko Unibertsitatea

Noiz jaso: 2014-07-01
Noiz onartua: 2014-09-30

Euskera. 2013, 58, 2. 395-432. Bilbo
ISSN 0210-1564

Eusebio Maria Azkueren poesiagintzari eskainitako artikulua hau atal bitan dago banatuta. Lehenengoan XIX. mendeko euskal identitatearen ezaugarriak E. M. Azkueren diskurtso poetikoan arakatu eta ezaugarri horietako bat, abertzaletasun bikoitza iritzi izan zaiona, berrikusi da subjektu melankoliko euskaldunaren argitan.

Bigarren atalean Azkueren ideia metapoetikoak arakatu dira, batez ere Euzka musaren alegoriaren bitartez adierazitakoak, alegoria horrek sortzen duen subjektibazio prozesua aztertzen den bitartean.

Hitz gakoak: Eusebio Maria Azkue, *Euzkadia*, Parnasoa, alegoria, subjektu euskaldun melankolikoa, nazio identitatea, patriarkalismoa.

Este artículo dedicado a la obra poética de Eusebio María Azkue está dividido en dos partes. La primera, investiga los rasgos de la identidad vasca del siglo XIX en el discurso poético de Azkue, y reinterpreta uno de esos rasgos en relación al sujeto melancólico vasco, lo que se ha venido definiendo como doble patriotismo.

En la segunda parte, se han estudiado las ideas meta-poéticas, sobre todo las representadas por la alegoría de la musa *Euzka*, analizando a su vez el proceso de subjetivación que genera dicha alegoría.

Palabras clave: Eusebio Maria Azkue, *Euzkadia*, El Parnaso, alegoría, sujeto vasco melancólico, identidad nacional, patriarcalismo.

Cet article consacré à l'oeuvre poétique d'Eusebio María Azkue est divisé en deux parties. La première s'intéresse aux traits de l'identité basque du XIX^e siècle dans le discours poétique d'Azkue ; il réinterprète l'un de ces traits en relation avec le sujet mélancolique basque qui a été défini comme double patriotisme.

La seconde partie s'intéresse aux idées métagoétiques, surtout celles qui sont représentées par l'allégorie de la muse *Euzka* ; elle analyse alors le processus de subjectivation généré par cette allégorie.

Mots-clés : Eusebio Maria Azkue, *Euzkadia*, Le Parnasse, allégorie, sujet basque mélancolique, identité nationale, patriarcalisme.

This article on the poetry of Eusebio Maria Azkue is divided into two parts. The first investigates the features of 19th century Basque identity in Azkue's poetic discourse and reinterprets one of those features, which has come to be defined as double patriotism, in the light of the Basque melancholic subject.

In the second part his metapoetic ideas have been studied, especially those represented by the allegory of the muse *Euzka*, together with the process of subjectivation generated by that allegory.

Keywords: Eusebio Maria Azkue, *Euzkadia*, Parnassianism, allegory, Basque melancholic subject, national identity, patriarchalism.

1.

Eusebio Mariaren Euzkak pintore oriotarraren Bizkaiarekin izan lezake antz handiena. Hala ere, hiru probintzien sintesi bezalakotzat ere jo liteke Euzka: Bizkaiaren koroa, mantua eta arropa zuria baditu ere, koadroko mantua ez da azula, gorria baizik; jantzeko azula duena Araba da, eta Gipuzkoa gerrikodun bakarra. Eusebio Mariaren irudikapenean hiru probintzien arteko banaketa gainditua izango litzateke batasunaren alde. Horregatik eta gorago aipaturiko kutsu politikoagatik («*gueure libertadia*» jhagoten» duena denez gero) musa ez ezik nazioaren beraren alegoria ere bada Euzka.² Eskoziako literaturako Scota aztertzen diharduela, Stirlingek uste du funtzio bien arteko gainezarpen hori ez dela nahitaezkoa. Britannia,

¹ Eugenio Azcueren koadroa, oraintsu Gipuzkoako pintore erromantikoei eskainitako erakusketa baterako bildua, Fornellsen liburuan ikus daiteke (73). Coro Rubioren liburuaren azalean ere ageri da.

² Nazioa emakume gisa irudikatu duten tradizio literario ugarien artean badira inoiz estatu egiturarekin harreman istilutsuak izandakoak, besteak beste Eskozia (Stirling 2008) eta Irlanda (Rosende 2008). Stirlingen lana bereziki lagungarri izan dut E. M. Azkueren poesia alegorikoaren interpretaziorako eredu gisa.

Helvetia, edo Marianne emakume itxurako nazioaren figurak dira Britainia Handian, Suitzan eta Frantzian hurrenez hurren. Figura horiek egiteko instituzionala dute: eraikin, txanpon edota zigiluetan ageri dira. XVIII. mendearen amaieran sorturiko Scotas musak, osteras, ez du egiteko instituzionalik, Eskozia Erresuma Batuaren parte denez gero. Haren eragina eremu literario mugatuko litzateke: «The lack of an institutional role for a Scotland-as-woman figura means that literature becomes her natural habitat. Alexander Ross's muse Scotas is very much concerned that he should write in Scots, and the production of literature in the national language is the most significant nationalist act to which she can push her sons» (34). Euzkari egotzitako egitekoa ere poeta euskaldunak euskaraz idatzaraztea litzateke. Baina beraren inguruan alor literario berariazko bat antolatzen den heinean, euskarazkoa den literaturaren alorra hain zuzen ere, alor berri horrek badu nazio berariazko baten prefiguraziotik zerbait. Euzkaren egitekoa ez da soilik inspiratzea, baizik eta *libertateak* zaintzea ere. Ez dago zalantzarik Eusebio M. Azkueren pentsaeran libertate horiek mundu zaharrari atxikitako foruak direla, baina aldi berean foru sistemak berezko ez duen euskaldunen arteko batasun irrika ere erakusten duela Euzkak. Alde horretatik, utopiatik edo etorkizunerako egitasmotik zerbait ere badu Azkueren fantasiarazko proposamenak. Luze eztabaidatu izan da Sabino Aranaren Euzkadi hitz asmatuaren sorreraz baina gutxitan ekarri da gogora Eusebio Mariaren *Euzkadia* (Azcue, 1990, 25-28), eta ekarri izan denean ere, haien arteko harremana ukatzeko izan da (Zabaltza, 1997, 78). Harremanaren proba empirikorik ez badago ere, zalantza gutxi egin liteke hitz bien arteko filiazioaz. Nekez kasualitate izan litekeen idazkera aldetiko berdintasunaz gain, Aranaren Euzkadik *eguzki* hitzarekin eta Bizkaiarekin duen lotura, Zabaltzak aztertu duenez, bazen alde aurretik Azkueren Euzkarengan: alde batetik, Pirafros edo Heliafrosen alaba izanik, aitaren izenak suarekiko eta eguzkiarekiko harremana adierazten du, eta besterik ez da Pirafros edo Heliafros hori bera Apoloren semetzat jo izana; beste batetik, agerikoa da Euzkaren beraren kutsu bizkaizentrista, bai behinik behin Bizkaiaren musatzat jotzen delako, bai eta Eugenio Azcuere Irurac bat koadroko emakumeen artean Bizkaia irudikatzen duena antzekoen duelako. Euzkadi baino lehen poeta batek asmatu Euzka izeneko musa izan zen, bai eta musa horren gorazarerako izan behar zuen poema egitasmo amaitu gabekoa ere, *Euzkadia*.

Apalategik Aranaren diskurtsoak eskatzen duen subjektu mota berria identifikatu du:

Lortzeke dagoen Estatuaren beharra aldarrikatuz, Sabinok euskal(dun)tasunaren urrezko aroa etorkizunean kokatzen du, benetako irakultza kopernikanoa burutuz ordura arteko euskal pentsamendua-
rekiko. Euskal pentsamendua, ordutik aurrera, utopikoa izango da, eta ez nostalgikoa. Bestalde, bigarren iraultza bat etortzen da Sabinoren premisa estatuzaletik (azken hau ez hain kopernikanoa, Errenazimentuko euskal humanisten ildora itzultzea suposatzen baitu, funtsean): Estatuaren beharrak esan nahi du «besteen gradura» igo-
tzea, alegia beste nazio modernoekin homologatzea. Bi iraultzak uz-
tartuz gero –etorkizunera begira jartzea eta nazio modernoarekiko homologatze nahia adieraztea-, euskal subjektu modernoa sortu dela ohartzen gara. Sabinoren paradoxa honakoa da, beraz: sakonki erreakzionarioa den esentzialismo erromantiko batetik abiatu-
rik modernotasunaren norabidean jarri izana euskal subjektua. (Apalategi, 2013, 64)

Azkueren egitasmu poetikoan ez dago estatu proposamenik oraindik. Eta hala ere Aranaren egitasmora heltzeko bidean dagoela esan liteke. Izan ere, Azkueren diskurtsoak ere baditu bere paradoxak, eta horietan txikiena ez da Euzka musaren jatorriari dagokiona, Parnaso mendia alegia. Literatura eskoziarra aztertzean, paradoxa bera aurkitu du Stirlingek ez soilik Eskoziaren emakume gisako irudikapenean, baizik eta beste nazio askorenean ere, tokian tokikoaren gauzatzea izanik ere, sarritan inondik etorritakotzat jotzen direnez gero, eta horrexegatik denak elkarren antzekoak. Paradoxa hori azaltzerakoan Stirlingek diskurtso horiek adierazten duten nazio auto-kontzientzia azpimarratzen du:

The similarities between the iconic figureheads are greater than their differences. Although each figurehead is meant to embody a pure national essence, a shared sisterhood seems more important than the distinct national identities the individual women represent. This runs counter to the idea that the woman-as-nation figure is home-grown, identified with the soil of her native land – rather, she is part of a larger aristocratic family. In this model the idea of nation itself is more important than individual national identity, and this

makes sense in the case of Scotland when we consider that the use of a Scotland-as-woman figure asserts Scotland's similarity to other nations and her participation in the condition of nationhood itself. (Stirling, 2008, 30)

Alegoria den heinean, Euzkaren jatorria ere haren jatortasuna adierazteko aipatzen da, nahiz eta baduen kontraesanik bertakoa izatearekin, kontraesan hori azaltzeko ahaleginik eskaintzen ez dela. Baina horrek berak naziotasunaren beraren aldarrikapena errazten du, Euzka beste nazio batzuen irudikapenen maila berean jartzen baitu. Lehen atalean aipaturiko subjektu melankoliko eta abertzaletasun bikoiztunetik abiatuak subjektu utopiko berrirako eraldaketaren lehen aztarnak Azkueren beraren diskurtsoan aurki litezke.

Euzkaren alegoriari lotutako diskurtso poetiko honen inplikazioak geopolitikoak ez ezik biopolitikoak ere badira, batez ere generoari dagokionez, emakume gisa irudikatutako nazioaren subjektuaz baldintza zorrotzak ezartzen direnez gero. Eta horretan ere Azkueren diskurtsoa ez da paradoxarik gabekoa, emakume figurako alegoriak erabili ohi dituzten diskurtsoetan gertatu ohi denez. Euzkaren deskripziora une batez itzuliz gero, ageriko egiten zaigu bere itxuraren zurruntasuna, eta batez ere birjintasuna eta kastitate adierazten duten sentsualtasun gabezia: arropa zuriaren sinbolikotasunaz gain, mantuak are gehiago estaltzeko balio du, bai eta belarri edo hebilladun zapatek ere, eta ile ehoa ere sentsualtasun gabezia horren aztarna da. Emakume itxurako alegoriak sakonetik aztertzean, Marina Warnerrek Atenearengan identifikatu du irudikapen horien eredu, bai nazio identitatearen aldetik, bai eta musa inspiratzailearenetik ere: «Athena, goddess of wisdom and of war, is the pattern for the armed maidens, invulnerable epitomes of the nation, like Britannia, as well as the Renaissance's muse of muses, patroness of learning and the arts» (XXI). Euzkari arretaz begiratu gero, ez da zaila ohartzera haren eredu hurbila Erdi Aroan badago ere, oraindik Atenearen ezaugarrien aztarnak ez direla guztiz ezabatu: altzaruzkoa du koroa, jainkosaren kasketaren antzera; otso narru hedez egindako gerrikoa Atenearen egidarekin berdinean liteke; eta bere itxura orokorrean jainkosa baten parekoa da, «Olimpoko andra andijhen / amurragarrija», baina nekez amatasuna edo edertasun limurtzailea adierazten duten jainko-

sen. Armadurarik ez duen arren, Euzka ere burdin jantzi eta guzti irudikatuturiko emakume alegoriko itxura androginodun horien artekoa da³, eta ez nolanahi, gizarte patriarkaletan hobetsitako irudi sinboliko garrantzitsua izan da-eta. XIX. mendeko gizarte viktoriarrean Ateneari egindako harrera beroa arakatzean, orduan eta ondoren ere emakumearen irudikapen horrek lorturiko arrakasta honela azaldu du Warnerrek:

Armour is worn by so many imaginary women, projections of the ideal, visual and literary, in our civilization today in order to demonstrate by deep association their law-abiding chastity, their virtuous consent to patriarchal monogamy as the system by which descent is traced and property transmitted. [...] Their bodies are made masculine through buckler, breastplate, helmet and spear, often directly recalling representations of Athena, to manifest their good behaviour in recognizing male precedence in kinship, or male authority in society and home. The chastity of the female body and the fidelity of a wife are essential to that. (Warner, 1996, 124-125)

Hortaz, Euzkaren itxurak berak bat egingo luke Azkueren poesiagintzak emakumeei eskainitako objektu posizioaz, lehen atalean ikusitakoaren arabera. Euskal poesiaren musari eta nazioaren irudikapenari emakume itxura eman izana ez da inondik ere emakumeak nazioan subjektu izateko gonbidapena. Sabino Aranaren pentsaeran agerikoa da gerora ere XX. mende hasierako abertzaletasunak emakumeari eskainiriko maila apalagoa (Amurrio, 2006). Horretan ere Eusebio Maria Azkue aitzindari izan zen. Aldi berean, musa nazionalak emakume itxura hartzen duenetik, emakumeei poeta edo idazle izateko aukera ukatzen zaie, subjektu poetikoaren posizioa gizonezkoentzat gorderik gelditzen den heinean, literatura eskoziarrean gertatutakoaren antzera (Stirling, 2008, 34). Beraz, ez da harrizkoa emakume bertsolariak edota Bixenta Mogel bezalako idazleak oihartzunik gabe gelditu izana Azkueren poesiagintzan, lehen atalean ageriko egina denez.

³ Eugenio Azkueren koadroan Gipuzkoa irudikatzen duen emakumeak biltzen ditu Ateneari dagozkion ezaugarri gehienak: gerritik gorako armadura janzteaz gain, kaskoa eta lantza dautza bere oinetan. Gainera hiru emakumeek euren probintziaren armariari eusten diote ezkerreko eskuaz ezkutua balitz legez.

Azkueren Parnaso euskalduna euskal literatura subalternitate egoeratik ateratzeko ahalegin gogoangarria da, bai bere horretan, bai eta gerora hegemonikoa izango zen euskal nazio identitatearen aurrekari gisa, euskaldunak subjektu poetiko eta politiko izateko bidean jartzen dituzenez gero. Baina aldi berean subjektu posizio hori bera ukatzen zaie beste batzuei, eta batez ere *mundu zaharra* atzean uztearen aldekoiei eta emakumei.

Bibliografia

AGAMBEN, G., 1995, *Estancias. La palabra y el fantasma en la cultura occidental*. Valentzia: Pre-textos.

AMURRIO, M., 2006, «Las mujeres en el proceso generizado de construcción de la nación vasca», *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 28 (2006) 119-134.

APALATEGI, U., 2013, «Euskal subjektuaren bilakaera erromanekoa: desberdintze estrategiaren eta homologazio nahiaren arteko negoziaketa literario-ideologikoak» [artikulu linean], 452^oF. *Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 9 (2013) 56-77. <http://www.452f.com/pdf/numero09/09_452f-mono-ur-apalategi-orgnl.pdf>

AZCUE, E. M., 1990, *Euskarazko vertsoak*. Bilbao: Labayru Ikastegia.

BARRIUSO, I., 2001, «Apolo y el Parnaso. El pensamiento neoclásico en las representaciones alegóricas», <<http://www.man.es/man/dms/man/actividades/pieza-del-mes/historico/2001-creencias-simbolos-y-ritos-religiosos-3/9-diciembre/MAN-Pieza-mes-2001-12-Apolo-Parnaso.pdf>>

BILLING, M., 1995, *Banal Nationalism*. Londres, Thousand Oaks, New Delhi: SAGE.

BLANCO, A., 2012, *Cultura y conciencia imperial en la España del siglo XIX*. Valentzia: Universitat de València.

FORNELLS, M., 2013, *Gipuzkoako Pintore Erromantikoak. Pintores Románticos Guipuzcoanos*. Donostia: Kutxa Fundazioa.

FREUD, S., 1996, «Duelo y melancolía», in *Obras completas. Tomo II (1905-1915) [1917]*. Madril: Biblioteca Nueva.

GABILONDO, J., 2013, «Galdós, Etxeita, Rizal – Madrid, Mundaka, Manila: On Colonial Disavowal and (Post) Imperial Articulations of the Hispanic Pacific-Atlantic» [online article], 452^oF. *Electronic journal of theory of literature and comparative literature*, 9 (2013) 13-41. <http://www.452f.com/pdf/numero09/09_452f-mono-joseba-gabilondo-orgnl.pdf>

HOLO, S., 2002, *Más allá del Prado. Museos e identidad en la España democrática*. Tres Cantos: Akal.

JUARISTI, J., 1997, *El bucle melancólico. Historias de nacionalistas vascos*. Madril: Espasa Calpe.

LARRAÑAGA, C., 1997, «Del bertsolarismo silenciado», *Jentilbaratz*, 6 (1997) 57-73.

MAYER, T. (ed.), 2000, *Gender Ironies of Nationalism. Sexing the nation*. Londres eta New York: Routledge.

MIGUEL, P. de, 2014, «Coronación de D. Manuel J. Quintana, 1859», <http://www.senado.es/web/conocersenado/arteypatrimonio/obrapictorica/detalle/index.html;jsessionid=zm2TSxdXVLg7GxDGvKnLzpyvTM2zPmQF2y5nwRyZVRPRpWfzZqX2!209784553?id=SENPRES_013992>

MOLINA, F., 2005, *La tierra del martirio español. El País Vasco y España en el siglo del nacionalismo*. Madril: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales.

PALENQUE, M., 1991, «La persistencia clasicista en la poesía decimonónica: Las «coronas» a Manuel José Quintana (1855)», *Philologia hispalensis*, 6 (1991) 237-247.

———, 2008, «La coronación de Manuel José Quintana (1855)», *Insula*, 744 (2008) 26-29.

ROSENDE, A., 2008, «La iconografía femenina de Irlanda. Creación y re/construcción de una nación en femenino», *Lectora*, 14 (2008) 251-267.

RUBIO, C., 2003, *La identidad vasca en el siglo XIX. Discurso y agentes sociales*. Madril: Biblioteca Nueva.

SANCHEZ, R., 2011, «Los funerales de Quintana», *Cuadernos de Ilustración y Romanticismo*, 17 (2011) 1-13.

STIRLING, K., 2008, *Bella Caledonia. Woman, Nation, Text*. Amsterdam, New York: Rodopi.

TOLEDO, A., 2006, «Musen arnasatik goi-arnasara euskal letretan barrena», *Euskera*, 51-2 (2006), 629-656.

VICKERS, J., 1990, «At His Mother's Knee: Sex/Gender and the Construction of National Identities», in G. Nemiroff (ed.), *Women and Men: Interdisciplinary Readings on Gender*. Toronto: Fitzhenry and Whiteside, 478-492.

WARNER, M., 1996, *Monuments and Maidens. The Allegory of the Female Form*. Londres: Vintage.

YUVAL-DAVIS, N., 1997, *Gender & Nation*. Londres, Thousand Oaks, New Delhi: SAGE.

ZABALZA, X., 1997, «El significado oculto de la palabra «Euzkadi»», *FLV*, 29-74 (1997) 77-83.

Eusebio Maria Azkueren nortasunaz eta harreraz argitasun batzuk. Harenak ote dira «Carlistenac» bertsoak?

Eusebio Maria Azkue: algunas noticias sobre su vida y sobre la recepción de su obra. ¿Quién es el autor de los versos «Carlistenac»?

Eusebio Maria Azkue: quelques renseignements sur la vie et la réception de son oeuvre. Qui est l'auteur de la composition en vers «Carlistenac»?

Eusebio Maria Azkue: some information about the life and the reception of his work. Who is the author of the poem «Carlistenac»?

ALTZIBAR ARETXABALETA, Xabier
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV)

Noiz jaso: 2014-06-30

Noiz onartua: 2014-09-30

Ikerlan honek, alde batetik, Eusebio M. Azkueren alde biografiko batzuk erakusten ditu, Lekeitioko Nautika Eskolako irakasle izan zen garaikoak (1862-1873). Esaterako, katedrak lan zama handia ezarri ziola baina soldatari esker kitatu ahal izan zituela zorrak, eta, bestalde, aita familiako gisa arduraz jokatu zuela bere bi ezkontzetako seme-alaben arteko batasuna eta elkar laguntza bilatuz. Bestetik, Eusebio M. Azkueren hizkuntza, idazkera eta metrika beste testu batzuetakoekin konparatuta, ikerlanak ondorioztatzen du «Carlistenac» bertsoak, Eusebio M. Azkueren poemen biltzaile eta argitaratzaile batzuek Eusebio M. Azkueren izenpean agerrarazten dituztenak, ez diratekeela harenak, Bizenta Mogelenak baizik.

Hitz-gakoak: Bertsoak, «Carlistenac», autoretza, Bizenta Mogel, Lekeitioko Nautika Eskola, Azkue aita-semeei omenaldia (1936).

Este artículo, por una parte, muestra unos datos biográficos de Eusebio M. Azkue, de la época que fué profesor de la Escuela de Náutica de Lekeitio (1862–1873). Por ejemplo, que la cátedra le supuso gran carga de trabajo, pero que gracias al sueldo pudo saldar sus deudas. Como padre de familia actuó con responsabilidad, promoviendo la armonía entre los hijos e hijas de sus dos matrimonios. Por otro lado, comparando el lenguaje, la escritura y la métrica de Eusebio M. Azkue, el artículo concluye que los versos «Carlistenac», que algunos recopiladores de poesías y editores atribuyen a Eusebio M. Azkue, nos son suyos, sino de Bizenta Mogel.

Palabras clave: Versos, «Carlistenac», autoría, Bizenta Mogel, Escuela de Náutica de Lekeitio, homenaje a Azkue padre e hijo (1936).

Cet article présente d'une part des données biographiques sur Eusebio M. Azkue, à l'époque où il était professeur à l'Ecole de Navigation de Lekeitio (1862–1873). Que par exemple sa chaire supposait une grande charge de travail, mais que grâce à son salaire il put solder ses dettes. Qu'en tant que père de famille il se montra responsable, instaurant l'harmonie entre ses fils et ses filles de ses deux mariages. D'autre part, en comparant le langage, l'écriture et la métrique d'Eusebio M. Azkue, l'article conclut que les vers «Carlistenac», attribués à Eusebio M. Azkue par de quelques chercheurs, ne sont pas de lui mais de Bizenta Mógel.

Mots-clés: Vers, «Carlistenac», paternité, Bizenta Mogel, Ecole de Navigation de Lekeitio, hommage à Azkue père et fils (1936).

On the one hand, various biographical data relating to Eusebio M. Azkue are presented, from the period when he was a teacher at the Lekeitio navigation school (1862-1873). For example, that the post was a source of considerable hard work, but that the income allowed him to pay off his debts. As a father he acted responsibly, promoting harmony between the

sons and daughters of his two marriages. On the other hand, based on a comparison of the language, style of writing and metrics with other texts by Eusebio M. Azkue, the conclusion is reached that the verses entitled “Carlistenac”, which many poetry anthologizers and editors attribute to Eusebio M. Azkue, are not his but Bizenta Mogel's.

Keywords: Verse, “Carlistenac”, authorship, Bizenta Mogel, Lekeitio Navigation school, homage to Azkue father and son (1936).

Sarrera

Euskalzaleentzat Eusebio Maria Dolores Azkue (Lekeitio 1813-1873) Resurrección Maria Azkueren (1864-1951) aita izan zen, olerkaria baino gehiago, luzaroan, baina dagoeneko olerkari alderdiak gaina hartua dio guraso alderdiari. Diogunaren lekuko dira Eusebio Mariaren aipamenak bere garaian (Fr. J. A. Uriarte, J. Manterola), poemen argitalpenak hilda gero, eskainitako omenaldiak, haien kariatara eginiko azterketak etab. Hala ere, haren poesien transmisioa eta harrera ez ditugu ongi ezagutzen, ezta haren bertsoen testuingurua, eraginak, pentsamoldea edo bertso-gintza; areago, zalantzak ditugu ea harenak ote diren hari egotzen zaizkion bertso-sorta batzuk.

Euskaltzaindiak eta Lekeitioko Udalak antolatu eta ospaturiko jaiotza mendeurreneko omenaldia (Lekeitio, 2013) aitzakiatzat hartu eta E. M. Azkueren poemak eta bizitza hobeki ezagutzeko aukeraz baliatuz, bi arlo aztertuko ditugu artikulu honetan: bata, haren biografiari eta harrerari dagozkien alderdi batzuk (1); bestea, haren poema batzuen egiletza arazoak, «Carlistenac» bertsoak adibidetzat hartuta, hain zuzen, bertso horiek E. M. Azkuerenak balira bezala agertzen baitira Uriarteren bertso-bilduman eta E. M. Azkueren olerkien edizio oso eta zehatzenean, Astigarraga-Bijuescarenean (2). Ondorioz, XIX. mendeko idazle bizkaitarrak eta haien poemen egiletza arazoak, elkar eraginak eta testuartekotasuna ikertu beharra azpimarratzen dugu (3).

Uste dut gure artean hain erabilia eta askotan emankorra izan den biografia lanak laguntzen duela E. M. Azkueren bertsoak garaian kokatzen eta hobeto ezagutzen. E. M. Azkue irakaslea izan zen ogibidez, seme-alaba ugari izan zituen eta ez zuen olerkirik argitaratu (bat edo beste izan ezik), baina XIX. mende bukaeran Manterola eta Resurrección Maria Azkue haren poemak argitaratzen hasi zirenetik haren ospea gora-goraka joan zen, batez ere Pizkunde giroan. Bestalde, E. M. Azkueren bertso edo olerkiak sakabana-tuak zebiltzan, harik eta A. Astigarraga eta J. Bijuescak bildu zituzten arte (*Eusebio Maria Azkue-koa. Euskarazko bertsoak*, 1990). Eskuizkribu, iturri eta aldaerak biltzen dituen ikerlan horren bikaintasuna aitorturik ere, zalantzan jarriko genuke bilduma horretako bertso-sorta batzuk harenak direla.

Lan honetan, alde batetik, E. M. Azkueren biografia datu berriak biltzen ditugu haren irakasletzaz eta familiaz, Lekeitioko eta Euskaltzaindiko artxi-boak ikertuta, J. Kortazarrek bilduak osatuz. Bestetik, E. M. Azkueren poemen egiletza arazoak eztabaidatzen ditugu testukritikaz baliatuz eta testuen arteko konparazioak eginez.

Eskerrak zor dizkiegu artxiboetan ikertzeko eman diguten informazioa eta laguntasunagatik Maite Garamendi Lekeitioko Udal Artxiboko, Josune Olabarria Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako, eta Iñaki Goiogana Sabino Arana Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiko langile teknikariei. Baita Euskaltzaindiari, Eranskinetako agiri batzuk argitaratzen uzteagatik.

1. Argitasunak Lekeitioko irakasletza aldiak eta harreraz

Atal honetan E. M. Azkueren alderdi biografikoak aztertuko ditugu: Irakasletza Lekeitioko Nautika Eskolan (1.1.), familiaren ardura (1.2.), 1836ko omenaldia (1.3.).

1.1. Jakina denez, lehenengo Bermeoko Nautika Eskolan egon zen irakasle (1842-1848), gero Mundakakoan (1848-1854)¹ eta azkenik Lekeitiokoan (1862-1873). J. J. Uribarrenek eramanda joan zen bere jaioterriko Nautika Eskolara, hark eta J. L. Abaroak 1861ean sortutakora.² Lekeitioko Udal Artxiboan gordetzen dira Nautika Eskolako matrikula liburuak eta agiri ugari. Horien artean, E. M. Azkue beraren eskuko informe bat, zuzendariaren ordezkari Demetrio Duro Valladolideko Errektoreari 1868/02/06an bidalia (ERASKINAK: 1). Ondorengo lerroetan azalduko dugu informe horrek zer dioen.

¹ J. Kortazarrek aztertu du E.M. Azkueren Bermeo eta Mundakako irakasaldia. Haren arabera, Mundakako Nautika Eskolak 1854 arte iraun zuten, eta ondoren, eskola partikularrak eman behar izan zituen (Kortazar, J. 2013).

² «Lekeitioko urian Jose Jabierr Uribarrendarr biotz andiko erri-maiteak itsas-gizonentzako ikastegia sortu ebanean, Uribarrenek berak begiz io ta eroan eban ikastegi barri atako irakasle izatera, 1861 garren urtean.» (R.M. Azkue: 1896:5). Uribarren bankaria zen Parisen eta aberatsa, Lekeitioko inguruko baserri askoren jabea. Baita ongiegilea, Nautika Eskola ez ezik, neskontzako eskola, etab. sortu baitzuten. Ik. Duo, G. 1995.

Nautika eskolak Pilotutza karrera eskaintzen zuen. 1859an sortua Erret-Aginduz, sortzaileak partikularrak ziren (esandako Uribarren eta Abaroa). Beste Nautika Eskolen parekoa zen baina graduak eta errebalidak emateko ahalmenik ez zuen, horiek Itsas Armadako departamenduetako kapitain jeneralen esku baitzeuden. Hala ere, karrera amaierako ziurtagiriak ematen zituen.

Eskolaren arduradunak lau pertsona ziren: zuzendaria, idazkaria, katedradun bat eta kontserjea. Zuzendaria Bruno L. De Calle zen, patroikidea hura ere. Idazkaria Angel M. Ventades zen, katedraduna Aritmetika eta Algebra, Geografia, Fisika, eta Metereologian. Beste katedraduna E. M. Azkue zen, Kosmografia, Pilotutza eta Maniobrak, Geometria eta Trigonometria, Marrazketa Lineala, Geografikoa eta Hidrografikoa irakasgaietan.³ Gero kontserjea zegoen, Garamendi izeneko bat, eskolak atek ixtean eta irekitzean garbiketaz eta ikasleen gizalegezko jokaeraz arduratzen zena. Katedrari zegozkion eskolak egunerokoak ziren. Katedradunek urtean 12.000 erreal irabazten zuten, kontserjeak 3000.⁴

Ikasketak hiru ikasturtetan banatzen ziren. Ikasle matrikulatuak 33 izan ziren 1868an, 57 1870ean. Gehienak ingurukoak ziren.⁵ Matrikula ordaintzen zuten, 100 erreal. Eskolak urtero 3.300 erreal irabazten zuen matrikula-tasekin baina erdia Estatuari ordaindu behar zitzaion matrikula papere-tan. Ordea, ez zuen dirurik jasotzen Estatutik, ez Foru Diputaziotik ez Udaletik. Irakasle-langileak eta materiala diru-iturri pribatutik ordaintzen ziren.

Aipatu irakasgaietan ez ezik, ikasleek beste lau arlotan ere izaten zituzten kalifikazioak hilerok-hilerok: Jokaera (Conducta), Memoria, Adimena eta Ahalegina (Aplicación). Baita hutsegiteei buruzko oharrak Asistentzia,

³ Irakasgaien artean Musika ere agertzen da, 1869-1870 ikasturtean behintzat.

⁴ Lekeitioko Nautika Eskolaz eta Nautika eskoletako maisuen lan-baldintzez, ik. Duo, G. 1994, 2000.

⁵ 1862-1863 eta ondoko bi ikasturteetako ikasleak honako herri hauetakoak ziren: Bermeo, Elantxobe, Lekeitio, Mundaka, Abando, Ibarangelua, Ea, Axangiz, Gautegiz, Natxitua, Kanala, Busturia, Aulesti, Oñati, Leintze-Gatzaga, Vitoria-Gasteiz, Corcubion eta Padron (A Coruña) (NEA, 9/2).

Ikasgaia (Lección) eta Gizalegea (Compostura) arloetan. Administrazio lana ez bide zen makala: agiri ugari daude E. M. Azkueren eskuz sinatuta.

Valladolideko errektoreari zuzendutako informean E. M. Azkuek diotso Pilotutza, Fisika eta Geografiako kabinete hautak eratu dituztela, diru asko kostata. Baita Biblioteka on bat egiteko urratsak hasiak dituztela.

Bere seme Alfontso Maria (Bermeo 1845–Lekeitio 1894) izan zuen ikasle. Ikasle bikaina, aitak bultzatuta duda gabe: 17 urterekin (1862) sartu eta eta katedradun bihurtu zen, 1872-1873an 28-29 urterekin katedrari zegozkion eskolak aitarekin aldizkatzen hasita; gero, katedradun oso zela, 12.000 erreal irabazten zuen. 1874-1876 bitartean soldata ordaintzeko arazoak izan bide ziren Nautika Eskolan: 1876ko agiri batean aitortzen da 14.000 erreal zor zaiola Alfontso M. katedradunari, 8.000 J. M. Ibarra katedradunari eta 3.500 Agustin Garamendi kontserjeari (NEA 21/3). Ik. Alfontso Maria Azkue Ozerin-en jaiotze-agiria, Mundakako eskolakoa, abadearena eta Lekeitio Nautika Eskolako kalifikazioak (ERANSKINAK: 2).

Alfontso Maria ez ezik, beste seme bi ere matrikulatu ziren Lekeitio Nautika Eskolan: Conrado Maria Jesus (1853-1870), 16 urterekin, 1869-1870 ikasturtean (NEA, 11/1) eta Resurrección Maria. Honek bi urte egin zituen hor ikasten.

1.2. E. M. Azkuek arduraz jokatu zuen bere familian tirabirarik izan ez zedin ondasun kontuan, familiakoak batuta egon zitezen eta elkarri lagun ziezaioten, bakoitza bere bizimodua ateratzen hasi arte. Esandakoa frogatzeko bi agiri aipatuko ditugu, biak hil aurreko urtekoak (1872).

Bata, bere ondasunen aitortpena, bi ezkontzetako seme-alabek ondasunen gorabeherak jakiteko eta liskarrik ez sortzeko helburuz egina, ordura arte ez baitzuen ondasunen inbentariarik egin.⁶ Aitorpen horretan E.M. Azkuek adierazten du ez zuela ondasunik irabazi lehen ezkontzan (1843-1856), bai zorrak egin (etxearen mailegua, jateko eta janzteko gastuak, Alfontsoaren piano ikasketak Mungian eta Conrado eta Solen inudea), eta zorrok biga-

⁶ Lekeitio, 1872-VI-15ean, 59 urteko zela egina, P. Olaortua lizentziatuaren aurrean (Azkue Bibliotekako Artxiboa, RMAren funts dokumentalak,130/24).

rrenez ezkondu ondoren (1857) kitatu zituela. E. M. Azkueren borondatea zen, bera bere emaztea baino lehen hiltzekotan, seme-alaba guztiek eskubide berdinak izatea ezkontza batekoak balira bezala, eta bere alarguna (M. Karmen Aberasturi) amatzat hartzea, eta honek ondasunak erabiltzeko ahalmena izatea (ERANSKINAK: 3).

Bere seme Alfontsoen piano ikasketen harira, ohargarria da nola arduratu zen seme-alabek musika ikas zezaten. Azkuetarrak oso musikazaleak izan ziren. Aitak flauta jotzen zuen⁷ eta trebeki abesten, Alfontso Mariak ahots ederra zuen, neba-arreba nagusiek Juan Maria Blas Altuna durangarrarekin solfeo eta piano ikasketak egin zituzten (Arana 1983: 12), eta ez dugu aipatuko Resurrección M. Azkueren musikalaritza. E. M. Azkuek musika zuen bertsogintzarako dohai eta lanabes: «belarrihetan daukat / vertsoen neurrija / ebaten dodanian / andi nai chikijha» dio (Astigarraga-Bijuesca 140). Aitak latinetik himnoak euskaratzen zituen eta semeak musika jarri.⁸

Beste agiria, bere seme eta katedran oinordeko Alfontso Mariarekiko notario-kontratua da. Aita zahartua zela-eta, katedra eginkizunei aurre egin ezinik, semearekin akordio bat egiten du, aitaren katedrako eskolak erdi bana emateko eta semeak soldataren laurdena jasotzeko, ezkondu gabe eta aitarekin bizi bazen, eta ezkonduko balitz soldataren erdia, katedradun jarraitzen bazuen beti amaordeari eta neba-arrebei soldataren laurdena emateko obligazioarekin, amaordeari hil arte eta neba-arrebei hauek bizimodua ateratzeko gai izan arte (ik. ERANSKINAK: 4).

Beraz, Lekeitioko Nautika Eskolako katedrari esker ondo irabazten zuelako kitatu ahal izan zituen zorrak. Ez da dudarik azkenean bere sorterrian bizi ahal izan zela inoizko erosoan. Eta, bestalde, aita familiako gisa, ardura handiz jokatu zuen. Ezkontza bietako seme-alabak batuta egotea nahi zuen,

⁷ «Apolo ta Musak» poeman (ibid. 57-73), kontatzen du nola eta zergatik Euterpek asmatu zuen flauta, Moulane Michelenak ohartarazten duenez (1918:627-28).

⁸ *Ave Maris Stella euskeraz da latinez*. E. M. Azkuetarrak euskeraratua. *Mundakan 1861*. R. M. Azkue tar abadeak erezteko ipinia (Bilbon 1895). Hona horren bertsio bat: *Begoñako Andra Marid-sari / Ave Maris Stella / euskeraz / Eusebio Maria Azkuetarrak ipini dsa / R.M. Azkue tar abadiak*. (Euskaltzaindia, Azkue Bibliotekako Artxiboa, Resurrección María Azkueren funts dokumentalak, 15/2, 15/3).

denek bere bigarren emaztea amatzat hartzea eta elkarri laguntzea, batez ere bere katedran oinordeko jarri zuen Alfontso seme nagusiak.

Baina Lekeitioko Nautika Eskolako irakaskuntza- eta administrazio lanak eta zamak bertso ontzeko astia jango zion ziur asko. Ezen badirudi Lekeitioko Nautika Eskolara etorri artekoak direla E. M. Azkueren olerki gehien-gehienak, Lekeitiora etorrita gero bere lan literarioa «baztertutxoago» utzi zuela, behintzat (Astigarraga–Bijuesca 1990:15). Ordea, Lekeition idatzi bide zuen Ama Birjinari bederatziurren bat, erdaraz, Uriartek euskaratuta argitaratu zena (1964) eta Azkue aita-semeen izenpean 1931n berrargitaratu zena, bermoldatuta.⁹

1.3. 2013ko Omenaldi hau baino lehen E. M. Azkuek beste bi izan ditu XX. mendean (1936, 1973). 1936koa izan zen entzutetsuena, Pizkunde giroan antolatua eta zinez handikiro ospatua: Azkue aita-semeei egin zitzairen gorazarre, Lekeition, bagilaren 27 eta 28an, VII. Euzko Oleriti Egunarekin batera (ik. Egitaraua: ERANSKINAK: 5).

Gorazarrea Euskaltzaleak kultura erakundeak eratu zuen, Lekeitioko taldearen laguntzaz, Bizkaiko gobernadorearen baimen eta Lekeitioko Udalaren babesaz, gastuak partekatuta. Euskaltzaleak eta Lekeitioko Udalaren arteko harreman onak Errepublikarekin hasi ziren: Aitzolek Lekeitioko Udalari diru-laguntza eskatu zion Euskaltzaleaken kultura-kanpainarako, euskal eskoletan materiala sortzeko (1931). Eta Udalak dirua eman: 1931, 1933 eta 1934an 50 pezeta; 1932an, 75 pezeta.

Azkuetarren Omenaldi egunerako propaganda orri politikak atera zituzten, «euzko gogoaren taupadak, euzko izatearen ezaugarri bizien eta agiriarenak»

⁹ Fr. J. A. Uriarteren *Lequeitiyoco Ama Virgīna Antiguacuaren Bederatzi urruna* liburuan E. M. Azkueren bertso batzuk daude: «Andra Mariya Lequeitioco Antiguacoari Pozgar[r]ijjac». Liburu hori R. M. Azkuek bermoldatuta berrargitaratu zen: *Lekeitioko Andra Mariari / bederatziurrena / Eusebio Maria ta R. M. Azkue lekeitiar aita-semeak egina*. Bilbao, Editorial Vasca, 1931. Hitzaurrean R. M. Azkuek esaten du (3-9. or.) bazela beste bat, *Lequeitioco Ama Virgīna Antiguacuaren bederatziurruna* (1864), erderaz Eusebio Maria Azkuek egin eta Aita Uriartek euskeratua. R. M. Azkuek Uriarterena aldatu zuen, Lekeitioko abadeen eskabidez, «azaletaraegi egina dalako», «gure egun ónetan aiñ egoki ezitrudian zer edo zertxo ikusten dala-ta» (Euskaltzaindia, Bibliotekako Artxiboa, Resurrección María Azkueren funts dokumentalak, 92/6).

eta holako adierazmoldez beteak. Alkateari gutunak egin zizkieten Aitzolek, Eusebio Erkiagak (Batzordearen izenean), Xanti Meabek¹⁰ etab. Jai Batzordeak, E. Erkiaga zuela idazkari, gonbidapenak egin zizkien Zita enperatrizari, ezker eta eskuineko politikari, ahaldun eta pertsona ospetsuei, batez ere kulturako jendeari, baita prentsari.¹¹ Gorazarrerako diru-laguntza eman zuten pertsona eta erakunde batzuek: Austriako Familia Imperialak 100 pezeta, Espainiako Akademiak 100, Iruñeko apezpiku Olaetxeak 50, Sotak 50, Fermin Irigaraik 25, Altubek 25, F. Belaustegigoitiak 25, Santanderko apezpikuak 25, Erramun Ertze abade lekeitiarrak 15, J. Larreak 10, gainerakoek gutxiago.

Bagilaren 27ko ospakizunak umeen idazketa eta irakurketa sariketarekin hasi ziren. Irakurketa sariketan parte hartu zuten: 17k 17 urtetik beherakoetan eta 14k gorakoetan. 10, 5 eta 3 pezetako sariak jarri ziren. Mutikoak baino azkarragoak agertu ziren neskatoak, E. Erkiagaren arabera.¹²

Hitzaldiak eman zituzten: bat Lauaxetak «Eusebio Maria olerkari» izenburuduna, eta gainerakoak Altzo, Labaien eta Aitzolek R. M. Azkueren irakasletzaz, antzerkilaritzaz eta musikalaritzaz, eta literatura lanaz, hurrenez hurren.

Abestaldeak «Vizcay'tik Bizkai'ra»ren arrantzaleen abestia kantatu zuen, eta ondoren Eusebio Mariaren «Antxinarik ona!» eta «Gaba» deklamatu zituzten bi neskatok eta «Sur bateri» Malax delakoak.

¹⁰ Buruzagi sozialistak R. M. Azkue goستن du bere gutunean: «mi admirado primer maestro de euzkera en el antiguo Instituto Vizcaino (ya son años) D. Resurrección, de perseverancia viril, (...)» (Lekeitioko Udal Artxiboa, 1005-4).

¹¹ Zerrendan agertzen dira: Sotatarrak, Kanpion, E. Bilbao, J. Urkixo, B. Bizkarra, R. Picavea, Ondarroa eta Motrikuko zirkulu tradizionalistak, Fr. Belaustegi, F. Belaustegigoitia, P. Larrañaga, A. Isusi, M. Lekuona, J. M. Barandiaran, Larrea'tar Jon, *Euzkadi* egunkariaren zuzendaria, *Jaungoiko Zale*, *Ekin*, *Argia*, *Karmengo Argia*, etab.

¹² «Umien azterketak izan genduzan lenen. Euzkeraz zeñek obeto idatzi, eta irakurri. Eun bat mutiko-neskatok jaso eben gure deya. Ikusgarria egoan Udaletxea; ango zarata ta zaparradea! Nok ixildu eta nok ezi ango lagun-taldea? / Neskatoak izan ziran txapeldun, mutikuak baño azkarrago bai zati bat. Sariak, ostera, guztientzako lain izan ziran. / Kepa deunaren egunez banandu yakezan sariok. / Sariketok urtero egiteko asmoa artu dau Lekeitio'ko «Euskaltzaleak». Ori ondo!» (Endaitz, «Lekeitio'ko Oleriti-Eguna. Gomuta samurrak», *Euzkadi*, 1936-VII-05, lehen or.).

28an, meza ostean, Olerki-sariketa, Euzko-Poema sariketa eta herri olerki sorten sariketa udaletxean: olerki sailean, zilarrezko haritz abarraren irabazlea I. Otamendi izan zen, ohorezko aipamenduna G. Sukia (gero kardinala izango zena) eta gainerako aipamendunak Iraizoz, S. Onaindia eta E. Erkiaga. Euzko-poema sailean, Manuel Lekuona, 500 pezetako sariaren irabazlea. Herri olerki sorten sailean sarituak izan ziren L. Salaberria, G. Rementeria, J. Arriaga eta I. Ziarsolo, 100, 75, 50 eta 25 laurlekorekin hurrenez hurren.¹³ Ondoren, M. Arantzazu Barrenak deklamatu zuen saritako olerkia.

Gero, bertsolariek kantatu zuten plazan: *Basarri, Uztapide, Zepai*, Uriarte eta *Txapelek*, J. Zubimendi artezkari zutela.

Bazkarian, bakoitzak 10 pezeta ordainduta, 106 bazkaldar bildu ziren, parte hartzaileen artean euskal kulturaren munduko pertsona ospetsuenak.

Bazkari ostean E. M. Azkue jaio zen etxe-aurrean gomutarria agerrarazi zuten, T. Montzonek hitzaldi samurra eginik.

Bandak euskal kantak baino ez zituen jo (Euskaltzaleak-en jaia zelako), eta jendeak gogo txarrez hartu eta txistuak jo.

Gaueko bederatziatan antzerkia, Gora Buru antzokia bete-bete eginda: Oiartzungo Mendiburu taldeak Lekuona anaien «Eun dukat» antzeztu zuen. Erkiagaren arabera, «Karmeleren etorkizuna» ere antzeztu zuten (*Euzkadi*, 1936-VII-05). Bertsolariek eman zioten amaiera VII. Eusko-Olerki-Egunari.

Azkuetarren lanen erakusketa egon zen udaletxean, lau egunez; hiruzpatalau mahai hizkuntza, literatura eta musika saileko liburu eta idazkiz beterik. R. M. Azkue euskaltzainburuaren lanen zerrenda bat ageri da paperetan (ERANSKINAK: 6).

Komunikabideek omenaldiaren berri eman zuten oparo, xehetasun ugariekin: Union Radio Donostia, *Euzkadi* (1936-VI-25, 26, 27, 28; VII-1,

¹³ Sariketaren oinarriak ik. *Yakintza* 1936:240). Ohargarria da baldintza bat: «Aditzeko errez ez dan olerkirik ez da saritua izango».

VII-5), *El Día* (1936-VI-28; VI-29). *Euzkadi* egunkariko editorial artikulu sinatu gabe baten egileak (Lauaxeta?) Azkue aita-seeak aberriaren izarizat hartzen ditu.¹⁴

Omenaldi egunetatik laster gerra ekarri zuten faxistek, Pizkunde giroko amets gozoa amets gaizto bihurtuz. Lekeition Azkue aita-seeen omenaldiaren antolatzaile edo lehen lerroko parte hartzaile batzuk fusilatua, erailak izan ziren: Aitzol, Martin Lekuona, Lauaxeta...

1936ko Omenaldirako Carlos Solano pintoreak Eusebio Mariaren koadro bat marraztu zuen, eta udaletxean jarri zuten, izan ere aitaren koadroaren eta seme euskaltzainburuaren presentzian ospatu ziren jaiak. Koadroa Resurrección Mariaren jabetzakoa zen baina Udalak eskatu zion udaletxean gelditu zedila (1936/07/15).¹⁵ Egun koadro horren arrastorik ez dugu, ez dakigu non egon litekeen ez zer gertatu den, Lekeitioko udaletxean ez baitago.

2. Nor da «Carlistenac» bertsoen egilea?

E. M. Azkuek ez zuen poema-libururik argitaratu. Haren poemak zein diren eta ez diren jakiteko, transmisioa eta egiletza arazoaren sorburua azalduko dugu, lehenik, eta arazo horien erakusburu bat jarriko: «Carlistenac» bertsoak (2.1), ondoren bertso horien egilea E. M. Azkue den edo ez eztabaidatu eta aztertuko dugu (2.2), azterketaren ondorioz bertso horien egilea gure ustez nor datekeen adieraziko dugu, baita egile horren ustezko beste kanta batzuk aipatuko (2.3), eta, azkenik, egile edo kantuen arteko elkar-eraginaren eta testuartekotasunaren adibide batzuk erakutsiko ditugu (2.4).

¹⁴ Egilearen arabera, E.M. Azkueren omena Uriarte eta Manterolari zor zaie, bere garaian ez omen baitzen lekeitiar poeta aintzat hartua izan. Bidezkotzat jotzen du E. M. Azkueren entzutea berriztatzea eta gaztediari eredutzat jartzea. «Olerkari arauz, ona zan. Punterengua? Eztiñogu olakorik, baña guztiz ona. Asko beragandik ikasi daikegu. Neurritz idazten eban eta gogayak, be, sakonak eukoizan» («Azkuetarrak», *Euzkadi*, 1936-VI-28).

¹⁵ Euskaltzaindia. Azkue Bibliotekako artxiboa. Resurreccion Maria Azkueren funts dokumentalak, 103/153).

2.1. Arazoen sorburua eta adibide bat: «Carlistenac»

Eusebio M. Azkuek bere eskuizkribuak etengabe orrazten, aldatzen eta euskalzaleen artean zabaltzen jardun zuen. Eskuizkribuok eskualdi ezberdinetakoak dira eta haietako bakar batean ez dira batzen haren olerki guztiak; eskuizkribu-bilduma bat baino ez zuen argitaratu semeak (*Parnasorako Bidea*, 1896).¹⁶ Eusebio M. Azkueren olerkien eskuizkribuak eta orain arte ezagutzen ditugun iturriak eta aldaerak bildu dituzte A. Astigarraga eta J. Bijuescak beren argitalpen lan zehatz txalogarrian (*Eusebio Maria Azkuekoa. Euskarazko vertsoak*, 1990). Baina, nola eskuizkribuok sakabanatu ziren, eta batzuk beharbada galdu ere, gutxienez galdetu behar da zein diren Eusebio M. Azkueren olerkiak, batez ere *Parnasorako Bidea* bildumatik kanpo geldituak.

Guk ez dugu uste Astigarraga–Bijuescak Eusebio M. Azkuerenak direlaketzat jotzen dituzten guztiak harenak direnik. Egia esan, nolabaiteko duda azaldu zuten argitaratzaileok *Parnasorako Bidean* edo J. A. Uriarteren *Poesía Bascongada, Dialecto Vizcaino* bilduman baino agertzen ez direnei buruz: «ez dakigu Uriartek edo Manterola–R. M. Azkuek erabili eben bildumen atalen bat diran edo beste bideren batetik heldu ziran honeen eskuetara.» (Astigarraga–Bijuesca: 1990: 34). Aitortzen dute, baita ere, «hutsune handiegiak dagoz oraindino Eusebio M. Azkueren lanaren ezagutzan» (ibid., 35).

Adibide bat jarriko dugu: «Carlistenac» bertsoak. Bertso horiek J. A. Uriarte frantziskotarrak (Arrigorriaga 1812–Zarautz 1869) baino ez ditu biltzen, ez baitira ageri E. M. Azkueren eskuizkribuetan ez argitalpenetan. Ez dakigu bertso-paperetan agertu ziren edo nondik jaso zituen Uriartek. Uriartek nonbaitetik kopiatuta jarri zituen bere bilduman (eskuizkribuan 143-146. orrialdeetan, Kortazar–Billelabeitiaren edizioan 93-96. or.). Uriarteren bilduman ustezko egilearen izena ageri da parentesi artean: (Azcue); ez bertsoen hasierako orrialdean baina bai 3.ean, 145. or., goikoertzean. Ustezko egilearen izena bere eskuz jarri zuen Uriartek (itxura ba-

¹⁶ L. Akesolok aztertu ditu Zarauzko eskuizkribuak, *Parnasorako Bidea* eta Uriarteren bildumaren (PBDV) arteko ezberdintasunak eta ondorioztatu, zenbaiten iritziaren kontra, semeak egindako aldaketak garrantzi gutxikoak direla (Akesolo 1879, 1988).

tean, behintzat, nahiz ezin dugun ziurtatu).¹⁷ Egiletzakoa Uriartek E. M. Azkueri ezarri ziola ikusi eta fidatuta edo, Astigarraga–Bijuescak ere Eusebio M. Azkueren olerkien artean jartzen dituzte bertsook (279-284 or.). Eusebio M. Azkuerenak ote dira, benetan? Horixe eztabaidatuko dugu ondoko azpiataletan.

Hona bertsook:

Carlistenac

I. Zabaldun belarriac / Euscaldun maitiac, / Entzuteco gozaro / Zuben albistiatic: / Ez da beste soñuric / Mundu zabaletan, / Zuben icena baño / Aspaldi onetan.

II. Eguija esateco / Ez da erraz sinisten, / Beguiz icusi arren / Jacuna jazoten: / lau urte luceetan / Beti guerra baten; / Mundubac arrituric / Zaitube icusten.

III. Zubec asi cenduben / Guerra odoltsuba, / Bacarric lagun zala / Jaungoico altsuba: / Lurreco indar бага / Guizonen ustian, / Gueijago arguituteco / Ceuben entzutian.

IV. Barria ta burlia / Arerijuetan / Ez zan beste gauzaric / Lelengo egunetan; / Eun bategaz leguez / Yzanic gudia, / Uste eben bertatic / Zubec goitutia.

V. Milla osuetan / Talda ugarijac / Alde guztijetatic / Ona etorrijac: / Arma, diru ta soñez / Osaro jantzijac, / Ynglaterratic dauquez / Cañoec barrijac.

VI. Guichi balira leguez / Millazco eunac; / Cristiñuac ditubez / Billatzen lagunac, / Gente arrotzai deutse / Bertara deituten / Gozauten dirala / Bazterrac ondatzen.

VII. Frances, Yngles, Polaco, / Portugues galdubac / Cristiñu malmutzac / Emonic escubac; / Alde guztijetatic / Talda ugarijac / Betetan ditubez gaur / Euscaldun errijac.

¹⁷ Arantzazuko frantziskotarren artxiboan dagoen eskuizkribu originalean hatz batek puskatuta dago ustezko egilearen izena, artxibozainak esan didanez, baina nire 1983ko fotokopian garbi ageri da Azkueren izena: (Azcue).

VIII. Mendi basuetara, / Diñue euscaldunac: / Elduco dira nosbait / Ybarren egunac: / Bacochar al dabena / Lepuan arturic, / Guazan ardura baga / Ez equi bildurric.

IX. Ez ciran Euscaldunac / Beinbere mempetu; / Erroma bera ez zan / Euracaz jaubetu: / Gure Asaba onacaz / Ez gara iños aztu; / Talda arro orrecaz / Gura dogu neurtu.

X. Suba eta odola / Bazter guztijetan, / Alperric da zabaltzen Euscal-errijetan: / Egunic egunera / Yndarrac barrijac / Eracusten ditube / Euscaldun arguijac.

XI. Batzube amaitu, ta / Bestiac etorri... / Bazan arerijua / Numbaita ugari...! / Ychaso ta liorrez, / ¡Noc leique cembatu, / Cembat buru gaistoco, / Emen jacun sartu?

XII. Euren soiñ ta armacaz / Dira orniduten. / Menditarrac ez ditu / Ascuac bildurtzen. / Celai ibarretan / Asi dira jasten: / Nunnai arerijua / Azartu billatzen.

XIII. Emen gara mutillo, / Dirautse euscaldunac, / Ygaro ciran nosbait / Lelengo egunac. / Urten errijetic / Guria da lurra; / Bes-telan ganian da / Suba ta egurra.

XIV. Orma artetan dira / Cristiñuac sartzen; / Baña queia emonic / Ditube ateraten. / ¡Cembat triscantza gogor / Yngles azurretan, / Baitabere ez guichi / Euren lagunetan!

XV. Euscal errijac dira / Arrotzen izuba; / Agaitic arrituric / Gueijago munduba, / Banaca guelditubac / Dacusez iguesi; / Len arro, apaindubac / Arlote, ta ichusi.

XVI. Francesac batera, ta / Ynglesac bestera, / Duaz euren lecuban / Barri emotera: / Polaco, Portuguesac, / Lagunac ichiric, / Ta ona etorrijaz / Ondo damuturic.

XVII. Amaitu ciran bada / Burla ta barriac, / Bildurric artu ditu / Zanzuen ordiac; / Billatu Cristiñuac / Goruntzco bidia / Ez zaituz lotsatuco / Ygues eguitiac.

XVIII. Baña atzian dira / Euscaldun senduac, / Guztiz amaituteco / Arturic goguac, / bein asitaco salla / Nai dabe aurrera; / Garaitza osuagaz / Orduban echera.

XIX. *¿Celan ez da zurtuco / Gaur mundu guztija, // Ta eracutsi arguiro / Bere mirarija? / Ezpadau iñoz izan / Guerra onec besteric, / Lurraren azalian / bardindutecoric?*

XX. *Cerubari esquerrac, / Euscaldun maitiac; / berac sendatu ditu / Zuben eguitiac. / Beragan daucazubez / Garaitza guztijac; / Daben leguez esango / Guda onen amaijac.*

XXI. *Goratuco zaitubez / jatorri guztijac; / Ta benetan dontsutu / Uri ta errijac. / belaunic belaunera / Zuben entzutiac, / Pocez beteco dtu / Zarrac ta gaztiac.*

XXII. *Baitabere esquerrac / Erregue Jaunari, / Carlos bostgarren-go, ta / Zuben burubari: / Bera izan dozube / Guztijan [Guztijen? Guztijon?] laguna, / Zubecaz igaroric / Gaba ta eguna.*

XXIII. *¿Noc dau iñoz icusi / Alan erregueric, / Gose egarrijetan, / Sarritan ez loric? / Bala artetan bere / Batbere bildurric / Ycusten ez jacola... / ¿Nun da irudiric?*

XIV. *Ymiñi bada laster / Bere jarlecuban, / Escribiduric dago / Alanche ceruban: / Alperric amorratu / Guztiz infernuba, / Etsi daique benetan / Aucija galduba.*

Bertso horiek 1837 bukaera aldekoak dira, bertso-jartzaila atzerritar soldaduez mintzo delako («Frances, Yngles, Polaco, / Portugues galdubac», VII). Zazpigarren ahapaldi horretan 1834/04/22ko ituna, Itun edo Aliantza Laukoitza aipatzen da zehar bidez; 12.000 soldadu bidali zituzten gerrara ingelesek, Lacy Evans jenerala buru.

Gerratean zabaldu ote ziren bertso paperen bidez? Izenburua, behintzat, geroago norbaitek ipinia dirudi, beharbada Uriartek berak; bertsoetan ez da ageri *karlista* hitza, eta, bestalde, orduan *errealistak* deitzen ziren eta gero-erago *karlistak*.

2.2. Zergatik egilea ez datekeen E. M. Azkue

«Carlistenac» bertsoak E. M. Azkuerenak direla uste izateko arrazoi batzuk badira. Alde batetik, Uriarteren bilduman Azkueren izena agertzen da paren-

tesi artean, azaldu dugunez. Bestetik, Uriartek E. M. Azkueren poema multzo handi bat bere bildumaratu zuen (PBDV), Markinako idazleen idazkeran jarrita eta beste aldaketa batzuekin; E.M. Azkueren 74 poema horiek Uriarteren bildumaren erditsua osatzen dute eta elkarren jarraian ageri dira, baina «Carlistenac» izenekoetatik bereiz. Gainera, Uriartek aspalditik ezagutzen zuen Eusebio M. Azkue: elkarren ikaslagun (Bilboko S. Fraiskuko komentuan) eta adiskide ziren, hari eta Ozollo misionistei eskaini poemaren sarreran adierazten duenez (eskuizk. 491; Kortazar–Billelabeitiaren ediz., 245). Bermeon bizi izan ziren biak eta Uriartek adierazten dio Bonaparteri berak bultzatuta ondu dituela Azkuek bertso asko eta bizkaierazko poeta onena dela (Ruiz de Larrinaga 1957:333). Bestalde, bertsoen egilea karlista amorratua agertzen da eta badakigu E. M. Azkue ere ideologiaz eta hizkeraz tradizionalista porrokatua zela.

Baina hala eta guztiz ere, esandakoei hiruzpalau eragozpen jarri behar zaizkie.

Lehenengoa: Uriarteren bilduman «Carlistenac» ez da ageri E. M. Azkueren poemekin batera sailkatua, haietatik bereiz baizik. Uriartek lau multzo bereizi zituen bere bilduman (ipuinak, bertsoak, gabon kantak eta E. M. Azkueren poemak, azken hauetan egilearen izena noizbehinka ageri dela) eta «Carlistenac» bigarren multzoan kokatu zuen, bertsoen multzoan.¹⁸ Uriarteren bilduman egile batzuen obrak ez daude batera, bereiz baizik eta izenik gabe (adib. Iturriagaren alegiak).

Bigarren eragozpena: Uriarteren bilduman egilearen izena askotan agertzen da (maizenik parentesi artean), baina ez beti. Adib., alegien multzo mardulean ez da J. A. Mogel, Iturriaga edo Uriarteren ordea bereko kide zen J. M. Zabalaren izenik agertzen, alegi gehienen egileak haiek izanik; ez bide zekien norenak ziren. Egile batzuen bertso-sorta guztiak ere ez ditu biltzen Uriartek, nahiz asmo hori zukeen.

Hirugarren eragozpena: Uriarte eta E. M. Azkueren arteko harremanei buruz ez dakigu gauza handirik (Astigarraga–Bijuesca 16). Uriarte komentu batetik bestera ibili zen. 1856. urtean hasi bide zuen bere bilduma eta bizitza

¹⁸ Uriarteren eskuizkribuan «Carlistenac» 143-146. or. kokatuak dira, Azkueren poemak 273-598. or.; Kortazar–Billelabeitiaren edizioan haiek 93-95. or., hauek 155-290. or.

osoan osatzen joan zen (Kortazar–Billelabeitia 1987: 9), baina ez zuen argitaratzeko prest utzi.¹⁹ Gainera, 1856az geroztik Bibliaren itzulpen lanek hartuago zegoen Uriarte poesia bilduma argitaratzeko ardurak baino. Eta, nolahi ere, bilduma beretzako egin zuen Uriartek, eta beraz, testuen jatorrasun eta fidagarritasunari dagokionez, Uriarteren transkripzioa ez da E. M. Azkueren Zarauzko edo Bizkaiko Aldundiko eskuizkribuen maila berekoa, Zarauzko eta Bizkaiko Aldundiko horiek E. M. Azkuek bere eskuz idatziak baitira.

Beste eragozpen bat: «Carlistenac» bertsoak Azkuek 1837an ondu bazi-tuen, nola gelditu ziren bakartuta, egileak bere eskuizkribuetan jaso gabe (salbu Uriarteren bilduman)? E. M. Azkueren olerki gehienak 1850-60 inguru-tukoak dira, ustez, eta alde horretatik ere dudan jartzekoa da haren egiletza.

Gure ustez, «Carlistenac» nekez izan daitezke E. M. Azkuerenak, alde batetik, enuntziatio moduari begirata eta, bestetik, ustezko egileen tes-tuak bertso horietakoekin konparatuta.

Bertso horiek atera edo zabaldu zirenean (1837) E. M. Azkue gerran ze-bilkeen,²⁰ baina enuntziatio moduari ohartuta, gerratik kanpoko batek idaz-ten ditu bertsoak, euskaldun soldaduei zuzentzen baita *zuek* erabiliz:

Zubec asi cenduben / Guerra odoltsuba («Carlistenac», III).

Carlos bostgarrenge, ta / zuben burubari: (ibid., XX).

Izan ere, *zuek* hori ez zatekeen egokiena soldadu edo ofizial batek eginiko bertsoak izan balira.

Baina, batez ere, testuen arteko konparazioaz baliatzen gara bertso horiek E. M. Azkuerenak ez diratekeela argumentatzeko. Horretarako bertsook Bilboko gabon kantekin (GK 1818-1832), egile beraren 1828ko «Vizcai

¹⁹ Esaterako, poema batzuk birritan kopia-tuak daude. Seguru asko ez zuen argitaratzeko asmorik ere, Akesolok dioenez (1988:12). R. de Larrinagak dio PBDVren aurkibidea Uriartek berak egin dela baina arre-ta gabe (Ruiz de Larrinaga: 1954: 292).

²⁰ *Pamasorako bidean*-en sarreran R.M. Azkuek dio E. M. Bilboko S. Fraiskuko komentuan latina eta filosofia ikasten ari zela «Karlos V-n aldeko gerlari edo gudariakana ioan bearr izan eban» (R.M. Azkue: 1896: 5). Baita Bergarako hitzarmena ez zuela aintzat hartu. Uriartek dio gerran ofiziala izan zela (Ruiz de Larrinaga: 1957: 333). S. Fraisku komentua karlisten gunea izan zen.

gutziz linargui» bertsoekin (Altzibar 2008) eta E. M. Azkueren poemekin konparatu ditugu, zehatzago E. M. Azkueren honako iturri edo eskuizkribu eta argitalpen hauekin: Z (Zarauzko eskuizkribuak), CV (*Cancionero Vasco*), EE (*Euskal-Erria*), PB (*Parnasorako bidea*, 1896), PBDV (Uriarte, *Poesia Bascongada, Dialecto Vizcaino*), B (Bizkaiko Diputazioaren Artxiboa: «Apolo ta musak» eta «Dies irae») eta A-B (Astigarraga-Bijuescaren edizioa). Esan dugunez, edizio honek aurreko guztien aldaerak biltzen ditu eta horregatik berori baliatu dugu gehienik; adibide gehienetan eskuizkribu edo argitalpenen ondoren A-B edizioko orrialdea jarri dugu, eta parentesi artean testu beraren beste iturri bateko aldaerak aipatzen ditugunean.

Konpara ditzagun testuok hizkuntza aldetik (hiztegia, adizkiak, posposizio-atzizkiak, eufonia eta grafiak), baita estilo, topiko literario eta metrika aldetik.

Hiztegia

GK (1818-1832)	«Carlistenac»	E. M. A.
<i>Gueuc dongsutu guinaiz / betico errijac</i> (1828, (II), IX) [dongsutu 'zoriontsu egin'].	<i>Goratuco zaitubez / jatorri guztijac; / Ta benetan dongsutu / urita errijac</i> (XXI)	
<i>Josepe ta Marija / Artu vitarteco, / dongsutu gura bozu, / secula betico</i> (1825, III) ['zoriontsu izan'; 'santutu'].		
<i>Gau dongsuba</i> (1820 Pozgarriya) [dongsu 'zoriontsu']. ²¹		(Ama Birjinaz) <i>Ez iakan eldu orbanik / lora dongsuari</i> (PB 38) [dongsu 'santu']

Ikus dezakegunez, E. M. Azkuek ez du erabiltzen *dongsutu* aditza, are gutxiago *errijac dongsutu* hitz konbinazioa, ziur asko gaztelaniazko «hacer

²¹ Adibide ugari gabon kantetan: *Mesias dongsuba* (1829, VI); *seme ain dongsuba* (1830, V); *hurrian dongsubac* (1832 (I), VI).

felices a los pueblos» klixearen kalkoa (ilustrazioaren arabera, hori zen politikaren helburua). Ez da erraz sinestekoa E. M. Azkuek, bera ikasten egon zen tokian zabaldu ziren gabon-kanta horietako klixek bakan hori ikasi eta erabiliko zuela gerran zebilela. Ohargarri da, bestalde, *dontsutu* 'zoriontsu egin' aditzaren adiera ez dela OEHN bildua.

Hitz, kolokazio, esamolde eta forma berberak ageri dira «Carlistenac» ber-soetan eta gabon kantetan, baina ez dugu aztertu E. M. Azkueren poemetan haietako zein agertzen den eta zein ez. Gabon kantetako adibideak, hitz batzuenak, ugariak dira (*arrotz*, *asaba*, *ikusi*-ren adizki trinkoak, *Vizcai*, *vizcaytar*, *goitu*, *guda*, *malmutz*, *mempetu*, *osoro*, *zurtu*) eta ez ditugu hemen denak jarriko.

GK (1818-1832)	«Carlistenac»
<i>Ezagutuco</i> (...) <i>arguiró</i> (1824, XVI)	<i>eracutsi arguiro</i> (XIX)
<i>Ez da arrotzic sartu</i> (1818 [II], XII); <i>jente arrotza</i> (1819, V)	<i>Arrotzen izuba</i> (XIV), <i>gente arrotzai</i> (VI)
<i>Gure ásaba onac</i> (1830, V)	<i>Gure Asaba onacaz</i> (IX)
<i>azartu</i> («Vizcai guztiz linargui» 1828, VI)	<i>azartu</i> (XII)
<i>dacusez</i> (1818, III)	<i>dacusez</i> (XV)
<i>Dirautse</i> (1818, VI); <i>dirautsé</i> (1831 [II], I)	<i>Dirautse</i> (XIII)
<i>Egunic egunera</i> (1825, XIII)	<i>Egunic egunera</i> (X)
<i>Icusico dau buruban egurra</i> (1824, V); <i>ibillico da / echian egurra</i> (1830 [II] [[irudizko adiera]	<i>Bestelan ganian da / Suba ta egurra</i> (XIII)
<i>euscaldun garbijac</i> (1824, VIII)	<i>euscaldun arguijac</i> (X); <i>euscaldun sendo</i> (XVIII)
<i>Vizcaia</i> , <i>Vizcaitar</i> (urtero, salbu 1820); <i>España</i> (1820, VIII, XII; 1830, XI), <i>españarrac</i> (1820, VIII)	<i>Euscaldun errijac</i> (VII), <i>Euscal errijac</i> (XIV), <i>Euscal errijetan</i> (X);
<i>goitu</i> (-) (1819, VI; 1824, III, VI)	<i>goitulia</i> (IV)
<i>bizico gara</i> (...) <i>gozaro</i> (1824, XIX)	<i>entzuteco gozaro</i> (I)
<i>Guda</i> (1824, VI); <i>arrotz gudatsuba</i> (1825, IX); <i>gudatu</i> (1818 [II] IV; <i>guda guizonac</i> (1828, IV); <i>Gudari</i> (1828, IV)	<i>guda</i> (IV)

GK (1818-1832)	«Carlistenac»
<i>guerratic</i> (1818 (II)); <i>guda edo gerratic</i> (1832, VII); <i>guerra amaitzaillia</i> (1820, XIV)	Guerra (II, III)
<i>malmutz ta gaistuac</i> («Vizcai guztiz linargui» 1828, IV); <i>Otzo malmutzac</i> (1824, XIV); <i>malmutz ta arruac</i> (1829, VII); <i>guizon eskerbaga malmutzen</i> (1830, VIII)	cristiñu <i>malmutsacaz</i> (VII)
<i>Gura leuque / (...) mempetu</i> (1818 (II), VI); <i>nai cituban mempetu</i> (1819, III); <i>etsaien mempian</i> (1820, XIII); <i>euren mendian</i> (1824, XVIII); <i>mempecuac</i> (1825, XVII)	<i>Ez ciran Euscaldunac / Beinbere mempetu</i> (IX)
<i>zainduco (...)</i> / <i>osoro forubac</i> (1819, XXVIII); <i>Jangoicuaeren leguia / osoro gorderic</i> (1820, X); <i>gorde osoro / Vizcaico forubac</i> (1824, I); <i>gorde (...)</i> / <i>osoro forubac</i> (1825, IX); <i>gorde osoro / ...aguindubac</i> (1829, XI); <i>osoro beteetaco</i> (1832, VIII)	<i>osaro jantzijac</i> (V)
<i>zurtu ta arrituric</i> («Vizcai guztiz linargui» 1828, VI); <i>daucac zurturic</i> (1820, XVII)	<i>Celan ez da zurtuco</i> (XIX)

Bat datoz gabon kantak eta «Carlistenac» arruntagoak diren honako hitz hauetan ere:

Gerra amaitzaillia (1820, XIV), *guztiz amaitu* (Car XVIII); *ex deusé ardura* (1830 [II], XVI), *ardura бага* (Car VIII); *arerijo, areriju(-), areriyu(-)* (1818 [II], VI; 1820, VII; 1825, XII; «Vizcai guztiz leinargui» 1828, X), *areriju(-)* (Car IV, XII); *Baita bere* (1819, Pozg.; 1831 [II], X), *Baita bere* (car XIII, XIV); *Bertatic* (1828, Pozg.; «Vizcai guztiz linargui» 1828, VII), *bertatic* (Car IV); *beteetaco* (1832, VIII), *betetan* (Car VII); *bildur* (1818 [II], VII *ex dago bildurrik*; 1828, V *eguan bildurra*; 1820, VIII *ex dabe (...)* *bildurric*; 1831, IX *ex dauca bildurric*); *ex euqui bildurric* (Car VIII); *billatu* (1828 (II), VIII; 1831 (II), XX *billatutera*), *billatu, billatzen* (car VI, XII); *ganian* (1830 Gaboneco cantac / Jesusen ...ganian; id. 1830, VII *gañian*), *ganian* (Car XIII); *glorija gocetaco* (1820, XXII), *gozatuten dirala* (Car VI); *gura* (1818 (II), V, VI; 1820, XIV; 1824, V [gutxitan *nai*, 1824, XV eta beste behin edo behin]), *gura dogu* (car IX); *igaro(-)* 1819, XI, XX; 1824, XX; 1829 (II), XIV; «Vizcai guztiz linargui» 1828, III), *Ygaro ciran, igaroric / Gaba ta eguna* (Car XIII, XXII); *imini, iminteco* (1829 (II), XXI; 1831

(II), XX [inoiz ez ipini]), Ymiñi (...) jarlecuban (Car XXIV); *infermu(-)* (1820, VII), *inpemu* (1831, IV), *infernuba* (Car XXIV); *iñoz* (1819, VIII), *iñoz* (Car XIX); *izugarri* (1818 (II) Sarr. Bizcaitar sendo / *izugarriyac*; 1819, VII *Erroma izugarri / fede bagakuak*; «Vizcai guztiz linargui» 1828, X *izugarrija*, *Euscal erriyac dira / arrotzen izuba* (Car XV); *jaube* (1819 XVII), *euracaz jaubetu* (Car IX); *mirari(-)* (1818, V; 1831, I), *eracutsi arguiro* (...) *mirarija* (Car XIX); *bijotzak sendotu* (1819, XIX), [cerubac] *sendatu ditu / Zuben eguitiac* (Car XX); *basuac trisquetan* (1831 (II), XIII), *triscantza gogor* (Car XIV); *zubez, ceuben* (1825, V; 1831 (II), XIX), *zubez, zuben* (Car I, III, IV).

Hitzen aldaerak

GK (1818-1832)	«Carlistenac»	E. M. A.
<i>Azquenengo</i> (1819, XIV)		<i>Azkan</i> (Z, CV, PB); <i>azquen</i> (PBDV, batzuetan) ²²
<i>Igues</i> (1818, IX)	<i>Ygues eguitiac</i> (XVII)	<i>igas even, igas doaz</i> (Z, EE, CV); <i>igues</i> (PBDV), <i>iges</i> (PB, ez beti)
[adjekt.] <i>duaz iguesi</i> (1818, II-III)	[adjekt.] <i>Dacusez iguesi</i> (XV)	<i>igas/igasi</i> ²³

²² Adibideak: E.M.A. «Munduaren escu bijhac» 42. bertso lerroa *azkanak*, A-B 138. Uriartek batzuetan *azkan* aldatu egiten du eta *azquen* jartzen: PBDV, A-B 326 *azquenera artian* (PB *azkanera arrtean*); PBDV eskuizk. 499 *azcana* / ibid. *Azquen*, A-B 442; PBDV eskuizk. 563 *azquena*, A-B 496; «Micheletia eta viciputza» PBDV, A-B 501 *Azquenera*.

²³ Adibideak: E.M.A. «Euzcadia» Z 535 *igas even*, A-B 114 (PBDV *igues eben*); Z «Euzcadia» Z 725 *igas doaz*, A-B 120 (PBDV *igues duaz*); «Munduaren escu bijhac» Z 40 *igas doianian*, A-B 138 (PBDV 483 *Ygues doianian*); Z *igas ez deijhen*, A-B 169 (PBDV *Ygues*; PB 122 *iges*); Z *igas even*, A-B 191 (PB 133 *iges eben*); Z *Igas eutsan*, A-B 194 (PBDV 345 *Ygues eutsen*; PB 136 *Iges eutsan*); Z *igasten deutso*, A-B 211 (PBDV *Yquesten deutsa*; PB *Igesten deusku*); CV *igas (...)* *ebiltsezala, igas eben*, A-B 245 (PB *igesi ebiltzala*); EE *igas ioan*, A-B 272 (310 *igas ioan*). *Igues* PBDVn batez ere; *iges*, PBn (badira *igas, igasi* adibideak ere PBn): PBDV *iguesten* 288 (PB 81 *igesten*); PBDV *igues juan cirian* 292 (PB 85 *iges eben*); PBDV *igues eguin guraric* 324 (PB *igasi guraric*).

GK (1818-1832)	«Carlistenac»	E. M. A.
<i>daucaguna leguez</i> (1818, I)	<i>Daben leguez esango</i> (XX)	<i>dalez, egozalez</i> (Z, PB); <i>Dan leguez, egozan lez</i> (PBDV) ²⁴
<i>Alperric gura eban</i> (1819, IV); <i>alperric dira / nire aleguiñac</i> , <i>Alperric legue onac dira zabalduten</i> (1825, IV, VIII); <i>Alperra izango da / ondo aguintzia</i> (1825, XVIII)	<i>Suba ta odola (...)</i> / <i>alperric da zabaltzen</i> (X); <i>Alperric amorratu</i> (XXIV).	<i>Alper da</i> , <i>Alper gabiltz</i> ²⁵

Beraz, hitzen aldaera zenbaitetan bereizi egiten da E. M. Azkue gabon kantetatik eta «Carlistenac» bertsoetatik. Uriartek E. M. Azkueren hitzei aldaketak egin zizkien, Markinako idazleen eredu literarioa (*azken, iges*) hobesten baitzuen. Uriarteren aldaketei dagokienez, hemen eta ondorengo atal zenbaitetan aztertzen ditugun batzuk Akesolok aipatuak ditu (Akesolo 1988: 11-12). Ohargarria da, bestalde, *alperric da zabalduten/zabaltzen* esaldia agertzen dela bai gabon kantetan eta bai «Carlistenac» bertsoetan.

²⁴ Adibideak: «Euzkadia» Z 895 *ez egozalez*, A-B 126 (PBDV *ez egozan lez*); Z *ez jhakalez*, A-B 145 (PBDV *Ez jacon lez*); Z *parkatu dotseguléz*, A-B 156 (PBDV *parca deutsegun leguez*; PB *parrikatu deutsegunez*); Z *dalez*, A-B 165 (2) (PBDV *dan lez*); «Apolo ta Musak», A-B 61 *daukêlez*; PBDV *dagozan leguez*, A-B 320 (PB 273 *dagozalez*); PBDV *daguan leguez* 326 (PB *dagoalez*); PBDV *ez dan lez*, A-B 340 (PB *eztalez*); «Stabat mater» PBDV 499 *eutsan lez*, A-B 441 (PBn *ez dago poema hori*). Salbuespenak: PBDV *cijalez* (PB *zia lez*).

²⁵ Adibideak: PBDV 563 *Alper gabiltz*, A-B 496; PBDV *alper dira (...)* *aleguiñac*, A-B 346 (= PB 334); «Moguel ta Characa», A-B 290 *Ta alper eraguin jaquen / Boticaco drogai*.

Adizki laguntzaileak eta trinkoak

GK (1818-1832)	«Carlistenac»	E. M. A.
<i>Ciran</i> (1819, XIV) / <i>cirian</i> (-) (1818, VI; 1820, III, IV; 1825 IX; 1830, I)	<i>Ciran</i> (XIII), <i>dirala</i> (VI)	<i>Cirian</i> , <i>dirian</i> (Z) ²⁶
<i>ditubana</i> 'hark haiek' (1820 (I), <i>citubanac</i> (1828, VIII)	<i>Ditu</i> 'hark haiek' (XII);	<i>Dituz</i> , <i>Cituzan</i> , <i>balituz</i> 'hark haiek' ²⁷
<i>Ditube</i> (-) 'haiek haiek' (1819, XVI; 1820, XIX; 1825; 1829 [II], XIII), 1830 (II), XIII / <i>ditubez</i> (1829, I; [II], XVIII); <i>cituben</i> (1819, XI; 1824, VI)	<i>Ditube</i> 'haiek haiek' (X, XIV) / <i>ditubez</i> (VI); <i>zaitubez</i> 'zaituztete' (XXI); <i>Ez zaituz</i> 'ez zaituzte' (XVII)	<i>Cituezan</i> 'haiek haiek' ²⁸
<i>dauca</i> (1820, XI; 1831, IX), <i>daucaz</i> (1829, XVII); <i>daucagu</i> (1820, 1824, 1831); <i>daucaguz</i> (1831); <i>daucat</i> (1829), <i>daucadaz</i> (1832)		<i>Dauko</i> , <i>nauko</i> (Z, PB), <i>dauka</i> (Uriarte, PBDV) ²⁹

Beraz, E. M. Azkue besteetatik bereizten da *-z-* pluralgilea darabilelako (*dituz*, *cituezan*) baina ez *-b-* eufonikorik. *-z-* pluralgilearen erabileran zalan-tza erakusten dute gabon kanteak eta «Carlistenac» bertsoek, eta horretan ere bat datoz.

²⁶ Adibideak: «Euzcadia» *Z lotu cirian*, A-B 102; *bannatu cirian*, A-B 104; A-B 172 *motstuta biciten cirian*, *ce pozik biciko dirian*.

²⁷ *Dituz* 'hark haiek': «Euzcadia» *Envidijhak mempetu / dituzan guizonak*, A-B 97; «Euzcadia» 743, A-B 121 *Neptumok baltuz dituz / berreun ta amar Triton*; «Euzkadia» 753, A-B 121 *azurrezco ezpatak / gogortu dituzanac / cresalen embatac*; A-B 163 *dituz. Cituzan* 'hark haiek': «Euzcadia» 859, A-B 125 *imini cituzan*; A-B 164 *erre cituzan / ordi pestiak. Balituz* 'hark haiek': «Euzcadia» 932 *bigun euki ez balituz / Eratok erraijhak*.

²⁸ *Cituezan*: 'haiek haiek' «Euzcadia» 629, A-B 117 (Musak) *eroan cituezan* (gudariak); A-B 104 *ta bere beguijhak / botaten cituezan / suzko oñastarrijhak*.

²⁹ *Dauko*, *nauko*: «Euzcadia» A-B 112, 167 *ez dauko*, 169 *Iduna dauko* (PB 122 *Iduna dauko*); PBDV, A-B 326 *ez dauka usteric* (PB 278 *eztauko usterik*). A-B 167 *nauko oraiñ atsegin barik* (PB 121 *nauko gaur atsegin barik*).

Posposizio-atzizkiak

GK (1818-1832)	«Carlistenac»	E. M. A.
-a + (genit.) -ren: <i>seinchubaren</i> (1818, 1819)	-a + -ren: <i>lurraren</i> (XIX)	-en; -n (Z, CV, EE, PB) (Uriartek aldatu à -aen, -aren, -en) ³⁰
-tic: <i>Atzetic</i> (1818 Pozgarrija); <i>Aurretic</i> (1818, VI) / <i>echeti</i> (1825, VII)	-tic: <i>bertatic</i> (IV), <i>guztijetatic</i> (VII)	-ti, -di, -ric (Z, PB), Uriartek aldatu à -tic) ³¹

Nabarmena da E. M. Azkueren berezitasuna (-en, -ti). Gabon kantetan badira salbuespen batzuk, jokabide arruntetik (-aren, -tic) kanpokoak: -en errima arrazoiengatik (*Jaincuen semia*, *Jaungoicuen legia*, GK 1824, XI, XIII); -ti (*echeti*, GK 1825, VII).

³⁰ E.M.A.ren adibideak: -en ‘-aren’, sing. bokal, diptongo, edo kontsonantez bukatzen diren hitzetan): Z, A-B 121 *ezpata alan derichon ichas arrañènak*; Z, A-B 194 *iNok esan lei mutillen bijhotsen larrilha* 194; Z, A-B 195 *bijhotsen keia asi zan agoti botaten*; Z, A-B 199 *Jhoane (...) / bere Conce maitien / penak jhakinagaz*; Z, A-B 200 *egoan Bekoerota / (...) / jhoten Conce galanten / ventanako zura*; Z, A-B 201 *igaro even Mungúa / urijhen Campoti*; «Pio IX, eta Napoleon III» Z, A-B 221 *Mastai Aita Santuen / besoetakoa*; CV, A-B 241 *Jaungoikoen echia*; EE, A-B 257 *andra gaztia etorren / gizonen aurreti*; «Moguel ta Characa» PBDV, A-B 287 *Icusten ez ebela / egunen arguiric*; PBDV, A-B 289 *Juan zan erdi billa / Zaldijen ganian* (PB 82 *ioan zan errdi-bila / zaldien ganean*); «Nesca gazte bat, eta aberatsa» PBDV, A-B 313 *Cerbait nastetan jaco / buruen ganian*. -n (-a, -o bokalez bukatzen diren hitzetan, artikulatu gabe): Z, A-B 115 *Minervan*; Z, A-B 115 *Apolon*. Zalantzak: EE, A-B 269 *Iauman* (baina *Jaumen* ere).

Uriarteren ukitukoak: -aen: PBDV, A-B 324 *amaen* (PB *amen*), PBDV eskuizk. 499, A-B 442 *Jaumaen*; PBDV 563, A-B 495 *Autsaen / ibid. zoruen ‘zoroaren’*; PBDV eskuizk. 595, A-B 503 *Chacurraen*. -aren: PBDV eskuizk. 501, A-B 443 *Curutze Santuaren*; PBDV *guessuaren* (PB *gai-soen*); PBDV eskuizk. 593, A-B 501 *erijotziaren*. -en: PBDV eskuizk. 492, A-B 440 *Franciscoen*; PBDV 595, A-B 503 *San Pedroen*.

³¹ E.M.A.ren ezaugarria da -ti: Z, A-B 185 *Baquio-ti gora* (PB *Bakioti gora*; PBDV *Baquiotic gora*); Z A-B 195 *agoti botaten* (PB 137 *agoti*; PBDV *Aotic*); Z, A-B 199 *bijhotseti, menpeti* (PB 141 *biotzeti, menpeti*; PBDV 348 *vijotzetic, mendetic*). Arrunta da -di (-n bukaeradun hitzetan): *andi, emendi* etab. -ric (batez ere erimogatik): Z, A-B 186 *ezelan kendu eciñik / zeloak bururik ‘burutik’* (PB *bururik*; PBDV *bururic*); «Ezcontzetaco bitartecuac» PBDV (iturri bakarra), A-B 316 *umetatic*.

Uriartek gehienetan -tic: «Stabat mater» PBDV eskuizk. 499 *curutzetic/bijetatic/lecutic* (erriman).

Eufonia eta grafiak

GK (1818-1832)	«Carlistenac»	E. M. A.
[Eufonia bokalikoak] -ia, -ija, -ua, -uba	-ia, -ija, -ua, -uba	-ea, -ijha, -oa, -ua
[Grafiak] j, c, ts, tz, ss, b	j, c, ts, tz, ss, b	jh, k (jhakanian), ts/tz (Alabantsac), sh (eshetu), v, tt [battera]

E. M. Azkueren idazkeraren beste ezaugarri bat: partiz. + *ta*, *da* elkarren-gandik bereiz (*eraguiñ ta cartai* ‘eraginda kartai’; *galdu ta izatiak* A-B 57, *paperian Taliak / esan da daukana* A-B 70; *Bota ta plantia*, A-B 229).

Estilo ezaugarri batzuk

GK (1818-1832)	«Carlistenac»	E. M. A.
[Maiz aditz <i>inversioa</i> : laguntzailearen eta trinkoen aurreratzea] <i>Alperric legue onac dira zabalduten</i> (1825, VIII). ³²	[Maiz aditz <i>inversioa</i>] <i>Suba ta odola (...) / alperric da zabaltzen</i> (X). ³³	[Gutxitan aditz <i>inversioa</i>] <i>laster cirian / amaitu</i> (Apolo, A-B 62). ³⁴
[Bakan beste <i>inversio</i> batzuk] <i>Eriotzaren bere / ez dauca bildurric</i> (1830, IX)		
		Hiperbaton: <i>gudarizko eguin evan / banari</i> [banaketa'] <i>zuzena</i> («Euzkadia», A-B 116); <i>Ciclope bizar barik / daukazanai garrak</i> (ibid., A-B 122)

Aditz laguntzailearen aurreratzea oso ugaria da gabon kantetan eta «Carlistenac» bertsoetan; ez, ordea, E. M. Azkueren poema narratiboetan (behin bakarrik «Apolo ta Musak»-en eta «Anchinarik ona!»-n, birritan «Moguel ta Characa»-n). Errimogatik baliatzen dira haiek, askotan, *-ten*, *-tu* errima errazagoak eta erabilgarriagoak direlako adizki laguntzaileak baino. Baina estilo erretorikoaren adierazle ere badira; horretan ere bereizten dira haiek E. M. Azkuerenetik.

³² Adibideak ugariak dira. 1818koak eta egile beraren «Vizcai guztiz linargui» neurtitzetakoak baino ez ditugu jarriko: *yatorcu eracustera* (1818, VIII); *duaz igesi* (1818, [II], III); *jaco edeguico* (1818, [III] IX). *deutsez / bidiak zarratu* («Vizcai guztiz linargui», 1828, VI), *deutsagu / (...) erre gutuko* (ibid., XIII).

³³ Adibideak oso ugariak dira: *Jacuna jazoten, Zaitube icusten* (II); *ditubez (...)* *Billatzen, deutse (...)* *deituten* (VI); *Noc leique cembatu, / (...) / jacun sartu?* (XI); *dira ormiduten* (XII), *dira / (...) sartzen, ditube ateraten* (XIV), *Dacusez iguesi* (XV), *Duaz (...)* / *barri emotera* (XVI).

³⁴ Adibideak oso gutxi dira poema aski luzeetan: *egozan vicirik* («Moguel ta Characa», A-B 289); *Cer eguan / (...) escatuten* («Apolo, ta Musak», A-B 292); *zirianak / Aberats* («Anchinarik ona!», A-B 232).

Joskeraren bihurritzea (hiperbaton): hona E.M. Azkueren beste ezaugarri edo berezitasun bat, gabon kantetan eta «Carlistenac» bertsoetan agertzen ez dena; E. M. Azkuek poema kultoetan baliatzen du noizean behin.

Topiko literarioak

GK (1818-1832)	Carlistenac	E. M. A.
<i>Vizcaitar sendo izugarriyac</i> (1818, (II) Sarrera) <i>Beti Bizkaija leial / bere jaunarentzat / eta izugarrija arrotz geistuentzat</i> («Vizcai guztiz linargui», 1828, X)	<i>Euscal erriyac dira / arrotzen izuba</i> (XV)	
<i>Erroma izugarri (...)</i> ezarri buztarrija (1819 [VII]); <i>Erromatarrac (...)</i> aldendu biar eben (1825, X). <i>Vizcaico ezaugarrija / len zan lauburuba</i> (1819, XX; 1824, III)	<i>Erroma bera ez zan euracaz jaubetu</i> (IX)	[Gutxiagotan] <i>Erromatar soldadu, (...) ona etorri zirian / Ezarten catiak</i> («Anchinarik ona», A-B 229). <i>Leongo Infantea, Jaun Zuria, Padurako bataila, Bizkaiaren libertatea</i> (ibid., A-B 228-231)
[asaba zaharrak eredu] gure asaba/guraso zaharrak edo onak (1818, 1819, 1825, 1828, 1829, 1830 1832)	<i>gure Asaba onacaz / ez gara iñoz artu</i> (IX)	
[Ubi sunt edo lehen eta orain] <i>Nun dogu Vizkaitarrac orduco fedia?</i> (1819, XVIII); <i>Nun da orain orduco / Guizonen indarra?</i> (1825, XIII).		<i>Nun dira orduco guizon / Gueure Patriarcak</i> («Anchinarik ona!», A-B 231) <i>Au da bicimodua / Orain daukaguna / Lengo guisaldijhetan / Etzana ezaguna</i> (ibid., A-B 235)

Batzuek eta besteek mito edo sinbolo eta topiko literario bertsuak darabiltzate (bereziki *Ubi sunt* edo *lehen eta orain* dei genezakeen hori) baina gabon kantetan ugariagoak dira E.M. Azkueren bertsoetan baino. Ik. beste antzekotasun batzuk 2.4. atalean.

Metrika

GK (1818-1832)	Carlistenac	E. M. A.
Bizkaiko zortziko txikia guztiz nagusi	Bizkaiko zortziko txikia	Bizkaiko zortziko txikia ugari. Bertso moldeetan bariazio handiagoa.
Bakan zangalatraua: <i>dinue, lenago / il senar ta emazte</i> (1819, VIII); <i>Ceuben eche aldeco / lanac egin ondo</i> (1831 [II], XIX)	Zangalatraurik ez	Zangalatraua noizbehinka: <i>Eta alan salduteco / Guero, euquiten ditu</i> (PVDV 290, XI); <i>baleukê lez, bici bat / galdu ta, barrija</i> (Z, A-B 180)
Lizentzia metriko gutxi, sinalefa gutxi ³⁵	Sinalefa ugari baina ez egitera jotzen du gehiagotan ³⁶	Neurkera zorrotza: beti sinalefa, noizbehinka sineresia ³⁷

³⁵ GK 1830 (II): 20 estrofatan 2 sinalefa bakarrik, beste 37 aukeretan sinalefarik ez. GK 1832 (II): 13 sinalefa; beste 38 aukeretan ez, ordea.

³⁶ 24 estrofetan 13 sinalefa, baina beste 17 aukeretan ez dago sinalefarik.

³⁷ E. M. A.k aukera guztietan egiten du sinalefa: ondorio hori atera dugu bost poematan lehen bost estrofa aztertuta. Adibideotan sinalefa (laburduraz, s.) kopuruaren ugaritasuna ohartarazi nahi dugu: «Apolo ta Musak» I, II: 5 s.; III: 7 s. «Euzcadia» I: 4 s.; II: 4 s.; IV: 4 s. «Libertatian arguitasuna» II: 3 s.; IV: 2 s.; V: 2 s. «Anchinaric ona!» I: 2 s.; IV: 3 s. «Moguel ta Characa» I: 3 s.; II: 3 s.; III: 3 s.; V: 2 s. Sineresiak, ordea, noizbehinka egiten ditu: «Apolo Ta Musak» III, «Moguel ta Characa» III.

GK (1818-1832)	Carlistenac	E. M. A.
Gehiagotan errima ertaina eta ez gramatikala, oro har. Errima errazak nagusi: <i>-rik, -ia(k), -u(b)a(k), -etan, -tu, -ten</i> . Bizkaiko zortzikoan ere errima bakarra edo antzekoa estrofa frankotan.	Gehiagotan errima ertaina eta gehixeagotan ez gramatikala. Errima nagusiak: <i>-iac/-ijac, -ten/-tzen, -ric, -etan, -tu, -uba, -ac</i> . Errima bera edo antzekoa estrofa askotan	Errima aski aberatsa: ertaina, silaba biko gutxienez; errima gramatikalari ihes. Errima bariatuagoa, zailagoa eta aberatsagoa.

Bat datoz hirurak Bizkaiko zortziko txikia erabiltzean (7/6A/7/6A/7/6B/7/6B). E. M. Azkuek ere maiz darabil («Apolo ta musak», «Jaunaren Legueko aginduak», «Euzcadia», «Ipuñac», «Libertadian arguitasuna», «Anchinaric ona!», «Moguel ta Characa...»); horietako batzuetan 4 bertsolerrotan tolestuta, Iparraldekoen erara. Baina bertso moldez bariatuagoa da.

Zangalatrauaren erabileran aldetxoa badago ere, askoz nabarmenagoa lizentzia metriko edo poetikoen, eta, partikularki, sinalefaren erabileran. Gabon kantetan baino gehiago erabilia da sinalefa «Carlistenac» bertsoetan, baina haietan nola hauetan sinalefa egin edo ez egin aukerakoa da, eta E. M. A. ren poemetan, ordea, nahitaezkoa. Horrek esan nahi du gabon kantak eta «Carlistenac» herri bertsogintzatik hurbil direla: haiek sinalefaz ahalik eta gutxien baliatzeko joera erakusten dute; «Carlistenac» bertsoak, bertsolariak bezala, komentziaren arabera baliatzen dira, arau zehatzik gabe.³⁸ E. M. Azkueren poemek, ordea, neurkerari dagokionez beste eredu bat jarraitzen dute, zorrotzagoa, kultuagoa (Oihenartek bezala), agian gaztelaniazkoaren bidez.

Errimari dagokionez, bat datoz «Carlistenac» bertsoak gabon kantekin: gehiagotan ageri dira errima ertainak eta ez gramatikalak. Bat datoz errima

³⁸ «Carlistenac» bertsoen bertsogintzari oharrituta, A. Zavalak dio egilea ez dela herri-bertsolaria, «gizon eskolaturen bat» baizik (Zavala 1992: 301). Gure ustez, komeni da bereiztea herri poesia bertsogilea eskolatua izatetik edo ez izatetik, herri-bertsogintzaren bidea hartu baitute hainbat bertsogile landu edo poetak. Bestalde, zergatik bazterten ditu Zavalak emakume eskolatuak?

nagusietan ere, baita zortzikoan estrofa askotan errima bera izatean (zortziko txiki arrunta balitz bezala) edo antzekoa behintzat, bertso lerroak binaka errimatuz: hala gertatzen da «Carlistenac» bertsoetan estrofa herenetan baino gehiagotan; gabon kantetan ere frankotan, ik. GK 1830, (II), XIII, XV, XVI. Errimaren luze-laburrari dagokionez, gabon kantetan errima laburrak ugariak dira, luzeak urriak, baina asonantzia bokalikoak ere badira noizean behin.

E. M. Azkueren berezitasun bat da gabon kanta eta «Carlistenac» bertsoetakoa baino errima aberatsagoa, zailagoa eta bariatagoa erakustea. Haren neurtitzetan gutxitan ageri dira errima laburra edo gramatikala, egileak ia beti errima ertaina edo silaba bikoia gutxienez lantzen du, franko aldiz hirukoa edo luzea, eta laburretan ere hoskidetasunaz aberasten du errima.³⁹ Errima arloan nekez egin zezakeen aldaketarik Uriartek; are neke-zago, E. M. Azkueren errima landuagoa izanik.

2.3. Nor datekeen egilea

Testu konparaketaren ondorioz, garbi ageri da «Carlistenac» bertsoek kideetasun ugariago dituztela Bilboko gabon kantekin (1818-1832) E. M. Azkueren poemekin baino. Hori erakusten dute gure azterketa-puntu nagusien emaitzek (enuntziazioa, hiztegia, *herriak dontsutu* klisea, adizkiak, *inversioa* eta hiperbatona, sinalefa, zangalatraua, errima, etab.). Beraz gure hipotesia da «Carlistenac» bertsoen egilea gabon kanta horien egile bera datekeela: Bizenta A. Mogel (1782-1854). Ezin uka bertso horiek badutela antzekotasunik Juan Jose Mogelen bertsoekin ere, baina askoz gehiago Bizentarenekin.⁴⁰ Bestalde, logikoa da Mogel neba-arrebak pentsamoldez ez

³⁹ GK eta «Carlistenac» bertsoetako errima ohikoez gainera, beste honako hauek ere ageri dira «Apolo eta Musak», «Euzcadia», «Libertadian arguitasuna», «Anchinaric ona!», «Moguel ta Characa» poemetan: adizkiak, *-ago*, *-ena*, *-ana*, *-aric*, *-eric*, *-iric*, *-era*, *-aten*, *-duten/tuten*, *-oan*, *-uan*, *-akaz*, *-ira*, *-antia*, *-urun/urrun*, eta hainbat.

⁴⁰ J. J. Mogelen eta haren ustezko bertsoetan (Altzibar 1992:385-400) agertzen dira «Carlistenac» bertsoetako hitz eta joskera batzuk gabon kantetan ez daudenak, adib. *burla ta barriac*, *garaitza osuagaz*, *garaitza guztijac*, *nunbaita* (Car XVII, XVI, XX, XI), *burla ta barreric*, *Vizcaytarren garaitzác*,

ezik hizkeraz ere antzekoak izatea, eskola berekoak baitziren eta seguru asko elkarren eraginpekoak. Nolanahi ere, egilea Bizenta edo Juan Jose Mogel izatea askoz probableagoa edo sinesgarriagoa da E. M. Azkuerenak direla eta Uriartek ohiko aldaketak egin zizkiela pentsatzea baino.

Uriartek Bonaparteri eginiko gutunetan Bilboko gabon kanta batzuk aipatzen dizkio, 1814, 1816, 1820 urteetakoak (Ruiz de Larrinaga 1954, X, 265-266) baina ez egilearen izenik. Seguru asko ez zekien 1820koen egilea B. Mogel zela. Izan ere, Bilboko gabon kantak bertso-paper inprimatuetan ateratzen ziren, egilearen izenik gabe; horregatik ez Uriartek ez Manterolak ez zuten ezagutzen Bizenta Mogel gabon kanten egile gisa (bai alegigile gisa). Bonapartek eta batez ere J. Urquijok batu zituzten Bilboko gabonkanta horiek baina Bizentarenak zirenik ez zekiten. Ezta Uriarteren gutunen argitaratzaile Ruiz de Larrinagak ere.

Ikusi dugunez, egiletza arazoak agertu zaizkigu ustez E. M. Azkue eta J. J. Mogelenak omen diren bertsoetan. Egile horiek lehen karlista gerratea bizi izan zuten eta ez zuten bertso-libururik argitaratu. Bertsoen –batez ere bertso anonimoen– egileak nor ziren jakiteko eragozpenak handiak ziren XIX. mendean. Hona beste adibide bat: Uriarteren bildumako hirugarren multzoa gabon kanten osatzen dute (ez, ordea, Bilbokoek, guk aztertuek). Haien arteko bat edo beste ez ote Bizentaren eskukoa edo, behintzat, haren eraginpekoa? Bizenta Mogel 1854an hil zen, eta Uriarte 1856an hasi bilduma egiten. Ez litzateke harrigarri Uriarteren bildumako gabon kanten multzoko batzuk Bizenta Mogelenak izatea.

Hain zuzen, Uriarteren gabon kanten multzoko lehen lau-bostak Bizenta Mogelen hegatsakoak dirudite hizkeraz eta pentsamoldez («Gabongo cantac», PBDV esk., 217-235; Kortazar–Billelabeitiaren ediz., 132-141). Gainera, «Carlistenac» bertsoetako hitz bereziak agertzen dira gabon kanta

cerchubaita (J.J. Mogel). «Carlistenac» eta gabon kantetako beste asko ere bai: *Asabeen leguiac*, *ondo entzunian* 'entzutetsuan', *goitu*, *igaro*, *imini/ipini*, *-en irudian/irudira*, *lelengo*, *mirari*, *zurturic*, etab. «San Antonio Paduacuarenac» bertsoetan (Uriartek PBDVn bildu eta J.J. Mogelen bertsoen ondoan jarriak, egile izenik gabe) beste bizpahiru agertzen dira: *dontsuric*, *eracutsiten arguiro* («Carlistenac»-etan bezal-bezala) eta *gozaro*. J.J. Mogelenak ote dira bertsook? J.J. Mogel apaiza Bizentaren anaia zen eta Bizkaiko Aldundi Karlistako diputatu jenerala gerratean, 1834-1838 urteetan.

horietan (*albisti*, *entzute* ‘fama’, *garaitzia* ‘garaitza’); hona beste arrazoi bat «Carlistenac» bertsoak B. Mogelenak direla uste izateko.

Dataz ere «Carlistenac» bertsoen garaitsukoak dira Uriarteren bildumako gabon kanta horiek. Bigarren gabon kantari 1837ko data agertzen da, gerrari aipamena egitean: «Mundubac sarri dituz / Guerra aserriac» (IX). Hirugarrenean «Garaitziaren azquenia / Ondochu gozatu gaitian» (Estribillua), eta laugarrenean «Pocera birau ditu Naibague guztijac» (II). Beraz 1837, 1838 eta 1839koak dirateke gabon kantok. Hortaz, itxura guztien arabera B. Mogelek gabon kantak ontzen (argitaratzen ere?) jarraitu zuen, beti bere izenik jarri gabe.

2.4. Elkar-eragina eta testuartekotasuna

Aztertu ditugun bertso anonimoen egiletzari lotua da haien utzi duten arrastoa, haien arteko elkar eragina eta testuartekotasuna. Bada, azken atal honetan hori erakusteko adibide batzuk jarriko ditugu.

Ikusi dugu gabon kantetan, «Carlistenac» bertsoetan eta E. M. Azkueren neurtitzetan mito edo sinbolo politiko-ideologikoak (topikoak) berrerabiltzen direla. Izan ere, tradizio beraren parte dira B. Mogel eta E. M. Azkue. Tradizio hori azaltzen da bertso-moldeetan (batez ere Bizkaiko zortzikoa) eta jostura bereko adierazmolde edo klixeeetan. Hala bada, bera baino lehenagoko B. Mogelen gabon kanten ildo beretik dabil E. M. Azkue, edo B. Mogelen eragina du.

Tradizio horretan asaba zaharren eredu, antzinako euskaldun menperatu gabeena goraiatzaren dute batak eta besteak, eta garaiko euskaldunen jokaerarekin kontrajartzen dute eredu hura, garaikoen jokaera gaitzesteko arlo askotan (janzkera, ekonomia, moda berriak, hordikeriaren ondorioak, narzismoa...). Mito edo sinbolo politiko-ideologikoen erabilera hori Astarloatarrekin hasten da edo behintzat haien eraginpekoa da (*Urteko Domeka*, II, hitzaurrea; Bilbo: P. Apraiz, 1818). Joera morala –eta legezaharrekoa, tradizionalista– Bizentaren bertsoetan agertzen da, baita M. Zabalarenetan («Anchinaco euskaldunen alabantzaac»). Arrese Beitiarekin esanahi politikoa nabarmenduko da («Bizkaitar zarrak eta erromatarrak», 1882).

Adibide batzuen bidez ikus daiteke pentsamolde berekoak eta adierazmolde bertukoak direla B. Mogelen gabon kantak eta E. M. Azkueren zenbait poema:

Vizcaitar sendo / viotz andicua / iños makurtu ezdiran / leial, ta senduac! (GK 1819, sarrera).

Orducoak cirian / Utzak Vizcaitarrak, / Iñok vencidu bako / Munduan bakarrak:/ (...) Euskaldunak danak («Anchinarik ona!», A-B 231).

Nun dira Vizcaitarren / ezne ta artuak? / Nun gaztañak ugari, eta Sagardauac? (GK 1829, [II], XIII).

Nun dira vizcaitarren jhakechu laburrak? / Nora mendijetako / Igas dabe egurrak? / Arech ta egurrak saldu / Ta erosi gabana / Au da gaurko eguneko / Guizonen afaná (E.M.A., «Anchinarik ona!», A-B 233).

Lehenagokoak izanik, logikoa da Bilboko gabon kantek bere eragintxoia izatea E. M. Azkueren neurtitzetan eta guk haien oihartzuna entzutea honen neurtitzetan:

Vizcaij ez dirudi / iñolaz lengua, / ardaua, ta pipia, / ta carta jocua. / Onéc dira oraingo / guizonen lagunac, / ugarturic ascoren / laia ta achurac (GK 1829 [II], III).

Vizcaijan eguin dira / Bide-laun zabalak / Libre sartu deitezan / Ekan-du zitalak (E.M.A. «Anchinaric ona!», A-B 232).

Gure Asaba zarrac / viztu al baleitez, / semetzat ezagutu / naico ez guinduequez (GK 1819, XXV).

Biztuko balitz ere / orain Jaun Zuria / Ezagutuko ez leuke / Vizkaiko gentia (E.M.A. «Anchinaric ona!», A-B 228).

«vici modu barri bat / aurrera jarraitu. // Alan izango dogu / eriotza ona / eta aren ondoren / Ceruco ondasuna (GK 1832, XII).

Eta igaroten badot / bici modu charra / neuretsat izango dot / betiko negarra (E.M.A. «Ezkontsa bere modukoa (A-B 147).

Hortaz, badirudi gabon kanten tradizioak bere eragina izan zuela XIX. mendean, baita E. M. Azkuegan. Ez da harritzekoa: latina eta filosofia ikasi

zituen Bilboko frantziskotarren komentuan, harik eta karlisten altxamendua gertatu arte.⁴¹ Beraz seguru asko ondo ezagutuko zituen 1828-1832 bitarteko gabon-kantak behintzat, hain zuzen Bizenta Mogelenak, izenik gabe agertuak, eta beharbada Bizenta bera ere ezagutuko zuen.

3. Ondorio batzuk

«Carlistenac» bertsoen, Bilboko gabon kanten nahiz Mogel neba-arreben ustezko edo balizko bertsoen kasuak adierazten du transmisioaren katean etenak izan ditugula XIX. mendean, eta arazoak ditugula orduko poesiagintza ezagutzeko. Mogeldar neba-arrebek baino oinordeko leialagorik izan zuen E. M. Azkuek –batez ere bere seme Resurrección–, baina, Mogel neba-arrebek bezalaxe, desertuko bakartadean ibili behar izan zuen Eusebio Maria Azkuek ere bere garaian, ia poemarik argitaratu gabe hil baitzen, eta, eskuizkribuak zabaldu zituen arren, eskuizkribuok sakabanatzean ez baitakigu zehazki hari edo beste nori egotzi olerki hau edo bestea. Beraz, hutsune ugari nabari dira oraindino XIX. mendeko euskal idazleen ezagutzan, eta dugun ezagutza partziala osatzen lagundu behar dute arlo desberdinetako ikerketek (biografia, pentsamoldea, bertsoen harrera, testuingurua, bertso-gintza, estiloa, testuartekotasuna, testukritika etab.).

Esaterako, «Carlistenac» bertsoen kasuan egin dugun bezala, E. M. Azkue eta Mogeldar neba-arreben zenbait kanturenean ere berraztertu beharra dago Uriarteren poesia bilduma iturri bakartzat duten poemen egiletza. Egile bakoitzaren testuak finkatze aldera, komenigarria litzateke egileen lexikoa biltzea, testuen arteko konparazioak egin eta egileak nor izan ziren finkatu ahal izateko. Baita ere, egileen arteko eragina eta testuartekotasuna aztertzea. Azkenik, guztiz premiazkoa genuke E. M. Azkueren olerkien edizio on bat izatea, Astigarraga–Bijuescaren lana erreferentziazkotzat harturik baina ortografia berdinduta eta gaurkotuta.

⁴¹ Uriarteren arabera, Teologia ere ikasi zuen, eta ikasketa guztiak probetxu handiz egin omen zituen (Ruiz de Larrinaga 1857, XII-3: 333).

Bibliografia

AKESOLO, L., 1979. «Azkue aita-semeak (Jorratzaile batzuk jorratzen)». *Karmel* 1979 (2), 37, 26-37.

———, 1988. «Azkue aitasemeak aurrez aur barriro: Parnasorako bidea eta Poesía Bascongada». *Karmel* 1988 (4), 6-18.

ALTZIBAR, X., 1992. *Bizkaierazko idazle klasikoak*. Bizkaiko Foru Aldundia.

———, 2008. «Bizenta Mogelen gabon-kantak eta 1828ko bertsoak». *Bidebarrieta. Revista de Humanidades y Ciencias Sociales de Bilbao–Bilboko Giza eta Gizarte Zientzien aldizkaria*. XIX, 2008, 25-104.

ARANA, J. A., 1983. *Resurrección María Azkue*. Bizkaiko Aurrezki Kutxaren Kultur Ekintza.

ASTIGARRAGA, A.–BIJUESCA, K.J., 1990. «Sarrera». Ik. Azkue, E. M. 1990. 13-48.

AZKUE, E. M., 1896. *Eusebio Maria D. Azkue-tarrak. Parnasorako Bidea*. Resurrección María Azkueren edizioa. –(edizio faksimila) Donostia: Hordago, 1979.

———, 1990. *Eusebio Maria Azkue-koa. Euskarazko bertsoak*. Astigarraga, A.–Bijuesca, K.J.ren edizioa. Bilbo: Labayru Ikastegia–BBK.

———, «Apolo ta musak». Bizkaiko Aldundiaren Artxiboa, Bonaparte Fondoa

———, «Dies irae». Bizkaiko Aldundiaren Artxiboa, Bonaparte Fondoa.

———, «Euzkadia». Lenengo Cantua. Fragmento de un poema euzkerico por D. Eusebio M^a Dolores Azkue. Originales manuscritos. Caja 56, Documento 8. Catálogo del Archivo Provincial de Zarautz. 2004. 1797. zbk.

———, Diez y ocho poesías euskericas por D. Eusebio M. D. Azkue. Manuscritas en varias fechas. Caja 56, Documento 9. Catálogo del Archivo Provincial de Zarautz. 2004. 1798. zbk.

AZKUE, R. M., 1896. «Arrgibidea». Ik. Azkue, E. M. 1896. 3-19 or.

Diccionario General Vasco–Orotariko Euskal Hiztegia. Mitxelena, L.–Sarasola, I. Bertsi elektronikoa. 3. argit., 2013.

DUO, G., 1994. «La enseñanza de Náutica en Lekeitio durante los siglos XVIII y XIX», *Ikuska*, 1994, 5, 29-52.

———, 1995. «Lekeitio en el Siglo XIX y Jose Javier de Uribarren (1791-1861)», *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección. Historia-Geografía* 23, 137-162.

———, 2000. «Modificaciones en las condiciones de trabajo de los maestros de Náutica, entre el Antiguo Régimen y el Liberalismo». *Vasconia*, 2000, 30, 135-140.

ERKIAGA, E., 1936. «Lekeitio'ko Olerti-Eguna. Gomuta samurrak», *Euzkadi*, 1936-VII-5.

Euskal-Erria. Revista Bascongada. S. Sebastián, Establecimiento tipográfico y librería de A. Baroja—hijos de I. R. Baroja, 1880-1918.—(ediz. faksimilea) Bilba: La Gran Enciclopedia Vasca, 1979.

KORTAZAR, J. «Eusebio Maria Azkueren bizitzari buruzko zertzelada berriak». www.euskaltzaindia.com/dok/.../lekeitio_kortazar.pd.

KORTAZAR, J.—BILLELABEITIA, M., 1987. «Sarrera». Ik. Uriarte, J. A. 1990. 9-40 or.

LEKEITIOKO UDALA. Nautika Eskolako Artxiboa (NEA).

MANTEROLA, J. (arg.). 1877-1878, 1878, 1880. *Cancionero Basco*. S. Sebastián.—(edizio faksimilea) Sendoa, 1981.

MOURLANE Michelena, P., 1919. «Los poetas en lengua vasca. La poesía vascongada en el siglo XIX. Fragmentos de un ensayo», *I. Congreso de Estudios Vascos* (Oñate 1918). Bilbao, Bilbaina de Artes Gráficas Juan J. Rochelt, 1919, 621-643.

RESURRECCIÓN MARIA AZKUEREN FUNTS DOKUMENTALAK. Euskaltzaindia. Azkue Bibliotekako Artxiboa.

RUIZ DE LARRINAGA, J., 1954. «Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte con notas bio-bibliográficas del P. Fr. Juan Ruiz de Larrinaga, O. F. M.». *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, 1954, X-2, 3, 4, 231-302 or.

———, 1957. XIII-2, 220-239 or.; XIII-3, 330-348 or.; XIII-4, 429-452 or.

———, 1958. XIV-3, 397-443 or.

URIARTE, J. A. *Poesía Bascongada, Dialecto Vizcaino* [edo *Poesía Bascongada Vizcaina*]. Eskuizkribua. Arantzazuko Frantziskotarren Artxiboa. —Jose Antonio Uriar-

te. *Poesía Bascongada, Dialecto Vizcaino*. Kortazar, J.–Billelabeitia M.en edizioa, Bizkaiko Foru Aldundia, 1987.

Yakintza–Revista de Cultura Vasca, 1933-1936. 19. z., 1936ko ilbeltz-otsaila 1936.

ZAVALA, A., 1992. *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak*. Auspoa.

Laburdurak

A-B: Astigarraga, A.–Bijuesca, K.J.ren argitalpena. Ik. Astigarraga, A.–Bijuesca, K.J. Ik. *Eusebio Maria Azcue-koa*.

Car: «Carlistenac» bertsoak (PBDV).

CV: Ik. Manterola.

EE: Ik. *Euskal-Erria*.

E. M. A.: Eusebio Maria Azkue.

GK: (Bilbo eta Abandoko) gabon kantak (1818-1832). (I): lehen kanta. (II): bigarren kanta. Ik. Altzibar 2008.

NEA: Ik. Lekeitioko Udala: Nautika Eskolako Artxiboa.

OEH: Ik. *Diccionario General Vasco–Orotariko Euskal Hiztegia*.

PB: *Parnasorako Bidea*. Ik. Azkue, E. M. 1896.

PBDV: *Poesía Bascongada. Dialecto vizcaino*. Ik. Uriarte, J. A.

R. M. Azkue: Resurrección María Azkue.

Z: Zarauzko eskuizkribuak: ik. Azkue, E. M. «Euzkadia» eta Diez y ocho poesías euskéricas por D. Eusebio M. D. Azkue.

Eranskinak

1. Eusebio Maria Azkuek Valladolideko errektoreari (Lekeitio, 1868/02/06)

Ylmo Sr. Rector de la Universidad de Valladolid

Contestando a los cinco puntos que abraza la circular nº 18 espedida por ese Rectorado con fecha 31 del mes pasado de Enero, y recibida en la Direccion de esta Escuela en 5 del corriente mes, debo manifestar a Vs Y.

1º. Que el cuadro del personal de este establecimiento se compone, de un Director, el cual esta reunido al propio tiempo con el caracter de compatrono, como [firmante?] y testamentario de los Fundadores, siendo el que desempeña este cargo el [caballero?] D. Bruno L. de Calle.

De un Secretario, que con el caracter de Catedratico propietario desempeña la Cátedra diaria de Algebra y las alternadas de Geografía, Fisica y Metereologia, siendo D. Angel M. de Ventades el que egerce estos cargos.

De un Catedrático, propietario tambien, el cual desempeña la Catedra diaria de Cosmografía, Pilotaje y Maniobras, la id. de Geometria y Trigonometria, y la alternada de Dibujo lineal, Geografico e Hidrográfico, siendo el encargado de estas Catedras el que, por ausencia del Sr. Director propietario, tiene el honor de dirigirse à Vs Y. en esta ocasion firmando la presente comunicacion.

De un Conserge, que cuida de la conservacion y limpieza del establecimiento, y del orden y compostura que deben observar los alumnos al entrar y salir de la escuela. Los sueldos, títulos etc. de este personal, así como las asignaturas que cada profesor explica, está todo aprobado por la Superioridad y conforme a reglamento.

2º. Que el número de alumnos matricuados en esta Escuela para el presente curso académico es el de 33, repartidos en los tres años que abraza la carrera de Navegación, de la siguiente manera = 17 en

el primer año, 10 en el segundo y 6 en el tercero, como se demuestra por el adjunto cuadro nº 1 y se comprueba en el libro de matriculas de este Archivo.

3º Que no siendo propio de las atribuciones de las Escuela de Nautica el conferir grados ni revalidas de Pilotos, por estar reservada esta atribucion a los Capitanes Generales de los Departamentos de Marina, únicamente se espiden por la Secretaria de esta Escuela certificados de la conclusion de carrera de Pilotos, habiendose firmado y sellado en la Direccion de este establecimiento, desde 1º de Octubre de 1866 a 1º de Octubre de 1867, siete certificados, correspondientes a otros tantos alumnos, que tenian ya concluida su carrera de Pilotos, segun se demuestra tambien en el adjunto cuadro nº 2, y esta ademas comprobado en el libro de registros de esta Secretaria.

4º Que, como he manifestado en el punto anterior, no habiendo grados ni revalidas en las Escuelas de Nautica, tampoco hay ingresos bajo este concepto, pero el producto anual de Matriculas puede regularse proximamente en el de tres mil trecientos reales anuales; pues la esperiencia de seis años que lleva funcionando esta escuela arroja el numero de treinta y tres alumnos matriculados en cada curso, los cuales pagando por derechos de matricula, en dos plazos, a razon de 100 reales cada alumno, componen la suma de tres mil trescientos reales en cada curso. Aqui debo manifestar a V. Y. que, siendo esta Escuela de fundación particular, creada en virtud de Real Orden de 20 de abril año de 1859, con todas las atribuciones y preeminencias de las demas Escuelas de Nautica del Reyno, aun con la de que los Profesores que presten sus servicios en ella, conserven sus antigüedades y [número?] en el escalafon respectivo, segun se desprende de la Real Orden de 26 de Marzo de 1862, y teniendo manifestada a la Superioridad y depositada la cantidad que a los Fundadores se les exigió en Orden de 7 de Setiembre de 1861 [?, 1866?] (con cuya cantidad se cubren desahogadamente las necesidades del material y personal de enseñanza, no percib[iendo] cantidad alguna para su sostenimiento ni del Estado ni de la Diputación Foral ni del Municipio, cediendo por el contrario a favor del Estado la mitad de los derechos de matricula, o sean mil seiscientos reales anuales, por

termino medio, con cuya cantidad se compra el papel de matriculas de la Nacion en la aduana de Bilbao.

5º Habiendo habido necesidad de atender a la formación de los gabinetes de Pilotaje, Fisica y Geografía, lo que esta ya conseguido, pues puede decirse que hoy son selectos, se ha invertido gran porcion de dinero, que de otro modo se hubiese destinado a la Biblioteca, en la adquisicion de magnificas colecciones de mapas hidrograficos, principalmente de España y sus posesiones; mas ahora que los gabinetes de enseñanza estan completos, empezara esta Direccion a la formacion de una Biblioteca digna del establecimiento, puesto que hoy no existen mas que 24 volumenes, algunas colecciones de revistas cientificas y los numeros de la Gaceta oficial de Madrid desde 1º de Enero de 186[?] hasta el dia de esta fecha, coleccionados, encuadernados y compactados [?] en forma de tomos.

Lo que tengo el honor de participar a Vs. Y. en cumplimiento de la circular antes citada abrazando los cinco puntos en ella expresados.

Dios guarde a Vs Y. mil años.

Lequeitio 6 de Febrero de 1868

P[or]. A[usencia]. del D[irector] [?]

Eusebio Maria de Azcué

(Lekeitioko Udal Artxiboa. Nautika Eskolako Artxiboa 24).

2. Alfontso Maria Azkueri buruzko agiriak

(Jaiotza-agiria)

Certifico yo el infra[scri]tro Presbitero Beneficiado y Cura de las Yglesias Parroquiales Unidas de la Villa de Bermeo, Obispado de Calahorra; Que habiendo registrado el Archivo Cural à instancia de parte se encuentra entre otros Libros Sacramentales uno que contiene partidas de bautizados y es el numero quince forrado de pergamino blanco que dio principio con la de Juan Blas de Laca y fin con

igual de Maria Felipa de Echevarria y a su folio doscientos cuarenta y cinco se halla una estampada que dice asi.

Alfonso Maria de Ascue.

En la Villa de Bermeo Prov. de Vizcaya, Obisp. de Calahorra à tres de Sep[tiemb]re de mil ochocientos quarenta y cinco; Yo el infr[ascrit]o Presbitèro Cura y Beneficiado de las Yglesias parroquiales Unidas de esta Villa de Bermeo, he bautizado solemnemente à un niño al que he puesto por nombre Alfonso Maria, el cual segun la relacion que se me ha hecho por la parte ha nacido a las siete de esta mañana; hijo legitimo de D. Eusebio de Ascue natural de la Villa de Lequeytio, y feligres de esta Villa, y de d^a Laureana de Ocerin natural de la Villa de Bilbao, y feligres de esta citada villa; Abuelos paternos dn Juan José de Ascue nat. y felig. de Zamudio, y d^a Maria Ygnacia de Barrandia natural de la Villa de Lequeytio, y feligres de la espresada Ante Yg.^a de Zamudio; Padrinos Fran.^{co} Brassac, y Ana Maria de Arana vecinos feligreses de esta citada Villa, a quienes adverti el parentesco espiritual, y demas obligaciones que contrajeron. La Abuela materna del niño es D^a Josefa de Ocerin, natural, y felig. de la citada anteYg. de Ceberio. T.gos Vicente, y Pedro de Dondis hermanos nat. de Guernica, y vecinos de esta; Y p.^a q.^e conste lo firmo yo el Cura = D.ⁿ Fernando Yldef.^o de Amunategui.

La prexedente partida concuerda fielmente con su original que en caso necesario me remito y queda en el referido archivo, de esta Parroquia de Santa Eufemia. Bermeo doce de Marzo de mil ochocientos cncuenta y dos.

Ber[meo] Dn Juan Geronimo de Torres.

(Lekeitioko Udal Artxiboa. Nautika Eskolako Artxiboa 1)

(Mundakako eskolako ikasketak)

D.ⁿ Manuel Sagredo profesor de instruccion primaria superior, maestro de la escuela pública de ésta anteiglesia y pueblo de Munda-ca,

Certifico que D.ⁿ Alfonso de Azcúe hijo legítimo de D.ⁿ Eusebio María Dolores y de D.^a Laureana de Ocerin, ya difunta, vecinos que eran de ésta, asistió á ésta escuela, que dirijo, y estudió en ella con bastante aprovechamiento, lectura, escritura, doctrina cristiana, elementos de religión y moral, aritmética teórico-práctica y gramática española, elementos de geometría y dibujo lineal, habiendo observado buen comportamiento, hasta que en julio de 1855 dejó de asistir para dedicarse á otras cosas. Y para que conste y obre los efectos que le convengan, doy éste á su instancia en Mundaca á 16 de Setiembre de 1862.

Manuel Sagredo [errubrikarekin]

(Mundakako abadearena)

Certifico yo el infrascrito Capellan y Cura Coadjutor de esta Yglesia Parroquial Santa Maria de la Anteiglesia y Puebla de Mundaca que Don Alfonso Maria de Azcúe mi feligres ha frecuentado los Santos sacramentos de penitencia y Comunión y ha observado buena Conducta Moral y para los fines conducentes doy la presente.

Mundaca 23 de Setiembre de 1862.

Juan Antonio de Mundaca. [errubrikarekin].

(Lekeitioko Nautikako Eskolako kalifikazio batzuk)

Alfonso M.^a Azcúe y Ocerin. Natural de Bermeo, Provincia de Vizcaya. De 17 años.

(Calificaciones: Ordinarias)

Curso 1862 á 1863: Arit.^a y Algebra: Sobresaliente. Geografía (1.^{er} curso): Id. Dibujo lineal: Aprobado.

Curso 1863 á 1864: Geom.^a y Trigonom.^a: Sobresaliente. Geografía (2.^o curso): Id. Dibujo geográfico: Aprobado.

Curso 1864 á 1865. Física: Sobresaliente. Cosmg.^a y Pilotage: Id. Dibujo hidrográfico: Aprobado.

Observaciones: Registro N. 20=Pág.^a 2.

(Lekeitioko Udala, Nautika Eskolako Artxiboa 9/2).

Oharra: Alfontso M. 1862-1863 ikasturtean sartu eta berehala, lehen hilabetetik bigarrenera, kalifikazioak erabat hobetu zituen, aitak eskuz jarritakoetan ageri denez.

3. Eusebio Maria Azkueren ondasun aitortpena

Beste era bateko adibidea antzeman daiteke Mogelen *Peru Abarkan*. *Peru Abarkak* indar neoklasiko bati erantzuten dio. Gertatzen dena zera da, aire erromantikoko osagai batzuk ere bereganatzen dituela: Peru, «Basarteko» katedraduna, baserritar «bakartia» da, komunitate berezitu baten ordezkari moduan eratutako pertsonaia... «Basarte»k eta «bakarti»k intelektualismo ilustratutik urrutiratuz, Naturara itzultzeko gonbita luzatzeaz gain, gauza jakina da Erromantizismoa, nola gizabanako mailan, hala giza komunitate mailan, singularizaturik, bereziturik dagoenaz arduratzen dela.

Idazlan berean aldi desberdinetako arrastoak sumatzeaz landa, gerta daiteke, baita ere, aldi horietako baten pentsamendutik jalgitako testu-zatia aldi horrek landutako estetika-moduarekin bat ez etortzea. Berriro Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiaen* erreparatuz, nabaria da hitzaurrea eta azken bi koplak ikuskera errenazentista batetik ernetakoak direla; corpus hori, ordea, ez dago eraikita Errenazimentuak oso bereak zituen zenbait ezaugarritatik. Banakoturik dagoen gizatalde zehatz baten hizkuntza laudatzen, edo oso errenazentista den idazlanaren egile izatearen harrotasuna erakusten badu ere, -lehen egilea izateak areagotzen duen harrotasuna, gainera- Errenazimentuak oso berea izan zuen forma lantzea ez zuen gune bihurtu: fintasun formal ezititsuenekin jolasteak ez zuen erakarri. Corpus errenazentista hori ez da edertasuna kategoria esentziazat daukan norbaitengandik jaiotako fruitua.

Erdi Arotik, Errenazimentutik... bildutako uzta urria izan arren, utzi zuten lekukotasunik euskal literaturan. Aurrerago, XVIII. mendean, ez da faltako izpiritu neoklasikotik sortutako idazlanik. Jakina denez, helburu didaktikoak gobernatzen duen aroa da. Ez gurean, ezta inguruetan ere, ez zen izan poesiak emaitzarik gorenena lortu zituen garaia. Euskal letren mundua historikoki erabilgarritasunarekin ondo uztartu denez, oso eroso zetorkion. Horren eroso, non, ekoizpenak bistaratutakoaren arabera, testu erabilgarria XVIII. mendearen mugak zeharkatuz, kementsu sartuko den XIX. mendean barrena, elkarriketaren eta batik bat alegiaren ugaritasunak salatzen duenez.

Edozein kasutan, bada Erromantizismoaren erroetan elikatutako idazlanik XIX. mendean, indarrean dirauen aurreko aldiko ikuskera oinarri duten

idazlanekin batera. Alegiaren kasua da nabarmenena: XIX. mendean jorrazten diren genero epikoen eta dramatikoek gainetik dago kopuruz.

3. Zer ulertzen da idazlanaz?

Erromantizismoaren erroetan elikatutako idazlanik badela XIX. mendean esaten zen arestian, baina poesiaren barrutian, zer ulertzen da idazlanaz?

XIX. mendean, bereziki Erromantizismo berantiar baten garaian, ordu arte ezezaguna zen neurrian hasten dira idazketaz baliatzen literatur genero tradizionalak testuak garatzeko. Eskolatzea gehiagorengana heltzen da. Mendean zehar aurrera egin ahala, gero eta gizarte-geruza zabalagoetara hedatuko da irakurtzen eta idazten ikasteko ahalbidea, nahiz eta horietako asko eskola handiegiaren jabe izatera ez iritsi. Ondorioz, ordu arte beste irtenbiderik gabe beren behar literarioak ahotsa bitarteko baino ase ezin zitzaketen gizarte-maileri irakurketa-idazketak ezagutzeko aukera irekitzen zaie. Jakina, beren kultur erreferentziek ahozkoatasunean egoten jarraitzen dute; orain, ordea, erreferentzia horiek mundu idatzira eramateko gauza dira. Bertsopaperak deituak horren erakuskari garbia dira. Badira, baita ere, kopiatzaile bat eskura daukaten agrafoak, beren ahozko sorkariari letrak dakarkion iraunkortasun zehatzago eta sendoagoa bermatuko dietenak.

XIX. mendeko euskal letretan argi gelditzen da, erdaraz bada ere, irakurtze-idazketen ikasketa jendarteratzen doala, «gehiengoetako» batzuei behintzat, lehenbiziko aldiz kulturaren parte hartzeko gonbita luzatzen zaiela. Halaber, agerikoak dira gonbit horren mugak: letrak bereiztea jadetsi. Trebetasun hau lortzeak ez dakar berarekin goi-mailako kultura bat norberregatzea, noski. Zer esanik ez, ezta kultura poetiko landu bat ere.

XIX. mendeko poesiak ez zuen gainditu bertsopaperaren barrutia, honako zentzu honetan bederen: salbuespen bakanen bat izan ezik⁸ ez dago poesi liburu bakar bat ere; hots, ez dago batasun baten azpian eratutako poesia-

⁸ Jean Martin Hiribarrenek (1810-1866) 1853an eman zuen argitara 5428 bertso-lerroz osatutako *Eskaldunac: Iberia, Cantabria, Eskal Herriac, Eskal-Herri bakhotchka eta hari darraicono*. Urte berean *Montebideoco berriac* (1853) ere plazaratu zuen.

multzorik. Baieztapenak berdin balio du, Bilintx edo Etxahunentzat, Iztueta edo Elizanbururentzat, Arrese Beitia edo zehatz-mehatz bertso paper izenaz izendatu diren bertsoen egileentzat. Hauek izan ziren arrakastarik handiena erdietsi zutenak, enkarguz eta kobratuz ere egin baitzituzten: euskal XIX. mendean ez dago bertso egilerik enkarguz eta kobratuz jardun zuenik bertso paper egile hauetatik kanpo. Arrunki bertso paper egiletzat jotzen direnak eskola gutxikoak dira. Baita eremu horretan lekutu ohi izan ez diren Bilintx edo Etxahun ere. Kultura poetikoaren mailan bada alderik XIX. mendeko bertsoegileen artean, ez horrela, hauen idazlanen formatuan: luzera handiagoko edo txikiagoko bertso papera. Ez da gaintitzen bertso soltearen maila: Lore-Jokoetako sariketen oinarriek bertso soltea eskatu izanak, hauen ugalketa eragin zuen. Alabaina, sariketon eskakizunetatik at ere bertso soltea paratu zuten, bertso-liburuak zekarren erronkari aurre egin gabe.

Bertso solteoz atondu da bildumarik. Hala, goian aipatutako idazleen nahiz aipurik gabe geratu diren bertso solteak liburu batera bildu dira, ez egilearen eskutik gehienetan⁹, baizik eta edizio-prestatzaile batenetik¹⁰. Horiek horrela, gutxienez, bi arazo planteatzen dira. Lehenik eta behin, XIX. mendeko poesia mintzagai, zer ulertzen da idazlanaz? Bigarrenik, nola kokatzen da egile berak bultzada literario desberdinetatik mamitutako obra? Lehen galderari dagokionez, badirudi idazlan izendapenarekin edo beste izendapenen batekin bertso solteari egin beharko litzaiokeela erreferentzia, horretara laburtzen baita egileak batasunen batera menderatuz aurkeztuta-

⁹ Bada egileak berak kaleratutako ediziorik. Esaterako, F. Arrese Beitiak prestatutako *Euskeriaren liburu kantaria* (Bilbo: Jose Ayastuy, 1900) eta *Asti-orduetako bertsozko lanak* (Bilbo: Jose Ayastuy, 1902). *Euskeriaren liburu kantarian* «Euskaldun neure adiskide onai» izenburupean eginiko hitzaurrean zioenez, «zuei eskeinten deutsuedaz hemeretzi urte onetan argitaratu dodazan kantu errikoiak, eta gañera beste neuk ipiniriko kantu pillotik aterata ezarri deutsedazanak bere bai», 3. Askoz laburragoak dira F. Lopez Alenek edo Serafin Barojak prestatu zituzten edizioak. Lopez Alenek *Josetxoko* (Donostia, 1896) «Irakurtzalle adiskidia»ri zuzendutako lehen hitzetan aitortzen zenez, «Lan txiki ontan bildu ditut bertso banako batzuek», 4. Serafin Barojak *Gazi-gezak. Poésias prosáicas en Vasceuce y Castellano* (San Sebastián: Imprenta de Baroja, 1875) prestatu zuen.

¹⁰ Aurreraxeago aipatuko direnei, besteak beste, *Bordel bertsoaria* (J. M. Satrustegiren edizioa, Auspoa, 1965) edo *Poèmes Basques de Salvat Monho (1748-1821)*, (P. Lafitterren edizioa, Ikas, 1972) erants dakieke.

ko corpora. Eskuarki bertso paper deitua, Lore Jokoen urtez urteko oroitzadazkiak edo aldizkariak ditu argitalpen-leku XIX. mendeko bertsoak. Ez dago bertso egilerik bertso liburrako jautzia egiten duenik, elkarrekin harremanetan dagoen bertso-multzoa moldatzea xede duenik. Lotura bertso soltera murriztu eta bertso solteak pilatuz doaz.

Badira bertso solte horiek sailkaturik eman dituzten edizioak, hala nola, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet Etchahunen*¹¹ bildumak «poésies autobiographiques», «poésies satiriques» eta «poésies de circonstance» atalak bereizten ditu edo *Parnasorako bideak* (1896)¹² zortzi atal. Bada, sailkapenik gabe argitaratu den bildumarik ere: Bilintxen *Bertso ta lan guziak*¹³ edo Elizanbururen *Elizanburu. Bere bizitza ta lanak. Su vida y obras*.¹⁴ Dena den, sailkapenaren iragazkitik iragazitako bilduma izan ala ez, arnas desberdinetatik jaiotako bertsoz osaturik daude.

Pilatzen dituzten bertso solteak arnas beretik ernetakoak ez direla erakusteko, hiruzpalau adibide baino ez. Felipe Arrese Beitiaren (1841-1906) «Euskara eta foru kantuak» deituak¹⁵ eta egile beraren alegiak¹⁶ edo Grazien Adema «Zaldubi»k (1828-1907) eskuizkribu berean idatzi zituen¹⁷ «Bildotxa eta otsoa» (1873) nahiz «Belea eta axeria» (1873) batetik, eta, demagun, «Eskualdunak» (1892) zein «Gauden gu euskaldun» (1893)¹⁸ bestetik, ez dira bultzada-modu berdinetik jalgitakoak. Zer egin behar da, Zaldubi neoklasikoa eta erromantikoa bereizi? Eta non lekutuko litzateke, Eusebio Maria Azkueren *Parnasorako bidea? Parnasorako bidea* Resurreccion Mariak, Eusebio Maria Azkueren semeak, aitak 1860-1861 urteetan idatzi zuen

¹¹ Jean Haritschelhar-ek prestatutako edizioa, Bilbao, 1970.

¹² Resurreccion Maria Azkuek moldatutako edizioa, Bilbo: Astuitar J.-n moldagintza.

¹³ Antonio Zavalak prestatutako edizioa, Donostia: Auspoa Liburutegia, 12, 1962.

¹⁴ Antonio Maria Labayenek atondutako edizioa, Donostia: Editorial Auñamendi, 1978.

¹⁵ Itziar Urrutia Zorrozuak eginiko sailkapenetik jaso. Ik. *Felipe Arrese ta Beitia: idazlan guztiak*, I, Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia, 1999, 79-222.

¹⁶ Itziar Urrutia Zorrozuak taxututako bilduma, II. liburukia, 747-787.

¹⁷ Adema, Gratien «Zaldubi», 2008, *Artzain beltzaren neurtitzak*, Bilbo: Euskaltzaindia. Argitalpenaren paratzailea: Henri Duhau.

¹⁸ Henri Duharen edizioan, hurrenez hurren, 79-81; 82-83; 181-193; 194-202.

EUSKARAZKO VERSOAK, neurri askotan *apainduak*. *Imini dituzana da Eusebio Maria Dolores Azcue-koa*, 1861 garren urtian eskuizkribuaren argitalpena da. Argitalpenak «Apolo eta Musak»¹⁹ izenburupean jasotzen dituen neurtitzei, bai alegiei tarte egiteak Neoklasizismora igortzen badu, «iiiAntxiñarik ona!!!»-ri²⁰, bere aldetik, kutsu erromantikoa dario.

Eragozpen handiegirik gabe sumatuko dira ezaugarri erromantikoak Etxahunen poesia autobiografikoetan, baina gainerakoetan?

Mitxelenak Bilintx «la voz más auténticamente romántica de la literatura vasca»tzat jo zuen (1960: 132). Zinez, ukaezina da Bilintxen lotura Erromantizismoarekin. Hori bai, paratu zituen bertso guzti-guztiak ez dira Erromantizismoaren adierazpen.

Honela bada, mende luzetan, XVII. mendetik XX. mendera arte bertso soltearen eskusibotasuna salbuespenen batek baino ez du hausten mundu profanoan. Bertso solteak ontzean, oraintxe heltzen zioten nola alegiari, hala erlijioari, nola satirari, hala gabon kantari... eta, jakina, bere identitatea galduz zihuan giza komunitate bateko partaide ere sentitzen ziren eta galerak agerian utziz identitatea finkatu eta aldarrikatzeari nahiz «ni» batek barnean ezin gorde zitzakeen sentimenduak kanporatzeari ere ekin zioten.

Bestalde, lantze-mailari dagokionez, bada alde oso nabarmenik aldizkari desberdinetan argia ikusi zuten poesietan. Ohikoena ez izanagatik, aurkitzen da forma lantzean arreta oso berezia jarritakorik ere. Esaterako, Antonio Arzak-en «Baga»²¹ poema aipa daiteke, poesia espazialean urratsa.

Nola antola daitezke mugimendu literario desberdinetan sustraiak dituzten egile beraren idatziak? Eta oraindik gauzak gehiago korapilatzeke, estilo jasoko, ez hain jasoko, herrikoiko ala oso herrikoiko bertsoek betetzen dute XIX. mendea. Herri-literaturaren eta literatura landuaren arteko bereizketara egin beharko litzateke? Egia esan, bide ikaragarri labainkorrean sartzea

¹⁹ *Parnasorako bidea*, 293-307.

²⁰ *Parnasorako bidea*, 199-204.

²¹ Arzac, A., 1890, «Baga», *Euskal-Erria*, XXIII (1890), 202.

lekarke; izan ere, lehenik eta behin, herri-literaturaz zer ulertzen den zedarritzea eskatuko luke eta lantegi nekeza dirudi.

Herri-landu bereizketara jotzeak, bataren eta bestearen arteko mugariak jartzeko sortzen dituen oztopoez gain, geroagoko garaietarako ere banaketa atxikitzea galdatuko luke barne-koherentziak. XX-XXI. mendeetara hedatuko genuke sailkapen hori?

XIX. mendeko bertso-gileak kultura poetikoaren mailak edo bertsoen lantze-mailak bereizi arren, bertso soltea paratu izanak uztartzen ditu. Adierazi behar den ezaugarria da, poesia idazlanaz arrunki ulertzen dena barne-lotura gordetzen duen bertso-multzo batez osatuta dagoelako.

Bere ahulezia guztiekin ere, bertsoa da jaun eta jabe XIX. mendeko idazte-egintza profanoan. Prosa narratiboa hiru mende luzetako antzutasunaren ostean, lehen urratsak ematen hasten da. Baita antzertia ere, Hegoaldean behintzat. XVIII. mendeko lehen testuaren ondotik datorren mende bateko isilaldia eta gero, XIX.aren azken laurdenean berragertzen da. XX. mendearen hastapenetan gisa honetan epaitu zuen Etxegaraik antzerti jaio berria:

De profundos análisis psicológicos, de ese andar por los laberintos y sinuosidades del alma y mostrar al exterior los más complicados estados de conciencia, no se hable, pues sería realmente demasiada exigencia pedir tales maravillas á un teatro que todavía está, y debe estar, en su infancia, porque no es posible que formas de arte como ésta nazcan adultas, ni que en veinte años recorran el espacio que otras más adelantadas han recorrido en siglos (1901: 50).

4. Ondorioak

- a) Ezer baino lehen, paradoxa moduko bati aipamena. Goitik behera politika orokorrak eta egitura horren barnean hizkuntza-politikak baldintzatu duenean euskal literaturaren garapena, justu, euskal literaturaren historia periodizatzeke irizpide soziopolitikoak alde batera uztea gomendatu da. Arrazoia, berriz, euskal komunitatea inoiz ez gobernatu izana botere politiko bakar batek eta, ondorioz, gertaera soziohisto-

riko berdinak ez bizi izana. Botere politiko bakar baten azpian behin ere ez egonagatik, gertaera soziohistoriko erabakigarri bat partekatu du euskal komunitate osoak: Euskal Herrian hitz egiten ziren beste hizkuntzei ez bezala, hizkuntza ofizialaren maila ukatu izana euskarari, estatus hori aitortzeko ahalmena zuten botere politikoek.

Zinez, gertaera erabakigarria dirudi euskal literaturaren historia azaltzeko. Izan ere, Errenazimentuan, estatu modernoek sorrerarekin, estatu desberdinek herri-hizkuntza bati hizkuntza ofizialaren maila emanaz, hizkuntza landu bihurtzeko ahaleginari lotzen zaizkionean, inongo estaturen babesik gabe, euskaldunak ere heltzen dio egitekoari, lehenbiziko betebeharretik bertatik hasita: idatziz jarri. Etxepare ez zuten bakarrik laga zeregin horretan: poesia eta prosa narratiboa jorratzen dira, errefracuak biltzen dira... Lehen urrats hauek sendotuz joan ordez, ahulduz doaz. Euskal Herrian hitz egiten ziren hizkuntza ofizialak indartu ahala, indargabetuz doa euskara, XIX. mendean gizarte-baldintzetan datozen aldaketek (haurren eskolatzeari hedatu, hizkuntza prestigioa irabazten joan...) berriro normalizazioranzko biderantz zuzentzen duten arte. Jarrera horri eutsiz eta areagotuz, behingo batean, kantitatez ez bada ere, -eremu urriko hizkuntza baita euskara- asmoz eta kalitatez inguratzen duten literaturen parean kokatzea lortu arte XX. mendetik aurrera.

- b) Euskal literaturaren historia aldietan banatzeko aukera bat irizpide kronologikoa jarraitzea da, baina, onartuz mendea bezalako zenbaki-kontzeptu bat etiketa bat baino ez dela. Gertaera soziopolitikoak euskarri eraikitzea baztergarri litzateke, euskal komunitate osoarentzat baliagarriak liratekeen mugarrak ezartzeko gaitasunik ez izateagatik.
- c) Irizpide literarioetara jotzea dirudi egokiena, modu hertsian hartu barik horratik. Testu profanoen esparrua gaundituz, beste hizkuntza batzuetan ere ondu izan dituzten eta literaturaren historietan tokia izan ohi duten testu-tipo erlijioso erabakigarrienak alde batera utzi gabe: dela biblia-itzulpena, direla aszetikak edo mistikak eskainitako fruiturik funtsezkoenak... Beraz, hiru literatur genero tradizionalen eremua, laugarren bati zabalduko litzaioke: literatura aplikatua edo didakti-

koa... deitu izan denari. Unean-unean abangoardia markatuko lukeen idazlana abiaburu, abian jarri duen aldiaren jardunbidea azalduko litzateke, jarraian, garaikide izan arren, beste mundu-ikuskera bat darien idazlanei leku egiteko. Bestela esanda, aldiari denboraren ardatzean egotzitako iraupena lehenetsiko litzateke, tarte horretan oinarrizko uniformetasun estetiko bat erakusten duten idazlanak jasoz. Aldiak biltzen duenaren azterketa amaitu ondoren, denbora-tarte horretan beste ikuspuntu batetik taxututako idazlanen txanda letorke. Jakina, ez da biribil-biribila aurkeztutako aukera; esaterako, arestian aipatutako XIX. mendeko zenbait bertso-gileren lana zatikatzea eta barreiatzea ekarriko luke.

- d) Herri / landu bereizketak berez konplexua dena are konplexuago bihurtzen du. Ez bakarrik bien artean mugarri finkoak ezartzearen ezintasunarengatik, baita modu nabarmenean herri-adierazpen izan denak ere, bertso-paper gisa ezagutuak, kasu, beste sistema batean funtzionatu duelako. Gainera, XX-XXI. mendeetara hedatu beharko litzateke banaketa.
- e) Eragozpen frankori aurre eginaz XXI. mendera iritsi den hizkuntza batean garatutako literatura da euskarazkoa. Europa bertako zenbait hizkuntzekin alderatuta oso goiz letraz baliatu dena idazlan profanoak moldatzeko. Ez, noski, inguratzen zuten gaztelera edo frantsesarekiko. Horiekiko harremanean ez da izan, ez goiztiarra, ez, inondik inora, aberatsa. Baina, hizkuntza horietan -eta beste hizkuntza ofizial batzuetan: ingelesa, alemana...- landutako literaturetan ala eremu urriko hizkuntzetan jorratutakoetan erreferentzia bilatzea da aukera. Badirudi, lehen aukera egokiagoa dela; azken batez, ukaezinezkoa baita, gutxienez globalizazioa heldu arte behintzat, euskal komunitatearen kultur harremanik sakonenak horiekin izan direla: euskal letratan izan duten eragina oso nabarmena da. Badu desegokitasunik euskara inguratzen duten hizkuntza handietan burututako literaturen historien jarraipena eginaz, euskal literaturena eraikitzeak: euskararen parean egon ez diren hizkuntzetako literatura hautatzen da eredu jartzeko. Bistakoa denez, erreferentziaren aurrean beti azalduko da euskal literatura txiki, ahul, baita noizbait ezgauza ere, ez direlako

maila berean egon hizkuntzak. Maila berean egon ez diren eta ez dau-
den hizkuntzetan mamitutako literatura erreferentzia moduan har-
tzea da, azken finean, euskal literaturari egotzi izan zaizkion hainbat
ezaugarriren eragilea: berankorra, idazlan profanoetan urria, eta oro
har, aurreko lerroetan mintzagai izan diren «berezitasunen» jabea.

Aipatutako bibliografia

AKESOLO, L., (Ed.), 1983, *Bernard Gasteluçar. Eguiac Catholicac salvamendu eter-
nalaren eguiteco necesario direnac*, Bilbo: Euskaltzaindia.

ALTUNA, P.; MUJICA, J. A. (Ed.), 2003, *Arnaud Oihenart. Euskal atsotitzak eta
neurtitzak. Proverbes et poesies basques. Proverbios y poesías vascas*, Bilbo: Euskaltzain-
dia.

ARRESE BEITIA, F., 1900, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, Bilbo: Jose Astuy.

———, 1902, *Asti orduetako bertsozko lanak*, Bilbo: Jose Astuy.

ARZAC, A., 1890, «Baga», *Euskal-Erria*, XXIII (1890) 202.

AZKUE, R. M. (Ed.), 1896, *Eusebio Maria Azkue. Parnasorako bidea*, Bilbo: Astui-
tar J.-n moldagintza.

BAROJA, S., 1875, *Gazi-gezak. Poesías prosáicas en Vascuence y Castellano*, San
Sebastián: Imprenta de Baroja.

DUHAU, H. (Ed.), 2008, *Gratien Adema» Zaldubi. Artzain beltzaren neurtitzak*,
Bilbo: Euskaltzaindia.

EHEGARAY, C. de, 1901, *Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de
Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel*, VI, Tolosa: Imprenta, Librería y Encuaderna-
ción de E. López.

ETXEPARE, B., 1545, *Linguae Vasconum Primitiae*, Bilbo: Euskaltzaindia, 1995.

HARITSCHELHAR, J. (Ed.), 1970, *L'oeuvre poétique de Pierre Topet Etchahun*, Bil-
bao: Gráficas Ellacuría.

HERNADI, P., 1978, *Teoría de los géneros literarios*, Barcelona: Antoni Bosch editor.

HIRIBARREN, J. M., 1853, *Eskaldunac: Iberia, Cantabria, Eskal Herriac, Eskal-Herri bakhotcha eta hari darraicona*, Bayonne: Imprimerie Foré et Lasserre.

———, *Montebideoco berriac*, Bayonne: Imprimerie Foré et Lasserre.

LABAYEN, A. M. (Ed.), 1978, *Elizanburu. Bere bizitza ta lanak*, Donostia: Editorial Auñamendi.

LAFITTE, P. (Ed.), 1972, *Poèmes Basques de Salvat Monho (1748-1821)*, Bayonne: Ikas.

LAFON, R., 1951, «La langue de Bernard Dechepare», *BRSVAP*, VII, 309-338.

LOPEZ ALEN, F., 1896, *Josetxo*, San Sebastián: Establecimiento Tipográfico de La Voz de Guipúzcoa.

MARAVALL, J. A., 1980, «La época del Renacimiento», in Rico, F.; López Estrada, F.: *Historia y crítica de la literatura española. Siglos de Oro: Renacimiento*, Barcelona: Editorial Crítica, 44-53.

MICHELENA, L., 1960, *Historia de la literatura vasca*, Madrid: Minotauro.

MOGEL, J. A. de, 1881, *El doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la universidad de Basarte ó Diálogos entre un rústico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan*, Bilbao: Asociación Gerediaga, 1981. Edizio faksimilea.

SATRUSTEGI, J. M. (Ed.), 1965, *Bordel bertsularia*, Tolosa: Auspoa 45-46.

TACCA, O., 1968, *La historia literaria*, Madrid: Gredos.

URRUTIA, I. (Ed.), 1999, *Felipe Arrese ta Beitia: idazlan guziak*, I eta II, Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia.

WELLEK, R., 1983, *Historia literaria. Problemas y conceptos*, Barcelona: Laia.

ZAVALA, A. (Ed.), 1962, *Bilintx, Bertso ta lan guziak*, Donostia: Auspoa, 12.

Gudaosteko euskal poesiaren antologiak. Poetikak eta irakurketa soziokulturalak

**Antologías poéticas vascas de postguerra. Poesía e
interpretaciones socioculturales**

**Anthologies poétiques basques d'après-guerre. Poésie
et interprétations socio-culturelles**

**Post Spanish civil war Basque poetry anthologies:
poetics and sociocultural readings**

OTAEGI IMAZ, Lourdes
Euskal Herriko Unibetsitatea (EHU/UPV)

Noiz jaso: 2014-05-16
Noiz onartua: 2014-07-08

Euskera. 2013, 58, 2. 515-556. Bilbo
ISSN 0210-1564

Poesia antologiek euskal literaturaren historian eta kanonean jokatu duten funtzioa hartu da aztergaitzat artikulu honetan, bereziki antologiaren hezkuntza funtzioaz eta literaturaren balioak irakurleengana helburu didaktikoez helarazteko zeregin bitartekariaz. XX. mendeko poesia antologia garrantzitsuenen inguruko hausnarketak agirian ezarriko du literatur tes-tuen balioaren epaiketan hizkuntza ereduari loturiko irizpideak izan duen garrantzi handia, poesia modernoaren kanonizazioan indar gehienez jokatu duen bektorea bilakateraino. Bestalde, euskal literaturaren sisteman jokatzeko duten balio irizpideetan, hizkuntzaren egoera soziolinguistikoak duen indar grabitazionalaren inguruan hausnartzen da, bai gizarte mailan bizi duen egoera diglosikoari buruz, bai estandarizazio prozesu berankorraren ondorioei buruz.

Hitz gakoak: antologia, kanona, poesia modernoa, diglosia, euskara batua.

Este artículo analiza la función que han desempeñado las antologías poéticas en la historia y el canon de la literatura vasca. Más en concreto, la función educativa de las antologías, y su función mediadora, en tanto que transmite los valores literarios a los lectores. El estudio de las principales antologías poéticas del siglo XX, deja bien a las claras la centralidad de los criterios sujetos al modelo lingüístico, a la hora de enjuiciar el valor de los textos literarios. Podemos considerarlo como el vector más potente en la canonización de la poesía moderna.

Por otra parte, se reflexiona sobre la fuerza gravitatoria que tiene la situación sociolingüística, dentro de los criterios de valor que juega esta en el sistema de la literatura vasca. Tanto por la situación de diglosia en la que vivimos, como por las consecuencias de la estandarización tardía.

Palabras clave: Antología, canon, poesía moderna, diglosis, euskara unificado.

Cette article analyse la fonction occupée par les anthologies poétiques dans l'histoire et le canon de la littérature basque. Plus concrètement, la fonction éducative des anthologies et leur fonction médiatrice, puisqu'elle transmet les valeurs littéraires aux lecteurs. L'étude des principales anthologies poétiques du XX^e siècle montre bien le caractère central des critères sujets au modèle linguistique, lorsque l'on étudie la valeur des textes littéraires. Nous pouvons le considérer comme le vecteur le plus puissant en matière de canonisation de la poésie moderne.

Par ailleurs, on réfléchit à la force gravitationnelle que représente la situation sociolinguistique parmi les critères de valeur qu'elle utilise dans le système de la littérature basque. autant par la situation de diglossie dans laquelle nous vivons que par les conséquences de la standardisation tardive.

Mots-clés: Anthologie, canon, poésie moderne, diglossie, basque unifié.

The part played by poetry anthologies in the history and canon of Basque literature is examined, in particular the educational function of anthologies and their role in mediating in the transmission of literary values to readers. Reflection on the major 20th century poetry anthologies brings out the importance of criteria based on models of language in judgments on the value of literary texts, to the point where they constitute the prime vector in forming the canon of modern poetry.

In addition, the force of attraction caused by the sociolinguistic situation in the matter of evaluative criteria within the system of Basque literature is also a focus of reflection, both with regard to the diglossic situation at present experienced and to the consequences of a belated standardisation.

Keywords: Anthology, canon, modern poetry, diglossia, unified Basque.

1. Hurbilpena

Gudaosteko euskal poesiaren antologiak aztertzea helburutzat duen artikulua honetan, lehenik, hausnarketak izango dituen abiapuntu teoriko erreferentzialak zehaztea komeni da. Alde batetik, oroitarazi behar da antologiak literaturaren historiarekin eta kanonarekin duten lotura estua, eta bestetik, azpimarra daiteke antologiak gehienetan izaten duten zeregin hezitzailea, literatura irakurleengana helarazteko tresna izateko funtzioa.

Abiapuntu horietan gehiago sakonduz, gogora genezake antologiak edozein literatura nazionaletako historien osagarri direla, eta elkarren menpekotasun bat agertzen dutela biek: literaturaren historia bat osatzeko historiagileak idazle eta idazlan hautapen bat egin du eta haien arteko harremanak deskribatzen ditu bere historian, hari kronologiko batean ezarritako gertakari literarioen arteko koherentzia eraikiz. Beste alde batetik, egia da antologia bat egin ahal izateko historia literarioaren aldien eta urraspide nagusien ideia bat beharrezkoa dela. Idazleen balioaren eta errepresentatibotasunaren irizpide bat du beharrezko antologia orokorren egileak, baina baita aldi edo denbora baten irizpidea ere, antologiaren mugak finkatzeko. Aho batez onartzen da, beraz, historiek eta antologiak kanon batean kokatzen dituztela testuak eta egileak, eta haien sagaratze prozesuan urraspide nagusi bilakatzen dira (Claudio Guillen, 1985; Jose Maria Pozuelo, 1996).

Horregatik, gure artean, antologia aipatuenen hitzaurreak literaturaren historiaren atal nagusi bilakatu izan dira, eta genero bateko poetikaren bilakaeraren azalpen-saio goiztiarrak izan dira sarritan, literaturaren historia orokorragoen muin bilakatu aurretik. Hala gertatu da, esaterako, eta bi adibide soilik aipatzearen, Iñaki Aldekoaren *Una antologia de la poesia vasca*ren hitzaurrea edota Maria Goyri Mintegiak (*Euskal baladak*, 1983) euskal baladei buruz burutu zuen hitzaurre eta azterketa, generoari buruzko ikas-kuntzetan oinarritzko azalpen historiografiko bilakatu direla.

Euskal poesiaren antologia guztien azterketari ekitea ez daiteke izan gure gaurko asmoa, susmoa dudan arren ez litzatekeela fruitu gutxiko ikerketa, baina gure artean modu kritikoa gutxi jorratu den barrutia izanik, asmo

ausartegia litzatekeelakoan nago. Aipagarritzat daukat arlo honetan Iratxe Retolazak 2007-2008ko *Caravansari* aldizkarian argitaratu zuen artikulu interesgarri bat, eta atseginez adierazi nahi nuke gaurko artikulu honetan bidelagun eta mintzakide izango dudala azterlan hura; izan ere, ikerketa arlo honetaranzko lehen hurbiltze baten abantaila eskaintzen baitit euskal poesia modernoaren eta postmodernoaren antologiei buruz. Horri esker, gaurko nire saio honetan esparru murriztago bati atxiki ahal izango natzaio: Zehazki aztergai izango ditut Guda Zibiletik aurrerako XX. mendeko euskal poesiaren zenbait antologia.

Iratxe Retolazak *Antologías de poesía vasca: itinerarios personales por territorios poéticos* lanean adierazi zuen moduan, «Toda antología de literatura es un viaje guiado por territorios literarios, y plantea, evidentemente, itinerarios personales» (2007: 223). Horrenbestez, erran gabe doa bat natorrela berarekin esaterakoan euskal antologien barrutia antologia-egileen planteamendu eta ikuspegiak bezain dibertsoa eta askotarikoa dela. Egileak paraje edo lurralde bat ezagutzera emateko gida moduko bat da antologian irakurleari egiten dion proposamena, baina ez da beste gabeko «erakuste» saio desinteresatua izaten, beti izaten baitu zerbait frogatzeko asmo isil-gordea. Ikuspuntu batetik harturiko panorama erakustean, testuak ezagutzera ematez batera, literatur testuaren inguruko «tesi» bat gordetzen dute antologiek beren baitan, nolabait, produkzio multzo horren izaerari buruzko ideia bat frogatzeko asmo inplizitua. Eta gehienetan produkzio horren bilakaeraren berri ematea beste asmorik aldarrikatzen ez badute ere, norabide bateranzko bilakaera erakustea izaten dute gogoan. Ez da garrantzi gutxiagokoa, antologietan ikuspuntu horiek hobestean, euskal sistema literarioak islatu dituen kezka eta obsesioen lekuko bilakatzen direla ohartzea. Beraz, ildo horretatik zerbait sakontzeko asmoa dakarte lerro hauek.

Har dezagun lehenik ikuspegi teoriko orokor bat geure terminologiaren oinarri gisa baliatzeko. Marta Palenquek «Historia, antología, poesía: la poesía española del siglo XX en las antologías generales (1908-1941)» izeneko artikuluan proposatzen digun terminologia ildoari lotuko gataizkio (2004: 314). Antologiak sailkatzerakoan, irizpide nagusitzat hartzen du antologoak hobetsiriko ikuspuntu kronologikoa: hots, antologia orokorra egingo duen ala aldi literario baten mugetan etsiko duen. Bere azalpenen

arabera, antologia orokorragoei ekiten dienean, helburu orohartzaile bati lotzen zaio antologoa, eredu errepresentatiboak bilatzen ditu eta, nolabait, helburu hezitzaileetarako edo formakuntza orokorrerako baliagarri izango den tresna osatzea izaten du gogoan. Horregatik, antologia orokorrek funtsean bermatu egiten dute literaturaren historietan finkaturiko kanona; baina inoiz edo behin hari zuzenketak egiten edota ñabardura baloratiboak eransten ere ausartzen dira antologoak. Aldiz, aro mugatu bateko edota talde jakin bati dagozkion antologietan, -bereziki garaikide eta moderno edo postmodernoetan- helburua hipotesi berriak probatzea izan ohi da, kanon berri bat sortzea eta aurreko epean izandako poetika gauditua dela frogatzea, testu corpus baten bidez argudiatuz aurrekoa «zahartua» geratu dela.

Euskal antologia orokorren arloari soilik begiratuko bagenio, hots euskal literaturaren esparru zabalak aurkeztea helburutzat duten *lorategiak* soilik aintzat hartuko bagenitu, ikusiko genuke badirela zenbait mota ezberdin: batetik, badira genero ezberdinak biltzen dituztenak, hala nola, Koldo Izagirre eta Xabier Mendigurenen *Euskal literaturaren antologia* (1998. 232-233). Antologia honek asmo pedagogiko garbia du, azalean berean adierazia baita Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikasleei zuzendua dela, eta, horregatik, egile bakoitzari eta hautaturiko testu bakoitzari buruzko azalpenez eta hiztegiak lagundurik aurkezten dira testu guztiak. Alabaina, arestian aipatu dugun moduan, antologian ñabardurak edo xehetasunak erantsiz corpora pertsonalizatzeko joera nabari da, esaterako, euskal literaturaren historietan ordura arte inork aipatu gabeko egilea «plazaratu» zuelako antologia hark: Juan Bautista Bilbao «Batxi» bidaien kronikari bizkorra. Iñigo Aranbarrik eta Koldo Izagirrek aurkitu eta aldarrikatutako idazle bati sarbidea eman zitzaion antologia orokor horretan, urtebete lehenago argitaraturiko Batxiren *Hau mundu arrano hau* artikulua bilduma argitaratu berria zutelarik iturri gisa (1997).

Bestetik, Jon Kortazarrek eta Miren Bilelabeitiak Alfaguararentzat eginitako haur eta gazteentzako euskal poesiaren antologiek ere (2004, 2005), aurretik aipaturikoak bezala, helburu didaktikoari erantzuten diote, eta ildo beretik doa Juan Kruz Igerabidek Anayarentzat (1997) eginitakoa ere. Asmo funtzional bera dute testuen edizio elebidun diren beste zenbait antologiak, hala nola, Patri Urkizuk UNEDentzat eginitakoa (2009), edota Garcia Truji-

llo eta Gonzalez Langarikak lau hizkuntzatan argitaraturiko poesia hautapena (2010).

Aipaturiko antologia orokor edo orohartzaile horien aurka-aurkako ezau-garriak dituzte Maria do Cebreiro Rabade irakasle galziarrak antologia «sortzaile» gisa bataiatu-rikoek. «Las antologías de mujeres en la poesía catalana (1975-2001)» artikuluan (2011: 325-336) dioskunez, antologia sortzaileek ez dute kanonean ezarrirako balioak berresteko asmoa, baizik eta hura kordokarazi eta errealitate berri bat gorpuztu eta sortzeko xedea. Horretarako, «irudimen antologikoa» izendaturiko kontzeptu berri batetik abiatzen da:

El término imaginación antológica tiene su origen en el título genérico del monográfico en dos volúmenes de la revista *Proof texts*, coordinado por David Stern (1996). También el trabajo de Alberto Manguel (1988) sobre la antología como acto de creación resulta indicativo de este cambio de percepción del fenómeno antológico, hasta hace poco tiempo objeto de tratamientos casi «punitivos» por parte de la bibliografía especializada. En cambio, en los últimos años a las antologías se les viene reconociendo una potencia creativa y transformadora, y no meramente reproductiva de los valores existentes (2011: 326).

Izan ere, literatura katalaneko emakumeek idatziriko poesiaz diharduten antologiak dira Maria do Cebreiroren ikergeia artikuluko horretan, eta haieran generoa irizpide nagusitzat hartu denez testuen hautapena egiterakoan, argi dago antologiaren egileek emakumeek idatziriko literatura ikusgarri egiteko asmoa izan dutela, eta gizonezkoen literaturaren saldoan sarturik izaten ez duten fokuen argia haienganatzea. Borondate sendo horren ondorioz, emakume idazleen ikusgarritasuna areagotzen dute Rabaderen iritziak, «y pueden llegar a generar una arquitectura específica y modalidades alternativas de entendimiento de las labores de selección y organización del material poético» (2011: 326).

Maria do Cebreiro Rabaderen artikulua arabera, emakumeen antologia horiek formalki kontserbadoreago izaten diren antologia kanonikoak ez bezalakoak izatera ausartzen dira, eta «imaginación antológica», sormen berritzaile hori, irudimen askeagoaren eragile bilakatzen da.

Irakasle galziarraren ondorioak gure esparrura ekarriz, nabarmenduko dugu badirela gurean ere euskal antologia orokorretan ikusgarri edo nabarmenegi agertzen ez diren gai jakin batzuen inguruko testuez osaturiko antologia «sortzaileak» eta berritzaileak, gizartean suertaturiko aldakuntzen haritik. Hala gertatu da, esaterako, maitasuna gaitzat duten antologiaren artean. Antzinakoenetako bat aipatzearen, Santi Onaindiaren *Euskarazko 100 maitasun olerkirik hoberenak / Las cien mejores poesías de amor de la lengua vasca* (1975) izeneko lana har genezake abiapuntutzat. Maitasunezko euskal kantuen irudi jakin bat hobesten eta erakusten du Onaindiak, antologiako hitzaurrean argitasunez adierazia dena. Iratxe Retolazaren hitzetan egoki laburtua aurki genezake:

Mediante esta nueva antología, todavía defendía esa visión tradicional y esencialista de la expresión poética, y no solamente eso, sino que pretendía mostrar «que la lírica vasca ha producido, a través de los siglos, bastante buena poesía amorosa» (Onaindia 1975: 15), y añade «una nota característica: la poesía euskara jamás ha sido enturbiada hasta la fecha por la truculenta pasión erótica». De esta manera, de nuevo, la poesía quiere ser reflejo del alma vasca, que, como se ve, considera Onaindia que no debe de ser «enturbiada» (Retolaza, 2007-2008: 27).

Santi Onaindiaren antologiak gudaosteko euskal antologiaren artean eraginkorrenak izan ziren, eta hain zuzen ere, garrantzia horren lekuko, sustatu zituen «erantzun»en artean aipatu ahal genuke maitasun olerki horietakoak ez bezalakoak diren maitasunak biltzen dituzten antologiak. Patri Urkizuk osatu zuen maitasun ez hain xaloen adierazpide ziren testuez osaturiko beste antologia bat, *Eros, eros...* (1985), euskal tradizio herrikoian nahiz landuan edanez. Aipagarri da, gisa berean, egile talde batek osaturiko *Desira plazer* (2009), 1968 eta 2008 bitarteko euskal poesia erotikoren antologia ere, Urkizurenaren ildo heterodoxotik, bestelako maitasunen, gay, lesbiana, queer-en testu hautaketaraino bidea egin zuena, edota Anjel Errok *Desira desordenatuak* (2010) lan bilduman argitaratu zuen poesia gayaren sorta guztiz pertsonala. Antologia sortzaileak deskribatzerakoan Maria do Cebreiro Rabadek iradoki zuen ausardia eta esperimentalismo generikoan, aurrerapausoak atzeman ditzakegu aipatu berri ditugun horietan.

Antologia sortzaile eta berritzaile horien irudimen antologikoaren azterketa hurrengo ikergai baterako utziz, azterlan honetan antologia orokorrak eta aldi-sortzaileak izango ditugu ikusmiran; zehazki, poesiaren generoaren baitan ibilbide kronologikoaren epeak eta kanona eraikitzen erabakigarriak izandako antologiak. Horretarako, helburu didaktiko nabariaz osatutako Mendiguren-Izagirre, Kortazar, Billelabeitia, Igerabide edota ia eskola liburuaren esparruan diharduten argitaletxeek prestatuak alde batera utziko dira, eta XX. mendeko euskal poesia modernoaren ildo nagusiak zehazten parte hartu duten antologiei jarriko zaie arreta: batetik, aldi literario modernoaren lehen corpusak bihurtu diren Joan San Martin, Ibon Sarasola, Joan Amenabar, Jon Kortazar, Iñaki Aldekoa, eta Mari Jose Olaziregiren antologiak, eta, bestetik, antologia orokor gisa, Santi Onaindiaren antologia eta Koldo Izagirrereren «Poesia kaierak» hartuko dira aztergaitzat.

2. Modernitateko antologia aldi-sortzaileak

Santi Onaindiak argitaraturiko *Mila euskal olerki eder* (1954) liburua antologia orokor gisa aurrerago aztertuko den arren, ezinbestekoa da aipatzea euskal literaturaren ikuspuntu erromantikoaren arabera kanonaren eraikuntzan lehen urrats garrantzitsu gisa. Ondoren heldu zirenek, ordea, aldi literario berri baten eraikuntzan parte hartu zuten, poesia modernoaren aldi literarioaren iragarle moduan. Hala, gudaosteko urte ilunen ondoren, 1960tik aurrera ahots berri baten beharra sumatzen zela iradoki zuen San Martinek *Uhin berria* antologiaren bidez, 1969an, baina giroa benetan ez zen aldatu 1972-1973ra arte. Euskal idazleek bilerak burutu zituzten estandar literario modernoaren bila: lehenik Baionan 1964an eta gero Ermuan 1968an. Ondoren, 1968ko urrian ekin zitzaion batasunaren aldarria zabalteari Euskaltzaindiaren Arantzazuko biltzarraz baliatuz.

Ezagun den moduan, asmo berri horiek egoera soziopolitikoaren aldakuntzen pausoan gertatu ziren. Frankismoaren diktaduraren urte gogorrenek egindako garbikuntza epearen ondoren (1939-1964), aldi bakegile bati ekin zion. Horretarako, 1964an «25 años de paz» izeneko kanpainaren barruan, erakusketa eta argitalpenen bidez gudaren eta gudaostearen memoria

kapitalizatzeko helburuz, Fraga Iribarne Informazio eta Turismoko ministroak bakea eta aurrerakuntza sozioekonomikoak Francoren agintaldiaren fruitutzat aurkeztu nahi izan zituen. Ondorioz, Fraga ministroaren prentsa legeak zirrikitua ireki zion euskarazko produkzio idatziari 1966tik aurrera, erregimen frankistaren politika kulturalaren aldakuntza kanpainaren ildotik, baina zentsura sareari erabat utzi gabe. Horren ondorioz, euskarazko testuen gainean ezarritako zentsurak eragindako geldotasuna gainditzen hasi zen eta euskal literaturaren hazkunde tasak gorantz egin zuen: hogeita bost liburu eman ziren argitara 1963an, hogeita hamahiru 1965ean, berrogeita hamarreko galgara iritsi zen 1969an, eta 1975ean hirurogei. Hortaz, zenbait aldizkari eta argitaletxe zabaltzeko baimenak heldu ziren: Lur, Etor, Jakin, Auspoa, Gero, Kriselu... Testuinguru horretan sortu zuen Juan San Martin eibartar idazleak *Uhin berri* izenez bataiatu zuen lan bilduma, aldizkarietako idazle berrien lanak liburu batean bilduz 1969an.

Juan San Martinen antologiari arretaz erreparatzea komeni da, zeren, garai jakin eta labur bateko produkzioaren antologiek ohi duten moduan, San Martinen *Uhin berriak* hogeita bost poeta bildu zituen, 1930az geroztik sortuak eta 1963 eta 1969 artean plazaratuak. Aldi jakin bateko euskal olerkigintzaren poetika berri bat eman nahi zuen ezagutzera antologia horrek. Liburu batean eta sorta berean bildurik, testuok joera berri baten lekuko bilakatzen ziren eta joera berri horren existentzia materializatu egin zuten. Martin Ugaldek *Zeruko Argia* aldizkari bere iruzkinean adierazi zuen moduan, «era berrikoa» izatea hartu zuen irizpidetzat San Martinek, «bai egin-bidean eta baita protesta-giroari dagokionean ere» (1970: 6).

Ibon Sarasolaren *Gerraondoko euskal poesiaren antologia. 1945-1964* antologia osatzera eta bermatzera zetorren Juan San Martinek eginiko iragarpen lana: poesia modernoaren etorreraren urratsak ilustratu zituen, izan ere, bere antologiaren amaiera datatzat hautatu baitzuen San Martinen antologiaren hasiera data: 1964. Izenburuak berak iragartzen duen moduan, epe jakin bateko poesia, «gudaosteko poesia» du objektu gisa. Gisa horretan, guda aurretik abiaturiko bilakaeraren urratsak markatu gura zituen, aldi literario berri baten etorrera iradokiz. Zein dira, bada, azpimarratu zituen urratsak?

Lehen mugarria, poesia jaso herri poesiatik banantzea izan zela iradoki zuen Iratxe Retolazak. Are gehiago, Sarasolaren antologiaren lehentasun-tzat azpimarratu zuen irizpide hori:

Aunque en un primer acercamiento parezca que esta estructura cronológica busca narrar la evolución estética de la poesía vasca, no parece ser esa su intención. Cara a esa visión moderna de la poesía que se estaba imponiendo en la década de los 60, Sarasola pretende acotar el terreno de la poesía culta, uno de los importantes criterios de selección de la visión moderna de la literatura, dibujando ya unos límites claros entre poesía popular y culta (2007: 23-24).

Asmo «moderno» horren ildo berean jarraitu zuen, Retolazaren iritziz, Joan Amenabarrek ere *Euskal poesia kultoaren bilduma (1880-1963)* liburuan (1983). Amenabarren antologia Lore Jokoetan Emeterio Arresek aurkezturiko testuetatik abiatzen zen eta Gabriel Arestiren *Harri eta Herri* arteko aldiko testuak hautatu zituen, aldi horretako testuen ezaugarrien kidetasun gisa «kultua» izatea azpimarratuz, eta Gabriel Arestik zekarren berrikuntza linguistikoa, metrikoa eta tematikoen ondorioz aurreko aldi hura amaitutzat joz (Retolaza, 2007: 24).

Gudaosteko euskal poesiaren antologietan egin den testu eta egile hautaketak gudaosteko poesiagintza kultua bermatu du, eta tematikoki nahiz linguistikoki modernotzat jotzen denari eman dio lehentasuna. Horren lekuko dira, bai San Martin (*Uhin berria*, 1969), bai Ibon Sarasola (*Gerraondoko euskal poesiaren antologia (1945-1964)*) (1973). Ondotik etorri ziren antologia itzuliek ere poesia modernoa hartzen dute objektutzat, Jon Kortazarrek katalanez argitaraturiko *Reduccions*, (nº 22, 1984) eta gero gaztelaniara eginiko antologietan (1995, 2000, 2002). Geroztik, Iñaki Aldekoak gaztelaniara (*Antología de la Poesía Vasca. Euskal poesiaren antologia*, 1991), nahiz Fabio Aris-timinhok portugésara (Sao Paulo, 2008), Salome Gabuniak georgierara (Tbilisi, 1991), Ciril Bergles-ek eslovenierara (2008), M.J. Olaziregik ingelesera (2007) eta, azkena, Manuela Palacios-ek ere ingelesera (2012) eginikoak.

Juan San Martinen edota Ibon Sarasolaren antologiek bezala, «era berriko poesia» edo «poesia modernoa» aurkeztera eta bermatzera jo zuten trantsizio-ko antologoeke ere, eta euren testu antologietan 1950-60ko hamarkadan har-

tu zuten oinarri, Federiko Krutwig, Jon Mirande eta Gabriel Arestiren lanak bilduz, baina jadanik aldi haren kanonaren epaia osatutzat ematen zutelarik.

Poesia modernoaren definizioa osa lezaketen ezaugarriez hausnarketa eginez gero, lehenik, arestian Martin Ugaldek aurreraturiko bi irizpideak oroitu behar ditugu: «egin-bidea» eta «protesta-giroa». Bestela esanik, Ugaldek poema modernoan ezaugarritzat seinalatu zuen berezitasun formal gisa hizkuntzaren estandar hiritarra, eta bestetik, enuntziazioaren taxu kritikoa azpimarratzen zuen, inkonformismoa. Funtsean, jadanik Ugaldek azpimarratu du uhin berriaren «berritasuna» zertan aldendu den gudaosteko ordura arteko idazleetatik, kultura hiritar garaikidearen ezaugarriekin bat egiteko ahalegina deskribatuz. Juan San Martinen edota Martin Ugalderen iritzi horiek oso zabal hedaturik aurki genitzake belaunaldi hartako partaideen artean. Aski da, esaterako, Hasier Etxeberriak Anjel Lertxundiri eginitako elkarrizketa irakurtzea, haren gaztaroko euskal giroan euskara batua-ren inguruan batu zirenen identitatea, gudaostean euskararen mundua patrimonializatua zuen abertzaletasun tradizionalaren eta Elizaren aurkako-tasunean eraiki zela. 1969an Batasunaren Kutxa izeneko manifestuaren sinatzaileek hizkuntza berri baten beharra aldarrikatzen zuten, jarrera monopolizatzaile eta euskararen unibertso murriztailearen aurkako jarrera hartuz (Etxeberria, 2002: 186-187).

Antologia modernoan irizpide izan ziren argumentuetara joz, interesgarri da Iñaki Aldekoak Visor-entzatzat eginiko antologiaren hitzaurrean dioena gogoratzea, fokua eskaini baitzuen, bere ustez, «a aquellos poetas que han influido con una voz convincente en la trayectoria moderna de la poesía vasca» (1986: 11). Izan ere, Aldekoaren iritzi, XX. mendeko lehen erdiko euskal poesia «estuvo muy alejada de los centros de irradiación de la tradición moderna» eta «placida marginalidad» batean bizi zen. Hitzaurre horretan bertan aditzera ematen duenez, ordea, Xabier Lizardi edota Lauaxeta-ren lanak salbuespentzat hartu behar dira, berauek izan baitziren «los creadores de los dos mejores poemarios de la preguerra *Biotz begietan* (1932) y *Arrats beran* (1935)».

Horrenbestez, Aldekoaren hitzaurreak dioena bat dator gerora euskal literaturaren historian gudaurreko olerkarien kalitatearen aitormenarekin,

baina argiro esan duen moduan, Ibon Sarasola edo Jon Kortazarren ildo beretik, lehentasuna eman nahi dio euskal poesian modernitate europarraren sarreraren iragarle den poesiari, horri aitortzen baitio zinetako interesa.

Modernitatearen kalitate balio hori bereziki atxikitzen zaio bizitza hiritarren, kezka existentzialen eta ni indibidualen adierazpenari. Azalpen-irizpide horren arabera, modernitatea ni indibidual batek esaten duen mundu ikuskera bat da: inguruko errealitateaz inkesta subjektibo eta kritikoa egiten duen nor poetiko baten agerpena da, eta hori gure olerkigintzan Jon Miranderen obraren eskutik heldu zen 1950-1953 artean, bera izan baitzen Aldekoaren hitzetan esateko «el autor que aportó un impulso decisivo en la renovación de nuestra poesía» (1993: 12).

Sarasola, Kortazar edota Aldekoaren hautuek gudaosteko poesia modernoaren kanona eraiki dute norbere sasoian, lehenik antologiaren bidez, eta ondoren historiak idatziz. Esan beharrik ere ez dago, liburuaren argitaratze data hurbiltzen direla hautaturiko azken testuak hiru kasuetan, eta euren artean ia hamar urteko tartea zegoela, antologiaren eguneratze funtzioa azpimarragarri eginik. Hiru antologiaren sarreraren arteko alderaketa eginez gero, berriz, zenbait ondorio atera genitzake. Hala, Ibon Sarasolarenak ezagun du gudaosteko garai zailekiko hurbiltasuna, izan ere, antologia egin izateko arrazoitzat argiro azaltzen baitu euskal sistema literarioaren prekaritatea. Bere hitzen arabera, 1945-1964 arteko zentsura frankistak atzerrian edo atzeratuta atera behar izan duen poesia berreskuratu du bere antologian, aldizkari suntsituetatik eta bazterrekoetatik batera bilduz. Giroak hoberantz egin du Jon Kortazar eta Iñaki Aldekoaren hitzaurreek adierazten dutenez, euskal poesia modernoaren bilakaeraren urratsak deskribatu gura zituzten biek eta egoera normalizatu batean, euskal literaturaren modernotasun homologagarriaren lekukotza eskaini nahi izan zuten.

Aldekoarenaz geroztik egin diren antologiek bide ezberdinak jarraitu dituzte: poesia Modernoaren antologia egintzat ematen dute eta Postmodernitateko aldiaren testu antologiari ekin diote. Datu interesgarria izan daiteke gogoratzea Jon Kortazarrek *A ponte das palabras. Poesia vasca 1990-2000* (2000) hogeitaz idazleren lanak aurkeztu bazituen ere, geroago *Montañas en la niebla. Poesia Vasca de los años 90* (DVD poesia, 2006) epe bereko sei idaz-

leren azterketa sakonagoa eskaini zuela, postmodernitatearen poetiken esparruan kokatuz. María Jose Olaziregik *Six Basque Poets* (Arc, 2007) olerki hautatuen eta itzulien argitalpenetan sei egiletara murriztu zuen bere aukera. 1975az geroztiko olerkarien testuak soilik hautatu zituzten biek, baina ez datoz erabat ados euren kanona eraikitzean: Kortazarrek Rikardo Arregi, Karlos Linazasoro, Juanjo Olasagarren, Miren Agur Meabe, Harkaitz Cano eta Kirmen Uribe hautatu zituen. Olaziregik, aldiz, trantsizio garaiko hiru eta 1990az geroztiko beste hirurekin elkartzuz aurkeztu zuen poesia garaikidearen kanona: Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia, Felipe Juaristi, Rikardo Arregi, Kirmen Uribe eta Miren Agur Meabe. Badira adostasun zenbait, baina hartzen duten epearen hasiera-data ezberdinak –Olaziregik 1975 eta Kortazarrek 1990- ongi justifika dezake aldea.

Antologia aldi-sortzaileon atalari buruz argitasunez ikus genezake 1950etik aurrerako euskal poesian modernitate eta postmodernitate aldi literarioak finkatu direla, eta aldi horietako bakoitzean kanonean kokatu diren egileen izenetan aldeak egonik ere, antologiek finkaturikoaren ildotik osatu dela euskal literaturaren historia garaikidea. Azken batean, modernitateko eta postmodernitateko antologia egile garrantzitsuenen eta historia literarioaren egileen nomina kointzidentea izan baita, eta antologiak historiak baieztatuko duenaren aitzindari gisa heldu baitzaizkigu.

Jarraian, ordea, kanon hori eratu aurreko epe batera egingo dugu itzulia, Luis Mitxelena eta Luis Villasanteren euskal literaturaren historiek (1960, 1961) abiaraziko zuten euskal literaturaren ikuspegia baino lehenagokora, lehen euskal antologia orokorra egin zen garaira, eta, gaurko perspektibaz baliatuz, agerraraziko dugu faktore soziolinguistikoek literaturaren kalitate balioespenetan gure artean izan dituzten garrantzi handiaren ondorio historiografikoak.

3. Euskal antologia orokorrak

Euskal poesiaren antologia orokorrak ez dira ugariak, eta hezkuntzaren testuingurutik at, pare bat soilik. Euskal sistema literarioaren egoeraren zehaztasunei dagokienez, Santi Onaindiaren *Mila euskal olerki eder* (1954) instituzio akademikoetan euskal literaturaren ikasketak ezarri aurreko egoe-

rari dagokion egitasmo editoriala izan zen, eta helburu jakin bat betetzeko proiektu nazionalari erantzuten zion. Onaindiaren antologiak euskal literaturaren corpusa batera aurkeztu, eta, haren balioa eta kalitatea erakutsiz, euskarari berari prestigioa ematea bilatzen zuen. Hizkera sistemikoa erabiliz, kapital sinboliko hura erakutsiz, euskal kulturaren izaera bera aldarrikatzea zen Onaindiaren asmoa, lehen frankismoaren urte ilunetan. Horrexegatik, formatu dotorean argitararazi ziren mila eta hamaika gehiago «olerki eder», historia batean bezala kronologikoki antolaturik, eta karmeldarraren beraren sarrera pasarte goraiatzaileez.

Santiago Onaindiak *Milla Euskal Olerki Eder* (1954) euskal poesiaren antologia zabala argitaratu aurretik, bizpahiru azterlan historiografiko orokor ezagutzen ziren XX. mendean: Nikolas Ormaetxea «Orixe»ren *Euskal literaturaren atze edo edesti laburra* (1922-1927) eta Piarres Lafitteren bi azterlan: lehena, 1930eko *Euskaldunaren loretegia* XVI. mendetik hunateko liburuetarik bildua eta bigarren lana, 1942ko Iparraldeko euskal literaturari buruzko hitzaldi baten inprimaketa izan zen: *Les basques et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule* (1942).

Jakina denez, Lafitteren antologia egitasmoa erdibidean geratu zen, lehen atala, 1800 artekoa soilik argitaratu ahal izan baitzuen, arazo ekonomikoak medio; Santi Onaindiak antologia egiteko asmoa hartu zuenean, bai Nikolas Ormaetxea «Orixe»ren eta bai Piarres Lafitteren aholkua eta laguntza jaso zituen bere mila olerki eder horien edizioa egiteko, baina ez da liburuaren kredituetan inolako aipamenik jasotzen. Arrazoi nagusitzat aipa genezake bai Lafitteren eta bai Orixeren poesiak zabalki ordezkaturata zeudela antologian, eta ez zela egoki hautatzaile eta hautatu izatea aldi berean. Arrazoa hori izan zela baieztatzeko lekukotza idatzirik ez dugu ezagutzen, baina hala izan zela ondoriozta genezake zenbait gertakariren ondorioz. Batetik, erreparatu behar diogu Orixek idatzi zuela liburuaren ohorezko hitzaurrea, eta euskal poesiaren autoritate gisa eginiko aitormen hutsa baino esker emate inplizitu bat izan daiteke. Orixek Onaindiari 1953ko azaroaren 10ean, abenduaren 10ean eta 12an, eta 1954ko urtarrilaren 26an eginiko gutunetan ikus daitezke zenbait testu finkatzeko eginiko ahaleginak, hautatzerakoan erabili zituzten irizpideak eta izandako zalantzak (Paulo Iztueta-aren edizioa, 2006: 309).

Ikus daiteke, gisa berean, Orixeren aholkularitzaren lan baldintzak zernolakoak izan ziren. San Salvadorreko Zaragozatik erantzuten zituen Onaindiaren gutunak, eta kontsultak egiteko liburutegiaren falta deitoratzen du etengabe: «Bi bider irakurri dot aurkibidea eta ageri danez, diranak eta ez diranak batu dozuz liburugei ortan. Ni, beti lez, liburu barik eta nire oroimenaren mende, ez nadike baitaratu zenbat uts dauden olerki ixilduenak.» (Iztueta, 2006: 318).

Gisa berean, irakur genezake gutun horietan Orixeren iritzi zorrotz zenbait Onaindiak eginiko hautuaz eta, banaka harturik, bertsioren alderaketa eta iruzkinaz Onaindiari emandako aholkularitzaren berri. Hona esaterako, balorazio orokorra eginez esanikoa:

Osterantzean, ez neuke esango gure Bilbilitarragaz «sunt mala», baina bai nere gardiz, «sunt mediocria multa». «Sunt bona» ere bai, eta asko. «Aliter non fit. Avite, liber». Baiñan erdi erdiko orreik baiño kaxkarragoak ageri dira este errietako lorategietan (Anthologietan). Orreik bere, euren mendeko barri emoten deuskue (Iztueta, 2006: 103)¹.

Piarres Lafitterren laguntzari dagokionez, aldiz, Xipri Arbelbidek (1999) haren biografian dioenez, XVI. mendetik bere sasoiara arteko testurik aipagarrienaren urrezko orrien bilduma prestatua zuen gudaurrean, baina osorik argitaratu beharrean, Baionako Lasserren inprimarazi zuen lehen atal bat, 1800 arteko sorta, baina lehena batere saldu ez izanak bigarrena argitaratzeko asmotik gibelarazi zuen. Horretaz gain, 1944an agertu zuen «Kantuz» izeneko testu bilduma, haren segidan «Errepikan» izeneko bilduma etorri zen eta azkenik, ospetsuena, 1967ko «Kantu, kanta, kanthore» 370 kantu bilduz. Horregatik, Aita Onaindiak laguntza eskatu zionean bere mila olerkiak hautatzeko, osoki bere gain hartu omen zuen Iparraldeko testuen bilduma osatzeko ardura (Arbelbide, 1999: 24). Hortaz, beharbada ez da apal-

¹ Pasarte honetan Orixek Bilbilis hirian sorturiko Marcial idazle latindarraren 57. epigramaren zehar aipamen ironiatsua egiten ari da: «Sunt bona, sunt quodam mediocria, sunt mala multa. Quo legis, hic: aliter non fit, Aviter, liber». Itzulpena: Irakurtzen ari zaren liburuz ezer gutxi diotsut, badu onik, badu zerbait erdipurdikorik, eta eskasetik asko. Avito, zati horiez osatzen da hauxe ere, zeren liburuak ez dira bestela egiten, horrelaxe baizik».

tasun falta Lafitte beraren zortzi poema aurkitzea mila olerki horien artean. Susmoa izatekoa da Santi Onaindiak bere aholkulariei kredituetan egin ezin izan zien aitortza, haien poemak antologian sartuz egina izatea: Jean Barbier, Jules Moulier «Oxobi» edota Xabier Dihartze «Iratzedet»-en parean kokatu zuen Lafitte, haiei adina poema esleituz.

Baina, zer dela eta hartu zuen Onaindiak antologia handiaren asmo hori? Santi Onaindiaren izena gudaosteko olerkiaren munduarekin loturik zegoen alde askotatik: bera olerkaria zen, baina ospetsuago zen olerkariaren bultzatzaile eta olerki-aldizkari baten sortzaile gisa. Euskal gizartearentzat esanguratsu izango ziren beste zenbait elizgizonekin batean, Aingeru Sukia edo Jose Maria Arizmendiarieta bezala, euskal literaturaren une esanguratsuan hasi zen idazten Onaindia, eta Euskal Pizkundearen garaiko «olerkariak» bere lanik ederrenak ezagutzera eman zituzten sasoiari plazaratu zituen bere poemak: *Euskal Esnalea*, *Karmen'go Argia*, *Pyrenaica*, *Ekin*, *Yakintza*, *Eguna* eta *Euzkadi* aldizkarietan eman ziren ezagutzera. Gerra hasi zenean, berriz, gudarien apaiz kapilau izan zen Euskal Herriko kanpainan barrena. Guda ondoren, kartzelan egon zen hiru urtez, eta gero deserriratu eduki zuten. 1951n itzuli zenean Euskal Herrira, *Karmen'go Amaren Egutegia* izenez birsortu zuen karmeldarren euskal aldizkari zaharra, 1957tik aurrera *Karmel* aldizkaria izendatzen dena. Beraz, pertsona ezaguna zen euskal poesiaren esparruan. Antologia burutu eta gero ere, euskal poesia garaikidearen sustapenerako argitaratu zuen *Oleri* aldizkaria (1959), bereziki aipagarria hartu zuen hedaduragatik eta eskaini zuen plataforma zabalagatik; izan ere, bere bi aldietan, 1959 eta 1995 artean, batez beste, 1.950 olerki eta bertsolan inguru eta 350en bat olerkariaren lanak eman zituen ezagutzera. Gehiegikeriarik gabe esan daiteke Onaindiak olerki-mugimendu bat sortu zuela *Oleri* aldizkariaren bidez, gazte asko olerkigintzara bultzatuz.

4. *Mila euskal olerki eder (1954)*

Onaindiaren antologia zabala 1.200 orrialdeko alean inprimatu zen Zarauzko Itxaropena argitaletxean, eta proiektu editorial oso sendoa izan zen. Halere, lehenik bere zabaltasuna aipatu badugu ere, bere funtzioagatik dugu

batez ere interesgarria; izan ere, euskal liburuen gabezia gorrian gudaosteko belaunaldientzat testu iturri garrantzitsu bilakatu baitzen. Horregatik, zailantza handirik gabe, euskararen historian arrakastarik handiena jaso izan duen liburutzat izendatzea ez da berez ausarkeria izango, testu falta nabaria bizi zen sasoiari batera bilduta eskaini zituelako euskal poesiagintzaren emaitza gailenenak.

Ez da hain kontu ezaguna Onaindiak arazo ugari izan zituela zentsurarekin antologia nahiz *Oleri* aldizkaria zirela eta. Xeheki azalduta dago Ibiñagabeitia proiektuaren web orrian², *Oleri* aldizkariaren aurkezpen lerroetan poliziak 1955eko martxoan dendarik denda jardun zuela *Milla euskal olerki eder* liburuaren edizioa bahitzeko aleak konfiskatzen. Onaindiak lortu zuen, halere, argitalpenaren zati bat salbatzea eta zabaltzea. Garaiko zentsura legearen arabera, derrigorrezkoa zen argitaratzeko baimena eskatzea, baina Onaindiak intsumisioaren bidea hartu zuen eta ez zuen tramitea bete, ez antologiaren kasuan eta ez *Oleri* aldizkariaren kasuan ere. Baimenik gabe argitaratzen zituen, bere adierazpenen arabera, ba omen zekielako alde aurretik baimenik ez ziola Gobernuak emango, eta horregatik «Suplemento Poético de Karmel» jarri omen zion bigarrenari estalgarri gisa eta baimenik eskatu gabe atera. Sei-zazpi bider izan zituen poliziak horrexegatik bisitan, Manuel Fraga Iribarne ministroaren debeku behin betikoa jaso zuen arte, *Oleri* gehiago ateratzea debekatuz.

Liburuaren lehen irakurleek ere halaxe hartu zuten. Besteak beste, Andima Ibiñagabeitiak egin zion iruzkin kritikoan liburuaren balio aldarrikatzaile hori ikusi zuen, eta bere ustez, liburuaren alderdi kaskarrak zirenak aipatu ondoren, honela amaitu zuen:

Dana dala lan izugarria ta bear bearrezkoa Aita Onaindiak egin diguna, atsandiko lana gaiñera. Nola gure elertia beztu ta murriztu ibili zaizkigu erdal idazleak eta aien besotik euskal idazle ez gutxi (erderaz idazten duten aietakoak esan nai dut). Unamunok esan zula, urliak idatzi zula, eta guzien gaiñetik, Menendez Pelayok ialki zula... (...) Euskeraren oraingo etsaiak ederregi aurkitu dute nunbait

² <http://andima.armiarma.com/oler/index.htm> [2014-08-06].

liburu au, eta saltzea galazo dute. Ez dute nai euskera aberatsegi, beren izkuntzak bezin oparo agertu dedin (Ibiñagabeitia, 1955).

Onaindiak hitzaurrean zioen moduan, euskal olerkia bazegoela frogatzea zuen asmorik nagusia, eta horretan apologisten tradizio zaharra jarraitu baizik ez zuen egin. XVIII. mendeaz geroztik euskal testuen aurkezle guztiek borrokatzen duten mamuaren aurkako legitimazio argumentu sendoa aurkeztu nahi zuen Onaindiak. Ildo berean eta mende bat aitzinago, Larramendiren etsai berarekin borrokan egin behar izan zuen Jose Manterolak ere 1888ko bere *Euskal Kantutegiaren* hirugarren alearen hitzaurrean, euskal poesiaren existentzia bera zalantzan jartzen zuten Padre Marianaren jarraitzaileen aurka ziharduela azalduz: «Háse dicho hasta la saciedad que los bascongados no tienen literatura propia especial, no ha faltado quien ha negado a nuestro hermoso idioma (...) condiciones para la poesía...» (1880: VI).

Santi Onaindiak XVIII. mendeaz geroztik zetorren euskal literaturaren pobretasunaren eta euskal hizkuntzaren poesiarako ezgaitasunaren argudioez gain, guda aurretik, Miguel Unamunok gehituriko iritzi ezkorrak zituen akuitlatzaile. Jose Manterolarena bezala, apologisten tradizio larramenditarrari lotzen zaio Onaindia, ezinbestez, eraso sinbolikoak hor zirauelako, hots, bai euskara eta bai euskal literatura kuestionatuta zeudelako eta gaur egun ere kuestionatuta jarraitzen dutelako, neurri handi batean. Horrela betetzen da Ikasketa Kulturalen ildoan jakina den irizpide nagusi bat, hots, boterean dagoenak beti egiten diola azpijana kategoria subalternoan daukan komunitatearen errepresentazioari (Van Dijk, 1999), hain zuzen ere boterean dagoenaren diskurtsoak badituelako baliabideak subalternoaren praktika diskurtsiboak neutralizatzeko eta ahultzeko. Alabaina, Ikasketa Subalternoak gai izan dira erresistentzia egiten duten diskurtsoek garaturiko dinamika askatzaileak agertzeko ere, zeren, Gayatri Spivak-ek «Can the subaltern Speak?» ospetsuan esan zuen moduan (1994: 66-111), inongo kulturak ez du ezberdin eta menpeko iraun nahi; aitzitik, «ezberdin» izateari uzteko ahaleaginean dihardu etengabe, eta mendebaldeko kultura determinazio geopolitikorik gabeko jakintza edo arte eredutzat naturalizatzen denarekiko lehia beti desorekatuan segitzen du.

Egiaz menpeko ez izateko diskurtso legitimatzaileak ibilbide luzea du gure artean. Besteak beste, eta aipaturikoez gain, apologista izendapenetik kanpo

ikusi ohi ditugun idazleek ere horren arrasto nabariak erakusten dituzte. Hala, Pizkunde garaian Jose Ariztimuño «Aitzol»ek *La muerte del euskera*³ izeneko saiakera argitaratu zuenean Migel Unamunoren nahiz Pio Barojaren erasoei erantzunez, aipatu zituen argudioen antz-antzekoak etorri zitzaizkion gogora Santi Onaindiari ere bere hitzaurrean. Euskal literaturaren prestigio falta, tradizio bat eratzeko produkzio jarraitua osatu ezina eta babesle edo mezenasgorik eza aipatu zituen, hurrenez hurren. Horiexen hutsunea bete nahi izan zuen Antologia handiak, euskal tradizio literario osoak eman zezakeena bilduz: hala ahozkoa nola idatzia, hala herrikoia nola kultura.

Bereziki interesgarri dira hizkuntza eta literaturaren egoera soziolinguistikoaren dependentziaz eta prestigioa nahiz legitimazioa eskuratzeari buruz, ondoko bi artikuluetan Josu Bijuesca irakasleak emaniko azalpenak: «Literatura eta mezenasgoa XVI. eta XVII. mendeetako Euskal Herri Penintsularrean: Mikoletaren «Vuestra Merced»-en aitzakiaz» (2010a) eta «Praktika literarioaren esparru sozialak eta XVIII. mendeko euskal literatura penintsularra: Naissance de l'écrivain» (2010b), zeinetan euskal literaturaren sistemaren eraketaren sorrera zailtasunak aztertu dituen, dokumentazioaren azterketa xeheaz. Alde horretatik, beraz, Aitzolen, Onaindiaren edota Atxagaren adierazpenek etenik izan ez duen deslegitimazio sinboliko baten aurkako lehia zaharraren lekukotza ematen dutela baieztatu genezake.

Onaindiaren kasuan, euskal literaturak hizkuntza zentsuraren muga ere bazuen aurrean tinko. Espainiar nazioaren batasunari «traizioa» egiteagatik zigortutako hizkuntza-komunitate baten literatura produkzioa baitzen. Ez da dudarik, guda aurretik garaturiko euskal sistema literarioaren osagai guztiak suntsituak ikusteak berebiziko inpaktua eragin zuela gudaosteko kultur eragileen animoan. Haien jarrera erresistenteen ereduak eta iturriak gudaurreko Pizkundeko belaunaldiak garaturiko poetikan eta diskurtso kulturaletan babesten ziren, haietan hartzen zuten amasa, baita hogeitaz joanda gero ere.

Horregatik, Orixeren bi orrialdeko ohorezko sarreraren ondotik, Onaindiak «Ataria» izeneko hitzaurrean literatura-gertakariei buruzko hausnar-

³ *El Dia*, 1931, azaroak 31, 5 or.

keta teoriko pertsonala agertzerakoan, gudaurreko Pizkundean indarrean egondako irizpide soziopolitiko berberetara jo zuen. Zehatzago esateko, Aitzolen hitzak aipatu zituen xeheki 1930eko *Eusko olerkiak* liburutik hartuta, poetaren funtzio nazionala azpimarratuz, eta gisa berean, 1959ko *Oleri* aldizkariaren lehen alean, Lizardiren hitzak ekarri zituen lehen planora zehar-aipamenez, bereziki olerkariak nazio pizkundeetan duten betebeharrak garrantzitsuak ari den atalean: «Aberri aldeko gogo-gudari-sailletan olerkaria beti da leen-oiñean» (1988: 309-311).

Onaindiaren iritzi literarioak Pizkundeko poetikaren ildo nagusietan oinarritzen dira, eta ondorioz, funtzio nazionalaz gain, funtzio soziolinguistikoa aitortzen zioten literaturari olerkariak. Lizardiren hitz berberak aipatu zituen diskurtso hori formulatzean ere: idazleen lanak eragin handia izan zezakeen hizkuntzaren berreskuratze eta prestigiatze lanetan. Hortaz, Onaindiaren antologia handiaren azken helburua erresistitzea eta subalternizazioari eustea ziren. Larramendik indarrez adierazitako huraxe bera: ezina ekinez gitea.

Apur batez hitzez beste eginez, uste dut argigarri gerta daitekeen azalpenak lagundu diezagukeela erlazionatzen Onaindiak ikusten zuen paisaia eta gaur egungo idazleek trantsizio garaiaz adierazten dutena. Izan ere, euskal literaturaren instituzionalizatzeko prozesuak eta sistema literarioaren sendotzeak ekarritako abantailak gorabehera, 2009an Bernardo Atxagak Neuchâtel-eko Grand Seminaire-en adierazitakoak oroitarazten digu, borroka berean jardun behar izaten duela subalternitatetik atera nahi duenak:

De la imposibilidad de las literaturas que tienen como primera base una lengua minoritaria, poco cabe explicar. Es evidente que una institución literaria necesita de un número mínimo de lectores, y que lo único que puede existir por debajo de ese umbral es un ente más bien fantasmagórico, con libros de existencia más aparente que real, y con un desarrollo sin élan, sin impulso propio, subordinado a tal o cual política. (2011: 14).

Larramendiren «ezina» pertsonifikazio baten bidez gauzatu zuen Atxagak hitzaldi hartan, «hircocervo» animalia mitikoarekin irudikatuz. Hala, noiznahiko hizkuntza minorizatuetakoa idazleak mendez mende piztia mitiko

harekin lehia gogorrean margotu zituen. «Hircocervo»a, akerra eta oreinaren arteko animalia kimerikoa, euskara bezalako hizkuntzan idazten duten idazleek duten etsaia da, eta biziki aldakorra den piztia multiformearekin egin behar duten borrokara deituak daude:

Cambia de tamaño, de fiereza, de cuernos, dependiendo de las circunstancias de cada época. Sería temible en el siglo XVII, y el mismo Axular –padre de las letras vascas- se queja de ello en el prólogo a su libro *Gero*, es temible también hoy, porque la misma literatura (...) tiene problemas a la hora de introducirse en la sociedad, pero en la época en la que yo empecé a publicar, comienzos de los setenta, el hircocervo atacaba con especial furia, no daba tregua. Era como se sabe, la época de la dictadura del general Franco, y el uso público de la lengua vasca era problemático. La posibilidad de publicar un libro era mínima. (2011: 14).

Zorionez, berrogei urte joan dira Atxagak lehen urratsak eman zituenetik eta gurean urtero 2.000 liburu argitaratzen dira, horietatik 300 inguru literatura arlokoak. Atxagak modu adierazgarrian esan zuen moduan, «el imposible, el hircocervo, esta siendo vencido, o al menos toreado» (2011: 14).

Hirurogeita hamarrekako hamarkadako zailtasunei buruzko Atxagaren hitzetan, badago gazte eta gudaren esperientziarik ez zuen belaunaldiaren aisetasuna. Aldakuntzen haizea usaintzeko gai sentitzen ziren, nahiz eta Euskal Herriko eta orokorrean estatu osoko kultur esparru meharrak urtetako atzerapena jasaten ari den. Atxagak aipaturiko Allan Ginsberg-en «Howl» poema, esaterako, Santi Onaindiaren antologiaren garaikidea zen. Baina ez zen gaztelaniara itzulia izan eta Estatuan ez zen ezagutu 1970 arte. Horrek erakusten du penintsulako kultur isolamendua norainokoa zen Barnatanek *Antologia de la beat generation* (1970) argitaratu zuenean.

Aldiz, irakurketa kultural batetik ikusita, Santi Onaindiaren antologia irakurri eta gudaoste ilunaren zentzuaz inprimatua nabari dezakegu. Berezi Onaindiaren eta Orixeren lerro arteetan, hogeitaz urte lehenago hautsia zen dinamika kulturalaren oihartzun urrun eta akituak sumatzen ditugu, eta haien diskurtsoek ere eusteko indarra egin duten giharren trenkadura adierazten dute, parálisisa.

Izenburuaren gaiari helduta, ezinbestekoa da gogoan hartzea Onaindiaren antologiaren funtzio larramenditarra. Esate baterako, zer dela eta mila hautatu, eta ez ehun edo berrogeita hamar? Zein irizpide zuen gogoan? Atarian emaniko azalpenen arabera, irizpide nagusi gisa «ederzaletasuna» aitortzen zuen Onaindiak, «barne-ikaraz eta adimen suz eder» diren testuak hautatu zituela (Onaindia 1954: 29). Baina beste batzuetan, testuen antzinatasunari zor zaion errespetuagatik hautatu zituela aitortu zuen. Azkenik, beste batzuen kasuan, eder izatera iritsi ez arren eta antzinakoak ez izan arren, «estilo edo idaztanka aipagarria» zutelako aukeratu zituen (Onaindia 1954: 29).

Arrazoibide horiek irakurrita, erraz ondoriozta genezake Onaindia bere antologiak izan zezakeen funtzio kanonizatzaileaz jabetua zela. Euskal poesiaren historia bat «idazten» ari zela «de facto»: «Ez naiz, gaiñera eder billa bakarrik ibili; nire lenbiziko saioa ori zan arren, iñoren esanari ekin diot gerora, ta euskal elertiaren edesti antzera egiteko esan didate, gure olerkari, edo behintzat geienen bertsoak aldiz-urren aukera ta sarturik: horrela egiten ahalegindu naiz» (Onaindia, 1954: 29).

Gogoan izan behar da euskal literaturaren historia idazteko zegoela, artean. Bi maisu aholkularien saio laburrak hartu zituen abiapuntutzat, Nikolas Ormaetxea «Orixe»ren *Euskal-literaturaren atze edo edesti laburra* (1922) eta Piarres Lafitte'ren *Euskaldunen Loretegia. 1500-1800* (1930) eta, guda ondoren, lapurtarrak argitaraturiko kantu bilduma eta Iparraldeko literaturari buruzko saioa.

Abiapuntu hori ezagututa, Euskal Pizkundearen testuinguruan idatziriko bi historia horiek eta hogeitaz urte ondorengo *impassearen* ondoren heldu zen Onaindiaren antologia lanak harremanak ikusten ditugu. Hala, Onaindiaren antologiaren «Atari»koan, euskal olerkigintzaren bilakaeraren historia bat finkatzen da, gutxiago edo gehiago, eta liburuak betebeharreko funtzio hezitzailea eta dibulgatzailea betetzen du. Halere, aitortu behar da bere maisuena baino lausoagoa dela bere planteamendua, izan ere, XIX. mende erditik aurrerakoan aldiak edota ezaugarriak banatzeko irizpide garbirik ez du zehazten. Izen andana eman arren, izenik aipagarrienak bereizteko argitasunik ez daiteke aurkitu atal horretan. Nabaria da testu ugaritasun handiagoaren lekukotza ematea hobetsi duela, testu aipagarrienak azpimarratu

ordez. Kopuruaren pisua darabil argudio gisa, baina kalitateari buruzko irizpidearen lausotasunak aldarazi dion epitetoaren ñabardurak atal honetan dira esanguratsuen; izan ere, Onaindiaren eta Orixeren arteko gutunetan suma daitekeenez, «hoberenak» delakotik «ederrenak» esatera eta, azkenik, «eder» soilean uztea erabaki zuen, zuhurki.

Bestalde, ortografiaren arloan hartu zituen erabakiek ere dibulgazioko testu bat irudikatzen dute. Testu zahar eta berriei, Iparraldeko nahiz Hegoaldekoei batasun ortografiko bat ezarri zien. Argi eta garbi, testuen edizio dibulgatzailea eta didaktikoa bideratu nahi zuen Onaindiak, asmo filologiko edo akademikorik gogoan hartu gabe, gerora, hezkuntzarako asmoz egin diren beste antologien ildo berean.

5. Euskal parnasoa?

Genero poetikoaren kanonari dagokionez, Onaindiaren antologiaren zabalatasunak zenbait poetaren Parnasoa osatu eta kongsakratzeko bidea ireki zuen, baina beste askori aipamen hutsa besterik ez zien eman. Nola da hori posible, egile ezezagunen testuez gain, 300 idazleren testuak bildu zituela jakinik? Erantzuna da proportzionaltasunaren erabilera esanguratsua hautatu zuela, idazle garrantzitsuagoen testu gehiago jasoz eta garrantzi gutxiagokoen presentzia testimoniala bakarrik eginez. Hona hemen banaketari buruzko zenbait azalpen: lehen-lehenik, 140 herri-olerki anonimo jaso zituen. Horiei antologian eta literatura klasikoa deritzogun XVI-XIX. mende artekoa erantsirik, nekez iristen dira, biak batera ere, antologiaren %20 izatera. Beraz, kenketa simple bat eginez nabaria da euskal olerkigintzaren hiru laurden, XIX. eta XX. mendeetako testuez osatu zuela. Are zehatzago esanik, XIX. mendeko ugaritasunaren (ia 300 poema) eta aurreko hiru mendeetako 200 artekoaren arteko aldeak euskal produkzioaren alderdi ezagun baten berri ematen du: XIX. mendeaz aitzineko euskal literatura idatziaren emaria urria zela. Euskal literaturaren historia sozialak azpimarratu duen moduan, 1876tik aurrera nabarmentzen da testu idatzien ugaltze azkarra (Torrealda, 1997: 56).

Onaindiak zailtasun nabarmenak izan zituen testu erromantikoen artean hautu zorrotza egiteko, eta horren arrazoia erromantizismoak bere zaletasun

poetikoarekin zuen harreman estua izan daiteke. Onaindiaren hautamen kritikoan nabaritzen dugun muga-lausotasun bera pairatu dute haren ondoren testu antologiak burutu dituzten gehienek ere: antologoak bere poetika propioaren eragina eta perspektibaren kutsadura ezin ditu gainditu. Horren ondorioz, antologiaren bigarren erdia XX. mendeko testuez osatu zuen: 500 baino gehiago dira 1900-1954 arteko testuak Onaindiaren antologian. Horietatik, erdiak baino gehiago gipuzkoarrak dira, idazleen ia mostra soziologiko proportzionala, Juan Mari Torrealdairen datuen arabera (1977: 407-414).

Interesgarria da, era berean, emakume idazleen errepresentazioa nolakoa den Onaindiaren antologian: gaur egun ezagutzen ditugun emakume poeten errepresentazio ia osoa ematen du: Bizenta Mogel, Rosario Artola, Sorne Unzueta «Utarsus», Errose Bustintza «Mañariko», Tene Muxika, Pantzeska Astibia, eta Pantzeska Pagadizabal «Onintza». Guztiak izendatzen ditu eta haien bizpahiruna testu eskaintzen.

Irizpide linguistikoei dagokienez, Onaindiaren antologiak hizkeraz garbi eta aberatseko idazleak kontsaktatzen ditu: Lore Jokoetan estilo herrikoi eta zaindua erakutsi zuten idazleak dira eredugarriak eta, haiekin batean, olerkarien poetikaren sortzaileak nahiz jarraitzaileak. Hala, Euskal Pizkundearen testuak bilakatu ziren Onaindiaren antologiaren muina. Aldiz, hain hizkuntz estilistak izan ez ziren XIX. mendeko zenbait poeta ez ditu zabalegi errepresentatzen, hala nola, Jose Mari Iparragirre edo Indalezio Bizkarondo «Bilintx». Berez, haien lekuan gaur egun ahantziak ditugun hizkuntza estilistak ageri dira aitzindurik. Beste horrenbeste esan daiteke, zenbait poeta garaikide eta sinbolistari uzten dien tarte urria kontuan hartuz gero, hala nola, F. Krutwig edo J. Mirande. Bazterketa horren salaketa egiten zuen A. Ibiñagabeitiak *Euzko Gogoako* bere erreseinan, eta arrazoien bilaketak antologian ezarririko zentsura moralaren inguruko ikerketara eramango gintuzke, zalantzarik gabe.

6. Lorategiaren planoak

Onaindiaren antologiaren egitura aztertuz geroz, jakina da, egileak azpitu-tituluan adierazi moduan, antolamendu kronologikoari eman ziola lehenta-

sunak. Halere, ahozko testuak datatzeko zailtasuna zela eta, lehen mailan kokatu zituen guztiak errenkan urterik zehaztu gabe, «Erri olerkiak» izenburua emanez; amaieran, aldiz, bertsolari sonatuenak ere sartu zituen, testu bana edo birekin. Ondoren, literatura idatziaren antolamendu kronologikoari ekin zion eta XX. mendeko testu ugaritasunaren antolatzaile gisa, hizkeraren irizpidea hautatu zuen: bizkaiera, gipuzkera eta Iparraldeko sailak bereiziz.

Onaindiaren kanonean, XIX. mendearen bigarren erdiko eta XX. mendeko testuek liburuaren hiru laurdenak hartzen dituzte. Pizkunde deituraz baitaiatua den aroa dugu hori, Lore Jokoetatik, baina bereziki 1876tik 1936ra artekoa. Pizkundearen lehen aipamena Jose Manterolak bere kantutegiaren hitzaurrean iradoki zuen, «en el país bascongado se opera en los momentos actuales un verdadero renacimiento literario, que promete ser fecundo en resultados» (1880, VII). Nolanahi ere, Guda Zibila arteko epea izendatzeko erabiltzen bada ere, haren eraginpeko testuek gudaostean ere irauten zuten, esate baterako, Orixe edo Jokin Zaitegi bezalako autoreen lanetan.

Onaindiaren antologian egile bakoitzeko zenbat testu hautu zituen ikusita, erraz esan daiteke zein kanon poetiko eraiki zuen irizpide kuantitati-boari erreparatuz. Kasurik nabarmenena hamabi testu baino gehiagorekin errepresentatuta dauden egileak dira: Jean Baptiste Elizanburu (23), Grazian Adema «Zaldubi» (13), Piarres Topet «Etxahun» (13), Estepan Urkiaga «Lauaxeta» (18) eta Xabier Lizardi (18). Beste idazle guztiei baino «espazio» zabalagoa eskainiz kontsokratu zituen bost egileok euskal idazle aipagarrientzat, irakurleak berehala interpretatzen baitu testu kopurua *excellencia* ikurtzat.

Bigarren maila batean, hamarna-hamaikana testu sorta duten idazleak datoz: (Iparraldekoak:) Etxepare, Oihenart, Gazteluzar, Ibarrart eta Lafitte. Horien pareko dira, poesia kopuruz, Hegoaldean, Mateo Zabala, Eusebio Azkue, Orixe, Zaitegi, Jautarkol, Eltzo-Azpiazu, Emeteri Arrese, Eusebio Erkiaga eta Nemensio Etxaniz. Gainerako berrehundik gora idazleek hamar testu baino gutxiago dituzte eta askok bizpahiru soilik.

Onaindiaren kanonak kontsokratzen dituen lehen bost egileen Parnasoak iraun egin du, funtsean, aldi horretarako, aski lausotu bada ere biga-

rren mailan kokatu zituenen distira. Gaurko begiez ikusita, Onaindiak (eta bere aholkulariek) euskal olerkigintzaren eta haren harrera kritikoaren argazki fidela erakutsi zuten, osotara, nahiz eta argazki horrek handitua edo puztua dirudien. Izan ere, mila aurkitzearren sartu dituen zenbait egilek eta testuk ez dute gaur egunetik begira justifikaziorik. Ondorioz, emaitzak nolabaiteko distortsioa iradokitzen du: batetik, egileen hizkeraren dohainei, hizkeraren jatortasunari eta garbitasun eredugarriari emandako gehiegizko balorazioa agerian geratzen da; eta bestetik, poetika konpartituaren eraginarenean indarra sumatzen da behin eta berriro.

Onaindiaren antologiaren harrerari dagokionez, Orixeren *Euskaldunak* (1950) poemaren kasuan bezala, irakurle garaikideen iritziak banatu egin ziren haren aurrean; «1956ko belaunaldi berria» (Torrealdai, 1998: 127-137) edo Juan San Martinek «Uhin berria» bataiatu zuenaren etorrerak poetika modernoaren sartze indartsua hobesten zuen jadanik. Espero izatekoa zen moduan, Antonio Labaienek (*Egan*, 1954, 2-4, 43 or.) edo Andima Ibiñagabeitiak (*Euzko Gogoia*, 1955-1-2 zb) Onaindiaren liburuaren baloreen aldeko iritzia agertu zuten; izan ere, Labaien bera izan zen gudaosteko asmo editorial haren bultzatzaileetako bat, Orixeren *Euskaldunak* (1950) poemaren edizioaren bultzatzaile izan zen gisa berean. 1950etako bi lan handinahiek dakarte gudaurreko asmoen izpiritua, Jokin Zaitetik *Euzko Gogoako* iruzkinean islaturikoa eta Onaindiak berak *Oleri* aldizkarian berretsiko zuena. Poetika horren arabera, Onaindiaren antologiak asmo hirukoitza zuen: lehenik, literaturaren bidez hizkuntza prestigiatzea zuen helburu; bigarrenik, eredu literario bat finkatzea eta hedaraztea; eta hirugarrenik, hizkuntzaren duintasuna frogatu eta haren bitartez naziotasuna legitimatzea.

Alabaina, esan bezala, aitortu behar da Onaindiaren antologiak harrera hotza izan zuela. Harrera kritiko ukakor hura, Onaindiaren iritzi, bereziki Luis Villasanteren eta Koldo Mitxelenaren harrerak izan ziren esanguratsuenak:

Etsaien artean, berriz, A. Villasante ezik, euskal literaturak idatzi dituzten guztiak zenbatu ditzakegu. L. Mitxelena'k ez zuen aipatu ere egiten, naiz-ta nere izena bai oar baten maxiokari gisa; etzaio itxura danez eder jakintsuak eta erriak ain ondo artu zuten euskal literaturari buruzko, Orixe'ren «Euskal-literaturaren atze edo edesti laburra»

(1927) eta P. Lafitte'ren «Euskaldunen Loretegia» (1931) kanpo, bildumarik zaarrena; ondorengo guztiak ortaz baliatu izan dira. (S. Onaindia, *Euskal literatura* VI, 197).

Antologiako 500 testutik gorako egileen hizkuntz eredu garbizaleak ez bide zuen egokitasunik literatura-hizkera eredugarri gisa, euskara batuaren ereduaren aurkako norabidean zihoan argiro eta hamarkada hartako tentsio gunearen erdi-erdian kokatzen zen, euskararen patrimonializazioaren tirabiran. Hizkuntz eredu funtzionalagoa zuen gogoan Mitxelenak, esate baterako, urte gutxi barru Txillardegiren lehen nobelan edota Arestiren poemetan mamitu zena (1957 eta 1963). Aldiz, Onaindiaren antologiak gerraurreko kanona berresten zuen eta aurrekoen ondarea gaurkotzeko ahalegina egin zuen. Halere, gudak zapuzturiko belaunaldi haren fruituen uzta maskaldua zegoen. Hogei urteko izozteak alferrik galdu zuen hazia eta behar berriek hizkera berria eskatzen zuten.

Gaur egunetik begiratuta esango genuke Santi Onaindiak, Marcelino Menéndez Pelayok bezala, ehun olerki bakarrik hautatu izan balitu, *Las cien mejores poesias (liricas) de la lengua castellana* (1908) hura eredutzat hartuz, askoz egile gutxiago aipatuko zituzkeela, eta ziurrenik Parnasoan aipatu ditudan hamabost bat izen horietatik soilik hartuko zituzkeela. Beharbada, beste 900 horietan nabarmentzen den mediokritatea eragotziko zukeen, eta egilearen poetika pertsonalaren eragina ez zen horren nabari agertuko. Modu kritikoagoan hobetsiko zituen «benetan antologikoak» ziren testuak (horrelakorik epaitzeko gai den inor balego). Baina, ondorioz, ziurrenik, are eredu kontserbadoreagoa erakutsiko zukeen, ez zatekeen Peillen, Krutwig edo Miranderen testu arrastorik ikusiko, ez «Paris-Beuret» poemaren gisakorik. Era berean, emakumeen izenik edo testurik, esate baterako, ez zukeen aipatuko, ezta bakar bat ere, ziurrenik, Ibon Sarasolaren (1973), edota geroagoko Jon Kortazarren (1984) edota Iñaki Aldekoaren (1993) antologietan ez dauden bezalaxe. Onaindiaren antologiaren *blow up* horrek agerrarazi egin zituen argazkian.

Aski ezaguna da Menéndez Pelayoren antologia izan dela Iberiar penintsulan XX. mendean eginiko poesia antologia orokorren eredu nagusia: batetik, kopuru finko bat ezarri izenburuan, haien kalitatea azpimarratu «mejores» superlatiboaz, eta bestetik, hizkuntzaren historian benetan

adierazgarriak diren testuak hautatuz osatu. Horrekin batean, idazle hilen testuak soilik onartu behar ziren, modu horretan kanon kontserbatzailea finkatuz. Menéndez Pelayoren egitura eta planteamenduak imitatu zituzten gerora beste hainbatek, eta haietako bat, zehazki Jose Berguak moldaturikoa da Onaindiarenaren eredutik hurbilen dagoena: *Las mil mejores poesias de la lengua castellana. 1135-1935* (1935). Jose Bergua editore eta antologo madrildar progresista izan zen, gaur egungo «Ediciones Ibéricas» argitaletxearen aurrekaria. Bere antologiaren hitzaurrean aitortu bezala, ez ziren benetan mila berak hautaturikoak, eta ez ziren hoberenak ere. Asmo komertziala aitortzen zuen argiro, irakurleak erakartzeko eginiko aldarrikapena zela adieraziz. Garaian garaiko egilerik errepresentatiboenen bilduma egin nahi zuela argitu zuen Berguak azkenik.

Onaindiak, bere aldetik, antzerako izenburu erakargarria moldatu nahi izan zuen, baina bestelako helburuak izanik ere, irakurleen artean arrakasta ere lortu nahi zuelako. Funtsean, milako kopurua mantendu zuen, «mila» esatea «asko» esatea delako. Zenbaki ia menderaezin horren bidez gure literaturaren aberastasunaren aldarrikapena egin nahi zuen, eta legitimazioa eskuratu euskal literaturarentzat eta hizkuntzarentzat. Aldiz, ekidin egin zuen «hoberenak» superlatibo harroa, eta kalitate berme gisa, «eder» dotorea erabili zuen, Orixeren aholku zuhurrari men eginez.

7. Beste antologia orokor bat: *poesia kaierak* (2000)

Onaindiarenarena bezala, antologia orokorren artean aipatu beharko genukeen pareko beste proiektu zabal bakarra Koldo Izagirreraren *Poesia kaierak* da (Susa, 2000). Onaindiak milako kopurua hautatu bazuen, Koldo Izagirrek berrogeikoa hartu du irizpidetzat; baina zenbakiek esangurarik badute, garbi ikusiko dugu erreferentzia, hots, idazle bakoitzeko hautatu duen hogeita bosnako kopuruak argiro seinalatzen duena jomuga bera da: berrogei bider hogeita bost, mila poema antologiko eskaintzen dizkigu Izagirrek ere.

Ez du Koldo Izagirrek antologiaren irizpideen azalpen zuzenik egiten, egile bakoitzari buruzko sarrera kritiko interesgarriez hornitu badu ere kaiera bakoitza. Aldiz, Susa argitaletxearen editoreak kaiera bildumari eginiko

sarrera orokorrean, argi ikus dezakegu euskal poesiaren testu antologia orokor honen helburu nagusiak honakoak direla:

- a) Hogeigarren mendeko poesiaren antologia (posible bat) da.
- b) Gerraurreko klasikoak bezala mende amaierako joera eta estilo aniztasuna jasotzen ditu bilduman.
- c) Olerkigintzaren zentraltasuna aldarrikatu nahi du euskal literatura sisteman, honako baieztapenez: «gure literaturaren aurrerapauso guztiak poesiak markatu ditu XX. mendean. Orixe, Lizardi, Mirande, Aresti gabe, esaterako, ezin liteke konprenitu gure historia».
- d) Poeten gorazarre izan nahi du.
- e) Irakurlearen zerbitzurako egina da, izan ere, antologiak irakurle arruntaren eskura jarri ditu poeten testuak.

Izagirreraren antologiaren orokortasuna bermatzen dute sarrerako adierazpen hauek, aro jakin bateko joera, norabide edota bilakaera zehatz bat frogatzeko helbururik ez baitu. Onaindiak euskal poesiaren esentzia eta presentzia aldarrikatu nahi zuen bezala, agian Izagirreraren antologia honek ere XX. mendeko poesiaren «balioa» eta kapital sinbolikoa erakutsi nahi izan du euskal irakurleen aurrean, eta historiografiaren aurrean, berriz, generoaren zentraltasuna aldarrikatu, euskal literaturan jokatzen duen abangoardiako funtzioa seinalatuz.

Hortaz, Izagirreraren antologiak poesia generoaren aldarrikapena eta gorazarrea egiten duen aldi berean ikus genezake antologoaren barne poetika baten arabera eginiko hautua egiten duela. Arestian, Onaindiaren antologiarenean Pizkundeko idazleen aldeko irizmena nabarmendu genuen gisa berean, eta hizkuntzaren kalitatearen eta espresio moldearen erromantizotasuna nagusitzen ziren bezalaxe, Izagirreraren *XX. mendeko poesiak kaierak* antologian ere bada antologoaren poetikaren arrastorik. Bereziki agerian uzten dute poetika hori estatistikek: berrogei idazleetatik, erdiak 1980tik hona idazten hasitako poetak dira.

Heziketa helbururik ez duten antologo guztien antologiek hurbileko testuak hobesten dituzte, antologarentzat bezala irakurleentzat garaikide di-

ren egileetara jotzen dute. Hartara, partekatzen diren gaiak, ikuspuntuak eta gustu estetikoak erraztuko baitute liburuaren harrera abegikorra. Izan ere, antologietan arestian aipaturiko funtzio aldarrikatzaileak, legitimatzaileak eta homologatzaileak aitortu arren, antologia egileak ez baititu alde batera uzten bere garaikide diren egileen eta irakurleen onespeneraren beharra. Antologia ez da, hortaz, genero didaktiko edo propedeutiko huts gisa hartu behar, gure ustez. Aitzitik, gehienetan garaikideentzat eginiko testu hautapen literarioa izaten da, antologoen eta irakurleen balioak eta gustu estetikoak ordezkatzen dituena.

8. XX. Mendeko euskal poesiaren historiaren giltzadurak antologietan

Antologia literarioei buruzko hausnarketa saio honek bistaratu dituen bizpahiru giltzadura historiografikoren inguruko hausnarketaz amaituko dut nire azterketa, haien inguruko arazoak birformulatzeko proposamenak eginenez. Batetik, XX. mendeko lehen hereneko Pizkundeko poesiak euskal antologia modernoetan errepresentatua izateko ezagutu dituen zailtasunak, eta bestetik, Trantsizioaren aldakuntza sakonek nola eragin zioten euskal poesiaren bilakaerari eta euskal sistema literarioan zeukan egoitzari. Funtsen bi gaiak baitute poesia modernoaren mugen inguruko gaiarekin zerikusia.

Garaiko euskal literaturaren sisteman olerkigintzari zegokion zentraltasuna aho batez aitortu da euskal literaturaren historiografian 1980ko hamarkadara arte. Euskal narratibaren kanonizazio prozesua aro demokratikoarekin batera abiatu da eta aldaketa handia ekarri zuen euskal literaturaren paradigmatan. Hausturarik eragin ez bazuen ere, sistema literarioaren finkatzeko baldintzak sortu zituen, bereziki, euskararen koofizialitate legearen bidez, zeina 1979ko Autonomia Estatutuaren eta 1982ko Euskararen Erabilera Normaltzeko Legearen ondorioz heldu zen. Bereziki, hezkuntzaren alorrean eredu elebidunak ezarri izanaren ondorioztat jo daiteke irakurlegoaren premien aldakuntza eta erakundeen politika kulturalak argitalpengintzari laguntzeko partidak ezarri izanaren fruitu argialetxeen

sorrera. Ondorioz, Olaziregiren iritziz, ez dago inolako zalantzarik genero narratiboak lortu dituela abantaila gehien egoera berri horretan, eta gure sistema literarioan kanonikoa izatera iritsi dela:

No cabe duda de que ha sido el genero narrativo el que más se ha beneficiado de esta nueva coyuntura, y ha conseguido convertirse en canónico y central dentro de nuestro sistema literario (M. J. Olaziregi, 2011).

Hala baieztatzen zuen Maria do Cebreiro Rabadek ere antologia iberiaren testuinguruan ezarririk:

En comunidades culturales como el País Vasco, considerado como marco geopoético, lo mismo que en Cataluña, la poesía funciona desde el siglo XIX como género depositario de los elementos de caracterización de la identidad nacional (2004: 326).

XX. mendeko euskal literaturaren bilakaera deskribatu duten historialari guztiek adierazi dute euskal literaturaren kanonean genero poetikoak zentraltasuna galdu duela, eta datari dagokionez ere bat datoz laurogeiko hamarkadaren hasieran kokatzean. Aipua gehiegi ez luzatzearen, aski izango genuke Iñaki Aldekoaren *Euskal Literaturaren Historia* irakurtzea, gertakariaren inguruko hausnarketa nondik norakoa den sumatzeko:

Hirurogeiko edo hirurogeta hamarreko hamarreko urteetako genero literarioak ospetsuena izatetik, poesiaren garrantzi soziala gainbeheran hasi zen laurogeiko hamarkadaren erdialdera. Laurogeita hamarreko hamarraldian, poesia-liburu on batek narratibako beste liburu kaskar batek baino oihartzun gutxiago du, guk hori gustuko izan ala ez. Hamarraldi horren hasieran inork ez zuen zalantzan jartzten poesiaren gailentasuna literaturaren Parnasoan, eta gure arteko irakaspen literarioak eraginkorra Bernardo Atxaga edo Joseba Sarrionandia bezalako poetena zen. Harrezkero, ordea, gauzak asko aldatu dira (2008: 335).

Aldekoak dioskunez, aldatu diren gauzen artean irakurleen atxikimendua beste generoetara aldatu izana da garrantzitsua, zeren, berez, idazlan kopurua ez da nabarmenki gutxitua. Bestalde, poesiaren transmisio modua zuzeneko saioretara aldatu denez, poeta eta musikagileen arteko kolaborazio

eta emanaldiek garrantzia hartu dute, eta CD-dun liburuen formatuak arrakasta bilatzen du berrikuntza teknikoan bidez.

Nolanahi ere, komeni da azpimarratzea generoen kanonikotasunaren aldakuntza hori ez dela bat batean gertatua, eta trantsizio aldi bat ere bizitu duen belaunaldi oso baten «sakrifizioa» eskatu duela zenbait kritikoren iritziz. Mende bukaerako euskal literaturaren historiari buruzko liburuen egileek zailtasunak izan dituzte 1985-2000 arteko idazleak sailkatu edo talde gisa multzokatzeko, hain zuzen neoabangoardiaren (1976-1986) aldia igaro zenetik eta «idazle berriak» (Harkaitz Cano eta Kirmen Uribe) arteko aldia deskribatzeko (Otaegi, L, 2012: 235-240).

Zehazki, Xabier Mendigurenek «63ko belaunaldia» izendatu zuen belau-naldiaz ari gara, partaide ziren idazle batzuek (F. Juaristi, K. Linazasoro) «belaunaldi galdua» deitu zutena; urrats bat harantzago joanez, I. Zaldua kritikoak «porrotaren belaunaldia» eta «belaunaldi ikusezina» izena eman zion, edota «tropela» ere bai (Zaldua, 2005a). Era batera edo bestera, literatura produkzio-multzo baten zailtasunak deskribatzen dituzte izen horiek. Aldekoak arestian iradoki bezala, garai horretako eleberrigile eta poetek, kalitatezko lanak idatzi arren, oso nekez lortzen dute lehen lerroan nabarmentzea. Eta horren arrazoi gisa, aipatzen da, batetik, aurreko hamarkadetakoa idazleen kanonizazioaren prozesuan «beranduegi» heldu izana, eta bestetik, mendearen amaieran idazle gazte iritsi berrien arrakastak «sandwich» eran harrapatuta geratu izana (Iban Zaldua, 2005b: 91).

Ikuspuntu sistemiko batetik, Trantsizioaren ondoren sorturiko baldintza berriek eraldatu egin zuten ofizialduriko hizkuntzetako literaturen egoera. Batetik, hedatze akademikoak irakurle berriak eta gazteak ekarri zizkion, baina bestetik, hizkuntza estandarra eta literatura produkzio homologagarriaren premia jarri zuen mahai gainean. Hala, geure literaturaren ezarpena errazteko, euskal sistema literarioak ere «egonkortze» eta «finkatze» kanonikoa eragin zuen, ordura arte garaturiko kultura literarioari balio sinboliko bat eratzikiz, gizartearen aurrean komunitatearen jabego kultural eta nazional bat aldarrikatzeko. Aldakuntza bertsuak ezagutu zituzten Galizia eta Kataluniako sistema literarioek ere eta zehaztasunez aztertu dituztenen artean aipa genezake Maria do Cebreiro Rabade irakaslea, *As antoloxías de*

poesía en Galicia e Cataluña liburuan (2004) haien arteko paralelotasunak aztertu dituelarik.

Trantsizioaren ondoko poesian, neoabangoardiaren eragina amaitutakoan (1975-1986), poetika ezberdinak garatuko dira aldi berean, aurreko belaunaldietan gertatu bezala poetika «apurtzaile» nagusi batek besteak ordezkatu gabe. Aldi hori deskribatzerakoan, baldintza berrietan narratibaren garapenak ezagututako abantailak jasotzen dituzte kritikoek. Besteak beste, Joseba Gabilondoren *Nazioaren hondarrak* (2006) liburua aipatu ahal izango genuke ikuspuntu honen garatzaile gisa, edota Maria Jose Olaziregi (2011), zeina honako ondorioetara heldu zen poesiak Pizkundean zehar eta Trantsiziora arte izaniko zentraltasunaren galera azaltzerakoan:

Es obvio que hemos pasado de una escritura que respondía al objetivo político de construir Nación hasta bien entrado el siglo XX, hasta casi la década de los años 1960 para ser mas precisos, a una escritura en euskara donde la elección de la lengua literaria no conlleva una opción política exclusivamente nacionalista.

Poesiaren generoaren zentraltasunaren arrazoiez hausnarketa egitean, Iratxe Retolazak aurreko adituek ez bezalako arrazoiak izan zitzakeela argudiatu zuen:

(...) conviene subrayar que la poesía ha sido en el sistema literario vasco el género con más prestigio, el género cumbre hasta finales del siglo XX. Este prestigio se lo debe a un conjunto de circunstancias y criterios, pero entre todos ellos destacan dos rasgos particulares de la tradición literaria vasca: la poesía ha sido durante siglos uno de los géneros más cultivados y más arraigados en la literatura oral y popular, y, además, las primeras tentativas de modernidad en la literatura vasca llegaron principalmente de la mano de poetas. Esta doble situación del género poético en el sistema literario vasco va a ser decisiva para entender el panorama de las antologías poéticas en nuestra literatura (2007-2008: 22).

Poesiaren zentraltasunaren arrazoiez eginiko hausnarketen ildoan, Retolazaren iradokizunek berretsi egiten dute Koldo Izagirreraren antologiaren sarreran aipaturiko argudio nagusia, hots, poesiagintza dela genero zentrala

XX. mendean, genero horretan abiatu direlako gure literaturan aurrerapauso guztiak. Euskal sistemaren kanonizazioari buruzko hausnarketan, euskal literaturaren sistemaren barne-eragileei erreparatzen diete K. Izagirrek eta I. Retolazak, autonomia bat aitortuz literaturari esparru soziopolitikoetatik. Lehenatasuna ematen die barne-eragile horiei dinamika propioa izan dezaketela iradokiz, sistema soziopolitikoaren inpronta bigarren mailan utziz.

Bi norabide historiografiko ezberdin horien aurrean, seinalatu behar genuke, beharbada genero poetikoaren kanonikotasunaren inguruko hausnarketak azterketa astitsuagoak eskatzen dituela. Barne eta kanpo eragileak integratuko dituen azterketa-eredu baten premia erakusten du gure iritziz, euskal sistema literarioaren autonomiak esplikatu ditzakeen fenomenoaren azterketa xeheagoak eginez, eta arlo soziopolitikoaren eraginaren dinamika doitu.

Bestalde, narratibaren eragile gisa faktore erabakigarritzat aipatzen dira, euskal narratibaren garapena erraztu zuten euskararen ofizialtzearen ondorioz sortutako irakurle gazteak eta alfabetaturiko irakurle helduak ugaltzea. Baina, ez da horregatik ahantzi behar genero poetikoaren prestigioa eta irakurleengan itsatsi zen irudiaren balio sinbolikoa eragile horiez gaindikoa dela. Horregatik, gudaurreko olerkariaren eredu kultural berritzailea bezala, gudaosteko obra arestiarren inpaktu modernizatzailea aintzat hartu beharko lirake. Izan ere, gudaosteko 1950-1975 urteetako poesiagintzak, bere kalitatearen ondorioz, eredu legitimatzaile gisa jokatu zuen, gerora kantagintza berriaren fenomenoarekin batean, poesia eredu herrikoi nahiz kultuak integratzea lortu zuena eta jendarteratzeko eragiketa kulturean maila sakonagora jo zuena. Ildo honetan aipagarri izan daiteke azken urteetako literatura fenomeno adierazgarria izan den gertaera: Xabier Lete poetaren azken kantaldi eta errezitaldien harrera jendetsua, ia osoki egilearen figura publikoaren ondare sinbolikoak soilik esplikatu dezakeena⁴.

Mende osoko testuen antologia orokor gisa «testu errepresentatiboaren hautua» egiten duela dio Izagirrek, hartara, poetika baten, joera edo bila-

⁴ Ikus, besteak beste, Argia aldizkariak poetaren azken agerraldi eta kantaldiei buruz emaniko informazio bilduma: <http://www.argia.com/xabier-lete>

Sur l'acception métrico-poétique des termes *euskera* et *vascuence*: chaînons cachés, mythe des âges et critères de périodisation dans l'histoire de la littérature basque

On the metrical and poetic meaning of *euskara* and *vascuence*: hidden links, the myth of the ages and periodisation criteria in the history of Basque literature

BIJUESCA, K. Josu
Deustuko Unibertsitatea

Noiz jaso: 2014-07-01
Noiz onartua: 2014-09-30

Euskera. 2013, 58, 2. 577-608. Bilbo
ISSN 0210-1564

Artikulu hiru partetan dago banatuta. Lehenengoak *euskara* eta *vascuence* hitzen adiera metriko-poetikoa (oraindik hiztegietan jaso gabea) aztertuz, adiera hori Larramendik Mikoletarengandik jaso zezakeelako hipotesia aurkezten du. Bigarrenak Larramendiren *euskara* poetiko bat arakatzeko du urrezko eta burdin aroen mitoek Monarkia Hispanikoaren formazio diskurtsibo inperialean zuten egitekoaren harira. Hirugarrenean euskaldunei egotzitako burdin aro hori euskal literaturaren ezagutzarako episteme gisa erabiltzeko proposamena eskaintzen da, ohiko periodizazio kategorien ordean.

Hitz-gakoak: euskara, vascuence, adiera metriko-poetikoa, Mikoleta, Larramendi, episteme.

El artículo está dividido en tres partes. La primera analiza el significado métrico-poético de las palabras *euskara* y *vascuence*, aún no recogido en los diccionarios. El autor presenta la hipótesis de que Larramendi pudo tomar esa acepción de Mikoleta. La segunda parte indaga en el *euskara* poético de Larramendi, en conexión con la función que desempeñaron los mitos de la edad de oro y de hierro en la formación discursiva imperial de la Monarquía Hispánica. En la tercera parte, se propone utilizar esa edad de hierro que se ha atribuido a los vascos como episteme para el conocimiento de la literatura vasca, en sustitución de las tradicionales categorías de periodización.

Palabras clave: Euskara, vascuence, significado métrico-poético, Mikoleta, Larramendi, episteme.

Cet article se divise en trois parties. La première partie analyse le sens métrico-poétique des mots *euskara* et *vascuence*, lorsqu'il ne figure pas encore dans les dictionnaires. L'auteur présente l'hypothèse que Larramendi ait pu emprunter cette acception à Mikoleta. La seconde partie enquête sur l'*euskara* poétique de Larramendi, en lien avec la fonction qu'occupèrent les mythes de l'âge d'or et de fer dans la formation discursive impériale de la Monarchie Hispanique. La troisième partie propose d'utiliser cet âge de fer que l'on a attribué aux Basques comme épistémé pour la connaissance de la littérature basque, en remplacement des catégories traditionnelles de périodisation.

Mots-clés: Euskara, vascuence, sens métrico-poétique, Mikoleta, Larramendi, épistémé.

The article is divided into three parts. In the first part, the metrical-poetical meaning of the words *euskara* and *vascuence* is discussed, even though it has not been registered in the dictionary. The author offers the hypothesis that Larramendi could have taken the meaning from Mikoleta. In the second part Larramendi's poetical *euskara* is analysed in the context of the function of the golden and iron age myths in the development of the Spanish monarchy's imperial discursive formation. In the third part, a proposal is developed to use that iron

age attributed to Basques as an episteme for the knowledge of Basque literature instead of the usual periodization categories.

Keywords: Euskara, Basque, metrical-poetical meaning, Mikoleta, Larramendi, episteme.

Literaturaren Historiografia Lehen Jardunaldietan Iratxe Retolazak, herrikoitasun kontzeptuaz gogoetan ziharduela, kate edo hariaren irudia erabiltzen zuen literaturaren historiaren egitekoa adierazteko:

Literaturaren historiek hari narratibo edo kate narratibo batean biltzen dituzte gertakari literarioak, eta katebegiak irudikatzen dituzte. Modu horretan, literaturaren historialariek gertakari literario horiek kateatzearekin batera, hutsuneak edo isiluneak ere kate diskurtsiboan bildu behar dituzte, hari edo kate narratibo horretan zentzua emanez. Ondorioz, Literaturaren Historia egiterakoan lehen urratsa, ezinbestez, kateatu behar diren gertakari literario horien nolakotasuna mugatzean datza (Retolaza, 2010, 958).

Literaturaren Historiaren egitekoa zehaztearekin batera, Euskal Literaturaren Historiek orokorrean literatura idatziaren historia osatzen dutela ohar-tarazi zuen, «liburuen argitalpenak izan ohi direlako gertakari literario kateatu horiek» eta horren ondorioz «historiako katebegi galdu bat irudikatzeko gaitasunaz litzateke herri-literatura baloratzeko irizpide bakar» (Retolaza, 2010, 959 eta 970). Hortik Retolazaren aldarrikapena herri literaturaren ekarpenak Literaturaren Historiaren katera biltzeko eta horrekin batera «herri-literatura eta literatura jasoaren artean dagoen continuum literarioaz aritzeko logika berria» sortzeko gonbidapena (Retolaza, 2010, 975).

Euskal literaturaren historia katebegi galduz beteriko eremutzat irudika liteke. Katebegi galduen azken izarra Lazarragaren eskuizkribua izan da, hori bera ere literatura jasoaren eta herri literaturaren ezaugarri hornitua (Cid, 2013). XIX. mendetik hona ugari izan dira gure literaturaren historian aurkituriko katebegiak, denak ere gogoangarriak, Lazarragarenak besteko distira erakutsi ez badute ere. Katebegi horietako batzuk ezustean azaldu dira, inork gutxik haien berri zekiela gure artean: horietakoa izan liteke Mikoletarena, laster mintzagai izango dudana, eta haren antzera beste asko eskuizkribu eta orri solteetan geldiro-geldiro agertu direnak XX. mendean zehar ikertzaileek artxiboetan egindako lanari esker. Beste batzuekin alde-rantziz gertatzen da: badakigu haien berri baina ez ditugu aurkitu.¹

¹ Ikus, esate baterako, Ricardo Gomezek FiloBlogia blogean eskainitako zerrenda eta hari emandako erantzunak (Gomez, 2006). Urkizuk ere zenbait berri jaso du bere euskal literaturaren his-

Katebegi galduaren irudia zenbateraino den topikoa gure literaturan Jon Alonsoren 1995eko eleberriak erakusten du. Nire asmoa ez da orain katebegi galdu horien historia egitea, nahiz eta agerikoa begitantzen zaidan berandu baino lehen historia hori idatzi beharra, ez soilik euskal literaturaren oinarri enpirikoaren alde garrantzitsua direlako, baizik eta batez ere azalpen eske dagoelako zergatik izan dituen (eta oraindik dituen) horrenbeste katebegi galdu gurea bezalako literatura batek, zenbateraino euskal literaturaren historia izan den galtze horiek erraztuko lituzketen biolentzia sinboliko eta epistemikoen emaitza. Eta zeregin horretarako hurbilketa positibista hutsa ez da nahikoa ziur asko.

Oraingoan baina, katebegi galduak ez ezik, ostendurikorik ere ote dagoen ekarri nahi nuke eztabaidara, ikusezin gertatzen zaigun ertzik, alegia itsuturik ote gauden euskal literaturaren gertaera zenbait azaltzeko nahiz eta azalpena gure begi aurrean egon litekeen, ba ote dagoen itsutasun egoera horretara lotzen gaituen ikuspegi epistemologikorik edota, alderantziz, gure ezagutza hobe lezakeenik.

1. Euskal literaturaren historiako katebegi ostendu bat?

Iraganean ere erakutsi izan dut noiz edo noiz nire harridura Mikoletaren «Modo de la vizcaína poesía y sus versos» atalean *vascuences* deitu izanagatik bere sasoiko poesia eredu zenbait. Mikoletak berba hori aukeratu izana azaltzeko ahaleginik ere egin dut: gaztelaniazko *romance* berbak hizkuntza eta aldi berean hizkuntza horretako poesia molde berariazkoenatarikoa izendatzen dituen moduan, *vascuence* ere adiera bikoitz horren arabera erabiliko luke Mikoletak, hizkuntzaren ohiko adierari poesia moldearena gehituta.

Halaber Mikoleta *vascuence* hitzaren erabilera horren asmatzailatzat jo izan dut, eta beraren proposamena isolatu eta oihartzunik gabekotzat euskal literaturaren historian (Bijuesca, 2008, 14-15). XVII. mendeko bilbotar horren lanak non eta Britainia Handian izan zuen oihartzuna eta jaso zuen

torian (Urkizu, 2000). Herri literaturan ere ontzat jo liteke ugari dela galdutakoa.

benetako arreta (Zulaika, 2009), hango hizkuntzazale baten mandatuz idatzi zenez gero euskal poesiari buruzko atala biltzen duen *Modo breve de aprender la lengua vizcaína*, zeinaren eskuizkribu bakarra oraindik Londreseko British Libraryn gorde den. Euskaldunok ostera XIX. mendera arte itxaron behar izan genuen Mikoletaren lanaren berri jakiteko, itxura guztien arabera.

Euskal literaturaren historiari begiratu arretatsuagoa eginez gero, ostera, bilbotarraren lanaren isolamendua eta oihartzun gabezia auzitan jartzeko aztarnarik aurki liteke. Izan ere *vascuence* hitza bera ez baina haren euskarazko ordaina, *euskara*, adiera metriko poetikoaz darabil Larramendik *Artean*, jakina denez. Hortaz, Andoaingo jesuitak *Artearen* amaierako poesia-gintzari buruzko atalean *euskara* hitza darabil Mikoletak *vascuence* berbari atxikitako adiera metriko-poetiko bertsuarekin, alegia gaztelaniazko *romance* bertso moldearen baliokide legez: «Esta *Euscara*, que corresponde al metro que se llama *Romance*, se tradujo con la puntualidad posible así en dísticos latinos como en endechas castellanas, pero siempre quedó con más gusto y gala en el Bascuence»² (Larramendi, 1729, 385).

Vascuence eta *euskara* berbetan ez ezik, tentagarria da elizgizon bien arteko harremana euren teoria poetikoetan ere arakatzea. Izan ere, zenbat eta gehiago alderatu Larramendiren *Arteko* kapitulua Mikoletaren eskuizkribuarekin, orduan eta agerikoago begitantzen zait jesuita San Antoneko presbiteroaren zordun izan litekeela. Horrek ez du esan nahi Larramendik Mikoleta plagiatu zuenik, ezpada honek idatzitakoa ezagutzen zuela. Andoaindarra bilbotarrarengandik aldentzen denean ere, nekez uka litezke haien arteko antzekotasunak, ondorengo taulak erakusten duenez:

² Gaztelaniazko aipuetan grafia eta puntuazioa gaurkotuz aldatu dira testuak, Larramendiren *Arteko bascuence* eta *bascongado/-a* izan ezik, andoaindarrak hala idazten dituen zereginak beti.

Mikoleta	Larramendi
Vizcaína poesía / poesía vascongada	Poesía bascongada (373)
<p>Ordinariamente hay en nuestra lengua dos modos de versos.</p> <p>Son pues, como digo, dos los géneros de nuestra poesía. Digo hablando generalmente porque abajo diré de otro género de versos que no son vulgares.</p>	<p>Dos modos de poesía son los que vulgarmente están en uso. (373)</p>
<p>Entrambos [modos de versos] se componen de asonantes como los romances de la lengua castellana. Y a este símil los llamamos nosotros vascuences.</p>	<p>Esta Euscara, que corresponde al metro que se llama Romance, se tradujo con la puntualidad posible así en dísticos latinos como en endechas castellanas, pero siempre quedó con más gusto y gala en el Bascuence. (385)</p>
<p>Abajo diré de otro género de versos que no son vulgares.</p> <p>También algunos modernos del Parnaso Cantábrico han escrito décimas, liras y sonetos en vascuence con los mismos acentos y consonantes que suelen tener en romance, pero es obra de poco lucimiento, por los pocos que en vascuence entienden este metro.</p>	<p>El Bascuence es capaz de todos los metros de que es capaz el romance, sin que haya más dificultad de componer en una que en otra lengua. (381)</p> <p>Todo esto hace mucha novedad a los Bascongados, como el ver estos metros [gaztelaniaz ohiko direnak] en Bascuence, y más si se practican con la licencia que hay en otras lenguas de la metáfora, analogía y demás licencias retóricas y poéticas. Pero esto nace de la falta de uso y aplicación en todos, y en los más de la falta de reflexión y del no saber los primores del Bascuence. (382-383)</p>

Antzekotasunak antzekotasun, aldeak ere nabarmenak dira. Aldeok honela adieraz daitezke, berriro ere prezeptista bien ikuspegiak aurrez aurre jarrita:

Mikoleta	Larramendi
<p>Dejando a las coplas de Lelori, lelori, que suelen cantar las mozas los días festivos, que no entran en la más grave poesía vascongada [...]</p>	<p>1. De la poesía bascongada que está en uso Dos modos de poesía son los que vulgarmente están en uso: 1.1. El primero es más arbitrario y libre, porque no tanto se atiene a los pies y sílabas del verso y metro, cuanto al aire y armonía del canto y música a que se acomodan [...] No pongo ejemplos desto por ser vulgarísimos. 1.2. El segundo modo de versos no es tan libre porque guarda sus leyes de número determinado de sílabas en cada verso. [Adibideak: Ziburuko Etxeberri] 1.2.1. <i>Noelac</i>: obseva un método como de cuartetas, en que constando cada verso de ocho sílabas, concierta en consonante el segundo con el cuarto. 1.2.2. <i>Manual devocionezcoa</i>: obseva otro metro, como de Arte mayor, en que guardan el consonante riguroso los versos inmediatos, pero no siempre el mismo número de sílabas en cada verso.</p> <p>2. De la poesía de que es capaz el Bascuenze El bascuenze es capaz de todos los metros de que es capaz el romance sin que haya más dificultad de componer en una que en otra lengua. [Adibideak:]</p>

Mikoleta	Larramendi
1. El primer modo de versificar [vascuences] es a este tono [Adibidea: Amoren contentuac]	2.1. Euskara: Aquella <i>Euscara</i> , que se hizo en Salamanca en la muerte de Luis I [...]. Esta <i>Euscara</i> , que corresponde al metro que se llama <i>Romance</i> [...].
2. El otro [modo de vascuences] es más largo, a modo de soneto. Y se canta de ordinario por el son que llaman <i>Las vacas</i> , y aunque es a modo de soneto, también se compone por asonantes [Adibidea: Denbora baten on oynerechu]	
3. [Abajo diré de otro género de versos que no son vulgares ...]. También algunos modernos del Parnaso Cantábrico han escrito décimas, liras y sonetos en vascuence [...].	

Mikoletaren eta Larramendiren arteko aldeak ugari dira, bai kontzeptualizazioaren irizpideari dagokionez, bai jarrereri dagokienez ere. Kontzeptualizazioari dagokionez, Mikoletak ohikotzat jotzen dituen moldeak, eta gaztelaniazko erromantzearekin identifikatzen dituenak, egungo bertsolaritzako handi eta txikitat ditugunak dira. Molde horiek hain zuzen ere Larramendik ez ditu aipatu ere egin, edo zeharka baino ez: «*zortzicó*, y mucho mejor *zortzidún* [,] *amarcó*, y mucho mejor *amardún*» (1729, 382). Jesuitak ohikotzat jotzen dituenak, alde batetik modako doinuetara egokitutakoak dira eta herrikoienak (adibiderik ere merezi ez dutenak), eta besetik liburu inprimatuetara heldu diren bi molde, horrek eta errima kontsonantea izateak dakarkien kutsu jasoaz hornituak biak ala biak.

Ohiko moduz gain bada beste modu bat Mikoletak bere binakako sailkapenetik kanpo utzia eta gutxi-asko Larramendiren bigarren moduarekin bat datorrena. Modu hori ez da horren usadiokoa Mikoletaren esanetan, eta horrexegatik baztergarritzat jotzen du behar bada molde arrotzen imitazioan

datzalako («décimas, liras y sonetos [...] obra de poco lucimiento por los pocos que en vascuence entienden estos metros»). Larramendi hizkuntza-ren apologistak, ostera, baztertu ez ezik aldarrikatu ere egiten ditu, euskarak molde horietara egokitze gaitasuna baduela frogatu nahirik. Molde jaso eta izen oneko horietarako euskarak duen gaitasuna erakusteko asmoz, Mikoletak bazterturiko *décima* eta sonetoen adibideak bildu ditu Larramendik (lirarenik ez ote zuen aurkitu?). Eta horiekin batera *euskara* izeneko moldeari dagokion poema bat ere ekarri du, ez soilik gaztelaniaren *romance* delakoaren euskal baliokidea, baizik eta haren ordain erabatekoa itxura guztien arabera³.

Hementxe ageri dira ziur asko elizgizon bien arteko alderik handienak. Kontzeptualizazioaren aldetik, bilbotarrak *vascuence* deitzen dituenak –*romance* haren baliokide eginik– euskarazko herri poesiako molde handi eta txikiak diren bitartean (Mitxelena ikusarazi zuenez), andoaindarrak *euskara* izeneko moldea gaztelaniazko *romance* moldearen ordain zurrun egiten du, honen ezaugarri guztiekin. Eta jarreraren aldetik, Mikoletak euskarazko herri moldeak hobetsi (lelori koplak izan ezik) eta arrotzak baztertzen dituen bitartean, Larramendi molde jasoagoen aldeko ageri da, bertakoak nahiz arrotzak izan, molde nagusi eta txikia bezalako herri ereduak aipatu ere egin gabe, behar bada eredu arrotz baina izen onekook egokiagoak direlakoan bere tesia frogatzeko, alegia euskarak duen gaitasuna arte poetikoaren arauetara makurtzeko, gramatikaren artearen alorrean egin berri duen legez. Hortik ondorio bikoitza aterako litzateke: euskara gramatikaren artearen arauetara makurtzen den hizkuntza elegante dela eta ez barbaroa (Mitxelena, 1960, 119), eta horrekin batera, arte poetikoaren arauetara ere makur daitekeen hizkuntza ere badela eta beraz inguruko hizkuntzek besteko errespetua merezi duena. Larramendiren asmoa agerikoa zen lehendik ere, Luis I.a erregearen hiletetarako *euskara* hori idaztean aditzera eman zuenez: «para que se viese que la Lengua

³ Silaba kopuruari dagokionez ez datoz bat poema hori aztertu dutenak. Bada zazpi silabadun bertso lerroak ikusi dituenik (Altuna, 2002, 26), bai eta lerro guztiak zortzi silabaduntzat jotzen dituenik ere, zazpidunak diruditeinei silaba bat gehituta oxitonoak direlakoan (Juaristi, 1990, 399-400).

santa del Vascuence sabe avenirse con las Leyes métricas del Parnaso» (Lardizaval, 1724)⁴. Berriro ere, Larramendirenean Mikoletaren oihartzunak, azken honengandik bereizteko bada ere: presbiteroak Parnaso Cantabrico hartako modernoak erdeinuz aipatzen zituen euskal poesia beste Parnaso batetiko arau berri eta ezohikoetara makurrarazten zutelakoan; jesuitak oster horixe bilatzen du nonbait, Parnaso gaztelauko arauetara moldatzeko euskarak duen gaitasuna erakustea.

Larramendik Mikoletaren lana ezagutu izanaren beste aztarna bat Lardizavalen 1724ko edizioak eman lezake. Bertan Larramendik «mi vascuence poético» dio bere *euskara* poemaz diharduela (Lardizaval, 1724). Bestalde, hizkuntzaren izenari adiera metriko-poetikoa gehitzearen proposamenak utzi zuen beste oihartzunik *Hiztegi Hirukoitzan* ere. *Bascuence* hitzari ohiko adiera dagokio, sarrera hitz bakarrean («Bascuence, lengua de los vascongados, *euscara, eusquera, escuara*»). *Romance* hitzak sarrera bi ditu, lehenengo ohiko hizkuntz adierari eskainia eta bigarrena adiera metriko-poetikoari: «Romance, poesía, *erdara*. Lat. Dimetrum Hispanicum alternis versibus assonum.» (Larramendi, 1745), hortaz *erdara* hitzari ere adiera metriko-poetikoa erantsi dio Larramendik, *Artean euskara* berbarekin egin bezala.

Larramendiren metrika proposamena bereganatu zutenen artean Kardaberaz dugu. Honek *eusquera* izeneko poematxo bi txertatu zituen *Aita S. Ignacio Loyolacoaren egercicioac* liburuaren amaieran (Kardaberaz, 1973, 1, 258-259). Bestela ere Kardaberaz terminologia poetikoari kutsu larramendiar nabarmena dario (Altuna, 2000, 23-34). *Artean* aurkezturiko ereduetatik zenbaitek bizitza luzeagoa izan zuten jesuiten poesiagintzan behintzat, baina ez *euskara* izeneko molde honek, itxura guztien arabera. Jose Ignacio Aranak osaturiko jesuiten poesia bilduman ez da *euskara* gehiago ageri Kardaberazek ondutakoen ostean (Altuna, 2000), ez eta Aranak berak osaturiko *Tratado de métrica vasca* (1872) azterlanean ere (Altuna,

⁴ *Euskara* hori idazle izenik gabe aurkeztu bazen ere *Artean*, ezaguna da lehendik ere argitaratua zela poema hori bera eta Larramendi izan daitekeela beraren egilerik ziurrena (Goikoetxea, 1967), argitalpen berean ageri den sermoiaren egilea den bezala (Larramendi, 1973, 292). Lehen edizio horretako *euskara* edo inguruko beste pasarteren bat aldatzean ez da orrialde zenbakirik zehaztu, Lardizavalek prestatutako edizioan orrialdeak zenbakitu gabe ageri direnez gero.

1992). Arana, gainera, Mikoletaren beraren berri izatera heldu zen, Dodgsonek 1895ean berari idatzitako gutunek erakusten dutenez, baina ordurako metrika azterketa burutua zuen (Altuna, 2002, 428-429). Azkenik, Arana ia garaikide Jeronimo de Aguirre, Aranak berea idatzi zuenetik urte gutxira amaituriko beste metrika azterlan batean, *euskara* moldearen kontra azaldu zen zalantza izpirik gabe: «ni es propio del vascuence, ni agrada el sonante a los vascongados» (Altuna, 2002, 551). Honaino hel liteke *euskara* (eta berarekin batera *vascuence*) hitzen adiera metrikoaren historiaren behin-behineko zirriborroa.

Orain arte adierazitakoaren arabera ondorio arin bi atera daitezke. Lehenengo eta behin, hemen proposaturiko hipotesia onartuko balitz, euskal literaturaren historiari arazo txiki berri bat sortuko litzaioke: zelan azaldu Larramendik Mikoletaren lana ezagutu izana? Bilboko jesuiten ikastetxean emandako urteetan ezagutuko zuen ala beranduago? Bilbon Mikoletaren eskuizkribuaren aztarnarik ez bazegoen, norbaitek bidaliko zion Ingalaterratik kopia bat? Larramendiren liburutegi katalogoetan ez da Mikoletaren ize-nik aipatzen baina titulu eta idazle zehatz gabekoak badira: «algunos librillos en vascuences [*sic*]», «Siete librillos de a cuarto con cubiertas de papel y sin ellas y tres sin principio, en castellano, latín y vascuence en un atado [...]» (Altuna, 2002, 210 eta 230). Aieruak baino ezin dira egin oraingoz.

Bigarren ondorioa lexikografiari dagokio. Hiztegiek ez dute jasoa *euskara* hitzaren adiera metriko-poetikoa ez eta *vascuence* hitzarena ere. Adiera hori erabilera mugatukoa izan arren, hiztegietan batzeko modukoa ere bada, aipatutako lekukoek erakutsi dutenez.

2. Aroen mitoa euskal literaturaren irudikapenean

Euskara eta *vascuence* hitzen adiera metriko-poetikoak emango lukeena baino lotura estuagoa du periodizazioarekin. Izan ere, bazen aukera *romance* hitza bera hautatzeko,⁵ edo besteren bat: XVII. mendean *cantar vizcaíno*

⁵ XVII. mende hasieran poesia lehiaketa pare bat antolatu zuen Iruñako apezpikuak egin bezala (Mitxelena, 1990, 112 eta 119), Altunak eta Lakarrak ohartarazi dutenez (Larramendi, 1990, 15).

eta *canción vascongada* moduko formulazioak ere sortu ziren. Nekez ahatz daiteke, ostera, izen horien zama ideologikoa: gaztelaniaz errefrau ezaguna zen aldi horretan «No lo estimo en un cantar vizcaíno» zerbait baliogabekoa zela adierazteko erabilia. *Romance* bera ere ez da hitz neutroa. XV. mendeko *Vocablos castellanos* bildumak argi erakusten du hitzak antzinako Erromaren oihartzuna ozenki zekarrela berarekin:

Romance, romances decimos por unos cantares antiguos y viejos que hablan y relatan hechos pasados. El cual nombre cuido que venga de una de dos partes: o porque los hechos de los romanos fueron más notables y magníficos de todos, que según escribe un gran historiador, quien lee las historias de Roma lee los actos de todas las gentes y naciones, porque Roma o defendiéndose o conquistando con todo el mundo ovo que ver; la segunda parte donde este nombre puede venir, porque España estuvo muy luengo tiempo so el señorío de los romanos y ovo el su vulgar y común lenguaje, por esto es llamado romance. (RAE, 2007, 8575b-8576a)

Ez da zaila definizio horietan *translatio imperii et studii* mitoaren oihartzunak antzematea. Penintsulako erreinuen zerbitzura jardundako zenbait historiagilek aldarrikatua Erdi Aroan zehar, mito hori oraindik gehiago indartu zen Errege-Erregina Katolikoek alditik aurrera, Nebrijaren Gramatikako pasarte ospetsuak («siempre la lengua fue compañera del imperio») erakusten duenez. Horren aurrean adiera metriko-poetiko hornituriko *vascuence* eta *euskara* hitzak *romance* horrekiko harreman dialektiko-dialogikoan irudika ditzakegu, eta zentzu horretan beste posizio garaikide batetik etorriko lirateke, *vascocantabrisimo* delakoaren ingurutik alegia. Kutsu ideologikoa gain, badute hitz horiek erresistentziatik zerbait erabiltzaileen jarrerari dagokionez. Joseba Gabilondok (2012) proposatu du oraintsu subjektu euskaldun eta espainolaren genealogia subjektu horietako bakoitzaren posizioa sortzen duten formazio diskurtsiboak aztertuta. Genealogia horretan oinarrituta, zilegi da *romance* aldarrikatzen duen diskurtsoari subjektu espainola atxikitzea eta aldi berean *vascuence* /*euskara* plazaratzen duen diskurtsoaren sorreran euskal diferentziaren zantzuak antzematea, euskal subjektuarenak alegia.

Eta periodizazioaz den bezainbatean ere, hitz horien testuinguruak badu zeresanik. Oraintsu aukera izan dut erregimen zaharreko euskaldun penin-

tsularren subalternitate literarioaren egoeran arakatzeko Ibai Atutxak zuzenduriko egitasmo bati esker. Hor esandakoa hola labur daiteke: Europan duen hegemoniaz baliatuta eta *translatio*aren mitoak emandako legitimazioarekin, erregimen zaharreko monarkia hispanikoan formazio diskurtsibo inperial arrakastatsua eraiki da zeinaren subjektu-idazle posiziorako gizon gaztelaniadun noblea baino ez den onartzen, euskalduna posizio horretatik baztertzen den bitartean Euskal Herria poetarik gabeko lurraldea dela esanez, alegia barbaroen herria (Bijuesca, 2013?). Ohartua nintzen orduan aroen mito klasikoak toki garrantzitsua betetzen zuela formazio diskurtsibo horren eraikuntzan: urrezko aroan bizi direla aldarrikatzen dute garaiko idazle gaztelauak, noiz edo noiz ironikoki ere, Monarkia Hispanikoaren dekadentzia agerikoa zenez gero batez ere XVII. mendetik aurrera, urrezko aroan baino burdin aroan bizi zirela iradokitzeraino (Gil-Osle, 2013). Gerora ohartu naiz baina aroen mitoak nik orduan uste baino toki handiagoa duela euskal literaturari buruzko Monarkia Hispanikoaren formazio diskurtsibo inperial horretan.

Egia da Monarkia Hispanikoaren inguruko idazleek ez ezik, XVI. mendetik aurrerako euskal apologistek ere aldarrikatu zutela Euskal Herriko lurraldeetarako urrezko aro berritua, burdin aro gisako Erdi Aro gatazkatsua-
ren ondoren, foru sistemari esker lorturiko bakealdia irudikatzeko (Madariaga, 2008, 23-26). Baina Monarkia Hispanikoaren irudikapena ez bezala, apologistek irudikaturiko urrezko aroa ez zegoen egitasmo inperialaren zerbitzura. Apologistek eta haien ondorengoek eraikitako urrezko aroaren mitoak, foralitatearekin parekatua, Aranzadik sakon aztertu duen arren, sekulako aukera galdu du mito horrek formazio diskurtsibo inperialista espainiarrean izandako eragina arakatzeko (Aranzadi 2000), izan ere formazio diskurtsibo horretan (Europako beste inperioetan bezala) urrezko aroa etengabeko aldarrikapena baita.⁶

Urrezko aroaren eta inperioaren arteko harremana estua zen aldi klasi-
koan bertan: *Eneidako* seigarren kantuak Augusto enperadorea urrezko aro

⁶ Hau ez da aroen mitoaren iturri klasikoaren berri emateko tokia. Besteak beste, Yates eta Armasen liburuetan iturri horien berri eta azalpen ugari bildu da, XVI-XVII. mendeetako monarkiek eta haien egitasmo inperialak urrezko aroaren mitoari emandako erabileraren harira (Yates, 1999; Armas, 1986).

berri baten ekarle gisa irudikatzen du. XVI. mendean hasita Europako monarkia handienetako idazleek (Espainia, Frantzia eta Ingalaterrakoek) urrezko aroaren aldi berrituan bizi direla aldarrikatuko dute zeinek bere erreinuan, Astrea justiziaren jainkosaren itzulera alegorikoak agerian utziko zuenez bakealdiak ezarriko zituzten errege-erreginen bitartez (Yates, 1999). Monarkia Hispanikoan izan zen jainkosaren etorrera Habsburgo dinastiaren heltzarekin parekatu zuenik, Austria eta Astrea hitzen antzekotasun fonikoa baliatuta (Armas, 1986, 48). Mitoaren arabera urrezko aroari zilarrezkoak jarraituko lioke, eta azken honi brontzezkoak eta burdin aroak, baten narriadura hurrengorako urratsa litzatekeela. XVI eta XVII. mendeetako elaborazio literarioetan, ostera, aldi horiek, edo horien arteko batzuk, batera irudikatzen zituzten simultaneoak balira legez. Hala formazio diskurtsibo inperial espainiarraren arabera gorteak urrezko aroa gauzatzen zuen bitartean, Euskal Herria burdin aroan bizi zen. Burdin aro mitologikoan bertuteak galdu eta bizioak nagusitu zirela gogoan hartuta, aro moderno goiztiarreko idazleak laster hasi ziren burdina (*hierro*) eta okerra (*yerro*) parekatzen paronomasia edo dilogietan oinarrituriko hitz jokoen bitartez (Armas, 1986, 63). Burdingintzak bertan zuen garrantziaz jabetuta eta eskolatu gabeko euskaldunek gaztelaniaz egiten zituzten okerrekin oharturik, pausu txiki bat baino ez zegoen *hierro-yerro* bikotea Euskal Herriarekin lotzera heltzeko⁷. Monarkia hispanikoaren diskurtso inperialaren arabera burdin aroan bizi zen Euskal Herria, bertako burdinak eta aldi berean okerrekin (batez ere hizkuntzazkoek, haiek bezalako barbaroengandik espero zitekeenez) erakutsiko luketenez, kronotopo borobila osatuta: burdinaren (eta okerraren) lurraldea burdin aroan bizi zen. Itsasketak eta armagintzak are gehiago indartzen zuten pertzepzio hori, izan ere iturri klasikoen arabera eta batez ere estoikoen ustez zibilizazioak gizakia galbideratu egiten omen zuen naturarekiko armonia apurtzen zuelakoan, ezpata eta itsasontzia izanik erortetaren irudi (Armas, 1986, 4). Benetan adierazgarria bezain paradoxikoa da diskurtso inperialak itsasketa eta armagintza erabiltzea Euskal Herria inperioaren urrezko arotik baztertu eta burdin arora zokoratzeko, itsasketa eta armagintza izanik hain zuzen ere inperioaren beraren baldintza ezinbeste-

⁷ Beste leku batean batu dut adibide moduko aipu adierazgarri banakaren bat (Bijuesca, 2010, 32).

koak. Jokaera horrek badu bere logika, baina: bakearen eta justiziaren aldia izanik urrezko aroa, aro horretan bizi dela sinetsita dagoen subjektu inperialari onartezina zaio nonbait itsasketa eta armagintza bezalako jarduerak adieraz lezaketen biolentzia, eta bere buruaren defentsa mekanismo gisa ukapena (*deni, disavowal*) erabiliko du inperioaren bertuteen kontrako diren bizioak burdin aroan bizi diren euskaldunei egotzita. Esandakoarekin erabateko koherentzia du Euskal Herria poetarik gabeko lurralde legez irudikatzea (hori ere burdin aroaren seinale) eta urrezko aroaren gailurrean bizi den gorrea ez bezalako, non poesia eta arteak loraldi betean dauden.

Diskurtso inperial espainiarraren ildo horren iraunkortasuna Larramendiren *euskara* gorago aipatuak ezin hobeto erakusten du. *Artea* baino lehenagoko argitalpenean Luis I.aren ohorez Salamancako jesuiten Ikastetxe Nagusian eraikitako tumuluaren berri ematen da bertarako idatzitako poema gehienak jasoaz batera. Testu guztiak izenik gabeko narratzaile batek aurkezten baditu ere, susmoa dago Larramendi bera izan zitekeela narrazio horren asmatzailea (Goikoetxea, 1967). Latin, gaztelania, frantses eta italiarazko poemak berri eman ondoren, akademia literario moduko batean («aquella especie de Academia») lehiatzen diren lau ikasleren poemak zelan sortu ziren azalduko du narratzaileak. Luzea den arren, zilegi bekit sarrera osoa hemen aipatzea:

Donde más se logró la inspiración poética del Túmulo fue en cuatro estudiantes, que casualmente se juntaron a contemplarle, y cuya ingeniosa amenidad sirvió de entretenimiento y diversión a todo el concurso en medio de circunstancias tan lúgrubas. Uno era guipuzcoano, otro gallego, otro portugués, otro castellano viejo, los cuales viendo que andaba desmandada la poesía por otros gremios, trataron de llamarla hacia sí con el cebillo, siempre grato a las musas, de juveniles años cultos. Convinieron en poetizar al asunto del común dolor, cada uno en su propio idioma, glosando algunos versos de Virgilio 6. *Aeneid.* sobre la muerte de Marcelo príncipe romano, versos llamados antes áureos por el bolsillo de doblones que interesó su autor, y ahora más áureos por los dorados escolios de nuestros licenciados. El guipuzcoano, después de haber afectado una discreta bozalidad en romance diciendo *Rey Luis tener gloria, España sentir, gemir, morir*, con aplauso de los oyentes, que observaron lo oportuno

de los infinitivos porque el objeto no admite otros tiempos, tomó por tema aquel sesquiverso, *Ostendent terris hunc tantum fata, nec ultra-Esse siment* [*Eneida* 6.869-70]. Sobre esto dijo que se le figuraba la vida del rey a modo de aparición celestial, cuya propiedad es consolar mucho y durar poco, o como una preciosa reliquia o bella imagen que, guardada en un camarín, no se muestra más que por un breve rato y luego, corrida la cortina, se recoge. Mas para que se viese que la lengua santa del vascuence sabe avenirse con las leyes métricas del Parnaso, se explicó con más gala con esta / EUSCARA. (Lardizaval, 1724)

Gipuzkoar euskaldunari, beraz, *bozalidad* izeneko gabezia nabari zaio, nahiz eta argitzen zaigun horren itxurak baino ez zituela egin, berak asma-tutako *euskara* poemak laster agerian utziko lukeenez. *Bozalidad* izena ez da ohiko hitza gaztelaniaz. CORDEk bost emaitza soilik jaso ditu, denak XVII eta XVIII. mendeetako filipinarren berri ematen duten lanetatik, eta «bozalidad y barbarie», «bozalidad y falta de policía» bezalako testuinguru adierazgarrietan. Ohikoagoa da *bozal* adjektiboa, adieretatik bat 'simple, necio, idiota' duena, eta CORDEko emaitzen artean «vizcaíno bozal» edo «bozal vizcaíno» zenbait aldiz ageri da. Hortaz, eskuartean dugun lanean ere euskaldunarengandik, burdin herrian jatorria izateagatik, hizkuntza oker erabiltzea espero da. Errege hil berriaren irudikatzea aurrez aurre oposatzen zaio euskaldunaren horri. Hasteko erregea heroiei dagokien lori-az horniturik dator eta horrekin batera Martzelo erromatarrarekin identifikatuta dago, *Eneidako* seigarren kantuko pasarte bat gogora ekarrita. Jakina denez, Eneas bere aita Ankisesen bila jaitsiko da azpimundura Kumaseko sibilaren laguntzaz, bai eta aurkitu ere. Ankisesek erromatarren etorkizun loriatsua iragarriko dio Eneasi geroan izango diren erromatar ospetsuenak begi aurrean jarrita. Martzelo ere agertuko zaien heroi erromatar horietakoa da, Augustoren oinordetzarako deitua baina gazterik hil zena, narratzaileak aipaturiko bertso lerroetan kutsu patetiko nabarmenaz gogorarazten denez: «patuek erakutsi baino ez diote egingo munduei [gazte] hau, luzaroago izaten utzi gabe» (*Eneida* 6.869-70). Dena den, ez da ahaztu behar lerro gutxi gorago Augusto bera agertu zaiela Troiatik ateratako aita-seei. Ankisesen iragarpenaren arabera Augustoren eskutik urrezko aro berri bat etorriko da, Martzelok luzatuko zukeena hain gazterik hil izan ez balitz. *Eneidako* pasar-

te hori guztia, narratzaileak laburki gogoratua, lehen Borboien Monarkia Hispanikoak bizi duen egoeraren alegoria bilakatu da Luis I.aren heriotzaren ospakizunerako Salamancako jesuiten Ikastetxe Nagusian sorturiko poemetan. Eta horrekin batera Espainiako formazio diskurtsibo inperialaren gai nagusiak elkarri uztartuta eta laburbilduta agertu dira: Eneas troiararengandik Erromako Augustorengana doan ibilbidean *translatio imperii* delakoa iradoki da, bai eta urrezko aroaren itzulera lehen enperadoreari egingdako aipamenaren bitartez, aldi berean euskaldunaren «bozalidad» horrek, itxurazkoa baino ez bada ere, poesia bezalako hizkuntz tramankulu sofistikatuak sortzeko gaitasun gabezia gogora dakarrela, alegia arteen loratzerik ezagun ez duen burdin aroarekiko lotura.⁸

Sarreran iradokia den zama ideologiko hori guztia esplizitukiago garatuko da Larramendiren *euskara* poeman, batez ere aldien mitoari dagozkion kontzeptuak. Luisen errege izendapena zeruko aingeru baten agerpen gisa irudikatu ondoren, Gipuzkoako mendien erantzuna honakoa izango da:

5 Jaquinéz, piztutzen zála
Lengó urrezco edade-á,
Guelditúco eztá nigátic,
Cíon mendi bacoitzác.

6 Naizuén mendi edoceñéc
Potosí bézala izán,
Ez nai burdin-á Emaníc,
Báicen Ofirco urre-á.

(Larramendi, 1729, 384)

⁸ Tubalen mitoa nagusi izan bada ere, Eneasen istorioa ez zaio guztiz arrotza euskal kulturari, apologisten artekoari behintzat. Julen Arriolabengoak aztertu duenez, «Cachopínek Euskal Herriko leinu eta pertsonaia askori eman zien jatorri troyarra, Diogenis erreginaren eta bere semeen bitartez belaunaldiz belaunaldi jasoa, hala nola, erromatarren aurka borrokatu ziren kapitainei (Julio eta Anquises), Bizkaiko jaunei, Gebarari, Lezcanori, Altamirako Aznarri eta Hedoni, eta abarri» (2006, 136). *Translatio* inperialaren kutsurik izan liteke genealogia honetan, Britania bitarteko dela, Diogenis erregina hori Brutoren amatzat jotzen denez, alegia britainiarren fundatzailatzat. Dena den, Larramendientzat Eneasen istorioari eskainitako kantu epikoa inspirazio iturri baino ez da, beraren *euskara* Virgilioen poemako pasarte bat glosatzeko eredu eta aitzakia, ez harreman genealogikoak asmatzeko.

Erregearen heriotzaren ondorioz, ordea, mendiok lehengo egoerara itzuliko dira:

11 Burni edade-a berriz
Dator zorí gaistoán,
Urre-oriac quendurican
Burnidún anz illunác.

(Larramendi, 1729, 385)

Ez da edonolako laudorioa errege honi Larramendik eskaini diona, Felipe V.aren semeak Gipuzkoako mendiak burdin arotik aterarazi baititu berarekin ekarri duen urrezko aroari esker, aldaketa horrek labur iraun badu ere. Baina aldaketaren laburrak berak aditzera ematen du lurralde horren ohiko egoera burdin aroa dela, mendietako meatzeek erakusten dutenez. Soilik poema goitik behera zeharkatzen duen jarrera hiperbolikoak –lizentzia poetikoak alegia– eman du bide une batez Euskal Herria betiereko burdin arotik kanpo irudikatzeko. Hortaz, Larramendi bera ere ez da guztiz gai izan formazio poetiko inperialaren eraginpetik bere burua askatzeko. Edo behar bada zuzenagoa litzateke esatea ezina duela diskurtso inperialak ezarritako subalterno egoeratik guztiz askatzea, beste lanetan gertatu bezala: «Subordinazioa berea egin ez balu euskara-gaztelania-latina egingo zukeen hiztegia. Haientzat eta haien kontra [Mariana, Mayans eta halakoak] egin zituen liburu guziak» (Sarrionandia, 2010, 491). Izan ere, burdina eta Euskal Herria lotzen dituzten pasarteak ugari dira gaztelaniazko literaturan, baina ez euskarazkoan. Litekeena da Larramendik lehenengo gaztelaniaz idatzi izana *euskara* eta gero itzuli izana latin eta euskarara.

Poeman ez dago hizkuntzari buruzko aipamenik, nahiz eta horixe bera izan euskaldunei buruzko diskurtso inperialaren ezaugarri garrantzitsuena. Hala ere, Larramendiren asmoan poema bera da, *Euskara* izenetik hasita, erakutsi nahi duenaren frogarik sendoena, alegia «que la lengua santa del vascuence sabe avenirse con las leyes métricas del Parnaso». Baina meritu guztia ez da soilik hizkuntzarena, baizik eta hizkuntza horren erabiltailearena ere. Beste hiru ikasleek, portugesak, galziarrak eta gaztelauak, zeinek bere hizkuntzan *endecha* sorta bana esan ondoren, bertan entzule zen batek («un golilleja mozalbeta, que tenía trazas de oficial de pluma») aurpegira botako dio gipuzkoarrari beraren poema edozein gairi buruzkoa izan zitekeen

la, ulertzerik ez dagoenez. Kexa horrek aukera ezin hobea eskainiko dio euskaldunari bere hizkuntza gaitasunen alardea egin eta ezjakinaren tokian bestea uzteko, diskurtso inperialak ezarritako rolak iraulita karnabalizazio prozesu baten bitartez (Bakhtinek esango zukeenez). Hona hemen gipuzkoarraren erantzuna:

Yo no tengo la culpa de la ignorancia de Vm., como no la tendría Homero si al recitar su *Ilíada* en griego tuviera un oyente de ese carácter. Mas, porque no se presume que estoy tan pobre de idiomas como Vm. de urbanidad, ni que mi musa está ligada a sólo el hechizo del vascuence, diré en verso latino elegíaco los mismos pensamientos que antes dije en mi propia lengua, traduciendo fielmente las coplas del vascuence y dando a cada copla su dístico por el mismo orden [...]. Ve aquí Vm. (añadió el estudiante, vuelto al que le había provocado), ve aquí expresado todo el sentido de mi vascuence poético. Mas porque todavía no sabrá Vm. si viene al caso o no, pues para Vm. y otros de su cultura el latín será vascuence y el vacuence latín, sacaré a Vm. de cuidado con otra no menos fiel traducción en castellano siguiendo a mis compañeros en el metro de endechas, cada una de las cuales será expresión literal de su copla vascuence, también por su orden. Y no encresparé mucho el estilo porque no demos en el mismo escollo. (Lardizaval, 1724)

Hortaz, hasieran *bozal* itxurak egiten zituenak azkenean bere benetako hizkuntza gaitasun jasoak erakutsi du eta entzule guztiak desengainatu. Era horretara, bai euskarak berak eta bai erabiltzaileak gezurtatu egin du diskurtso inperial espainiarrak euri buruz dioena eta ordura arte uste errotua dena: *imposible vencido* etorkizunekoaren hazia aurkitua zuen Larramendik *Artea* argitaratu baino lau urte lehenago behintzat. 1724ko liburutzoko euskalduna *trickster* delakoaren trikimailuaz baliatzen ikusi dugu: ezusteko poema txundigarriak egin ditu euskaraz, latinez eta gaztelaniaz «depués de haber afectado una discreta bozalidad en romance», eta ez du aukerarik galduko argi uzteko denetatik onena lehenengoa dela: «pero siempre quedó con más gusto y gala en el bascuenze» (Larramendi, 1729, 385). Ikasle euskalduna idazlearen beraren *alter ego* izan daitekeen heinean, azken honi ere badagokio haren *trickster* jaidura. Baina Andoingo semearen lan erraldoiari bere osotasunean adituz gero, iruzurgile hutsarenaz baino hobea, sarritan

trickster horiek aldi berean izan ohi diren kultur heroien itxuraz ere irudika daiteke Larramendi, San Martin berri baten antzera, azken hau denez gero euskal tradizioan *trickster* amarruak dituen kultur heroia (Astigarraga, Kalzakorta, Pedrosa, 2008). Kultur heroi horiek egin ohi dutenez, Larramendik ere bere herriaren esku jakintzaren sekretuak jarri nahi zituen, hizkuntza jakintzarenak batez ere, gramatika-poetikari eta lexikografiari denbora eta ahalegina eskainita. Lan horietako batzuk Salamancan egin zituen, non eta inperioaren jakintzaren gunetzat jo litekeen hirian. Lan horren bitartez, aurreiritzi errotuak gezurtatuaz batera, sermoigile eta idazleentzako lanabes nahitaezkoak sortu zituen. Euskal Herri penintsularreko literaturen historiari dagokionez, ez da gehiegikeria esatea Larramendirekin *episteme* berri bati hasiera eman zitzaiola, ustezko burdin arotik ateratzen hasteko aldia.

Larramendiren jarrera heroikoa ez zitzaion ordea dohainik atera euskal literaturari. Andoango jesuitaren aukerak eraginkorrak gertatu ziren epe luzera, berak ezarritako lehentasunek badirudi zeharo baldintzatu zutela ondorengo euskal literaturaren garapena. Jesuiten hezkuntza sistemak, Ratio Studiorum delakoak, Larramendiren *habitus*-a (Bourdieuaren berbaz esatearren) garatu ez ezik, bere lehentasun literarioak ere bideratu zituen. *Habitus* horren aztarnak, iritzi poetikoei dagokienez, ezaugarri bitan behintzat dira nabarmen: herri poesiaren bazterketan eta maitasun poesiaren isilaraztean. Lehenengo eta behin badirudi Larramendirekin hasitako jesuiten tradizioan poesia eredu jasoagoa hobetsi zela eredu herrikoia goen kaltetan, Juan Mari Lekuonak jesuiten neurtitz bildumari egindako sarreraren dioenez: «Herri kantuen joera baino goragokoa da beren estiloa eta formazioa. Euskara ongi ikasia duten arabera, nabari zaie formazio erretorikoa, klasikoen mundua, eliz literaturaren islada. Maila jasoago batean mamitutako olerkigintza berena, poesia herrikoarekin konparatuta» (Altuna, 2000, 11). Horretan ere Larramendiren lehentasuna monarkiaren formazio diskurtsibo inperialari erantzutea litzateke, euskaraz egin zitekeena erakustea («la poesía de que es capaz» dio Artean) edota Ziburuko Etxeberri bezalako elizgizonen egindako poesia deboziziozkoa aldarrikatzea, baina ez euskaraz ohi-koa zen herri poesiaren berri ematea. Ez da hortaz harriztekoa XVIII. mendearen amaieran Herderrek bigarren Larramendi baten irrika erakutsi izana, McPhersonen Eskozian egindakoa euskaldunen artean egingo lukeena (ikus

Altzibar, 1986, 20; Apalategi, 2013, 59), Larramendi lehenak ez bezala. *Corografía* alde askotatik miresgarrian, esate baterako, Gipuzkoari eta Euskal Herriari buruzko horrenbeste berri jaso zuen, tartean hizkuntzari eta dantzak bezalako herri kultura adierazpenei buruzkoak, baina isiltasuna erabatekoa da herri literaturaz eta poesiaz den bezainbatean, nahiz eta ez diren gutxi autoritate gisa aipaturiko poeta ospetsuen aztarnak.⁹

Bigarren ezaugarriaz den bezainbatean, agerikoa da maitasun poesiaz da goen isiltasuna Larramendiren hausnarketa poetiko eta metaliterarioetan, poesia mota horri darion kutsu erotikoa arbuigarria zaionez gero disziplinatzea (Foucaultek esango zukeenez) lehenesten duen diskurtso katoliko erromatar postridentinoari. Litekeena den arren Larramendik Etxepareren liburua ezagutu ez izana, erraz pentsa liteke ere erretore garaztarraren maitasun poemek oztupo gaindiezinak jarriko lizkiokeela Kontrarreformaren araberrako *decorum* disziplinatuari: Etxepareren liburua ezagututa ere, nekez izango litzateke eredugarri Trentoren ondorengo elizgizonentzat eta are gutxiago jesuitentzat. Oihenarten lanen aipamena ere ezin adierazgarriagoa da: *Notitia* sarri dakar gogora Larramendik baina ez poesiarik. Bata erruz erabilia bestearen berririk bat ere ez zuen izan? Artean «*zortzicó, y mejor*

⁹ Artean esandakoaz gain, Larramendik gogoko eta erreferentziako zituen poetak arakatzeko toki egokia izan liteke *Corografía*. Poeta horiek autoritate gisa dakartza gogora, alegia etsenpluen eremuko argumentu gisa, bai eta bere jakituriaren ostentaziorako, eta ez eredu poetikoak eskaintzeko asmoz. Hala ere diskurtso poetikoan zituen lehentasunak adieraz ditzakete poeta aipatuek. Dene-tatik aipatuena Virgilio da: *Eneida* birritan aipatzen du, behin lehen kantuaren zeharkako aipamen baten bitartez (1969, 31) eta beste behin 8.424-5 bertso lerroak zehazki aldatuta (1969, 72-73) – bertso lerro gogoangarriak nonbait *Hiztegi Hirukoitzaren* sarreran ere aipatzen dituzenez gero (1745, LIII)–, eta *Georgikak* behin (1.390-392), hori ere zeharka eta titulua aitortu gabe (1969, 41). Ovidioren *Metamorfosiak* (1.414-5) behin aipatu ditu, horiek ere zeharka eta titulua aitortu gabe (1969, 304), eta behin ere Juvenalen *Satirak* bildumako pasarte bat (15.69), zehazki aipatua baina poeta-ren izena eta honen lana aitortu gabe (1969, 305). Homero ere behin aipatua da, Virgiliorekin batera, baina oso modu orokorrean (1969, 72). Herri hizkuntzak darabiltzaten poeten artean Gongora da Larramendik aipaturiko bakarra, *Fábula de Polifemo* y *Galatea* poemako 4. ahapaldiko pasarte bat aldatuz (1969, 72), poema bereko 5. ahapaldiaren amaiera ospetsua («infame turba ...») aipatu zuen bezala *Hiztegi Hirukoitzaren* sarreran (1745, LV). Hortaz poeta erromatarrak, antzina-koak alegia, nagusi dira Larramendiren aipuen artean, eta hori bezain adierazgarria da haien imi-tatzaile eta kuleranismoaren eredu den Gongora izatea modernoan ordezkarri bakarra. Larramen-diri dagokionez erabat arrazoizkoa da Juan Mari Lekuonak jesuiten poesiagintzaz esandakoa.

zortzidún [,] *amarcó*, y mejor *amardún*» esaten zuela (1729, 382), ez ote ziotuen sortu *-dun* amaierako molde metrikoen izenak Oihenartek asmatuak *hamarkun* eta *hamalaurkun* hitzen eredura (2003, 513 eta 525), bertsoak izendatzeko herri eraren kaltetan eta kutsu jasoagokoaren mesedetan? Oihenarten jarrera kultista gogoko izanik haren poesiagintzaren ezagutza ezin ote zuen aitortu Larramendik jarrera moralista zurruna zela eta¹⁰? Azkenik, bizkaierazko maitasun poesia ere guztiz gelditu da isilpean Larramendiren lanetan, nahiz eta ezina dirudien haren berri ez ezagutu izana lehen atalean azalduko hipotesiaren arabera, alegia Andoaingoa Mikoletaren teoria metrikoetatik abiatu zela bereak sortzeko. Beraz maitasun kutsuko euskal poesia idatzi osoak eten nabarmena pairatuko zukeen Larramendiren eraginez.

3. Periodizazio irizpideak

Gure inguruko literaturen historien antzeko euskal literaturaren historia bat izan nahi bagenu ere, goragoko orrialdeetan esandakoaren arabera zera onartu beharko genuke: historia horiek posizio hegemonikoetatik idatziak izan direla, alegia, Euskal Herri penintsularreko euskal literaturak oso be-

Aurrekoa baino luzeagoa, bigarren partean «guiristinoac iaquin behar duen *Doctrinaren declaracinoa*» (1623, 36; gurea da letra etzana) dator. Galdera-ihardespenez osatua, gero eta ohikoago bilakatuko ziren katiximen egitura didaktikoa erakusten du.

«Declaracinoa»k, funtsean, dotrinan ikasitakoa argitzea, sakontzea eta aberastea zuen xede, hau da, lehen partean perruketen antzera ikasitakoaren kontzientzia hartzea eta, liburuan emandako formula finkoekin bazen ere, barneratutako sinesmenaren testigutza ematen ikastea.

Lehen partearekin alderaturik, ia boskoiztu egiten da orrialde-kopurua bigarren honetan (36-176).

Hirugarren parte, azkenik, berrehun orrialde luze hartzen dituzten «debocinozco othoitz eta oracino batçuec» osatzen dute (177-384 or.), otoitzen artean letaniak eta meza entzuteko eta kontzientzia etsaminatzeko eta konfetsatzeko moduak ere falta ez direlarik.

Oro har, eskema horren aurrean Haranbururi nekez interesa zekiokeen –eta lan-hipotesiaren beste ataltxo bat zen hau ere– Materreren liburuaren bigarren parte, bereak debozio-liburua izatea bilatzen baitzuen, ez deklarazio edo ohiko katixima dialogiko gisakoa.

Azken hipotesizat genuen, adierazi bezala, saratarrak ez zuela Materreren lehen edizioa baliatu, bigarrena baizik, autorearen iritzi ondo hobeturik geratu zitzaion *dotrina* hura –eta iritsi zaigun bakarra–, hain zuzen. Eta bazen hipotesi horretarako arrazoirik, besteak beste, lehendabiziko hurbilpean bertan nabari baitaiteke 1617ko edizioak ez zeukala Haranburuk hain aprobetxamendu handiz erabiliko zuen hirugarren parterik, ezta, noski, hirugarrenaren baitako otoitzik ere.

Hipotesi horiek guztiak egiaztatzea izan da aipatu liburuaren arteko erkaketak bilatu nahi izan duena (ikus lan honen amaierako Eranskina).

7.

Ikuspuntu metodologikoa dela eta, azpimarratu behar da lan honen oinarri gisa aurkezten den testu-erkaketa ez dela exhaustiboa izateko asmoa-

rekin jaio, besteren artean, salbazio eternala lortzeko esperantza gero eta urrunago izanik, nekezegia delako sinatzen duena bezalako ikertzaile baten-tzat XVII. mendeko bi dotrina-liburu kontrarreformisten aurka, «contre-poison et préservatif»ez gabeturik³⁶, buruz buru borrokatzea. Gaztetan eramangarriago akaso, baina ile urdinak, begi akituek eta kandela keak, ezaguna da, ez dute inor eta ez diote inori –diogun gaiari dagokion hizkeran– «barkatzen»; eta, tamalez, ez du eginkizun horretan lar laguntzen liburuotatik isurtzen den gogamen idorrak.

Baina erkaketa-lan hau ez da exhaustiboa izan, bereziki autore baten jokamolde orokorrera hurbiltzea besterik bilatzen ez zuelako eta, haren barruan, ustezko intertestualitatearen hari nagusiak zertan zeutzan ezagutu nahi zuelako.

Behin hari-muturrak ageri, uste izatekoa da hurrengo urratsa aiseago bideratu ahal izango duela zehaztapenetan murgildu nahi dezan ikertzaileak.

Erantsi behar da, bestalde, Materre eta Haranbururen arteko alderaketa honetan ez dela arlo erlijioso-teologikorik aintzat hartu nahi izan, zeharka eta ezinbestean izan ez bada behintzat. Izatez, lor zitezkeen –eta oraindik lor litezkeen– luze-sakontasunak gorabehera, idazlan biotan atzematen diren antolamendua eta *ordo doctrinae* delakoa berdin mintza daitezke teologia ulertzeko modu-desberdintasunaz zein idazleen prestakuntzaren ahuleziaz³⁷ edo, okerreanean, baita egilearen zabarkeriaz ere³⁸.

³⁶ Honelakoetan dabilenak nekez ezaba dezake oroimenetik euskal literatura larriaren aterpe izandako Millangestarrek argitaratutako Gillaume Baile-ren *Contre-poison et préservatif contre les erreurs des pretendus réformés* liburua (Bordele, S. Millanges, 1620).

³⁷ Sinesmen katoliko-erromatarraren argitzapena ekarri zuen Trentoko kontzilioa bukatutakoan, planteamendu eta praktika erreformistak deuseztatzea izan zen hierarkia katolikoaren lehen eginkizuna. Borroka horretan zeuden lubanetako bat herri xehearn praktika «ez-katolikoegiak» aldaraztea zegoen, hain zuzen ere, teologi planteamendu sakonik behar ez zuen eginkizuna eta, nagusiki, tokian tokiko *erretoreen* lanarekin eta predikazio hutsean trebatutako predikariekin bidera omen zitekeena. Baina, jakina, apaiz berriena ez bezala, fraide predikarien prestakuntza teologikoa beti ez zen behar bezain sendoa suertatzen, izan ere, «*suffit aux Religieux mendiens, & autres qui ont pareils privileges, d'estre examinés de leurs Supérieurs, approuvés de l'Evesque, pour prescher au lieu qu'il leur concedera*» (Milhard 1603, 405; gurea da letra etzana). Aski izan zitezkeen, beraz, oinarri-oinarrizko formakuntza erlijiosoa eta oratorian trebatutako mihia. Hortik, beharbada, liburu-antolamendu batzuen berezia.

³⁸ Ikus lan honetako 55. oharra.

Are gehiago: ikusiak ikusi, Haranbururen liburuaren kasuan, zinez pentsa liteke 1635eko edizioaren ahulezia-gabezia horiek berak ezabatu nahi izan zituela Harizmendik handik hogeita bost urtera birmoldatutako *Debocino escuarrari* eman zion antolamendu berrian³⁹. Obra baten arazo-eragozpen larriak bideratzeko –diogun bidenabar– era apaina Harizmendirena: ez adiskidea gutxiesten zuena, ez haren lana gaitzesten, eta bai, aldaketa larriak tarteko, liburuaren egiletza aitortzen segitzen zuena.

Nolanahi ere den, egia da obra biak alderatzeko orduan⁴⁰ zehaztapen txiki-tara jotzeari baino, garrantzi gehiago eman nahi izan zaiola testu-multzoen barruan atzeman izan diren osagai berdin-antzekoak erakusteari, han-hemenkako datu solteek ez baitute zertan islatu transtestualitate sistematikorik.

Multzo tematiko edo formalen barruan gertatzen direnak, aitzitik, beti ohi dira testu-transzendentziaren (edo, nahiago bada, «eragin» zuzenen) adierazle aski garbiak. Horren adibidea dugu Haranbururen obran hamalau aldiz segidan errepikatzen den «esquerrac eta laudorioac derazquitçut» formulazioa: orrialde beretan bestelako ñimiñokeriekin batera agertzeak argi erakusten du Materreren «Meza saindua»ri buruzko atala (ere) izan zuela hartan inspirazio-iturri.

Guztiarekin ere, nabarmen gera bedi formalki oso antzekoak eta argiak dir(udit)en pasarteak baino ez direla aintzat hartu eta erkaketa-tauletara igo.

Jakina da, halere, katiximen lantegian autoreetako bakoitzak bere molde eta ukitua eman ziezazkiekeela kontzeptualki ezin berdinago ziren otoitz, formula eta agindu erlijiosoei. Testu-mota hauen originaltasun-maila ikusirik, berrikuntza horiek, esan gabe doa, ilundu besterik ez dute egiten gurea bezalako identifikazioen fidagarritasuna, izan ere, bestelako jatorririk ezkuta baitaiteke ustezko antz eta konkordantzien atzean.

³⁹ Mendearen amaierako edizio horren hitzaurrean zalantza izpirik gabe aitortu bezala, «arrimu hobean» kaleratu zuen Haranbururen liburua, nonbait horrela koherentzia gehiago eskaintzen zitzaiolako berez (edo ustez) nahasi samar agertzen zen obrari. Hori bai: «bethi Eliça Catholicaren obedient» (c. 1690, [1] or.).

⁴⁰ Testuen arteko alderaketa zehatzerako, jo bedi lan honen amaieran *Eranskina* gisa eskainitako atalera.

Iluntasun horien artean, Haranburureneko «Bekhatuez» (27-28 or.) ize-nekoa izan da erkaketa-taulara eramateko izan ditugun salbuespenetako bat. Zeren eta, desberdintasun guztien gainetik, ez du ematen Haranburuk Materren harrobia urruti izan zezakeenik horretan; guri ez zaigu iruditu, behintzat. Haren bekatu «originala»k, adibidez, oso hurbil bide ditu euskaldun berriaren «ethorquizcoa» izendapena eta inguruko gorabeherak (ik. Materre 94 eta 162-163).

«Buruzagi» izeneko bekatuekin eta haien kontrako erremedioekin ere zalantza berdintsua izan dugu. Dena den, Materren lexiko garbizalearen originaltasuna eta ondokoengan izandako eragina nabarmenarazteko erabaki dugu horiek ere orriotara ekartzea.

Alabaina, erkaketa-lana gehiegi luza zitekeela eta, ez dugu hari horretako material gehiago taulotara garraiatu.

Era berean, eskema orokorretan⁴¹ zein ideia⁴², hitz⁴³, hizki⁴⁴ eta esaldietan oso pareko dir(udit)en arren, ez ditugu tauletara ekarri teknika «xehatzaile»

⁴¹ Horren adibidea izan liteke «*Trinitate sainduari othoitça*» delakoan barrena Haranburuk darabilen egitura anaforikoa («Çu çara [...]», orrialde berean [259] bost bat aldiz errepikatua), gero otoitz egiten ari den bekatariaren «ni»arekin kontrajartzera iristeko. Materre ere baliabide erretoriko horrezaz baliatzen da gai berdina jorratzen duen «Espiritu Sainduari eguiteco *Othoitça*» izenekoan (281-286).

⁴² Kasualitateari zor ote zaio autore bien «Parabisuco saindu guz[t]iei [eguiteco] Othoitça»n agertzen den gradazioa? Izan ere, Materrek emandako zerrenda («O Aingueru sainduac [...] O Apostolu sainduac, Evangelioaren doctrina predicatuz [...] O Martyr sainduac [...] O Ipizpicu sainduac [...] O Doctor Sainduac [...] O Cofessor sainduac [...] O Virgina sainduac [...] O Alhargunac eta bertce emazte sainduac [...] Eta finean generalqui saindu guztiac [...]» [303]), Haranburuk ondozkapen berean ematen du: «O Aingueru [...] O [...] Apostolu, Evangelista, Martyr [...]» (200-201). Areago: ondozkapen hori bera, baina oraingoan osotua, atzematen da Haranbururen «Errecibi ondoco othoitza» batean: «Aingueruec [...] Apostoluec eta Evangelistac [...] Martyrac, dotorac, Ipizpicuac eta Cofessorac [...] Virginac, alhargunac eta ceruco saindu guciac» (222-224).

⁴³ «Portu» hitza, bakanetako bat adibideetara ekartzeagatik, lau aldiz erabiltzen du Haranburuk, haietako bi portu zehatzak adierazteko (Barulitangoa eta Areitangoa) eta beste biak erlijiozko metafora gisara, azkena –ez oso originala, dena den– Materrek darabilen forma eta testuinguru berdintsuan: «salbamenduco portu» (Haranburu, 315; Materre, 300).

⁴⁴ Antz ilunegia duten hainbat pasartek hizki zehatz batzuen bitartez erakusten dute maileguen jatorria. Hori da, esate baterako, Haranburuk gogoko duen «derazquitçut» aditz laguntzailearen

horren bitartez aldaturik geratu diren zatiak eta pasarteak. «Cofessio»ari dagokion ondoko hau liteke adibide esanguratsu horietako bat:

[...] iguiriqui derautachu orai artean, eguiazco penitencia batez cure gana itçul nendin amoreagatic (Materre, 227).

[...] çeure ordenança sainduetz [...]: hunetaracotz banoha çuc ordenatu derautaçun iugearen aitcinera (Haranburu, 187).

Edo zertxobait aurrerago:

Argui eçaçu bada othoy ene espiritua eta memoria ceruticaco arguiaz [...] (Materre, 233-234)

[...] eman diaçadaçu adimenduan arguitasuna, memorian orhoitcetasuna [...] (Haranburu, 188).

Antzeko zerbait esan liteke Haranburuk egokiro laburtutako Materren pasarte luze honetaz ere:

Maria Virgina Saindua, ene salbatçaillearen ama [...] eçar naçaçu haren garacian eta adisquidetasunean (Materre, 286-89).

O Maria, Iaincoaren ama bethi Virgina saindua! [...] ceure Seme Iaunaren misericordia içan diaçadaçu [...] haren bethiereco adisquidetasunean vicitcea gatic (Haranburu, 260).

Ez dira guztiz berdinak pasarteok, baina, gainerakoen erkaketan agertzen dena ikusirik, zinez esan liteke lehenaren oihartzuna islatzen duela bigarrenak.

Berriz oroitarazi beharra dago, halere, ez ideietan ez hitz eta esamoldeetan, ez dela originaltasuna erlijiozko liburuen ezaugarri nabarmenena. Haranbururena barkagarriago edo gera dadin oroitarazia, hain zuzen.

Hirugarren parteko testuen erkaketarik ere ez da emango, Heren Ordenako Erregelak zeharo kodetuta baitzituzten frantziskotarrek, eta, gorago ikusi den bezala, ez dirudi testu haietakoren batetik itzuli-egokitu besterik

kasua (30 bat aldiz erabilia): oharkabean, ziur asko, Materrek darabilen «derauzquitçut» zenbait isurtzen zaizkio saratarrari ere testuinguru berdintsuetan (ikus Haranburu 196 eta Materre 238).

egin zuenik Haranburuk berea ontzeko, Materren harrobiko materialen beharrik gabe, alegia.

Are gehiago: *Debocino escuarran* bertan aipatzen du agian hura egitean erabili zuen erreferentzia, hots, «gure ordenuco Aita Cayronec orai berrero eguin duen heren ordenaco liburua», «francesez» hain zuzen (463). Gainera, jarraian erantsi zuenez, «Ordena hunez ere dotrina ederra eman du». Baina Cayronena izan ala beste batena, ziurtzat har daiteke frantziskotarren artean zebilen frantsesezko bertsio arrunten bat izan zuela Haranburuk lan-mahaiaren gainean.

Halaber, autore bietan antzekoak edo berdinak izan arren, latinezko pasarteak ez dira erkaketa-tauletako *corpusera* eraman⁴⁵, ez bailuke horrek ezer argituko. Esate baterako, Materren «Andre dana Mariaren ohoretan. Letharinac» izeneko atal bikoiztua⁴⁶ Haranbururen «Virginia Mariaren letharinac» delakoa (119-124) bezalakoxea da (nahiz eta azken honek letania gehiago tartekaturik ekarri⁴⁷, baten bat ezabatu⁴⁸ eta, batzuetan, ohiko ordena⁴⁹ ere aldatuik eskaini⁵⁰). Berdin gertatzen da Materren «Jesus Icen Sainduaren ohoretan Letharinac» izeneko atalarekin ere, azken otoitza barne (363-373)⁵¹. Baina agerikoa da ez zela hura beraien baitatik sortutako materia.

⁴⁵ Agerikoa da «San Francesen officio chipia: eta matutinac» izenpean doan latinezko atala eta amaierarainoko beste guztiak (469-501) frantziskotarren ofizio-libururen batetik jasoak direla zuzen-zuzenik. Haranburuk atalen izenburuak eta bukaerako lerroak besterik ez zuen euskaratu.

⁴⁶ Ikus *Dotrina christiana* 344-350 eta 373-378 or.

⁴⁷ Letania lauretanan ezohiko diren «Mater humilitatis», «Mater obedientiae», «Mater sanctitatis», «Mater pietatis», «Mater misericordiae», «Virgo pulcherrima», «Vas virginitatis»... eta «Vas electionis» gisakoekin aberasten du saratarrak zerrenda.

⁴⁸ Ohikoa zen eta den «Regina Apostolorum» bezalakoren bat kendu eta frantziskotarren intereskoa bide zen «Regina Praedicatorum» bezalako bat (123) tartekatu zuen Haranburuk multzoan.

⁴⁹ Materrek erabilitako ordena bera (ohikoa, alegia) ikus daiteke jesuitek 1617an Tolosan argitaraturiko *Traicté tres-utile de la devotion envers la Vierge Marie* izeneko liburuan (456-458).

⁵⁰ «Stella matutina», esaterako, «Salus infirmorum» delakoaren aurretik errezitatu ohi da, Haranburuk aldatuik eman arren.

⁵¹ Ikus *Debocino escuarra* 481-492 or..

8.

Lehen ondorio gisara, testu-alderatzeak agerian utzi du Materrearen *Doctrina christiana* izan zela Haranbururen *Debocino escuarra* izan zituen iturri larrietako bat, eta euskarazko liburuaren artean, ezbairik gabe, iturburu nagusia⁵². Erkaketa-tauletara eramandako pasarteek ez dute zalantzarik uzten.

Argi dago Haranburuk Materrearen liburuaren 1623ko ediziotik xurgatutakoa lehen eta hirugarren partera mugatu zela. Haietatik garraiatu zituen berea burutzeko hainbat eta hainbat ideia, pasarte eta material. Eta aitortu behar da jatorrizko testuen egokitze- eta txertatze-lana aski antze eta trebeziarekin bideratu zuela gero.

Haranbururen liburuaren egiturari dagokionez, adierazia dugu jadanik Materrearenaren ildoko egitura hirukoitza baliatu zuela, nahiz eta ez, inondik ere, haren antolaketa-era.

Handik eta hemendik mailegatutako materiala ere sakabanatuta geratu zitzaion saratarrari maiz asko, menturaz jatorrizko erreferentziak ezabatzeke erabili zituen koherentzia-irizpide arrunt bitxien ondorioz⁵³.

Anabasa hartan, hirugarren atala da koherenteena bezala edo agertzen dena, agian edukiaren mamia herendar eta frantziskotarra izateaz gainera, funtsean bestek –baimena eman behar zuen anaidiak, alegia– araututako «erregela»⁵⁴ ematera mugatu zelako...

⁵² Beherago ikusiko denez, anekdotikoa dirudi Etxeberri Ziburukoaren obrari zor dionak.

⁵³ Ustez Materrearen ildoko doctrina izatera zihoan lehen parte, adibidez, erdialdean eten nabarmena islatzen duen hala moduzko «Virginaren debocino» batekin endekatu zen, Materrearenaren hirugarren partearen pareko zirudien hirurehun orrialdeko *mix* erraldoiagi bati (Haranburuk «bigarren parte» bezala identifikatutakoari, alegia) atek irekiz eta liburuaren norabide ilunagoz baterik utziz.

⁵⁴ Heren Ordenako testuen itzulpen-moldaketa da Haranburuk atal horretan eskaintzen duena. Sarrera gisakoa lehen atala (414-422) eta erregelaren puntu guztien laburpenaz osatua bigarrena (422-443), oso da interesgarria Ordenakoa izateko sinatu behar zen konpromiso-idazkiaren tarte-katzea, argiki erakusten baitu zein zen liburuak bilatzen zuen ondorio praktikoa: ohiko «misioko» edo baliatuz, Heren Ordena euskaldunen artean zabaltzea. Honela hasten da fitxaren itzulpena: «Nic A. (Anaia) N. («Nombre», hots, izena) prometatcen diot Iainco guciz botherexuari [...]»

Baina adar-soinuak gorabehera, Haranbururen intertestualitatearen eta originaltasunaren arteko dialektika osotasunean ulertu ahal izateko eta, are, izan bide zituen gainerako –erdal– hipotestuak ezagutzen hasteko, funtsezkoa da beste hainbat puntu ere azpimarratzea.

Honatx garrantzizkoenak:

A) Lehendabiziko irakurketan bertan antzeman daitekeenagatik, balirudike bai Materrek eta bai Haranburuk aski desberdina dutela ez erlijioa, jakina, baina bai pietatea eta sinesmena bideratzeko modua⁵⁵. Eta, nonbait, horrek berak ekarri dizkio norberari estilo eta diskurtso desberdintasunak eta baita ere, nola ez, inorenetik «mailegatutako» testuak integrazteko forma bereziak.

Horrela, Haranburu guztiz planteamendu eta erretorika barroko-tragikokoa dirudien bitartean, Materre paristarra kontrarreformista, diogun, orekatu-lasaiago edo dugu bereak erredaktatzeko unean.

(444-445; gureak dira parentesi arteko zehaztapenak), eta itzulpena diogu zeren eta hizkuntza guztietan baitzen berdina eredu: «Yo el Hermano N. prometo a Dios Nuestro Señor [...]» (De Murcia 1718, 256).

⁵⁵ Azterketa sakonagoa eskatuko lukete liburu bietan barrena hedatzen diren kontzeptu zenbait. Argi eta konprometituenetakoren bat baino ez aipatzearren, «zortzi dohatsutasunak» har litezke lehendabizi. Dohatsuen artean Materrek «*Iusticia* gosse eta egarri direnak» tartekatzen dituen bitartean (24-25; gurea da letra etzana), Haranburuk formula aseptikoagoa eta, noski, «despolitizatuagoa» erabiltzen du berean: «Dohaxu dira gosse eta egarri direnac, ecen assesiatuac içanen dira» (30). Baina ez da kasualitateari eragotzi dakioken mentsa laugarren dohatsutasun horretakoa, zortzigarrean ere «gabezia» berdina atzematen baita. Materrek «*Iusticiagatic* persecucioneac eta traillauc pairatcen dituztenac» aipatzen dituenean (25; gurea da letra etzana), Haranburuk honela islatzen du bere ikuspuntu «neutroa»: «Dohaxu dira ungui eguiteagatic nequeac daramatcitenac: ecen hequençat da ceruetaco erresuma» (31). Lerro batzuk beheago aurki daiteke autore bien arteko desberdintasuna islatzen duen bigarren adibide gatazkatsu bat. «Espiritu sainduaren contraco bekhatuac» atalean Haranburuk, harrigarriro, lehen tokian jartzen du tradizio katoliko guztian –eta baita Materrearen liburuan ere– betidanik bigarren lekuan joan ohi den «bekhatua», hots, «obra onic eguin gabe salbatuco dela ustatcea, edo penitenciaric eguin gabe barkhamendu içaitera presumitcea» (31). Horrek, esan gabe doa, bigarren tokira bultzatzen du lehendabizikoa eta garrantzikoena, hau da, «Iaincoaren misericordiaz exitcea eta desesperatcea» (31). Ezin jakin interpretazio erlijioso egokirik onar lezakeen lekualdatze horrek, baina irizpide logikoren bat aurkitu nahi izatekotan, agian fede hutsaren bidezko salbazioa aldarrikatzen zuen kalbindar sinesmena bereziki sustraituriko eskualderen batean eragitea bilatzen zuela pentsa liteke. Aieru hutsa, edonola ere.

Muturretara joz gero, nabarmen egiten da bakoitzaren jarrera-desberdintasun hori konfesatzeko otoitzetan edota bekatariaren damua azaltzeko formuletan. Haranburuk, esate baterako, honela aurkezten du bekatugilearen drama, aitzo gisako esaldi labur-bortitzak erabiliz:

A! Ni miserablea: presuna ingrata: ume natura contracoa: cerbitçari gaixtoa: arima enganatua: bekhatore higuña: cer eguin dut? Cer estatutan iarri naiz? Cer esperança ahal duquet? Norat ihes eguinen dut? Nori gomendatuco natçaica? Neure Iaincoa offensatu dut eta hura da ene partida. Neure creatçaillearen contra ibili naiz eta hura da ene Iugea. Neure Nabusia narritatu dut eta hura da ene biciaren Iabea. Neure Iauna gaizqui cerbitçatu dut eta hura da ene ontasuna. Iainco hunec placer badu, honda naçaque. Iuge hunec placer badu, haucia gal deçaquet. Iabe hunec placer badu, bicia idequi deçait. Partida hunec placer badu, condena naçaque. Horra Iusticiaco gorthean nic neure haucia galdua neure gaizquiagatic! Ô dolorea! Ô chimicoa! Ô desnaturaleçatcea! [...] (273-275).

Materrearen tonua eta estiloa, aldiz, ez dira hain bortitz azaltzen⁵⁶ eta, itxuraz behintzat, bekatariarekiko begirune gehiago erakusten duela eman lezake:

Ahalque naiçela eta beldurrez ikhara nabilala presentatcen naiz, Iainco eternala, çure maiestatearen aiticnean, ceren baitacussat añhitz eta añhitz moldez çure ontasunaren contra huts eguin dudala. Aithortcen dut itsasoan harea baiño, eta legar bihi baiño, ene baithan bekatu guehiago dela, eta halatan ez-naiz ausart beguien çure gana ailtchatcera. Ni naiz bekatore guztietaco handiena, gaixtoena eta esquer-gabena, ahalque gabequi bici içan naiçena, eta çure manamendu sainduac itçez, gogoz, eta obraz hautsi ditudana. Ni naiz seme gazte desordenatu çure etchetic ilqui cen hura [...] Ala ni dohacabe handia bai naiz! [...] (223-224).

B) Jadanik esana dugu Haranbururi, printzipioz bederen, nekez interesa zekiokeela Materrearenean dotrinaren deklarazioa jasotzen duen bigarren partea. Eta, erkaketa xume honekin egiaztatu denez, horrela izan da oro

⁵⁶ Errepara bekio, saratarrarenarekin kontrastatzeko, Materrearen esaldi luze eta pausatuen erabilerari.

har: salbuespenak salbuespen, Materrearen liburuaren bigarren parteko az-tarnarik ia ez da Haranbururenean. Haren liburuaren beste parte biak erabili zituen azken honek nagusiki, ez bigarrena.

Atalez atal aztertuz gero, liburuaren lehen parteko 36. orrialderainoko testua da, eskuarki, Haranburuk Materrearenean oinarrituta osatzen duen zati nabarmenena. Hau da, erlijiozko formula eta aginduei dagokiena eta jatorrizko saratarraren benetako *dotrinatzat* azal litekeena.

C) Agerikoa da Materrek eskaintzen duen eskema orokorrari segitzen diola lehen parte horretan Haranburuk, otoitz eta formula gehiagoz hanpatua bada ere.

Inguruko katiximetan ohikoa⁵⁷ bezain xumea da Materrearen egituraren haria: *Pater Noster – Abe Maria – Credo in Deum – Salve Regina – Jainkoaren Mandamentuak – Elizaren Mandamentuak – Artikulu fedezkoak – Sakramentuak – Bertuteak – Perfekzioneko kontseiluak – Obra Miserikordiazkoak ...*

Nahasiagoa da saratarrarena, nahiz eta izenburu guztiak euskara argian –ez latinez– aurkezten saiatu⁵⁸. Eta nahasiago diogu, zeren eta «Eliçaren manamenduak» delakoaren ondo-ondoan kristauen eginkizunei eta praktika liturgikoari dagozkien otoitzak tartekatzen baititu inolako diskriminaziorik gabe: *Konfesio generala – Errezibitzean – Meza hastean otoitza – Sakramentu saildua altxatzean – Kaliza altxatzean – Goizeko otoitza – Arratseko otoitza*, etab. Harik eta, hala edo hola, berriro heltzen dion Materrearen dotrinaren eskemari. Hori bai, arrosarioari buruzkoak, Salesekoaren Koroa esateko manerak eta beste erantsiz.

D) Lehen parte horri dagozkion hainbat atalek (batik bat, 37-125 orrialde bitarteko arrosarioaren inguruko «mysterioak eta boçac», Saleseko Franziskoren irakaspenak, Kristoren bizitzaren eta heriotzaren misterioak eta Ama Birjinaren debozioa) zeharka eta tantaka baino ezin zuten iturriztat hartu Materrearena, paristar euskaldunak ez baitzuen horrelako gai askorik jorratu berean.

⁵⁷ Ez da lar aldentzen, izatez, Astete-Ripaldaren eta besteren *dotrinek* aurkezten duten eskematik.

⁵⁸ Hots, *Jainkoak berak bere apostoluei irakatsi zerauen otoitza – Aingeruaren salutantzia – Artikulu fedezkoak – Andre Birjinari otoitza – Hamar Mandamenduak – Elizaren Mandamenduak...*

Zertxobait atzerago dagoen «Cofesio generala» izenekoarekin eta beste zenbait otoitz eta fomularekin ere berdintsu gertatu bide zitzaion fraideari.

Halakoetan, eta besterik demostratu bitartean, Haranburu bera genuke testuak erdarazko dotrina eta debozio liburuetatik jaso, euskaratu eta pres-tatu zituena.

E) Bere testua hobetze aldera ziurrenik –haren originaltasunaren alde-rean, beraz–, Haranburuk ez du beste nonbaitetik jasotako pasarteak sakri-fikatzeko, deskontestualizatzeko eta hara eta hona mugitzeko eragozpenik erakusten.

Beraz, egungo «moztu-erantsi» delakoaren pareko teknika dirudi sarata-rrak darabilena, maiz asko lerroak aldatuz, ezabatuz, jatorrizko lekutik ken-duz eta, behar izanez gero, gorago edo beherago eramanez⁵⁹.

Hasierako egutegi-oharretara garraiatu zituen, esaterako, Materrek beste testuinguru baten barruan emandako hainbat puntu. Nabarmenenak «Eli-zaren manamenduak» ataleko bi, bata *barurtzeari* zegokiona eta bestea ezin ezkon zitekeen garaiari buruzkoa.

«Aita Iaincoari othoitça meça erraitean» izenburukoan aurki dezakegu bigarren adibide argi bat (Haranburu, 310-316), eta batik bat Materreren «barca diatçaguçu gueure becatuac, eta khen mereci ditugun gaztiguac» pasartearen lekualdaketaren inguruan (Materre, 217); besteak beste, he-men, testu-ezabatze luze baten ondoren, zertxobait «ukitu» zituen Haran-buruk lerrook («Barkha diatçagutçu guc eguin ditugun huxac eta khen diatçagutçu mereci ditugun gaztiguac») eta gero beste leku batean ezarri (Haranburu, 314)⁶⁰.

⁵⁹ Luze joko luke Haranburu teknika honen bitartez noraino iritsi zen azaltzeak. Emankortasun horren lehen adibidea erkaketa-tauletara eraman dugun Materreren 322. orrialdetik jasotako otoitz llaburra genuke («Aingueru saindua...»): saratarrak «*Marinelen debotinoa [...] goiceco gomendioa*» eraman zuen (393-394) lehendabizi eta, jarraian, «*Arraxeco gomendioa*» delakora (398-399), hori bai, zegokion egokitzapena eginez (batean «egun», bestean «gau» jarritz).

⁶⁰ Jolas berdintsua antzematen da Materreren «Andra dana Maria Iaincoaren Ama Virginari eguiteco *Othoitça*»-rekin ere (286-292). Irudi luke Haranburuk fitxa gisakotan zatitu duela haren otoitza bere «*Virginiaren debocinoa*»-ren hainbat «gomendio» ontzeko. Horrela, Materreren «Maria

Esan bezala, eskatu zitzaion debozio-liburu «desberdina» burutzeko xedearekin lotua legoke mugimendu horien guztien arrazoia.

F) Nonbait joan-etorri horien ekimenetik ez oso urruti, inoizka gertatu ohi da izenburu berdina daramaten dotrina-formula batzuk eduki desberdinarekin azaltzea autore bien lanetan; eta normalean, saratarraren kaltetan. Hori da, besteren artean, «Articulu fedezcoac» delakoaren kasua. Materrek atal hori «girstinoak sinetsi behar dituen» hamalau artikulutan banatua ematen duen bitartean, Haranburuk «sinesten dut» izeneko ematen du titulu haren azpian, Materrek «Credo in Deum» deritzona, alegia.

Bidenabar adierazteko oharra: Astete-Ripaldetan eta gainerako dotrintan ez da trukaketa-mota hori ezagutzen.

Ez da, beraz, aise ulertzen Haranbururen ekimena. Ez bada oharkabean igaro zitzaiolako akatsa liburua idatzi eta argitaratu bitartean edo, bestela, –eta gertatu, erraz gerta zitekeen– Trento aurreko edo eliza erreformatuaren esparruko obraren bat izan zuelako Haranburuk begien aurrean⁶¹.

G) Bitxia da «Jainkoaren manamenduak» eta «Elizaren manamenduak» formulen kasua. Honako hauetan –eta lehen begiratutan bederen–, zinez pentsa liteke Etxeberri Ziburukoak lehen liburuan aldarrikatutako baliabide mnemotekniko-didaktikoa jarri nahi izan zuela Haranburuk abian, bertso-tan onduak eman baitzituen agindu-sorta biak⁶².

Virgina saindua, ene salbatçaillearen ama» otoitz-hasiera (286) Haranbururen «2. Gomendioa»-n genuke: «O Maria Virgina saindua [...]» (64); Materrearen otoitzeko «Cu çara Aita cerucoaren alaba, haren semearen ama Espiritu Sainduaren esposa, Iaincoaren etchea [...]» (287) Haranbururen «7. Gomendioa»-ren hasieran legoke: «O Maria Virgina loriaz bethea, aitaren alaba, semearen ama, espirtu sainduaren esposa, Trinitate sainduaren egoitça sacrata [...]» (69-70); Materrearen «Virgina guciz garbia [...]» (288) Haranbururen «4. Gomendioa»-ren hasiera osatzen aurkitzen uste dugu: «O Maria Virgina garbia [...]» (66), etab.

⁶¹ Leizarragak, esaterako, ohiko «Symbole des Apötres» delakoa «Christinoen fedeco articuluac» izenburupean eman zuen ([1571] 1990, 1398; gurea da letrakera etzana).

⁶² Etxeberrik berak zehazten ditu *eskuarra* bertso-tan ontzeko arrazoioak: «Hartaracotz iaquiara diat versus eçarri,/ Lasterrago ikhas eta maizago aiphagari» (Etxeberri [1627] 1669, 4). Erantsi behar da, halere, ez zela bertso-tan jartzearena praktika ezezaguna inguruko hizkuntzetako katiximaginearen artean. Honela dio haietako batek: «La liaison des mots, au Vers bien façonné, / Faict

Eta horrela, Harizmendik liburu-hasieran paraturiko bertsoak –«C. HARIZMENDI/ Apeçac eguileari» izenekoak– eredutzat edo harturik⁶³, 13a/13a irudiko distiko bezala lerrokatuta eman zituen Haranburuk –edo argitaratzaileak, agian– adiskidearen 6/7a tankerako laukoak⁶⁴ (lehendabiziko formulatan bost distiko –hamar baitira «manamenduak»–, eta bigarrean lau⁶⁵).

Baina ereduari dagokiona argitutakoan, berehala erantsi behar da Haranbururen bertso horiek agian beste nonbait izan zutela benetako inspirazioa. Okzitanian hedatua zen «La Forme de faire le Prosne, pour tous les Curez & Vicaires de ce Royaume» delakoan (Milhard 1603, 543-549)⁶⁶, adibidez.

1603an kaleratutako liburuxka hark bertso-ereduan ematen dituen bi formula bakarrak Haranburuk bertsoan eskainitako berberak dira. Are gehiago: nagusiki geroaldiko aditz-amaieraz (-[e]ras) eta aditzondo-bukae-raz (-ement) errimatutako 7a/8b serie luzeko pieza hauek oso oihartzun nabarmena dute, ustez, saratarrarenetan. Testu-konkordantziak mintzo⁶⁷:

qu'il s'apprenne mieux, & que mieux se retienne./ Que la libre Oraison: Pource t'ay-je donné./ En ces Quatrains François, la Doctrine Chrestienne» (Coysard 1608, 6).

⁶³ Badirudi itzal handia izan zuela Sarako bikarioak Haranbururengan. Edo hori da bederen datu hauek islatzen dutena: Harizmendi da liburuak daramatzen laudoriozko bertso bakar horien egilea; bigarren edizioa paratzerakoan ere, ordurako Haranburu zahar, gaixo eta ezindua («hemen gara, flaco eta nigarti bainan ecin balia oinez, eskuez ez eta bertce partez, norbaitec urricalduric baicen ezquindezque ibil ez bizi» [1690?eko ediziotik jaso]), hurbilekoren batek idatzi behar izan zion haren ordezkaintza-gutuna Salbat Ihartzte gotzainari, agian Sarako bikarioak berak; hil eta gero ere, Harizmendik hartu zuen frantziskotarraren liburua moldatzeko eta errotik berritzeko ardura, etab.

⁶⁴ Beste baterako utzi liteke bertso horien «aitatasuna» Harizmendiri egotzi ote dakioken planteatzen duen hipotesia. Eta baita, noski, ondoko edizioetan agertutako beste zenbaiten auzia ere, besteak beste, Oihenarten ustez (1665, 23) Haranburuk berak onduak ziren *Zazpi salmo penitentzialak* izenekoena.

⁶⁵ Kasu honetan «Eliçaren manamenduak» zertxobait behartuz eta, distikoa osatu ahal izateko, lerro kontzeptualki huts bat gehituz, bakoitia baitzen berez formulari zegozkion bertso-lerroen kopurua (bost agindu eta bi debeku, alegia; zazpi, orotara).

⁶⁶ Berdintsua da [1616] 1621eko *Formulaire de Prosne, pour tous les recteurs et vicaires de la Cité & Diocese de Tolose* lana.

⁶⁷ Aldaketa ñimiño batzuk gorabehera, berdina dira 1603 eta 1621eko frantseseko bertsoiak. Bestalde, proposatzen den erkaketa errazteko, Haranbururen bertsoak –distiko itxurakoak– lauko

Les Commandemens de Dieu

1. Un seul Dieu tu adoreras,
Et aymeras parfaitement.
 2. Dieu en vain en iureras,
Ny autre chose pareillement.
 3. Les Dimanches tu garderas,
En servant Dieu devotement.
 4. Pere & mere honnoreras,
A fin que vives longuement.
 5. Homicide point ne feras,
De fait, ny volontairement [...]
- (Milhard 1603, 543-544)

Les Commandemens de l'Eglise

1. Les Dimanches Messe ouyras,
Et Festes de commandement.
 2. Tous tes pechez confesseras,
A tout le moins une fois l'an.
 3. Ton Createur recevras,
Au moins à Pasques humblement [...]
- (Milhard 1603, 544)

Hamar manamenduac

1. Iaincoric bat baicen,
ez secular adora.
 2. Behar gabe cinic,
eztaquiçun ahora.
 3. Igand'eta bestat [sic],
beira çatçu debotqui.
 4. Burasoac ondra,
vici çaiten lucequi.
 5. Obraz ezpa gogoz,
eztuçu nihor hilen [...]
- (Haranburu 1635, 8)

Eliçaren manamenduac

- Igande-bestetan,
ençunen duçu meça.
Ceure bekhatuac,
urthe oroz cofessa.
Errecibi çaçü,
- (Haranburu 1635, 9)

Argi da erraz ikasiak izateko eta oroitzeko frantses formula hedatuak zirela horiek⁶⁸ eta, ondorioz, Haranburuk ere tankera horretako «egokitzen» trinkotua eta hitz gutxikoa –euskal moldean, alegia– aurkeztu nahi izan ziela fededun euskaldunei. Ahaztu gabe, jakina, haren bertso-lerroren batek, ordurako euskaldunen artean ezagunak ziren Etxepare edo Etxeberriren bertsozko lanen argitan egina dirudiela⁶⁹.

bilakaturik eskainiko dira ondoko lerrootan.

⁶⁸ Praktika eklesiastikoan zeharo finkatua zegoen aztura baten konstatazioa islatzen du 1607ko *Le Prosne de la Sainte Messe* izeneko liburuan agertutako bertso berdintsuak ere (ikus 15 eta 16. orriak).

⁶⁹ Hamar aginduetako laugarrena, esaterako: «Eta burassoac ondra bici adin lucequi» (Etxeberri [1627] 1669, 201). Edo Etxepareren liburua bitartez ikasiak diruditen hauek: «Ygandiac eta vestac sanctifica devotqui/ Ayta eta ama ohora içac vici yçan lucequi» (Etxepare 1545, z.g.). Gogoan har, gainera, Etxepareren bertso-lerro bi hauen azken hitz errimatuek zuzen eta zegokien tokian aurkitu zutela aterpea Haranbururenean.

H) Hizkuntzaren esparruko ohar bat, azkenik. Ortografia⁷⁰ eta kasuen⁷¹ eta adizkien⁷² erabileraren hautemate desberdinetik hasita, lexikoaren esparrutik⁷³ igarota eta aditz-izenaren objektuari kasua eranstea erakusten duten dibergentziataraino⁷⁴, euskararen trataera ere estilo propioa islatzen dute autore biek, nahiz eta irakurleari harrigarri samarra egin dakioken haien arteko aldea, batik bat, Saran zutelako biek hizkuntz jatorria⁷⁵, garai-kide eta, urte zenbaitetan behintzat, baita herrikide ere izan zirelako, eta, hori gutxi bailitzan, bi-biek ibili behar izan zutelako ordurako hizkuntz estilistaren ospea zuen predikari –geroago, idazle– baten itzalpean. Halere, nork bere hautuak eta jokamoldeak erakutsi nahi izan zituen idatzizko lanean.

⁷⁰ Materrek «b» (bici), «ts» (erakuts), ...; Haranburuk, berriz, «v» (vici), «x» (eracux), etab.

⁷¹ Genitiboaren erabileran Materrek: «arimaco obrac»; Haranburuk: «arimaren obrac». Harridurazko perpausetan «A!» du Materrek gogoko hizki; Haranburuk, aldiz, «O!» (salbuespen bakarren bat kenduta, hots, Materreri hitzez hitz kopiatzen dionetan; «A! Caritate handia», esaterako [Haranburu, 312; Materre, 215]), etab.

⁷² Materrek, salbuespenik gabe, «deraUzquitçu/-t/-gu»; Haranburuk, batez ere, «derazquitçu/-t/-gu» (60 bat aldiz) eta gutxiago, «deraUzquitçu/-t/-gu/-te» (30 bat aldiz).

⁷³ Otoitzen latinezko izenburuak gorabehera, «dotrina»ren atalean erraz antzeman daiteke aski joera «garbizalea» erakusten duela Materrek lexikoaren esparruan. Mailegu bat oso finkatua eta hedatua egon arren, Materre, garaiko gainerako *dotrinetan* ez bezala, bereziki ahaleginduko da euskal ordain batez ezabatzen. Otoitzen amaierako «amen» hitzaren orde, esaterako, «biz hala» erabiltzen du sistematikoki frantziskotarrak.

⁷⁴ Materrek aditz-izenaren objektua genitiboz eman ohi duen bitartean («Tristeen kontsolatzea»), Haranburuk gutxitan baino ez darabil («Tristean kontsolatzea»). Aitortu behar da, halere, ez batari ez besteari ez zaiela bestelakorik ere falta, hots, «*laincoari gueure becatuen ezagutceco argui eta garacia escatcea*» (Materre, 308) eta «*çure laudatcea da gure eguimbidea*» (Haranburu, 370-371).

⁷⁵ Sarako euskara erabiliko duela dio Materrek: «[...] nec [sic] hitzcuntça hunetan daquidana Saran ikassia dudala, eta hango Euskara ongui erabiltcen ba-dut ez naicela gaitz erraiteco, eta ez arbuyatceco, ceren ez paitaquit nic hangoa baicen[...]» (z.g.: xiv-xv). Herri bereko hizkera garbia erabiliko duela esaten du Haranburuk ere: «[...] bercela eguinic laudorioac baino neure herrico minçaiaz eguinic baiac gogoticoago pairatuco ditut, halacotz *ezteçala nihorc mirex baldin nahastecatuqui minço expanaiz [...]*» (e2, ifrentzua – [e3]; gurea da letra etzana).

Bibliografia

ANONIMO, 1607, *Le Prosne de la Sainte Messe. Reduict a sa forme ancienne. Receué et observée en la Sainte Eglise Catholique Apostolique, & Romaine*, Tolosa (Okzitania), I. Colomiez eta R. Colomiez.

———, 1616, *Rituel ou Ceremonial Romain dressé et mis en lumiere par le commandement de N.S.P le Pape Paul V. Avec quelques exhortations & rubriques convenables à l'administration des Sacremens avec un Sommaire de la Doctrine Chrestienne & des exemples accomodez aux matieres qui y sont contenues*, Tolosa (Okzitania), R. Colomiez.

———, 1617, *Traicté tres-utile de la devotion envers la Vierge Marie, traduit et enrichy par un Pere de la Compagnie de Jesus*, (4. ed.), Tolosa (Okzitania), Vesve de J. Colomiez.

———, [1616] 1621, *Formulaire de Prosne, pour tous les recteurs et vicaires de la Cité & Diocese de Tolose*, Tolosa (Okzitania), R. Colomiez (orrialde-zenbaketa propioa duen edizioa, 1616ko *Rituel ou Ceremonial Romain* liburuaren eranskin gisa kaleratua).

———, [1616] 1621, *Sommaire de la Doctrine Chrestienne*, Tolosa (Okzitania), R. Colomiez (orrialde-zenbaketa propioa duen edizioa, 1616ko *Rituel ou Ceremonial Romain* liburuaren eranskin moduan kaleratua).

ARCOCHA-SCARCIA, A. eta OYHARÇABAL, B., 2009, «XVII. mendea: Iparraldeko euskal letren garapena eta edizioa», in M.J. Olaziregi (zuz.), *Euskal Literaturaren Historia* (<http://www.basqueliterature.com/basque/historia/klasikoa/XVII.%20mendea>).

AXULAR, 1643, *Gero*, Bordele, G. Millanges.

BAILE, G., 1620, *Contre-poison et préservatif contre les erreurs des pretendus réformés*, Bordele, S. Millanges.

CROYSSARD, M., 1608, *Sommaire de la Doctrine Chrestienne, mis en Vers François, avec les Hymnes, & Odes spirituelles, qu'on chante devant, & après la Leçon d'icelle* (4. edizioa), Lyon, Iean Pillehotte.

ETXEBERRI, J., [1627] 1669, *Manual devotioñezcoa, edo ezperen oren oro escuetan errabiltzeco liburutchoa*, Bordele, I. Mongiron Millanges.

ETXEPARE, B., 1545, *Linguae Vasconum Primitiae*, Bordele, F. Morpain.

GARCÍA SUÁREZ, A., 1970, «¿El 'Catecismo' de Bartolomé de Carranza, fuente principal del 'Catecismo Romano' de San Pío V?», *Scripta Theologica* 2, 341-423.

HARANBURU, J., 1635, *Debocino escuarra*, Bordele, P. de la Court.

———, [1690?], *Debocino escuarra*, [Bordele, P. de la Court].

HARIZMENDI, C., 1660, *Ama Virginaren hirur Officioac. Latinean beçala escaraz*, Bordele, G. de la Court.

LEIZARRAGA, J., [1571] 1990, *Jesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria. Kalendrera. Abc* (Th. Linschmann eta H. Schuchardt-en 1900eko *I. Leicarragas Basische Bücher von 1571* edizioaren faksimilea), Bilbo, Euskaltzaindia.

MATERRE, E.. 1623, *Dotrina christiana*, Bordele, J. Millanges.

MILHARD, P., 1597, *La Vraye Guide des Curez, Vicaires & Confesseurs*, Tolosa (Okzitania), R. Colomiez.

———, 1603, *La Vraye Guide des Curez, Vicaires & Confesseurs*, Tolosa (Okzitania), I. Canut, R. Colomiez, H. Mareschal, A. Robert.

MURCIA, J. B. J. de, 1718, *Luz Serafica de la Venerable Tercera Orden de Penitencia de Nuestro Serafico Padre San Francisco*, Valencia, Vicente Cabrera.

OIHENART, A., [1665] 1967, *L'Art Poétique Basque*, Baiona (P. Lafittek apailatua).

RESINES, L., 1997, *La catequesis en España. Historia y textos*, Madril, B.A.C.

RODRÍGUEZ, P., 2009, «El Catecismo de Carranza y el Catecismo Romano», *Anuario de Historia de la Iglesia* 18, 137-165.

SALABERRI, P., 2000, «Axularren testu-zorrak», *Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta* 84, 193-209.

———, 2001, «Gai-harilkatzea eta testu-kidetasunak Geron», *Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta* 87, 257-306.

———, 2005, «Axular Jekyll, Axular Hyde», in P. Etxeberria eta H. Knörr (ed.): *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia*, Iker 17, Bilbo, 413-430.

———, 2007, «Materren 1623ko *Dotrina Christiana*», *Euskera* 52, 773-786.

———, 2009, «Kalendrera, edo ortodoxia erreformistarekiko talka», *Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta* 111, 281-321.

VINSON, J., 1984, *Bibliographie de la Langue Basque (Volumenes I y II)*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia (1891eko *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque* eta 1898ko *Complément et Supplément* liburuen edizio bateratua).

———, 1905, «Notes de bibliographie basque. Le Livre du P. Materre», *Revue de Linguistique et de Philologie comparée* XXXVIII, 218-237.

XARRITTON, P., 1999, «*Deboçino escuarra, miraila eta oraciotegua* (1635). Liburu zahar eder baten historia nahasia», *Litterae Vasconicae. Euskeraren Iker Atalak* 7, 97-124.

Eranskina

Gartha demboraz.

Gartha demboretan Aste-azquena
orcilarea eta larunbata barurtu behar
dira. abendoaren heren igandearen
ondoan; Gariçumaren hurren astean
[...] (Haranburu, z.g.).

Noiz nor ecin esposa daiten

Abendoaren lehen Igandetic
trofaniaraino eta hauste egunetic
bazco çaharreraino concilioz debecu
dira ezteiqueitac (Haranburu, z.g.).

ELIÇAREN MANAMENDUAC

[...] Laugarrena: Gartha demboretan,
Vigilietan, eta Gariçuman (balain
traburic ezpadugu) barur gaitecila»
(Materre, 10).

[...] baditu Eliçac bi debeku.

Bata da, Orcilare larumbatetan
haraguiric ez iattea.

Eta bertcea, Abendoaren lehenbico
Igandetic Trofaniaraiño, edo
Erregueen eguneraiño, eta hauste
egunetic Bazco çahar arteño ezteyric
ez eguitea, espos Meçaric ez ençutea
(Materre, 10-11).

*Iaincoac berac bere Apostoluei iracaxi
ceraien othoitça*

Gure Aita ceruetan çarena, erabil bedi sainduqui çure Icana. Ethor bedi çure erresuma. Eguin bedi çure borondatea, ceruan beçala lurrean ere. Iguçu egun gueure egunorozco oguiia. Eta barkha diatçagutçu gueure faltac guc gure gana falta dutenei barkhatcen derauztegun beçala. Eta ezcaitça- tçula utz tentamendutan erortera: Aitcitic beguira gaitçatçu gaitcetic. Biz hala (Haranburu, 3-4).

Aingueruaren salutancia

Agur Maria garaciaz bethea, Iauna da çurequin, benedicatua çara emazten artean, eta benedicatua da çure sabeleco fruitua, Iesus. Maria Saindua Iaincoaren Ama eguiçu othoitz gu beccatoreoc gatic orai eta gure heriotceco orenean. Biz hala (Haranburu, 4).

PATER NOSTER

Gure Aita ceruetan çaudena, erabil bedi sainduqui çure icena; ethor bedi çure erresuma: eguin bedi çure borondatea, cerüan beçala lurrean ere: Iguçu egun gure eguneco oguiia; eta barka diatçaguçu geure çorrac, guc gure gana çordun direnei barkacen derauztegun beçala: Eta ez-caitçaçula utz tentamendutan errortcera: aitcitic beguira gaitçaçu gaitcetic. Biz hala Salbatçaillea (Materre, 1-2).

AVE MARIA

Agur Maria, garaciaz bethea, Iauna da çurequin: benedicatua çara emazteen artean, eta benedicatua da çure sabeleco fruitua, Iesus. Maria saindua, Iaincoaren ama, eguiçu othoitz gu bekatoreoc gatic, orai eta gure heriotceco orenean. Biz hala salbatçaillea (Materre, 2-3).

Articulu fedezcoac

Sinhesten dut Iainco Aita bothere guztia duena baithan, ceruaren eta lurraren eguilean, eta Iesu Christo haren seme bakoitz gure Iauna baithan: cein concebitu baitcen Espiritu Sainduaren Verthutez, sorthu cen Maria Virgina ganic: pairatu çuen Poncio Pilatusen manuaren azpian, gurutcean itçatu çuten; hil cen, eta ehorci çuten: iauxi cen Ifernuetara iaiqui cen hirugarren egunean viciric hilen artetic: igan cen ceruetara. Iarriric dago Iainco Aita bothere guzia duenaren escuineco aldean: Handic ethorrico da hilen eta vicien iuiatcera. Sinhesten dut Espiritu saindua baithan, Eliça Catholica Saindua, sainduen partaletasuna, bekhatuen barkhamendua, haraguiaren piztea, seculaco Vicitcea. Hala da (Haranburu, 5-6).

CREDO IN DEUM

Sinhesten dut Iainco Aita bothere guztia duena, cerüaren eta lurraren eguilea baithan. Eta Iesu-Christo haren seme bakoitz gure Iauna baithan, cein concebitu baitcen Espiritu sainduaren obraz, sorthu cen Maria Virgina ganic: pairatu çuen Poncio Pilatusen manuaren azpian, crucificatu çuten, hil cen, eta ehorci çuten: iautsi cen ifernuetara: iaiqui cen biciric hirugarren egunean hilen artetic: ikan cen cerüetara, iarriric dago Iainco Aita bothere guztia duenaren escuiñeco aldean: handic ethorrico da hilen eta bicien iulgatcera. Sinhesten dut Espiritu saindua baithan, Eliça Catholica saindua, Sainduen partaletasuna, bekatuen barkamendua, haraguiaren piztea, bethiere iraunen duen bicitcea. Hala da salbatçaillea (Materre, 3-5).

Andre Virginari Othoitça.

Agur errequina, misericordiaren Ama, Vicitcea, eztitasuna, eta gure esperança. Agur çure gana gaude oihuz euaren seme desterratuoc: çure gana gaude haxbeherapenez ayez eta nigarrez nigarrezco haran hunetan: ea bada gure arartecoa, ceure begui misericordiazco horiec itçul itçatçu gure gana. Eta Iesus benedicatua çure sabeleco fruitua eracux diaçaguçu desterru hunen ondoan. O bihotz bera! ô Vrricalmenduxua! ô Maria Virginia ezta. Biz hala (Haranburu, 6-7)

Hirur bertute Theologalac.

Fedea, espezança, caritatea (Haranburu, 23).

Laur vertute cardinalac.

PRudencia, Iusticia, Temperancia eta bortistasuna (Haranburu, 24).

Eliçaco çazpi Sacramenduac.

1. Bathaioa,
2. Confirmacinoa,
3. Gorputz saindua,
4. penitencia,
5. oliadura edo Anuncioa,
6. ordena edo Apeztasuna,
7. Ezconça (Haranburu, 24).

SALVE REGINA.

Agur Erreguina misericordiaren ama, bicitcea, eztitasuna, eta gure esperança agur. çure gana gaude oihuz Euaren seme desterratuoc: Çure gana gaude hatsbeherapenez, ayez, eta nigarrez nigarrezco haran hunetan. Ea bada gure arartecoa, çure begui misericordiazco horiec itçul itçatçu gure gana: Eta Iesus benedicatua çure sabeleco fruitua eracuts diaçaguçu desterru hunen ondoan. A bihotz bera, a vrricalmendutsua, a Maria virgina ezta (Materre, 5-6)

VERTHUTEAC

[...] Theologalac dira, Fedea, Esperança, eta Caritatea.

Cardinalac dira, Prudencia, Iusticia, Temperancia, eta Borthitztasuna (Materre, 18)

SAGARAMENDUAC.

Eliçaco Sagaramendu sainduac dira çazpi.

1. Bathayoa.
2. Confirmacinoa.
3. Gorputz saindua.
4. Penitencia.
5. Oliadura, edo Anuncioa.
6. Ordena.
7. Ezcontça (Materre, 17).

Espiritu sainduaren çazpi dohaiñac.

1. Cuhurcia,
2. Adimendua
3. Conseillua,
4. Bortiztasuna,
5. Iaquintasuna,
6. Pietatea,
7. Iaincoaren beldurtasuna (Haranburu, 25).

Çazpi bakhatu mortal buruçaguiac.

Bekatu mortal buruçaguiac dira çazpi.

1. Vrgultutasuna,
2. Auaricia,
3. emacoitasuna,
4. Imbidia,
5. Gormandiça,
6. colera,
7. naguitasuna» (Haranburu, 26).

*ESPIRITU SAINDU*Aren dohaiñac.

Espiritu sainduaren dohaiñac dira çazpi.

1. çuhurçia.
2. Adimendua.
3. Conseillua.
4. Borthitztasuna.
5. Iaquintasuna.
6. Pietatea.
7. Iaincoaren Beldurtasuna (Materre, 23-24).

BEKATU MORTAL buruçaguiac.

Bekatu mortal buruçaguiac dira çazpi.

1. Vrguillutasuna.
2. Auaricia.
3. Haraguizco bekatua, edo emakhoitasuna.
4. Imbidia.
5. Gula, edo sabeldarrayotasuna.
6. Hasserretassuna.
7. Naguitasuna (Materre, 26-27)

OHARRA Materren *BEKATU MORTAL buruçaguiac* [...] *Çazpi bekatu mortalen erremedioac* delakoaz (27-28 or.):

Nabarmena bezain ezaguna da 1623ko edizio honetako akatsa. Ez editorea ez zuzentzaileak ez bide ziren ohartu 28. orrialdean, lerro pare bat edo ezabatutik uztean, «naguitasunaren» bekatu buruzagiari zegokion erremedioa ematen zitziola «hasserretassunaren»-ari eta, azken batean, oker hartaz gainera, erremedio eta bekatu mortal baten faltan geratu zela atal garrantzitsu hura. Parentesi barnean jarritakoa falta zaio Materrenari: «6. Hasserretassunaren contra, [*Paciencia*. 7. *Naguitasunaren contra*] Diligencia, erne eta iratçarri içaitea».

Hauquen contraco çazpi verthuteac.

1. Humiltasuna,
2. liberaltasuna,
3. castitea,
4. onheriztea,
5. sobretasuna,
6. paciencia,
7. deliencia espirituala edo debocinoa (Haranburu, 26-27).

Gorputceco çazpi obra misericoriazcoac.

1. Gosse dena bazcatcea,
2. egarri denari edatera emaita,
3. erromerian dabilçanac eta berce beharrac ostatatcea,
4. billuçak beztitcea,
5. eriac, Carcelecoac eta berce beharrac hautemanic consolatcea,
6. Gathibuac atheratcea,
7. hilac ehortztea (Haranburu, 28).

BEKATU MORTAL *buruçaguiac.*

- [...] *Çazpi bekatu mortalen erremedioac.*
 Çazpi bekatu hauquen contra badira çazpi erremedio.
 1. [...] humiltasuna.
 2. [...] liberaltasuna.
 3. [...] castitatea, emaztataric apart egoitea.
 4. [...] soberania.
 5. [...] Abstinencia, neurritz iattea eta edatea.
 6. [...] Diligencia, erne eta iratçarri içaita (Materre, 27-28) (ikus amaierako oharra).

OBRA MISERICORDIAZCOAC

- [...] *Gorputçecoac dira hauc.*
 1. Gosse denari iattera emaita.
 2. Egarri denari edatera eskentcea.
 3. Erromerian dailçanen, eta bertce beharren osatatcea.
 4. Bilucien bestitcea.
 5. Erien eta garcelan daudenen visitatcea, hautemaita, eta consolatçea.
 6. Gathibuen libratcea eta atheratcea.
 7. Hilan ehortztea (Materre, 20-22)

Arimaren gazpi obra misericordiazcoac.

1. Eztaquienari irakhastea,
2. huxeguleac corregitcea,
3. beharrei conseillu ona emaita,
4. Tristeac consolatcea,
5. Bidegabeac pacienqui pairatcea,
6. offensac barkhatcea,
7. Viciac gatic hilac gatic eta gaizqui eguiten deraucutenac gatic othoitz eguitea (Haranburu, 29)

OBRA MISERICORDIAZCOAC.

[...] Arimaco gazpiac dira hauc.

1. Eztaquienari eracustea.
2. Bekatorearen corregitcea eta cençatcea.
3. Beharrea dagoenari conseillu onaren emaita.
4. Tristen consolatçea.
5. Bide-gabeen pacientqui pairatcea.
6. Gaizqui egulei barkatcea.
7. Bicien gatic, hilen gatic, eta gaizqui eguiten deracutenac gatic othoitz eguitea (Materre, 20-21)

Corci dohaxutasunac

1. Dohaxu dira gogoz eta Borondatez pobre direnac: ecen hequençat da ceruetaco erresuma.
2. Dohaxu dira emeac eta mansoac: ecen lurra beretuco dute.
3. Dohaxu dira nigarrez daudenac: ecen consolatuac içanen dira.
4. Dohaxu dira gosse eta egarri direnac: ecen assesiatuac içanen dira.
5. Dohaxu dira misericordiazcoac: ecen ardiexico dute misericordia.
6. Dohaxu dira bihotz garbiac dituztenac: ecen icusico dute Iaincoa.
7. Dohaxu dira baquezcoac: ecen Iaincoaren Vme deituco dira.
8. Dohaxu dira ungui eguitea gatic nequeac daramatcitenac: ecen hequençat da ceruetaco erresuma (Haranburu, 29-31)

ÇORTCI DOHAT*sutassunac.*

Cortci presuna suerte dohatsu direla erraiten du gure Salbatçailleac bere Euangelioan, eta baitira hauc.

1. Gogoz eta borondatez probe direnac
2. Presuna emeac eta mansoac.
3. Nigar eguiten dutenac.
4. Iusticia gosse eta egarri direnac.
5. Misericordia eguiten dutenac.
6. Bihotcez jahu direnac.
7. Presuna baquezcoac.
8. Iusticia gatic persecucioneac eta trabaiuac pairatcen dituztenac (Materre, 24-25)

*Espiritu sainduaren contraco sei
bekhatuac.*

1. Obra onic eguin gabe salbatuco dela ustatcea, edo penitenciaric eguin gabe barkhamendu içaitera presumitcea.
2. Iaincoaren misericordiaz exitcea eta desesperatcea.
3. Hobequi bekhatu eguitea gatic eguia eçagutuaren contra ioaitea.
4. Berceren ontasun espiritualaz damu harcea.
5. Bekhatutan ixutucuric eta gogorturic egoitea.
6. Bere bekhatuan eta penitencia gabe hilcea
(Haranburu, 31-32)

O Maria Virgina loriaz bethea, aitaren alaba, semearen ama, espiritu sainduaren esposa, Trinitate sainduaren egoitça sacratua [...] (Haranburu, 69-70)

Cofessa aicineco othoitça (Haranburu, 186)
[...] çure maiestatea gana [...] (Haranburu, 186)
[...] ni ardi errebelatua [...] (Haranburu, 187)
Biz hala (Haranburu, 198)

*ESPIRITU SAINDUAREN contraco
bekatuac.*

[...] dira sey.

1. Iaincoaren misericordiaz etsitcea eta desesperatcea.
2. Obra onic gabe salbatuco dela vste içaitea eta presumitcea.
3. Eguia iaquinaren eta ezagutuaren contra ioaitea.
4. Bertceren ontassun espiritualaz damu hartcea.
5. Bekatutan itsuturic eta gogorturic egoitea.
6. Azquen finean penitenciaric eguin gabe bekatu mortaletan hiltcea
(Materre, 28-29)

Cu çara Aita cerucoaren alaba, haren semearen ama Espiritu Sainduaren esposa, Iaincoaren etchea [...] (Materre, 287).

Cofessatu baiño lehen erraiteco Othoitça (Materre, 223)
[...] çure maiestatearen aicinean [...] (Materre, 223)
[...] ardi errebelatua beçala aldaratu naiz [...] (Materre, 225)
Biz hala (Materre, 237)

<p><i>Cofessa ondoco othoitça</i> (Haranburu, 195) [...] esquerrac eta laudorioac derauzquitçut [sic] [...] (Haranburu, 196) Biz hala (Haranburu, 198)</p> <p><i>Errecibi aiticineco Othoitça</i> (Haranburu, 198, 206) Biz hala (Haranburu, 200)</p> <p><i>Errecibi ondoco othoitça</i> (Haranburu, 213, 216, 219, 222, 224, 227) Esquerrac eta laudoriac [sic] derauzquitçut [sic], ô Iaun pietate-duna [...] (Haranburu, 219) Biz hala (Haranburu, 216, 219, 221, 224, 227, 231)</p> <p><i>Parabisuco saindu guciei othoitça</i> (Haranburu, 260) [...] çuec Iaincoaren laudori eternaletan añhitz loria, bozcario eta axeguin seculacotz seguratuqui dastatcen duçue Aisia handian: Oraino gu bekhatore pobreoc desterruan vici gara [...] (Haranburu, 261)</p>	<p><i>Cofessatu ondoan eguiteco Othoitça</i> (Materre, 238) Esquerrac eta laudorioac emaiten derauzquitçut [...] (Materre, 238) Biz hala (Materre, 246)</p> <p>Gorputz Saindua errecibitu baiño lehen eguiteco <i>Othoitça</i> (Materre, 246) Biz hala (Materre, 257)</p> <p>Gorputz Saindua errecibitu ondoan eguin behar den <i>Othoitça</i> (Materre, 258) Esquerrac eta laudorioac emaiten derauzquitçut, neure Iangoicoa [...] (Materre, 258) Esquerrac eta laudoriac [sic] errendatçen derauzquitçut [...] (Materre, 196) Biz hala (Materre, 268)</p> <p>Parabisuco Saindu guztiei eguiteco <i>Othoitça</i> (Materre, 299) Cuec seguratu duçue çuen salbamendua, baiña gu ikaraz gabilça, ici eta beldur gara [...] (Materre, 300)</p>
--	---

Eliçan sarcean.

O Iauna, ô verthuten Iaincoa! [...] ni ere heldu naiz etche saindu hunetara çu laudatceco eta neure bihotz guciaz çu adoretceco borondate deliberatu batequin. Biz hala (Haranburu, 277-278)

Ur benedicatua harcean.

Garbi naçaçu, o Iauna, ceure garaciaren ihinçaz, eta elhurra baino churiago içanen naiz. Biz hala (Haranburu, 278)

Sacramenduaren aiticinean.

Adoratcen çaitut ahalic humilquiena Iesu Christo ene Iaunaren gorputz preciatua [...] sacramendu saindu hunetan estalia [...] çuc munduaren salbamendutan eguin duçun balentia handi hura gatic (Haranburu, 278-279)

Eliçan sartcen çarenean erraçu hunela.

Etche saindu hunutan sartcen naiz, Iainco handia, çure Maiestate saindua adoratu eta laudatu nahiz (Materre, 192)

Guero har eçaçu ur benedicatua, erraiten duçula.

Garbi naçaçu Iauna ceure garaciaren uraz, eta eguinen da ene arima elhurra beçain juri (Materre, 191-192)

[...] Guero ceiñaturik har eçaçu ur benedicatua (ohearen aldean behar baita eduqui) erraiten duçula. Garbi naçaçu Iauna ceure garaciaren uraz, eta eguinen da ene arima elhurra beçain juri (Materre, 181-182)

Guero belhaurico iarriric saluta eçaçu

Sagaramendu saindua erraiten duçula:

Adoratcen çaitut humilqui, Iesu-Christo ene Iaunaren gorputz preciatua, Sagaramendu horretan estaliric çaudena, ceren salbatu baituçu mundua ceure Passione sainduaz (Materre, 193)

Adoratcen çaitut humilqui [...] (Materre, 183)

[...] emaiten deratçut milla laudorio eta milla esquer [...] (Haranburu, 279) Esquerrac eta laudorioac derazquitçut [...]» (14 aldiz: Haranburu, 281-288)

Esquerrac eta laudorioac emaiten derauzquitçut [...] (Materre, 183, 238).
«Esquerrac eta laudorioac errenda derauzquitçut [...] (Materre, 196, 198, 200, 202, 203, 205).

Meça hastean.
Iaincoaren Amorioa nola baita neurriric gabea [...] bere Passione sainduaren orhoitçapen digne hunetan [...] gure gatic ordenaturic. [...] sacrificio haren merecimenduac ene gogora bitça meça saindu hunetan orduco verthutez ni behar beçala baliatzea gatic. Biz hala (Haranburu, 289)

Meça saindua nola baita sacrificioa gure Salbatçailleac berac bere heriotçe eta Passione Sainduaren orhoitçapenatan ordenatua [...] (Materre, 188)
[...] ceure Passione sainduaren orhoitçapenatan [...] ordenatu cenduena. [...] non Passione saindu haren fruituac eta merecimenduac ene arimaren gaiñean errecibi ditçadan Sacrificio hunen verthutez. Biz hala (Materre, 194-195)

Meça erraitean eta noiz nahi erraiteco mysterioac.
Iesu Christo ene salbatçaillea, esquerrac eta laudorioac errendatcen derazquitçut [...] issuri cenduen ceure odol preciatua gatic, eta othoitcez nagotçu [...] (Haranburu, 290-291)

Bigarren mysterioa.

Iesu Christo ene salbatçaillea,
 esquerrac eta laudorioac errendatcen
 derazquitçut, Getsemanico baratcean
 tristea odol icerditan ceneundela
 ceure gorputcetic issuri cenduen odol
 preciatua gatic; eta othoitcez nagotçu
 orduan sentitu cenduen tristecia
 handi hura gatic eta odol issurce
 haren balioa gatic othoi eman
 diaçadaçun neure bekhatuez halaco
 Vrriquimenduaren içaiteco garacia,
 non çure odolezco icerdi haren ordain
 nic ere dolore huxez issur deçadan
 neure beguietariç Vr eta nigar halaber,
 o Iauna, lehen beçala (Haranburu,
 292-293)

Laurgarren mysterioa.

Iesu Christo ene salbatçaillea,
 esquerrac eta laudorioac errendatçen
 derazquitçut, Pilatusen manuz harroin
 batequin lothuric açote colpez ceure
 gorputz sacratua soldaduec deseguin
 ceratçutenean issuri cenduen odol
 preciatua gatic. Othoitcez nagotçu
 orduco dolore handi hura gatic eta
 bilhatatce haren balioa gatic nahi
 duçun ene arima infernutic beguiratu
 (Haranburu, 294-295)

Lehen misterioa.

Iesu-Christo ene Salbatçaillea,
 esquerrac eta laudorioac errendatçen
 derazquitçut ceren Getsemanico
 baratcean gure gatic hain tristatu
 baitcinen, non othoitçez ceneundela
 odolezco icerdia çure gorputcetic
 ilquiric lurreraifño issuri baitcen.
 Othoitçez nagotçu odol preciatu
 haren baliotasuna gatic, eta çuc
 orduan sentitu cenduen tristecia handi
 hura gatic, eman nahi derautaçun
 halaco vrriquimenduaren neure
 bekatuez içaiteco garacia, non çure
 odolezco icerdi haren ordain issur
 deçadan nic ere dolore hutsez neure
 beguietariç vr eta nigar [...] (Materre,
 196-198).

Bigarren misterioa.

Iesu-Christo ene Salbatçaillea,
 esquerrac eta laudorioac errendatcen
 derazquitçut ceren ceure odol
 preciatua issuri baitcenduen noiz ere
 Pilatusen manuz harroin batequin
 lothuric, soldaduec çure gorputz
 sacratua açote colpez deseguin eta
 larrutu bait çuten. Othoitcez nagotçu
 odol preciatu haren balioagatic, eta
 çuc ordu hartan sentitu cenduen
 dolore handi hura gatic, nahi
 derauquidatçun neure bekatu guztiac
 barkatu eta hequen gatic merci
 ditudan gaztiguetaric ere nahi nauçun
 halaber libratu (Materre, 198-199)

Seigarren mysterioa

Iesu Christo ene salbatçaillea,
 esquerrac eta laudorioac errendatcen
 derazquitçut, soldaduec makhila
 colpez arance puntac heçurrean
 barrena sarthuric, eta arancezco
 Khoroz ceure buru benedicatua
 çaurthuric issuri ceitçun odol
 preciatua gatic. othoitcez nagotçu
 odol saindu haren causaz eta ordu
 hartan iragan cenduen dolore handi
 hura gatic nahi derataçun eman
 bihotcezo vrriquimendu bat eta
 vrriquimendu haren puntaz neure
 arima hain bortitzqui çaurthu, non
 eguiazco penitencia eguiten dudala
 loriazco Khoroa ardiex deçadan
 ceruco erresuman. Halaber
 (Haranburu, 297-298)

Bederatçigarren mysterioa.

Iesu Christo ene salbatçaillea,
 esquerrac eta laudorioac errendatcen
 derazquitçut, çuc Calvariaco mendian
 burdinazco ice handi batez ceure escu
 ezquerra gurutcearequin soldaduec
 itçatu ceratçutenean issuri cenduen
 odol preciatua gatic. Orhoitez
 nagotçu orduco martilu colpec eguin
 ceratçuten dolorea contutan [...] (Haranburu, 301)

Hirugarren misterioa.

Iesu-Christo ene Salbatçaillea,
 esquerrac eta laudorioac errendatcen
 derauzquitçut ceren ceure odol
 preciatua issuri baitcenduen noiz ere
 soldaduec arancezco khoroa çure
 buruaren gaiñean eçarriric, eta
 maquila colpez arance puntac
 heçurrean barrena sarthuric, çure buru
 benedicatua cilhatu eta çaurthu
 baitçuten inguru guztietan. Othoitcez
 nagotçu odol preciatu haren amore
 gatic, eta ordu hartan iragan cenduen
 dolore handi hura gatic, nahi
 derautaçun eman bihotcezo
 vrriquimendu bat, eta vrriquimendu
 haren puntaz neure arima hain
 borthizqui çaurthu eta cilhatu, non
 eguiazco penitencia eguiten daudala
 loriazco koroa ardiets deçadan ceruco
 erresuman (Materre, 200-201)

Bortzgarren misterioa.

Iesu-Christo ene Salbatçaillea,
 esquerrac eta laudorioac errendatcen
 derauzquitçut, ceren ceure odol
 preciatua issuri baitcenduen noiz-eta
 Calvariaco mendian soldaduec ceure
 escuac eta oiñ sacratuac itce lodiz eta
 borthitez gurutcean itçatu
 baitcerauzquitçuten. Odol preciatu
 haren baliotasuna gatic, eta orduan
 sentitu cenduen dolore handi hura
 gatic [...] (Materre, 203-204).

Hamargarren misterioa.

[...] Othoitzez nagotçu odol issuri haren balioa gatic eman diaçadaçcun halaco garacia [...]; hunetaracotz othoi ceure berdurtasunaren itceaz gorputçça eta espiritua itça diatçadatçu; eta halaco moldez lot eta ios naçaçu gurutcean, non ene desirapenen oiñac eztaitean behaztopa, aiticic çure borondatearen arauera bethi vici nadin. Halaber (Haranburu, 302-303)

Hamairurgarrena misterioa.

Iesu Christo ene salbatçaillea, esquerrac eta laudorioac errendatcen derazquitçut, çuc ceure gorputz sacratua soldaduec gurutcearequin batean alchatu ceratçutenean, escuetaco eta oiñetaco çauriac gorputçaren balençaz gaizcoaturic eta handituric issuri cenduen odol preciatua gatic. Odol preciatu haren merecimendua gatic eta çuc orduan pairatu cenduen dolore handi hura gatic, othoi eman diaçadaçu lureco gaucetaric halaco moldez apartatceco garacia, non cerucoëtara bethi espiritua alchatcen dudala, hetan eçar deçadan neure bihotça eta neure contentamendu gucia. Halaber (Haranburu, 305-306)

Bortzgarren misterioa.

[...] ceure odol preciatua issuri baitcenduen [...]. Odol preciatu haren baliotasuna gatic [...] itça diaçadaçu, othoi, neure gorputça eta espiritua ceure beldurtassunaren itceaz. Eta halaco moldez çurequin lot eta ios naçaçu gurutcean, non ene guthicia gaixtoen arauaz ez nadin guehiago bici, çure borondatearen baiçen (Materre, 203-205)

Seigarren misterioa.

Iesu-Christo ene Salbatçaillea, esquerrac eta laudorioac errendatcen derazquitçut ceren ceure odol preciatua issuri baitcenduen noiz-eta soldaduec çure gorputz sacratua gurutcean itçaturic ailtchatu baitçuten airean gora, eta haren pisutasunaz handitu eta gaizcoatu baitciren çure escuetaco, eta oiñetaco çauriac- Othoitzez nagotçu odol preciatu haren merecimendua gatic, eta orduan pairatu cenduen dolore handi hura gatic, nahi derautaçun eman lureco gaucetaric halaco moldez apartatceco garacia, non cerucoetara espiritua ailtchatcen dudala, hetan eçar deçadan neure bihotça eta contentamendu guztia (Materre, 205-207)

Habamorzarren mysterioa

Iesu Christo ene salbatçaillea,
esquerrac eta laudorioac errendatcen
derazaitçut, Cuc ceure saihexetic
Longis soldaduac bere dardoaren
puntaz çu gurutcean hilez gueroz
cilhatu cinituenean issuri cenduen
odol preciatua gatic. Orduco odol
issurce balioso hura gatic çaurt
diaçadaçu othoi neure arima ceure
amorioaren dardoaz eta sar naçaçu
parabisuco lorian, ceinen athea idequi
baitcenduen ceure saihexetic ceure
odol preciatua issurtean. Halaber..
Pater, Ave, Credo, Gloria Patri,
Requiem (Haranburu, 308-309)

Çazpigarren misterioa.

Iesu-Christo ene Salbatçaillea, esquer
eta laudorio derautçut ceren ceure
odol preciatua issuri baitcenduen noiz-
eta gurutcean hilez gueroz çure
saihetsa soldadu batec dardo puntaz
idequiric odola vrarequin athera
baitcerautçun. Odol preciatu hura
gatic çaurt diaçadaçu, othoi, neure
arima ceure amorioaren dardoaz eta
sar naçaçu Parabisuco lorian, ceñen
athea idequi bait cenduen ceure odol
preciatuaren saihetsetic issurteaz.
Pater noster: Ave Maria (Materre, 207-
208)

Aita Iaincoari othoitça, meça erraitean.
 Aita eternala! çure seme bacoitçaren
 passionea declaratcen da meçaco
 sacrificio hunetan, noiz-eta eliça
 sainduaren intencionearequin batean
 sacrificio benedicatu hunetan
 sacrificatçaille apez hunec gure
 bekhatuen satisfacinotan offrendatcen
 baiteratçu ceure seme Iauna
 gurutcean hoben gabe gure bekhatuac
 gatic itçatu çutena. Aita handia, hau
 da Bildox eme hura! Hau da çure eta
 gure artean baquea eçarri çuen
 Guiçona! Hau da hobenic gabe
 pairatu duen Iauna! Hau içan cen
 escuetan eta oinetan itçatua;
 arancezco Khoroaz buruan cilhatua;
 açote colpez larruturic çathicatu;
 burutic oinetaraino odolztatua; alde
 gucietaric penaz eta doloz inguratua;
 guztiz deseguina eta guiçonaren
 figuraric ezpa iduriric etçuena
 beçalacatu. Hau cegoen gurutcean
 burua beheitituric; beguiac cerraturic;
 beguitarte horituric; saihexa
 idequiric, bessoac çabalduric; çangoac
 hedaturic; çauriz betheric; [...] eta
 miembro guztietan terriblequi
 deseguinic. A! Caritate handia!
 Ontasun paregabea! Amorio
 miraculluzcoa! Hux eguiten du
 cerbitçariac eta haren partez pagatcen
 du Nabusiac. Guiçona
 gathibutasunetic libratcea gatic bere
 vicia emaiten du Iaincoaren semeac:
 hobenduriac mereci dituen gatziguac
 pairatcen ditu hoben gabeac.

Otoitça.
 Aita eternala cerüaren eta lurraren
 eguilea, offerendatcen derautçut Eliça
 sainduaren intencionarequin batean,
 ceure seme bacoitçaren Passionea,
 Sacrificio hunetan representatcen
 dena, gure becatu guztien
 satisfacinoetan. Beha eçaçu ceure
 Maiestatearen tronutic nor den nic
 presentatcen derautçudan haur, cer
 pairatu duen, eta noren gatic: Haur da
 çure seme hoben-gabe Gurutcean
 itçatu çutena. Haur da Sacrificatçaille
 eternala, baquezco sacrificioa
 Calvarioco mendian offerendatu
 derautçuna. Haur da Bildots notha-
 gabea, deusetan hutsic eguin gabe bere
 bicia galdu duena. Orhoit çaita nola
 içan cen escuetan eta oiñetan itçatua,
 arancezco coroaz burüan cilhatua,
 açote colpe hutsez larruturic çathitua,
 burutic oiñetaraino odolstatua, alde
 guztietaric penaz eta doloz
 inguratua, guztiz deseguina, eta
 guiçonaren figuraric edo iduriric ez-
 tuena beçala bilhacatu: Gurutcean
 nola cegoen burüa beheitituric,
 beguiac cerraturic, beguitarte
 horituric, saihetsa idequiric, bessoac
 çavalduric, çangoac hedaturic, çauriz
 betheric, eta bere miembro guztietan
 deseguinic [...] A Caritate handia!
 Ontasun paregabea! Amorio
 miracuilluzcoa! Huts eguiten du
 cerbitçariac, eta haren partez pagatcen
 du Iaunac: Gathibutasunetic
 guiçonaren libratcea gatic emaiten

Bekhaturic eguin eztuenac eta ecin eguin ere deçaqueienac hartu ditu bere gainera munduco bekhatu guztiac. Aita Iustua eta Aita pietatezcoa! Beha diaçoçu pietatezco obra handi huni: beha diaçoçu hunen baliotasunari: beha eçaçu cer eta cembat mereci duen çure aiticinean dolorezco heriotce harc. Hau da ahal datequeien offerendaric baliosena eta bai çure gogaracoena ere. Hau da çorraren pagamendua baino guehiago millatan pairatu duena. Ea beraz aita cerucoa, errecibi eçaçu sacrificio hau beguitarte onez, eta gueure indignetasuna gatic eztiagaçuula haren fruitua errefusa, aiticitic duçun othoi gure bekhatuen gainean misericordia eta pietate. Barkha diatçagutçu guc eguin ditugun huxac eta Khen diatçagutçu mereci ditugun gaztiguac.

O Aita eternala! Gomendatcen derazquitçut munduco estatuac eta necessitateac hala espiritalac nola temporalac. Gomendatcen deratçut Eliça Catolica ceure Esposa. Gomendatcen deratçut Aita saindua ceure Bicariora, Eliçaco berce Superioac eta Gobernariac. Gomendatcen deratçut gure erregue Iauna, Prince guiristinoac, herrietan cargu dutenac, gure haurrideac, ahaideac, adisquideac eta vngui-guile guztiac. Guehiago, ô Iauna, converti itçatçu bekhatoreac, consola itçatçu tristeac, senda itçatçu eriac,

du bere bicia Iaincoaren semeac: Hobenduriac mereci dituen gaztiguac pairatcen ditu hoben-gabeac: Eta becaturic eguin ez-tuenac hartu ditu bere gaiñera munduco becatu guztiac. Beha diaçoçu, Aita cerucoa, pietatezco obra handi huni, beha diaçoçu hunen baliotasunari: beha eçaçu cer eta cembat çure aiticinean mereci duten hain pena eta dolore handiec, cer mereci duen heriotce dolorezco harc, eta hequen verthutez barca diatçaçu gure becatuac, eta khen mereci ditugun gaztiguac. Haur da ahal datequeyen offerendaric baliosena, eta bai çure gogaracoena ere: Eta handic daducagu ecen gure çorraren pagatceco asco, eta are millatan guehiago ere ba-dela [...] Errecibi eçaçu bada, Aita cerucoa, offerenda haur beguitarte onez, eta duçun duçun othoi gure becatuen gaiñean misericordia eta pietate. Ez-tiaçaçuula Sacrificio hunen fruitua errefusa gure indignetasuna gatic [...] Hunequin batean gomendatcen derauzquitçut munduco estatu guztiac, eta necessitateac hala espiritalac nola temporalac. Eliça Catholica çure Esposa, Aita saindua çure Bicariora, Eliçaco bertce Superiorac eta Gobernariac, Gure Erregue Iauna, Prince Guiristinoac, herrietan cargu dutenac, gure haurrideac, ahaideac, adisquideac, eta ongui-eguale guztiac. Converti itçatçu becatoreac, consola itçatçu tristeac, senda itçatçu eriac,

fabora itçatçu beharrac, eta salbamenduco portura hel itçatçu ixasoan dabilçanac. Fede saindura ekhar itçatçu paganoac, bidera itçatçu errebelatuac, beguira gaitçatçu gaitcetaric: eman diaçaguçu gueure denboran baquea; eta guiristino fidelen arimac Purgatorioco penetaric athera itçatçu; finean eman diaçadaçu çure cerbitçu sainduan bethi empletatceco garacia, bicitce hunen ondoan parabisuco loria ardiestea gatic. Biz hala (Haranburu, 310- 316)

Marinelen debocinoa, eta lehenic goiceco gomendioa (Haranburu, 383)

Ichilic erraiten dira, baina laur hautçaz berceac ihardexica, eta bati bercec elkhar adi deçaqueten beçain gora ihardesten deraucatela (Haranburu, 388)

Bercetan non nahi beçambat ixasoan escu duzu Iainco guciz botherexua! Laudatcen eta ahal beçambat adoratcen dugu çure Maiestate saindua, esquerrac eta laudorioac emaiten derazquitçugula orai artean errecibitu ditugun ontasun guztiaç gatic eta beregainqui iragan gauëan peril gucietatic beguiraturic egun honen ikhusteco eman deracuçon garacia gatic [...] (Haranburu, 390-391)

fabora itçaçu beharrac, eta salbamenduco portura hel itçaçu itsasoan dabilçanac. Fede saindura ekar itçaçu Paganoac, jujen itçaçu errebelatuac, beguira gaitçaçu gaitcetaric, eman diaçaguçu baquea gueure demboran, eta Guiristino fidelen airmac athera itçaçu Purgatorioco penetaric. Eta finean eman diaçaguçu çure [...] çure cerbitçuuan empletatceco, non bicitce hunen ondoan ardiets deçadan Parabisuco loria. Biz hala (Materre, 212-222)

Marinelec nola eguin behar dituzten bere othoitçac itsasoan dabilçan demboran (Materre, 325)

Eta hauquen ondoan erran beça çuetaric batec appur bat gora eta haguiz orai hemen ibenico dudan othoitza (Materre, 327-328)

Iainco Iauna guciz botheretsua, huna [...] çure Maiestate sainduaren aiticinera, çor derautçugun ohorearen eta laudorioaren ahal beçanbat errendatcera. Adoratçen çaitugu humilqui gueure indar guztiaz [...] Esquerrac emaiten derauzquitçugu çure ganic orai artean errecibitu ditugun ontasun guztiez, eta beregainqui ceren ioan den gauëan peril guztietaric beguiratu baicaitutçu (Materre 328-329)

Bercetan non nahi beçambat ixasoan
 escu duzu Iainco guciz
 botherexua! (Haranburu, 390)
 [...] othoizten çaitugu, arren ceure
 itçalaren azpian faboratuac eduqui
 gaitçatçun (Haranburu, 391)

[...] eta eman diaçagaçu egungo
 egunean bekhatuic ez eguitedo
 dohaina guc eguinen, erranen eta
 pensatuco dugun gucia çure ohoretan
 eta laudoriotan guerthatcea gatic.
 Halaber gure ganic aldara itçatçu
 incuntru gaitz guciac [...] Benedica
 eçaçu gure lana [...] Iguçu çure
 amorioan eta çure berdurtasunean
 egun hunen iragaiteco garacia
 (Haranburu, 391-392)

Aingueru saindua Iaincoaren pietatez
 ene beguiratceco cargua hartu
 duçuna, argui diaçadaçu othoi egun
 hunetan, goberna naçaçu eta beguira
 gaitcetatic. Biz hala (Haranburu 393-
 394)

Aingueru saindua, Iaincoaren pietatez
 ene beguiratceco cargua hartu
 duçuna! gau hunetan otho[i] argui
 diaçadaçu, goberna naçaçu eta
 gaitcetic beguira. Biz hala (Haranburu
 398-399)

Iainco Iauna guztiz botheretsua,
 lurrean beçala itsasoan ere escu
 duçuna (Materre, 332-333)
 Fabora gaitçaçu bada ceure itçalaren
 azpian eçar gaitçaçu (Materre, 335-
 336)

[...] eguinen, erranen, eta pensatuco
 dugun guztia çure ohoretan eta
 laudoriotan guertha ditequeyen
 beçala. Ceure ontassuna gatic beguira
 gaitçaçu egungo egunean bekatu
 eguitetic: benedica eçaçu gure
 travaillua, eta iguçu çure
 beldurtasunean eta amorioan egun
 hunen iragaiteco garacia (Materre,
 330-331)

[...] beguira gaitçaçue incontru
 gaixtoetatic (Materre, 332)

Aingueru saindua, ene presunaren
 beguiratceco cargüa Iaincoaren
 pietatez hartu duçuna, argui
 diaçadaçu, othoy, gau hunetan;
 goberna naçaçu, eta beguira
 gaitcetatic. Biz hala (Materre 322)
 Eta çuec, o Aingueru sainduco gure
 beguiratceco eta gobernatceco [...]
 beguira gaitçaçue incontru
 gaixtoetatic. Biz hala (Materre, 331-
 332)

Iauna, çure escuetan gomendatcen dut neure arima: Iainco eguiatia rereditu nauçun beçala nitçaz contu eduqui eçaçu. Biz hala (Haranburu 394)

[...] othoitcez gagozquitçu [...] gau hunetan gomendiotan har gaitçatçun ceure hegaleen itçalaren azpian (Haranburu, 396)

Tormenta alchatcean othoiça
(Haranburu, 403)

O harmaden Iainco miragarria! Ençun gaitçatçu eta gueldi itçatçu haiceac, sossega uhinac, argui hodoiac, eder dembora, calma ixasoa, desequin Espiritu gaixtoaren indarra. Erakhux diaçaguçu ceruco arguia, Khen bihotceco tristura, eta ceure ance botheresuaz curaia diaçaguçu gueure espiritua; guc ere guere aldetic eztugu ahancico fabore hunen orhoitçapena; aiticic emendatcen garela çu laudatcea gatic eta lorificatcea gatic esquerrac emanen derauzquitçugu (Haranburu, 406-407)

Othoitz hunen aiticinean eta ondoan batçuec erran bitçate debotqui Virginaren Letharinac [...] (Haranburu, 407)

Cure escuetan eçarten eta gomendatcen dut, Iauna, neure arima: educaçu nitçaz contu, hala nola redemitu bainauçu, Iainco eguiati çarena. Biz hala (Materre 322-323)

[...] othoitcez gagozquitçu har gaitçatçun egun çure faborearen azpian (Materre, 331)

[...] eçar diatçaguçu othoi gueure arimac eta gorputçac ceure hegaleen itçalaren azpian, eta beguira gaitçaguçu gaurco periletaric (Materre, 342-343)

Itsasoan tormenta ailtchatcen denean erren behar diren Oracinoac (Materre, 354)

Salba gaitçaguçu, Iauna [...] Gueldi itaçu haiceac, sossega itçaçu uhinac, argui itçaçu hedoyac, clara eçaçu dembora, eder eçaçu itsasoa, desequin eçaçu espiritu gaixtoaren indarra, erauts diaçaguçu ceruco arguia, khien diaçaguçu bihotceco tristura, eta aleguera gaitçaguçu ceure consolamenduz. Orhoituco gara fabore hunetçaz bici garen egunetan, eta esquerrac emanen derauzquitçugu gueure ahal guztiaz» (Materre, 360-362)

«Ikus ba-deçaçue tormenta ailtchatcen dela itsasoan, iar çaitetzte belhaurico eta erran itçaçue Andre dana Mariaren Letharinac [...]» (Materre, 354)

Literatura Unibertsala bildumako hitzaurreen azterketa¹

Estudio de los prólogos de la colección *Literatura Unibertsala*

Etude de préfaces de la collection *Literatura Unibertsala*

An examination of the prologues of the *Literatura Unibertsala* collection

IBARLUZEA, Miren

Université Sorbonne Nouvelle-Paris 3, Paris – Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV)

Noiz jaso: 2014-03-26

Noiz onartua: 2014-04-28

¹ «Hitzaurrea *Literatura Unibertsala* bildumari» artikulu honen oinarrian dugu 2013ko uztailean Donostian EHUren XXXII. Uda Ikastaroetan egindako «Azkenaldian euskarara itzultitako literatura: bideak, joerak eta esperientziak» ikastaroaren barruan emandako hitzaldia. Orduan esandakoak osatu eta zabaldu dira hemen. Halaber, *Lapurdum* aldizkarian laster argitaratzekoa den «*Literatura Unibertsala* bildumaren bideak» artikuluaren osagarri da. Biak ala biak *Literatura Unibertsala* bildumaren azterketa zabalago baten bi piezatzat har daitezke. Bihoakie nire esker ona Mari Jose Olaziregi irakasleari, emandako aholkuengatik, eta Isabel Etxeberria eta Iñigo Roque adiskideei, orrazketa-lanengatik (testuan egon daitezkeen akats guztiak egilearenak dira, noski).

Literatura Unibertsala itzulpen-bildumaren paratestuen azterketan, nabarmentzekoa da liburuek itzultzaileak idatzitako hitzaurrea dakartela. Lan honetan bildumaren lehen bi aroetako 152 hitzaurreak aztertu ditugu, Genetteren (1987) eta Risterucci-Roudnickiren (2008) sailkapenei jarraikiz: hitzaurreon zenbait nolakotasun agerian jarri ditugu, bai eta itzultzaileen diskurtsoa aztertu ere, bildumaren azterketarako eta aurrerantzeko literatur itzulpen-lanen balizko hitzaurregileen bidelagun.

Hitz-gakoak: Itzulpen-ikasketak, Paratestuaren azterketa, Itzulpenen hitzaurreak, *Literatura Unibertsala* bilduma

Las traducciones literarias de la colección *Literatura Unibertsala* cuentan entre sus paratextos con un prólogo escrito por el traductor. En el presente artículo se analizan las 152 introducciones de las primeras dos etapas de la colección, en base a las clasificaciones de Genette (1987) y Risterucci-Roudnicki (2008). Se describen algunas de las características de los prólogos así como el discurso de los traductores, con el fin de analizar la colección y servir a futuros prologuistas de traducciones literarias.

Palabras clave: Estudios de traducción, Análisis paratextual, Prólogos de traducciones, Colección *Literatura Unibertsala*

Les traductions littéraires de la collection *Literatura Unibertsala* comportent dans leurs paratextes une préface écrite par le traducteur. Cet article analyse les 152 introductions des deux premières étapes de la collection et sert de base aux classifications de Genette (1987) et de Risterucci-Roudnicki (2008). Il décrit quelques-unes des caractéristiques des préfaces ainsi que le discours des traducteurs, afin d'analyser la collection et de servir à de futurs rédacteurs de préfaces de traductions littéraires.

Mots-clés: Etudes de traduction, Analyse paratextuelle, Préfaces de traductions, Collection *Literatura Unibertsala*

When the paratext of the collection of translations entitled *Literatura Unibertsala* is examined, the fact that the translations include a foreword written by the translator is worthy of note. The 152 introductions corresponding to the first two phases of the collection have been analysed, on the basis of the classifications established by Genette (1987) and Risterucci-Roudnicki (2008). Some of the features of the forewords have been highlighted together with the translators' discourse, with the aim of analysing the collection and of assisting future writers when providing forewords for collections of literary translations.

Keywords: Translation studies, paratextual analysis, translation forewords, *Literatura Unibertsala* collection

Sarrera

Literatur lanetako paratestuen azterketa baliagarri zaigu literatur sistema bera deskribatzeko. Itzulpenen paratestuen azterketan, nabarmentzeko ezaugarria da, hortaz, hitzaurrerik baden edo ez den aztertzea; izan ere, hitzaurreak itzulpen-sistemako arauak deskribatzeko ikergai gisa erabil daitezke Itzulpen Ikasketetan. Bada, *Literatura Unibertsala*² bildumako liburu guztiek hitzaurre bat daukate. Nabarmentzeko ezaugarria da hori, are gehiago hitzaurrea itzultzaileak berak idazten duela jakinda. EIZIE elkarteak Eusko Jaurlearitzaren laguntzarekin sustatutako LU bildumako hitzaurre gehienak itzultzaileak idatzitakoak dira, baina zergatik idazten dute itzultzaileek hitzaurrea? Zer diote itzultzaileek hitzaurreotan? Zer funtzio betetzen ote dute hitzaurreok? Zer ataletan banatzen dira? Nolakoak dira?

Askotarikoak dira bildumako hitzaurreak, eta aniztasun hori aletzen saiatuko gara artikulu honetan. Bildumaren lehen bi aroetako 152 hitzaurreak aztertu ditugu, Genetteren (1987) eta Risterucci-Roudnickiyren (2008) sailkapenei jarraikiz. Lan honen helburua LU bildumako hitzaurrei buruzko zenbait nolakotasun agerian jartzea da, bildumaren azterketarako eta baloraziorako material gisa, bai eta literatur itzulpenen etorkizuneko hitzaurregileen bidelagun zein itsuaurreko gisa ere.

Hitzaurrea paratestu: zer dio teoriak?

Genettek (1987) emandako definizioaren arabera, paratestua literatur testua bera inguratzen duten osagaien multzoa da: peritestua eta epitestua. Peritestua bolumenaren espazio berean ageri da; epitestua, berriz, bolumenetik kanpo (gehienetan euskarri mediatikoak izaten dira, baina pribatuak ere izan daitezke: kritikak, gutunak, publizitate-afixak...). Gurera etorrita, Euskaltzaindiaren *Literatur terminoen hiztegia* lanean honelaxe definitzen da paratestua (Jon Casenavek idatzita):

² Aurrerantzean: LU.

Testua aurkezten, inguratzen, mugatzen, mozten, tartekatzen, gehitzen eta bururatzen duten ezaugarri guztiek paratestua osatzen dute. Liburuaren izenburua, kapitulu eta atal nagusien izenburuak edo ezaugarriak, aurkibidea, estalkian dauden xehetasunak eta laburpenak, eskaintzak, epigrafeak edo agerian ezarriak diren beste hitz lerro motak, aitzinsolasak, eta ondoko solasak, artean emanak diren nota eta ohar multzoak, horiek oro paratestuan sartzen dira.

(2008: 629-630)

Paratestuaren eta, zehatzago esanda, peritestuaren parte da, beraz, hitzaurrea. Hitzaurre esateko darabiltzagu, halaber, *aitzinsolas*, *atariko*, *sarrera*, *sartaurre* zein *sarbide* terminoak. Zuberoako pastoraletan, esaterako, *aitzin pheredikü* darabilte. Gatozen berriz *Literatur terminoen hiztegia* lanera. Hone-laxe azaltzen dira bertan hitzaurrei buruzkoak *Aitzinsolas* sarreran (Patri Urkizuk idatzita):

Oro har, obra baten aurretik doan testua izaten da, egileak berak ala beste norbaitek hura aurkezteko idatzia. Greziar antzertian, koroaren lehen parte hartzearen aurretik egiten zen ekintza zatiari *prologos* deitzen zitzaion. Hitzaldi baten bidez, ekintza ongi ulertzeko garrantzizkoa zen informazioa aurreratzen zen eta, era berean, ikusleen integrazioa lortzeko eta ikuskizunarekiko distantzia gainditzeko beharrezkoa zen testua aurkezten zen. Hortaz, usadioz, aitzinsolasaren funtzioa gaia azaltzea edo kokatzea izaten da gehienguan.

(2008: 23)

Literaturan ikergai izaten dira sarri hitzaurreak, eta, hain zuzen ere, bi sarrerotan azaltzen zaigunez (ikus «paratestu» eta «aitzinsolas» sarrerak aipatu hiztegian), gurean gehien ikertu diren paratestuak izenburuak eta hitzaurreak dira. Zenbatetan ez ote da aipatu, aztertu eta baliatu, esaterako, Axularren *Geroko* «Gomendiozko karta» eta «Irakurtzailleari», edo, itzulpenaren alorrean, Leizarragak bere itzulpenari idatzitako aitzinsolasa. Paratestuei lotutako lanak dira, besteak beste, pare bat aipatzearen, P. Salaberriren *Euskal klasikoen atarian* (2004) liburua (hainbat euskal idazleren hitzaurreak biltzen dira) edo Beñat Oyharçabalek argitaratutako «Les pro-

logues auctoriaux des ouvrages basques des XVIe et XVIIe siècles»³ artikulua. Aiora Jakaren *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan* tesi-ikerketako 2. eta 3. kapituluak ere aipatzekoak dira⁴: 2. kapitulan, Sarrionandia baino lehenagoko euskal itzultzaileen itzulpenari buruzko gogoeta aztertzen da; eta 3. kapitulan, hain zuzen ere «3.1. Itzulpenari buruzko gogoeta Sarrionandiaren lanetan» atalean, ikergai den egilearen hitzaurreak aztertzen dira, itzulpenari buruzko diskurtsoa analizatzeko.

Paratestuak (eta, hortaz, hitzaurreak) definitzen dituzten ezaugarriak dira testuon kokapena, denbora, historia, forma, igoera, hartzailea, funtzioa eta landutako gaiak. Ezaugarri araberak sailkatzen dira hitzaurreak (Genette, 1987).

Aletu ditzagun, bada, Genettek emandako argibideei jarraikiz (lantzean beste aditu batzuek esandakoak gehituta).

Kokapenari dagokionez, hitzaurreak eta hitzatzeak ezberdintzen ditugu (Genette, 1987). Ouvry-Vialen (2004: 17-18) esanetan, hitzaurrearen eta hitzatzearen kasuan posizioak berak garrantzia du, irakurketa-protokolo bat ezartzen baita: hitzaurrearen aldean, hitzatzea apalagoa da, bere egitekoa azalpenezkoa da, justifikaziozkoa. Hitzaurrearen egitekoa, ostera, "hautu anuntziatua" egitea da, testua irakurri aurretik bertatik irakurleari "zirrara eragitea". Hitzatzearen asmoa, ostera, irakurlearen plazer-unea luzatzea da, hasieratik behar ez ziren datuak ematen ditu, testua aberasten dutenak. Hitzatzeak ez du testurako sarbidean parterik hartzen; fitxategi erantsi bat da.

Bestalde, hitzaurrea (eta hitzatzea) artxibo bat ere bada, glosa bat, elkarriketa bat irakurlearekin; hitzaurrea egitea testua sailkatzea da, testuari memoria kritikoa atxikitzea. Hala, testu baten harreraren jarraipena ere egin daiteke bere hitzaurreen eboluzioari begiratuta. Hitzaurre batzuk berargitaratu egiten dira, zuzendu, osatu, itzuli, bildumetan jaso... Beste batzuk, ostera, behin baino ez dira argitaratzen (argitaratu gabeak ere izango

³ *Lapurdum* 4, 1999.

⁴ Euskaltzaindiak eta EHUK argitaratua: IKER 28, 2002.

dira), eta desagertu egiten dira gero. Bere ibilbidea egiten du, beraz, hitzaurreak, lantzean literatur testua bera baino sona handiagoa lortzeraino.

Hitzaurrearen argitalpen-uneari begiratuta, literatur testuaren agerpenaren aurretikoa, aldi berekoa edo ostekoa izan daiteke; formari erreparatuz gero, nabarmentzekoa da oro har prosa ez-lirikoan idazten dela hitzaurrea; hala ere, azken hori ez da baitezpadako ezaugarria (Genette, 1987).

Hitzaurregilearen arabera ere sailka daitezke hitzaurreak: hala, autorialak (sinatutakoak dira, testuaren egilea da hitzaurregilea), aktorialak (akzioaren pertsonaietako bat da hitzaurregilea), alografoak (hirugarren bat da hitzaurregilea) edo apokrifikoak (sinadurarik gabeak, kasu batzuetan anonimoak) izan daitezke. Hitzaurrea izengoitiz sinatuta ere egon daiteke; azken kasu horretan inplizituki autoriala dela esaten da. Hitzaurrea semi-autoriala dela esaten da testuak bi egile dituenean (*idem*).

Hitzaurregilearen sona edo «itzala» garrantzitsua izaten da hitzaurrearen beraren harreran zein literatur testuaren harreran (*ibidem*). Izan ere, hitzaurregilea «irakurle aukeratua» da, «irakurle gaitua» (Ouvry-Vial, 2004: 16).

Hitzaurrearen hartzailea literatur testuaren irakurlea izaten da (kontuan hartu beharrekoa da irakurlea ez dela publikoaren sinonimo; izan ere, publiko osoarentzat dira azalak eta izenburua, baina ez hitzaurrea). Batzuetan, pertsona jakin batzuei zuzendutako gorazarreak, eskaintzak edo eskerrak ere izan daitezke hitzaurreak (Genette, 1987).

Hitzaurreen funtzioei dagokienez, hona hemen hainbat: informatzea, helburua adieraztea, interpretazioa eskaintzea, irakurleekin egiten den ituna zehaztea, aholkua ematea, eskaintza egitea, aurreko paratestuak zuzentzea, testuaren egiletza ukatzea (egileak egin dezake, esaterako, jolas gisa) edo testuaren egiletza baieztatzea, kasurako. Ouvry-Vialek dioskunez, azpimarratzekoa da hitzaurreen funtzio didaktikoa, testuon helburua izaten baita irakurlearen ikasketa-prozesuan eragitea, irakurgarritasunari bide ematea. Hargatik, halaber, eboluzionatu egiten du hitzaurreak berak, eta, tarteka, hitzaurre berriak idatzi behar izaten dira. Antologietan, esaterako, testuen hautaketarako justifikazioa azaltzea izan daiteke hitzaurrearen xedea (Genette, 1987).

Bestalde, hitzaurrea irakurlearen eta testuaren zein egilearen arteko «bi-tarteko espazio» bat ere bada, idazlearen unibertsorako sarbidea edo portalea. Nolabait, hitzaurreen atzean dagoen mezua hau da: testu honek zailtasun jakin bat du, eta laguntzera dator testu gehigarri hau (Ouvry-Vial, 2004). Hitzaurregai izaten dira lanaren zergatiaren azalpena, garrantzia, berritasuna, tradizioa, batasuna, egiazkotasuna, nolakotasuna, genesisia, publikoaren hautua, izenburuari buruzko oharra, fikziozko kontratuak, irakurtzeko ordena, testuinguruaren adierazleak, intentzioaren deklarazioa, definizio generikoak... (Genette, 1987).

Oso kontuan hartzekoa da hitzaurreak gordetzen (edo agertzen) duen subjektibotasuna; azken finean, aurretik aletutako ezaugarriak testuinguru jakin batean sortzen baitira. Historia, ideologia, edizioa... paratestuan islatzen dira. Eraginen hartzaile dira paratestuak, eta sortzen direneko atmosferaren diskurtsoa ere erantsi egiten da (Payen de la Garanderie, 2004).

Bada, zer jazotzen da itzulpenei egindako hitzaurreen kasuan?

Si préfacier consiste à situer un écrivain et un oeuvre pour le lecteur, comment s'effectue cette contextualisation dans le cas d'un texte venu d'ailleurs, en particulier lorsque ce texte est pour la première fois présenté au public (...)?

(Salado, 2004: 89)

Transferentziatzko hitzaurre edo hitzatze esaten die Danielle Risterucci-Roudnicky-k (2008) itzulpenak laguntzen dituzten hitzaurreei, eta kasu horretan bi ahots daude jokoan: jatorrizkoa eta helmugakoa.

Itzulpenak argitaratzen direnean, zenbaitetan, jatorrizko hitzaurreak gorde egiten dira; beste batzuetan, jatorrizko hori gordetzeaz gainera, beste hitzaurre bat ere gehitzen zaie (bata hitzaurre gisa gera daiteke, eta bestea hitzatze gisa). Garrantzitsua da, beraz, itzulpena, transferentzia, gertatzen denean hitzaurreekin zer gertatzen den aztertzea: ezabatu egiten dira?, aldatu?, gorde?, nola gordetzen dira?, testu berriak sortzen dira? (Risterucci-Roudnicky, 2008). Azterketa horrek hainbat informazio eman dezake testuaren eta irakurlearen beraren eboluzioaz, bai eta literatur sistema jakin bateko itzulpengintzaren egoeraz ere. Halaber, ikergai dira ondokoak: nori

zuzentzen zaio hitzaurrea, jatorrizko hizkuntza edo kulturako irakurleari ala helburu-hizkuntzako eta -kulturako irakurleari? Edo irakurle orori?

Risterucci-Roudnicky ikertzailearen lanen arabera, honako hauek dira transferentziatzko hitzaurreak sailkatzeko irizpideak: a) hitzaurregileak itzulitako obrarekin duen hizkuntzazko eta kulturazko lotura eta irakurleek hizkuntza eta kultura horrekin duten lotura; b) hitzaurregilea: egilea, itzultzailea, kritikaria den (batzuetan hiruren hitzaurreak ageri dira bolumen berean); eta c) itzulpen batean edo berritzulpen batean agertzen den hitzaurrearen data (itzulpenen historizitateari buruzkoak jakinarazteko balio du, besteak beste). Honela sailkatzen ditu transferentziatzko hitzaurreak aipatutako ikertzaileak (Risterucci-Roudnicky, 2008: 49):

- Hitzaurre autorialak
 - Jatorrizko herrialdekoak, hartzailearentzat eginak.
 - Atzerrikoak, hartzailearentzat eginak.
 - Hartzailearen herrialdekoak, hartzailearentzat eginak.
- Hitzaurre alografoak
 - Hartzailearen herrialdekoak, hartzailearentzat eginak.
 - Atzerrikoak, hartzailearentzat eginak.
- Itzultzaileen hitzaurreak
 - Itzultzaileak edo itzultzaile-taldeak eginak.
 - Berritzultzaileak edo berritzultzaile-taldeak eginak.

Risterucci-Roudnickyk zehazten duenez, ez da ohikoa izaten autore batek bere sistemaz kanpoko publikoarentzat hitzaurreak idaztea, eta hala denean alderdi hori nabarmentzea komeni izaten da. Zenbaitetan, autore jakinen hitzaurreak paratzen dira beste autore batzuen itzulpenean (sistema berekoak zein beste sistema batekoak), harrera hobea izan dadin, inportazioa erraztea xede hartuta. Itzulitako literaturaren corpusean hitzaurre alografoek osatzen dute corpus handiena (Risterucci-Roudnicky, 2008).

Bada, batez ere nabarmen daitekeena hauxe da: itzulpenaren historia eta hari buruzko gogoeta historikoa egiteko piezak direla hitzaurreak, hainbat gairen inguruan argi egin dezaketanak: joerak, itzulpenen zahartzea, aurre-

ko itzulpenen kritika, izenburu-aldaketak, itzulezintasuna, testuarekiko negoziazioak, hautuak... (*idem*).

Honela azaltzen du Sanconiek (2007):

La question est de savoir si l'espace péritextuel est aussi le seuil de la traduction ou son extension naturelle. Car ces commentaires servent la littérature tout autant que la traduction elle-même. Préfaces et postfaces ont un rôle éditorial manifeste dans les conditions de réception du livre, et lorsqu'elles sont le fait des traducteurs de l'ouvrage, elles soulignent alors le rôle de la traduction comme outil de connaissance du fait étranger ainsi que l'appropriation (certes momentanée... et dûment encadrée) du texte par le traducteur. Elles soulignent en même temps les limites de l'opération de traduction –puisque le traducteur a éprouvé la nécessité de commenter-, et sans doute aussi l'impossibilité pour un traducteur de ne pas faire de commentaire s'il veut s'affirmer à son tour comme lecteur et/ou comme auteur, le péritexte devenant alors le lieu de résolution de la tension entre le texte et son traducteur.

(Sanconie, 2007: 174)

***Literatura Unibertsala* bildumako hitzaurreak sare sozialetan aipagai**

31 eskutik blogean «Itzultzaileak gaindimentsionatuta? (salaketa bat edo bi)» izenburupean Angel Errok idatzitakoak dira azpikook:

Urtetan galdetu diot neure buruari *Literatura Unibertsala* saileko liburuei zergatik ez dien obra bakoitzean aditu batek idazten. Ez nuke kasu bakar batean zentratu nahi (gainbegiratu ditudan eta jatorrizkoan lehenagotik eta ia buruz ezagutzen nituen pasarteetan behintzat, nire ustez, onik atera baita itzultzailea), baina kezka hau berritu dit *Literatura Unibertsale*koetatik eskuratu dudana azken aleak, Pedro Calderón de la Barcaren *Bizitza amets-ek*, Xabier Payák euskaratuak. Itzultzaileak hitzaurrea ere idatzi dio, Calderónen lana argitu eta hurbilduko lukeen aurkezpenean baino itzulpenaren irizpideetan luzaturik.

Sail horren eredutzat nahiko nukeen *Cátedra* argitaletxeko *Letras Universales* sailean itzultzailea eta sarreragilea maiz bereizten dituzte.

(...) Ez dut esan nahi itzultzailearen hitzaurre horiek interesgarriak ez direnik. Juan Garziaren Shakespeareren *Soneto hautatuak* itzulpenaren aitzinsolasa ere nabarmen, eta are arrandiaz, makurtzen da Shakespeare eta (bere) sonetoak euskarara ekartzeko auziaren aldera, eta oso gogokoa dut testua.

Hobe genuke, dena den, bi eginkizunak pertsona ezberdinen esku uztea, gutxi direlako bai itzulpenari bai hitzaurre (eta aparatu kritiko) egoki bati behar bezala kara emateko gauza⁵.

Erantzunetan honako hau ageri da:

Iñigo Roque (@Idazkola), 2013/03/12 at 09:57

Ez zara bakarria izan, Angel. Hitzaurreokin antzeko kezka izan dut nik beti, ez ote zen egokiago aditu bati sarrerako hitz batzuk eskatzea edo beste edizio baten hitzaurrea euskaratzea.

Calderónen kasuan, ordea, guztiz pertinentea iruditzen zait itzulpenari berari buruz jardutea, zeren, jatorrizko hizkuntza gaztelania izanik, askorentzat oraindik burugabea baita halako lanei ekitea, horiek estilo-ariketa hutsak balira bezala.

Beraz, zenbaitetan jakingarri gerta dakizkioke irakurle arruntari itzulpenaren barruko gogoetok, eta baita pizgarri ere liburua erosteko⁶.

Aurreko artikuluaaren harira, Twitter sarean argitaratu zuen Beñat Sarasolak ondoko txioa: «Nire ustez *Literatura Unibertsala* sailaren ahulguneetako bat dira hitzaurreak». Dagoeneko dagokigun lan honetan ari ginelarik, txiolariak xaxatu nahi izan genituen, bazka bila edo: «Zergatik hitzaurreak ahulgune? Hitzaurreei buruzko berbaldia prestatzen ari naiz eta sakon azter dezagun...» bota genuen. Angel Errok erantzuna: «Hitzaurreok eta artikuluan aipatzen dudán Cátedrako edozein hartu eta begien bistakoa ahulezia

⁵ <http://31eskutik.com/2013/03/12/itzultzaileak-gaundimentsionatuta-salaketa-bat-edo-bi/>.

⁶ *Ibidem*.

non dagoen». Iñigo Roque Eguzkitzak arrapostu egin zion: «Et, et, et. Cátedrakoak edizio kritikoak dira, eta LUkoak ez. Aldea nabarmena da». Aski ez eta berriz ekin genion: «Hitzaurrea itzultzaileak idazten du LU bilduman. Horretaz ari zarete? Esango didazue». Beñat Sarasolak erantzun zidan: «Niretzat arazoa ez da itzultzailea izan edo ez. Oso irregularrak direla, ez dute kriterio finkorik, eta abar»⁷.

Usteak uste, iritziak iritzi eta esanak esan, literatur itzulpenaren inguruko solasaldietan hitzaurreak aipatzeak gaiaren inguruko interesa uzten du agerian. Halaber, gaiaren inguruko hainbat auzi bistartzeko balio du: hitzaurrea behar ote dute itzulitako literatur obrek?, itzultzaileak idatzi behar ote ditu hitzaurreok?, beste inork idatzi behar ote ditu? nork?, zer helbururekin? LU bildumarekin alderatuta, oso bestelako jokabidea ageri da, esaterako, *Klasikoak* bildumako hitzaurreetan⁸.

Edonola ere, LU bildumako aleen hitzaurreen azterketa sistematikoa beharrezkoa da bere nolakotasunez jabetzeko. Bada, ikus dezagun nolakoak diren aipagai ditugun hitzaurreak.

LU bildumako hitzaurreak, azterketa deskribatzaile bat

LU bilduma auzo-hizkuntzetan sortu eta euskarara itzulitako literatura-lanez osaturiko liburu-bilduma da. Liburuok 1989az geroztik argitaratzen dira, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin egindako hitzarmenari esker. Itzultzaileak eta argitaletxeak lehiaketa bidez aukeratzen dira⁹. Lehen aroan (1990-2002) 100 liburu itzuli ziren, eta *Ibaizabal* argitaletxeak kaleratu zituen liburuak. Bigarren aroan (2002-2010), berriz, beste 52 liburu kaleratu zituzten *Elkar* eta *Alberdania* etxeek, lankidetzan. 2011. urtean abiarazitakoa da

⁷ 2013ko martxoaren 12koak dira txioak, honako hauek argitaratuak: @angelerro, @bsarasola, @Idazkola eta @mibarluz.

⁸ Webgune honetan daude ikusgai: <http://www.ehu.es/ehg/klasikoak/>.

⁹ Ikus informazio gehigarria EIZIEren webgunean: http://www.eizie.org/Argitalpenak/Literatura_Unibertsala.

bildumaren hirugarren aroa: *Alberdania*, *Erein* eta *Igela* argialetxeek bat eginik aurkeztutako proiektuari esleitu zitzaion datozen urteotan beste 50 liburu argitaratzeko ardura.

Bada, lan honetarako LU bildumako lehen bi aroetako hitzaurreak aztertu ditugu (152 ale orotara). Bildumako aleetatik bertatik erauzi ditugu 109 hitzaurre, eta, eskura ez genituela eta, Armiarma proiektura («e-book» zein «Euskarara ekarriak» ataletara)¹⁰ jo dugu 43 aleren kasuan.

